

FRANCO HIL ZUTEN EGUNAK

KOLDO IZAGIRRE

KOLDO IZAGIRRE

FRANCO HIL ZUTEN EGUNAK

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.

Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

http://susa-literatura.com/ebook

© 2016 Koldo Izagirre
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2016ko azaroa
Edizio hau: 2016ko azaroa

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Ipuinotan kontatzen dena
historia txipia esan ohi zaiona da,
herritarrek egunerokoan osatzen duten hori.
Bistan da beraz jende eta gertakari errealetan
oinarritu naizela idazteko.
Nik literatura besterik ez diet erantsi,
haiek bizi izandakoak balio sinbolikoa har dezan.
Honenbestez, itzaletik argira
egin nahi duen jendeari eskainitako omenaldia
izan nahi luke liburu honek.

Hondartza

Kaskagorrik ilea luze utzia zeukan, zainetakoak mihia lotzen zion neskaren batekin begiz begi hitz egin beharra egokituz gero, liburu guztiak ikuskatzen zizkion arrebari eta Camel pakete bat zeraman beti aldean tristura krisiren batek itotzen zuenerako. Baina bere lagunik onenak, Patxik, gauza ilun mordoa zekien eta aleka zituen agertzen zaku ipurtandi hartakoak. Futbolean posturik apartekoena zeukan gainera, gailendu aire batekin esaten zion sarezaina taldean zeukan egitekoari. Irratian ikasitako hitza futbolari argentinarrei, baziren batzuk Espainiako ligan. Umetarik antz ematen zitzaion bokazioa, nahitarat botzen zuen maiz baloia putzura, mendi artean dagoen portu hau putzua da guretzat, eta gero bere burua botzen zuen arropa brastako batean kenduta, horrelakoa zen, waterpoloko jokalariek bezain artoski ekartzeko eta putzutik bertatik jaurtitzeko eskuin besoko palanka indartsuarekin moila gainera. Fixprayrekin orraztua eta baloia mokorraren kontra eusten zuela ageri zen frontoian markatu berria zuten eskubaloi pistara edo erre-

ka bazterreko zelaitxora, hura sarezain eta besteok aspertu arterainoko penalti jole, gogor gogorrago, zital zitalago. Gozamena zen Patxi lagun izatea, hiru urtean sega pasatu gabeko belarretan izan zementu lakarrenaren gainean izan beti zegoen sakrifikatzeko prest, errateko maneran, bere izterren zangarra jauzi batean frogatzearen truke. Eta opari ederra zen estatua hura hezur eta gihar plongeon eginez luzatzen ikustea, airean flotatzen, edo izurdeen antzera hegatzen, gero basatzan lau bat metro egiteko lerraka.

Orain, hamabosna urte, hamabosna urte ernai zoro gaitz, gorroto txipiak sortuak zeuzkaten biek lagunen artean, Patxik kokotsa tente ageri zuelako arra bete soberako goitasunez, eta Kaskagorrik, alegia deus ez, fitxatzea lortu zuelako: baloia pirrilaka ikusi eta haren atzetik ekiten zion, ez zekien aiduru ernean egoten esferoideak zer egin zezakeen ikusteko, ez zen gauza aurkariaren jokoa aurretiaz asmatzeko edo zenbat aukera zeuzkan kalkulatzeko baloiaren jabe jarraitzearren. Arazoa oinetan zeukala hasten zen pentsatzen zer egin, atunburu alaena, ez zuen inoiz jokoa ikasi, entrenatzaileek ez zuten arbelik, gimnasia zeukaten, huraxe zekiten, eta edozein lasterraldi txalotzen. Pirrilaka doaneraino iristeko gibeletik korrika jo-

atea beste biderik ez zegoela uste zuen. Izerdilari hutsa zen, horrela egiten zuen golen bat noizean behin, aurkarien artean bulkaldika infiltratuz, nolako tratua baloiari, arrastaka eramanez. Berak ere taxu emana zion zer moldetako ostikolaria zen, ohartua zen Patxik, hain adiskide, ez ziola futbolaz hitzik egiten. Donostiako hondartzara joan zen kuadrillatxo bat, fitxatzeko proba antolatua zeukan Real Sociedadek, probintziako klub nagusiak. Fitxatzea, futbolaren hitz mitikoetarik bat. Patxi eta biak hartu zituzten. Zergatik hartu zuten Kaskagorri eta ez zatiaz hobeak ziren probara joandako beste lau edo bost herritar, ezin asmatuzkoa izan da beti guztiontzat. Larruzko baloia, bustian bi kilo irabaziagatik, aise harrotzen zuelako kornerretik? Ona zela komentatu zion norbaitek aitari, jendeak ez du futbolaz ezertxo konprenitzen. Aitak pilota zuen gogoko, gaztetan partida batzuk jokatu zituela zuriz jantzita esan izan zuen. Jakin behintzat bazekien zer edo zer, herriko festetan antolatzen zuten txapelketan ez zuen partidarik huts egiten eta komentario zuhurrak ateratzen zituen gero, afalorduan, kantxan ikusitakoaz. Semea futbolari zetorrela aipatzen ziotenean pilotan baino diru gehiago irabaziko zuela izaten zen haren komentarioa. Orain, aitak zioen mo-

duan hemen ez baitago honezkero umerik, laneko istripuren bat edo horrelako albiste tamalgarriren bat ez baldin bazuen, semearen nota txarrek baino ardurago hartzen zuen politikak otorduetako solasa Kaskagorrirenean. Ez zegoen beste konturik mahaian, aita-alabak liskarrean aitak berak hasitako komentario mingarriren bat sorburu, beti berdin amaitzeko. Zuk asko dakizu baina nik aspaldi kentzen dut bizarra goraka, zuek gerra nahi duzue gerra zer den ez dakizuelako, nik bai. Zapia lepotik kendu, mahai gainean utzi eta altxatu egiten zen, eta orduan amaren txanda hirurekin haserretzeko. Kaskagorrik adi entzuten zituen arrebaren iritziak, Patxik adi entzuten zizkion hari ikasitakoen errepikak.

Nire aita Uruguain jaioa da, esan zion behin entrenamendura zihoazela trolebusean, Argentinako bandera zeukan zamaontzi baten paretik pasatzerakoan.

Nire aitak sudurra hautsi zion apaiz bati, sekretu handiagoa zen hura eta Kaskagorrik isilarazi egin zuen sarezaina.

Letra zuritan Real Sociedad zioen larruzko giderreko kirol poltsa urdin bana erabili ahal izateko berezkuna zeukaten. Lotsatu egiten zen hura erabiltzen, Patxi

ez bezala. Hark bazuen nabarmen eramateko estakururik, onena zen, hondartzako onena.

Egia al da zure aitak sudurra apurtu ziola apaiz bati?

Bai, nire arrebak zer edo zer kontatu zion amari, eta amak aitari. Ikastetxekoek antolatu zuten erretiro batean gertatu zitzaion. Eta zuk nola dakizu? Arrebak kontatu zidalako. Erretirokoa? Konta nazak hori! Ez, motel! Apaiz harengana joan zela eta sudurra hautsi ziola kontatu zidan, muturreko bat jota hautsi ziola!

Belarriak tapatzen zituen, aitak, kopetaraino errerik, arrebari botzen zizkionak ez jakiteagatik. Nazka eginda naukazue!, eta alde egin zuen mahaitik platerekoa utzita, behin egin zuen, aitak berak ohi zuenaren antzera alabak arrazoi batzuk ematen hasten zeneko. Gero arreba etorri zitzaion, ohearen ertzean jesarri zen isilik, eta aitak apaiz bati sudurra apurtu ziola kontatu zion, sudurra apurtu ziola bere partetik apaiz zikin bati. Kalean ezer esaten bazioten, jakin zezala egia zela, eta zergatik. Aita gizon ona zela politikan arras gibeldua zen arren. Eta malkoa etorri zitzaion begietara. Aitak bazekiela seme-alabak defenditzen. Kaskagorri ez zen ausartu deus galdetzen, arrebari zer zikinkeria mota egin ote zion apaizak idurikatu ezi-

nean egon zen luzaz itzarririk, geldi, behakoa ilunpearen mamian.

Zure arrebaren limoiak probatu nahi izanen zituen apez hark!, irri ergelik erantsi gabe, Patxik. Irakurtzen zihoan neska batek burua jaso eta beha geratu zitzaien, tinko, luze, errateko maneran aita sumindu baten muturrekoarena emanen zien hitzaren bila. Euskalduna fortunatu, halakorik. Patxik bulka egin zuen, mugitzeko atzeko aldera, han bazutela lekua. Areago lotsatu zen Kaskagorri. Guztiz bestelakoa zen Patxi, irtena, zakarra, aparte batekoa. Kapitain izendatu zuten berehala Real Sociedaden. Euskaraz egin zion entrenatzaileari lehen egunetik, nola edo hala ulertzen zion gizonak, ez beti, eta miresmen ikaratu gisako bat hartu zion mutilari. Horregatik fitxatu zuten ausaz beti ondoan zeukan Kaskagorri ergela, harekikoa egin ahal izateko, Patxik ez baitzion taldean inori erdaraz egiten, arbitroei ere ez, gazte samarrak ziren eta burutik zeuzkan. Aingira zen. Etorkizuna ikusi zioten.

Nahi nuke ikusi, nahi nuke ikusi, esan zion belarrira makurtuz, zure arreba dutxatzen, zuk egiten duzun bezala. Kaskagorrik, errefera gisa, oina zanpatu zion orpoarekin. Gandu batean etorri zitzaion, kezkatzekoa, umetxoa zen aldiko iduri bat. Amarekin, ama eta

beste emakume bat oihal artean. Berarekin eramana josten zuten etxera. Gonaz jakaz oihalez aldizkariz betea zegoen gela hartan sartu ziren, aldizkari bat ipini zioten esku artean ez hausteko aginduz eta hura ikuskatzen eduki zuten beraiek etxean zeukatenaren berdina zen Alfa beltz dirdiratsuaren ondoan, amak eta jostunak zerabilten jardunetik guztiz urrundua. Aldizkaria ikusten gogaiturik burua jaso baitzuen, ama zuen ikusi beso has, kolko has, azpiko urdin mehean oztarik sartua zuen ikusi, irri gazte bat ezpainetan armairuko ispiluaren aurrean, eta haren bularren mardula zuen ikusi orpora askatua zeukan soinekoa jasotzeko makurtu zelarik. Ez zeukan oroit ikustate hark zirrararik edo ikararik edo bestelako sentimenik hazi zionetz orduan, arranguratu egin zen nola zitekeen halako gertatua etortzea akordura hamar edo hamahiru urteren buruan. Ispiluko hura ez zela inoiz gertatu pentsatu zuen. Eta areagotu egin zitzaion ezin konprenitua.

Patxi eta Kaskagorrirekin batera jaitsi baitzen Plaza Gipuzkoako azken geltokian, behako hartan Urdetxo lizunok apaiz galantak eginen zarete adierazi zien neskari segitzeko proposamena egin zion Patxik serioski eta hondartza aldera joz. Moja izateko ikasten

ariko zela argitu zion bidean. Ba ote zeukan mojek komentuetan egiten zituztenen berri. Trenkak josten zituztela Kaskagorrik xalo, eta Bai, horixe egiten dute, barre txipian Patxik. Lehenak iritsi ziren entrenamendura, arkupeetan aldatzen ari zirela batu zitzaien entrenatzailea, Atsaldeon alai batekin. Eta Patxik kasu mikorik ez, flexioak egiten hasi zen, eta flexioetan espantuzko hasperenak botzen zituela Mister, bota zuen, inork ez zion Mister esaten, Heldu den igandean ezin dugu etorri. Nola ezin duzuela etorri, zer da hori? Ezin duzuela? Erdaraz, Kaskagorriri beha. Maiatzaren Lehena da, greba egin behar dugu. Zer ari zait hau, ondo ulertu al dut? Kaskagorrik jauzi egin zuen hondartzara, platerekoa bertan utzita.

Amak esnatu zuen, zain zeukala laguna, zer egiten zuen ohean oraindik.

Aita komuna okupatzen ordu erdirako, bizarra goraka egiten.

Makarrak kenduz jaitsi zituen eskailerak, Patxi ezkaratzean, poltsa bizkarka, publizitate gizona. Ez al zion abisatu ba entrenatzaileari ezin zutela joan, igandea ez zela igande, Maiatzaren Lehena zela? Azaltzen ez bagara suplente jarriko gaituzte, Donostiako txatxu horiek denak gure inbidiatan daude, ez al zara kontu-

ratu? Jubeniletako entrenatzailea etorriko da eta gu ikusiak gauzkala erranen dio eta beste batzuk paratzeko erranen dio, ikusi nahi dituela. Jende guti kalean, mezetara zihoazen batzuk. Patxi eta biak beren poltsa susmagarriekin. Aberri Eguna edo Errepublika Eguna edo Maiatzaren Lehena, haiek partida zeukaten Kontxan. Hamabosna urte, aurrera gazi gordin gogor! Real Sociedad, erne guri! Ea barru hartan zer. Futbolariak gara! Ezin zutela Donostiara. Kremailera ireki, Nola ezetz? Partida daukagu! Ezin dugu huts egin! Alferrik. Errealaren aurka txapelokerrak. Diktadura batean gaude, konturatu zara, ezta?, egin zion eraso Kaskagorrik Iurrera beha, tren geltokirako bidean.

Diktadura batean gaude, gure gurasoek gerra galdu zutelako.

Eskaileretan beheiti zetorren jendea, atzera bidalitakoa zen, ez omen zioten inori uzten. Nora zoazte? Bi emakumezkorekin Don Serapio. Poliziak daramatzate bagoietan batetik bestera. Jaistera derrigortu zituen, Kaskagorri bizkarretik helduta. Praka luzetan zabiltzate orain eta ez zaudete apaizak sufritzeko, hori badakit. Horrelakoa da bizitza. Aizue, datorren igande arratsaldean, lauretan, bizikleta lapurtzen dioten gizon baten abenturak botako ditut. Ba al duzue bizikleta-

rik? Guk lapurtu egiten ditugu bizikletak, bota zuen Patxik. Don Serapiok jaramonik ez, Oso pelikula ona da. Kritika sozial bat, Italian egina. Etorri zaitezte, ez zaizue damutuko. Hamalau urtetik gorakoentzat dela ipiniko dut elizako atarian, jendea etorriko da. Neskak ere bai! Eta hurrengo igandea arte despeditu zituen beste espaloitik beha zeuden katekista itxurako andrazko haiengana egiteko beti bezain zut Don Serapiok, kalean sotana soinean inork sekula ikusi ez zuen apaiz berezi hark.

Niri Liz Taylor gustatzen zait, aitortu zuen Patxik, zuri ez?

Taxian joan zitezkeela bururatu zitzaien. Iturendarra zegoen paradan, tabako kontrabandoan ibiltzen zen, huraxe egokiena traturako. Hurrengo egunean pagatzekotz eramanen ote zituen, oraintxe dirurik ez, trolebuserako bertzerik. Partida daukagu eta ezin dugu huts egin. Ospitalera lau lagun eramatekoa zela bisitan, eta ospitalean espetu behar ziela gero.

Donostiara joateko asmoa baduzue abiatzen ahal zarete mendiz, bertzenaz...!

Ez zuen euritara joko, Altzara noratu ziren txapel fabrikaren ondotik Berrara, Berratik Errotetara, extremeñoen auzora, taberna bat zabalik, garagardoa es-

katu zuen Patxik Kaskagorri komunera zihoala, errateko maneran galtzak zintzilik. Ogitarteko lehor bana irentsi zuten. Dirua akitu zitzaien, baina harakoa oinez eta honakoa hanka gainean, esplikatu zion Patxik. Arriaga Zaharreko muinoaren hegalean gelditu ziren unetxo batean. Ikatz metak, txatarra puskailak, hamaikak hamar guti, baietz, Patxik aitari ikasita esaten zuen bezala laneko hasmentak eta akabantzak tutuka ematen zituen dorretxoan hamar guti, bigarren xaiaren teilatua Tolosako eta Errenteriako paperoletarako pasta fardoz betea. Ikusten, ez dago inor ordu estrak egiten, nire aita bakarrik. Guarda bat bizikletan, zer ote dabil? Nire aita da, berretsi zuen Patxik, kontrabandoa antolatzen ari da, gauean ez du etxean lo eginen. Beti kankailu horrekin ibiltzen zara, portuko guarden buruaren semearekin, amak, ohetik jauzi batean jaiki eta tarrapataka janzten ari zela. Gure atezaina da, herriko bakarrak gara Errealean. Aurreko batean, afaltzen ari zirela, Patxiren amaren kontu bat ahomentatu zuen amak, harategiko zerbait gauzen garestiaz. Bere aita Uruguain jaio zela esan zidan Patxik, jakinarazi zuen Kaskagorrik. Eta aitak, berari beha, Zure lagun horren aita...! Isildu egin zen. Zer, bere aita zer? Ezer ez, ezer ez! Bere aita, Simon Arizkun! egin zuen

aitak hasperen, izena bera aski zen argitu nahi ez zuen larriarena adierazteko.

Nire aitak ez zuen gerra galdu, bota zuen Patxik ahapetik.

Mugimendurik ez kaietan, putzua bare, zamaketaririk arrantzalerik kamioilaririk. Garabi flotantea badiaren erdian, Francoren kaxalota jaso zuena, hogeita hemezortzi tona haiek. San Andres atoiontzia buietan lotua. Bagoi ilara luze bat, hutsik, aduanaren eraikinaren parean. Telefono konpainiaren dorretxoa errepide gainean, txapelokerrak han ere. Fenwickak bata bestearen ondoren, Coles garabi autonomoak. Eta kinkirik ez, dena hila.

Pistola bat dauka etxean, ez dakidala uste du.

Beste aldean, Ulia mendiaren orpoko kaian, armadoreek marinelentzat eginiko etxe erreskada, panoramika luze bat, Trintxer-Aurre, Trintxer-Pe, Trintxer-Alde, okre urdin berde hori, eta gainean Francisco Franco arrantzale pobladoaren teilatuak, neska izukaitzak, lotsaz goitikoak, erakargarriak, durduzagarriak, pobladokoak.

Egunen batean belaontzian sartuko naiz portu honetan.

Nondik etorri behar duzu ba?

Ez dakit, oraindik ez dut erabaki, aunitz aukera dago. Afrikatik, seguruenik. Liz Taylor baino gehiago gustatzen zaizkit beltzak.

Baloiarekin hasi baino lehenagoko beroketen erritmoan ekin zioten Herrera aldera. Geltokian txapelokerrak erretzen, fusilak bizkarrean kaparen gainetik. Ez zituzten ikusi, trenbideren azpitik pasatu eta elizarantz jarraitu zuten, handik tranbia abandonatuaren karrilen ondoko bidezidorrari lotu ziren Ategorrietara oinez bizi samar. Garaiz azaltzea komeni zaigu, badakizu suplente uzten baldin bazaituzte behin, suplente utziko zaituztela hurrengoetan. Ategorrietan ezin izan zuten atzera egin, buruz buru azaldu zitzaizkien aterpetik. Haiengana ezinbestez. Hi lasai Patxiren gomendioa, Lasai eta ez atzendu egun igandea dela eta itsasbehera dela orain eta bigarren goazela eta liderraren aurka daukagula eta ezin dugula huts egin titularrak garelako. Beste hitzik gabe egin zuten haienganainokoa, batzuek erdi barrez eta kaboak sobera zurrun, antzerkiz, ustedeska hartu zituzten, aspertuak edo. Nondik zer nora zertara, kamisetak galtzak toailak galtzerdiak orkatilakoak, jertsea belaunetakoak eskularruak eta Sloan linimentua eta Fixpray potoa eta orrazia gainera Patxirenean. Etxera itzultzeko etorriak

ziren bidetik. Izan ere partida garrantzitsu bat daukagu hasi zen Kaskagorri, eta eskua ahoan ipini izan balio bezain nabarmen tapatu zuen Patxik, gezurra esan zien, gezurra esan zien eta dardaraka zimurtu zen Kaskagorriren sabela, Pasaian kontrolatu zituztela, Herreran berriro zabaldu zituztela poltsak eta bietan utzi zietela aurrera segitzen, segitzeko zuzen hondartzaraino Avenida de Españan barrena zuzen, ez beste inondik hiri barruan. Beha geratu zitzaion kaboa, begi odoltsu haiek eta bibote mehe hura haren karikatura, Viva España Arriba Franco oihukatzeko aginduko ziela uste izan zuen Kaskagorrik eta halakorik egin behar izan baino nahiago izan zuen inork eskatu ez zion karneta erakutsi ikaran zeuzkan atzamarren puntan. Begi-biboteen azpitik esku bat hurreratu zen, Real Federacion Guipuzcoana de Futbol, argazkia zigilua izena abizena kluba kategoria, hari beha hitzak letraka irakurriko balitu moduan Patxi sarezainak sakela guztiak haztatzen zituela, zazpi kukusoren laztana, Beste galtzetan utzi dut nirea, amaren errua da, ez dit asteko galtzekin irteten uzten igandeetan, larri, herioan, txapelokerrei banan-banan esplikatu ezinik ama galtzak igande txapelketa titularra. Barre egin zuten denek, fusila erdi arrastaka zeraman gizenkoteak

usaina hartzeko irekia zeukan Sloan botilatxoaren metalezko zipotza harian sartzeko ahaleginean ari zenak ere bai, barre egin zuen, Utzi ezazu, hetsiko dut nik, zaila dago eta hondatzen bada ezin izanen dut kortxoarekin ongi gorde, isuri eginen zait Patxi berriz, eta bibote mehearen gaineko begi biek abandonatu egin zuten Kaskagorriren karneta, irriño erre bat egin zuen kaboak, bibotearen bikoizketa izan zen, Zaindu ondo zuen linimentua, beharko duzue Donostian hartuko duzuen jipoiarekin, zoazte Bulebarrera, zoazte Bulebarrera bai, han bai egonen direla zuek noiz azalduko zain.

Soldadutzan fimosia eginen zigutek.

Nik ez dut soldadutza egiteko asmorik, erantzun zion Kaskagorrik.

Hamabosna urte, hamabosna urte gazi gordin gogor, Pepe Beltzarenera joaten ginen garagardo zitroindu porroi batzuk iraultzera, izerditutakoan. Patxik kopetara botzen zuen zurrusta, ixten zituen begiak eta likidoak sudur alboetan beheiti egiten zuen bide kokotsa luzatuak eskaintzen zion zirrituraino, ezpain ertzetarik ahoratuz. Gauza trauskil mordoa zekien, zaku ipurtandi bat zeukan halakoz betea. Tabernariak bazituen egun gogoangarriak, errateko maneran.

Gazte jende apur bat biltzen gineneko, sarrerako pertsiana jaitsi eta hantxe denok preso. Mutilak, badakizue heldu den igandea maiatzaren lehenarekin egokitzen dela, ekin zigun harako hartan. Maiatzaren lehena Lanaren Festa zela ikasi genuen eskolan, baina denok genekien ez zela lanarena, langileena baizik, eta egun horretan borroka antikapitalista eginen zutela mundu kapitalista osoan kapitalismoak zapaltzen zituen langileek. Horrelakoak ziren unomayoak aspaldi, jende aldra bat lotzen zuten preso egun horretan, eta ondokoetan. Egun hori aukeratu omen zuten munduko langileek beren eskubideak aldarrikatzeko eta bizimodua hobetzeko. Bi aste lehenago, apirilaren hamalaua Errepublikaren Eguna zela gogorarazi zigun. Eta hurrengo igandean taberna hura itxia ikusiko genuela, ez zela vermouthak hartzen ibiltzeko igandea, ez baitzen igandea, Maiatzaren Lehena baizik, Francoren diktadurari buru egiteko eguna, munduko langileak bat izateko eguna kapitalismoaren aurka. Ez ahaztu, gazteok. Borroka egiten ez baduzue, hankapean biziko zarete. Eta sukaldera joanik, disko bat ipini zuen, apal, Les Chants de l’Armée Rouge zioen karpetatik aterata. Kantu eder hura entzuten genuela, Pepe Beltzak itxi egin zituen begiak, ukabila estutu zuen zinkaren gai-

nean. Tabernariak bezala bildu zituen begiak Patxik, errusiera itxuratzen zuten silabak botzen hasi zen letra jarraitu itxuran.

Lauza hexagonal txipiak zapaldu zituzten, hiri setiatuan ari ziren sartzen.

Patxik poltsa bizkarretik kendu eta ezker albora ekarri zuen Real Sociedad salbokondukto hura, Kaskagorrik zeraman moduan. Konboi neutral bat Avenida de Españan barrena nabigatzen.

Nire gurasoen ohe azpia panfletoz betea egoten da askotan, komentatu zuen Kaskagorrik. Arrebak ekartzen ditu, eta amak gordetzen dizkio. Gero laneko lagunak etortzen dira bila, fabriketan banatzeko eramaten dituzte.

Zergatik ez ditu bere ohe azpian gordetzen?

Patxi...! Polizia etortzen bada nire arreba atxilotzera, haren gela miatuko dute! Eta nirea, ez gurasoena!

Semaforo guztiak itzaliak, bi edo hiru Seat 1500, grisak, kale izkinetan geldirik. Taxirik ez Banco Guipuzcoanoren ondoko geltokian. Espaloietan adineko bakan batzuk, emakumezkoak, eraikinen babesean joaki. Ikaratzekoa zen isilaren isila. Auto barruan dauden horiek kalekoz jantzitako mendizerriak dira, argitu zuen Kaskagorrik. Hemen hobe dugu erdaraz, gai-

neratu zuen bere burua zuzenduz. Patxik, hustasun hark sortzen zuen laborria hezurretarik kentzearren, atzo zahar baten sekretua hasi zen erdibanatzen, isilik joatea susmagarria zela sortu zitzaion. Futbol zelaia egiteko Shell Total BP Gulf Mobil bidoi zaharrak erabiltzen zituzten garaiko kontua, etxera sare kirastuen usaina zeramaten urte zoragarri haietan jasana. Oroitzen al haiz Garmendia eta Lozanorekin?, erdaraz egitea komeni zitzaiela ohartu gabetarik. Falangekoak zirela esan zidan arrebak. Eta zergatik ez hidan abisatu? Ez nekien zer zen Falangekoa izatea, hik bai ala? Arratsalde batean Molinaoko zelaira eraman zutela, entrenamendu berezia, penalti mordo bat bota ziotela, bi baloirekin, larruzkoak gainera. Onena haiz oihuka, Onena haiz. Unarazi ninduten pixko bat. Ez egoteko eguzkitan, gerizpera joateko, arnasa lasai hartzeko. Jesarri ziren erreka bazterreko kanaberek ematen zuten itzalean, Albo batean Garmendia neukan eta bertzean Lozano. Hernia aztertu behar ziotela, inportantea omen zen hori futbolari batentzat. Trankil, ez ziotela minik emanen, Eta Lozanok eskua izterrean paratu zidan. Etzan zaitez, erran zidan Garmendiak.

Zuk bazenekien zer zen hernia?

Nola jakinen nian nik hori? Ez nekian deus ere! Gauza zikina zuan hura, beurak urduri zeuden eta elkarri behatzen zioten, trankil errepikatzen zuten, trankil, eta Lozano bere hankartea igurzten hasi zen. Etzan nintzelarik Garmendiaren aurpegia ikusi nian niregana, ostikoa jo nioan kokotsean, alde egin nian ziztu batean, arropa biltzea atzenduta, tira ahala fite, negarrez. Batzuetan aitari kontatzeko gogoa etortzen zitzaidan. Gero, aitzinean neukalarik, ez nintzen ausartzen. Zigorka emanen zidala pentsatzen nuen.

Begira, Patxi!

Hire aitak muturra txikituko ziean zerri haiei.

Hondartza gaineko paseoko erlojuak hamabiak hamar guti markatzen zuen, hamabietan zeukaten partida zazpigarren zelaian. Oraindik ez dira hasi beroketak egiten.

Nire aitak Francorekin egin zian gerra, aitortu zion Patxik damu kutsuan, horregatik zaukak pistola etxean.

Ametsetan zegoen Kaskagorri, ametsetan zegoela erabaki zuen, begiak itxi zituen, estutu zituen, igurtzi zituen betazalak behin, berriz, berriz, eta ostera zabaldutakoan taldekideak beroketak egiten entrenatzailea

beraiei deika Trintxerpeko neska gaziak oihuka ikusiko zituen.

Popatik hartzera nire aita, marmarizan Patxik, bostekoa luzatzen ziola.

Leloturik estutu zion Kaskagorrik, hunkidura erre bat etorri zitzaion urdailetik, despedida zen, zerena despedida, zergatik, inoiz ez zioten eskua eman elkarri.

Bulebar aldera binaka hirunaka zihoazen gizon gazteen artean urrundu zitzaion hondartza osoko sarezain bakarra, plongeon eder bat egiteko segurantza adierazten zuen irrian.

Kaskagorri hondartzako eskaileretara ausartu zen geldiro, baina, errateko maneran, bihotza abante guztije emanda, futbolariak eta entrenatzaileak eta arbitroak eta ikusleak beheko arkupeetan zeuden noski gorderik, tupusteko itsasgora batek harrapatu izan balitu bezala, bera noiz azalduko.

Oihu batzuk, Libertad, Libertad, sirenak, tiroa iduritu zitzaion zerbait.

Inora ezin geratu zen joko marrarik ez zeukan zelai handi hartan, aurkari ikusgaitzez inguratua, bakarrik, arazoa nori pasaturik ez. Beti bezain berandu hasi zen

pentsatzen, kolko has ageri zen hondartza, kolko has, milika unatzen ez ziren olaxtei beha.

Paperak

Martin de Muñagorri nihilista amorratuen buruzagi ikusten zuten afari lagunek. Ez liberal ez karlista, nolabait esatearren, bai bien etsai. Eta erdibiderik ez. Burdinbideak harrotu, zalgurdiak irauli. Su eman. Su eman edozeri. Guztiari. Zaldun zoroen iraultza euskal herri zabar honetan. Zaldirik ez eta txapela janzten zuen. Baroja bat ekintza politiko eske. Astero erakusten zuen sumintasun sakratu hura Arbolape elkarte gastronomikoan. Eta nortasuna galdutako gizarte zabar hura porrokatzeko egokiera etorri zain, gatzaren dina ateratzeko zereginetan saltzen zuen lan indarra. Zer erremedio. Baiezkoa gainekoari. Eskua apurreko jornalera. Baina begia zorrotz zoko denetara, belarria erne zurrumurru denetara. Eta luma, izparringiak apaindu behar zituen berri usteletara luma. Iskilurik ezin eta horixe erabiltzen zuen... Estatuko buruzagia, Franco Generalisimoa, emaztea, Doña Carmen Polo, Gobernazio ministroa, On Tomas Garikano Goñi eta udako sekitoa lagun zituela frontoian azaldu zelarik VI. Munduko Pilota Txapelketaren urratzea egiteko, hiri

honetan beti jasotzen dituen txerazko eta abegizko adierazpenak egin zizkioten sutsu eta ozenkiro harmailak mukuru betetzen zituzten zaletuek, frontoi honetan bertan lekuko izan garen pilotako lehiarik gogorrenetan bezalaxe berotu zen publikoa txalo erauntsi luze batean, zutunik eta kutunik. Harrotzeko modukoa, Francisco Franco gure artean uda oroz edukitzea, eta are harrotzekoagoa hain euskaldunona dugun kirol honi ohore egitea. Ez genuke harritzekoa Generalisimoaren detaile delikatu hau, zeren berak horren zuzen daraman gobernuak atletismo instalakuntza berriak eraiki baitizkigu, zeren Generalisimoak berak aski froga emana baitu zenbateraino maite duen kirola, ehiztari eta arrantzari bikaina dugunez. Ekar dezagun gogora, besterik gabe, iaz Kantaurin harrapatu zuen zeroi handia, Generalisimoaren Azor yatearen eskoltako gure itsas armada loriatsuak daukan fragatarik onenetako batek, Hernan Cortesek, zeinak uda oroz gipuzkoarrok eta hartara berariaz Pasaiako portura egun pasa heldutako nafar ugarik ere bisitatzen ahal baitute umeen eta gaztetxoen pozean eskalak goiti eta beheiti, makina aretoan motorren segurtasun sistemako argiek eta orratzek liluraturik, kanoien zerbitzarien aulkian jesarrita Espainia katolikoaren etsai

amorratuak akabatzen, Hernan Cortesek alegia ekarri zuela zeroia Pasaiako portura, Donibaneko arrantzale trebeek abilezia txundigarrian estekaturik gizaldiz gizaldi egundaino ekarritako jakinduria erakutsiz eta halako ikusgarriaren lekuko izatera bildua zen inguruetako jende samaldak gogotsu txaloturik lehorreratu zuela piztia erraldoia, gure estatuburuaren begi zoliaren eta zain fermuaren froga... Armada beltz hura antolatu arte, direnak eta ez direnak porrokatu arte, dibagazioa eta hiperbolea ziren Muñagorrik bizi zuen errealitate motzaren gaineko mendekuaren iskiluak, hiztegi eta estilo ofiziala barregarria bihurtzeraino puztuz. Demaseko laudorioak aintzaren aintzaz sortzen duen burla kutsua, beti. Agintariak aipatze atertu ezineko hura kroniketan eta albisteetan, beti. Gozamena ziren artikulu haiek gaiztakeria irakurtzen zekitenentzat. Prosa barrokoaren eredu hiriburuko zirkulu literarioetan. Hiriburuko zirkulu literarioak! Poemak errezitatzen zituen pianojolea, emakumezkoa, Turismo Bulegorako esloganak idazten zituen jostuna, gizonezkoa, Sevillako Udalaren Nobela Sarian finalista izandako aduana agente bat, ez gizonezkoa ez emakumezkoa... Hauenak izaten zituen Martin de Muñagorrik zorioneko bizkarrekoak bere lanen bat aipatzen ziotela.

Irri konplizeak, berriz, atxilotu politikoak atenditzen zituzten letradun gehienek eskaintzen zizkioten. Ez denek. Abokatuaren jatorrizko izena da letraduna. Aldian behin, azpilana estilo baten aitzakian babesteko, iskilu berdinak erabiltzen zituen, dibagazioa eta hiperbolea, politika ofizialarekin zer ikusi zuzenik ez zeukaten kontuetan. Auzitegiko kroniketan, adibidez, letradunon lana hitzaren artea bezala ez ezik jarreraren eta keinuen antzezpen zoragarria bezala ere hartzen zuen. Martinez Mendiaren errepikapen aspergarriak baliabide erretorikoa zela idatziko zuen. Galatas Illarramendiren eztulik karkaxena ironiazko abisua zela. Akusatuaren egoera animikoa eskuen mugimenduetan islatzen zela, marinelaren amu ankerrak harrapatutako kaioaren hegalen ahaleginak zirelako. Epailearen lana, berriz, Sisifo batenarekin alderatzen zuen, gaizkileak, tamalez, munduaren mundu tematuko zirelako gaiztakerian. Zigorra arren. Urkamendia arren. Galdetuko zioten zer adierazten zuen munduaren mundu hark, eta berak sasibarre bat egiten zuen ez zekiela erantzuteko. Sorbaldari eragin eta gerrilaria ilunpean aritzen dela, horixe besterik ez zekiela berak. Kopeta behar du.

Ez zeukan asmorik senarrarekin frontoira joateko. Frontoira maiztxo joana zen aitarekin umetan, frontoira zibilizazioa heldu zenean. Zibilizazioak palkoa eta edaritegia ekarri zituen. Bozka emateko eskubidea zeukan analfabeto masa hark ikusteko azaltzen zen aita frontoira, Encarnita panpinatxoa eskutik zekarrela. Errepublika garaia. Beti matxinadaren baten ikaran. Encarnacion Lope de Satrustegik ez zeukan beraz asmorik senarrarekin joateko. Espainia osoko Minbiziaren Aurkako Elkarteen batzarra zeukan. Lehendakariordea zen, eta lehendakaria Carmen Polo, Francisco Franco Generalisimoaren beraren emaztea. Doña Carmen frontoian egongo zen Francorekin. Lehendakariarena betetzeko aukera, bakarra, azken bi urteetan. Batzarrak ofizialtasun bat eskatzen zuen, ulertzekoa zen. Mesedez itzuli biko perla naturaleko lepokoa lotzen laguntzeko eskatu zion senarrari. Bainutik lurrin betegarri hura zekarrela hurbildu zitzaion after shavea ahitzen ari zela esanez. Zezenetara joaten ez bazen ezago leku itxi batera erretzaileen kea irensteko. Emakumezkoen artean egon nahi zuela, ez minbiziaren mikrobioak arnasten errezaleen erdian. Mikrobio haiek akabatzeko egiten ziren ahalegin zientifikoak lagun-

tzearren ari zirela musutruke. Hiriko hotel nagusiaren areto nagusian espero zutela laster. Protokoloaren barruan zegoela denak emaztearekin azaltzea Caudilloaren inguruan gogorarazi zion Arturo Gil de Balmesek, ez zutela lehen aldia, bazekiela. Madrildarra jaiotzez, katalana Gil de Balmestarren ahaidez, poeta ospetsuaren lehengusua. Ezkutatzen saiatzen zen lotsaizun hau. Homosexual nabarmena zuten eta borondate oneko lagunek eta asmo gaiztoko lagunagoek jakinaren gainean jarri zuten gizonezkoen arteko maitegrina, orain erotismoa esaten dioten horren laudamena egiten zuela estalkizunik gabe bere poemetan. Inork ez zekien Poliziak zergatik ez zituen erretiratzen liburu haiek denak. Kezkatua zeukan permisibitate horrek. Pariente galdu hura babesten zuela ibiliko zuten ahoz aho zirkuluetan. Baina Encarnari ez zitzaion egokia iruditzen prentsarekikoa beste inork egitea. Sentitzen zuela, ezin zuela batzarraren lehendakaritza utzi Baronesa de Alcantararen edo lehen ministroaren alaba ergelaren esku. Huts egin zuten Arturoren argudio politiko guztiek, biek egon beharra zeukaten frontoian, pilota gauza ikusgarria zela eta dantza ere egingo zuela talde folkloriko batek. Ministerioak birmoldatzekotan ziren eta Hezkuntza Fisikoaren eta Kirolen Mi-

nisterioa zeukan eskura. Garrantzizkoa zen irudi sendo bat ematea, eta bera aldamenean edukita, hain estilo dotorekoa, hain argazkigarri, bidea errazten ziola. Sendotasuna zen, bai, Lope de Satrustegi guztien ekarri politikoa monarkian handitu, errepublikan sufritu edo diktaduran aspertu. Beti ondo kokatuak negozioak antolatzen ziren lorategietako kokteletan. Alferrik izan zen. Lope de Satrustegi guztien ezpal harroa erakutsi zuen Encarnak. Berak ere bazeukala zer bizia esan zion kapeluak saiatzen zituen komodako ispilutik barre eginez. Ez ziola sekula eskatu minbiziaren aurkako elkartearen ekitaldietara azaltzeko. Ez ziola sekula eskatu itsulapikoa hartu eta kalean barrena banderatxoak paparrean itsasten ibiltzeko mikrobioen aurkako gurutzadan. Hasperen egin zuen Gil de Balmesek ohean eserita diskurtsoaren oharrak bigarrenez irakurtzen zituela. Pentsatua zeukan diskurtsoa bukatuta aulkira zetorrenean, haren aldamenera, Encarnari musu emateko eskatzea. Oso amerikanoa zen hori. Politiko amerikanoek beti zeuzkaten argazkilari eta kameren aurrean musu ematen zieten emazteak. Emazte inteligenteak. Senarraren lana preziatzen zekitenak. Ez zen ausartu horrelakorik proposatzen. Munduko pilota txapelketa zela esan zion. Eta telebis-

ta han egongo zela, eta Frantziako, Estatu Batuetako eta Latinoamerikako prentsa. Aperturako zeremonia bukatutakoan joan zitekeela batzarrera. Txoferrak ziztu batean eramanen zuen hiriaren bazter hartatik zentroraino. Horrela bai. Ideia ona zen. Bietan egon zitekeela aitortu zion Encarnak. Amerikar samarra ari baitzen bilakatzen, musu eman zion. Esker onekoa. Ministro egokia izanen zelako ziurtagiria izan zen, izendapen ofizialaren zigilua... Eleberri merkeko espia, Martin de Muñagorrik ministroen etxeetan, saloietan eta telefonoetan gertatzen zenaren berri zeukan. Nola ez ministro kontseiluetan. Intriga guztien azpiak kontatzen zituen, egia edo alegia, Arbolape elkarte gastronomikoan. Kroniketan erabili ez zezakeen materiala zen hura, tertulietarako piperra. Gonbidapenak jasotzeko ere bai. Zimurra baitzen. Jan-edanak ez ordainduz kobratzen zituen orrietan ageri ezineko albisteok. Kroniketan ordea, ez berak, gainerakoek ikusi zutena puzten zuen. Bera zelako ageriko ez zirenak ikusten zekien bakarra.

Frontoiko atleta gihartsuek pilota harrotzen duten sukar berarekin jotako txaloen oihartzuna isildu zela-

rik hasi zen VI. Munduko Pilota Txapelketan lehiatu behar zuten herrialdeetako ordezkarien desfilea, gure kirolaren garbitasuna irudikatzen duen zuriaz jantzita, taldeek banderadun bana aitzindari, Argentina, Estatu Batuak, Mexiko, Txile, Frantzia, Uruguai eta azkenik Espainia, torneoaren anfitrioia. Banderak hartarako antolaturiko mastalerro eder batean eskegi zituzten gero, Fernando Puigvertek, Espainiako Pilota Federakuntzaren lehendakariak berariaz Bartzelonatik ekarritako Udal Bandak herrialde guztien himno zatiak kadentzia ederrez jotzen zituela. Jakin dugu donostiar prestu zenbaitek ez duela ongi hartu hiriko udal bandak halako zeremonia garrantzitsuan ez jotzea. Esaterik daukagu hiriaren musika tradizio historikoari egindako laidotzat hartu izana oker ulertze baten ondorio izan dela, zeren Donostiako eta Bartzelonako Udal Banden arteko programa hitzartu baten barruan gertatu baita Puigvert jaunak hangoa ekartzea, eta jakin dugu Donostiako alkateak gure hiriko udal banda eramanen duela laster Kontirian egitekoak diren Nazioarteko Jardunaldi Gastronomikoen inaugurazio ekitaldia edertzeko, eta edertuko dute edertuko dutenez, Donostiako musika maisuek daukaten talentu aparta eta errepertorio aberatsa igande eguerdi oroz eskaintzen

duten Bulebarreko kontzertuan dastatu dituen edonork dakienez. Puigvert jaunaren sarrerako eta eskerreko hitzen ondotik, On Arturo Gil de Balmesek, Euskal Pilotaren Nazioarteko Federakuntzako lehendakariak hartu zuen hitza, kirolzale eredugarria eta gizon maitatua gizon maitaturik bada hiri honetan, ama zenaren aldetik zein Encarnacion Lope de Satrustegi emaztearen aldetik ahaide ugari baititu bertan, eta Real Madrid futbol taldeko lehendakariorde gisa harreman bereziak abiatu ditu gainera zezen larruko zelaietako belarrak eta lokatzak leial bezain indartsu zapaltzen dituen Real Sociedad futbol taldearekin kirol aurkatasun jatorraz goiti bi klubetarako onuragarriak izaten ahal diren erabakiak adosteko Espainiako Futbol Federakuntzan. Hitza hartu zuen, beraz, On Arturo Gil de Balmesek, gurean bezala Madrilen estiloz janzten duen txapela kendu eta jakaren ezkerreko sakelan artoski bilduta, ikusle guztiek txalotu zuten herritasun detailea. Generalisimo Ezinobea agurtu zuen lehenik, ekitaldira etorritako agintariak ondoren harmailak gainezka zeuzkaten pilotazale guztiei beha, atentzioa finkatuz, frontoian geundenok bat-banaka agurtzen gintuela adieraziz. Ondoren, pausaldi bat eginik konplimenduzko hitzen hurrena gai garrantzitsua zela uler

genezan, Nazioarteko Euskal Pilota Federakuntzako lehendakariaren ardura pilotak munduan hartu duen hedadura izanen baitzen ezinbestez, eskuan zeukan paperari behatu zion, ez noski haria galdu zuelako, baizik tribuno zailduek egin ohi dituzten seinaleetarik bat antzeztuz hitzaldia ongi hausnartua, paperean landua, buruz ikasia ekarri duela erakusteko eta, egiazki, seinale bikaina izan zen, paperari behatu eta –ez ginateke harrituko hutsik egotea– jakaren barneko sakelan sartu zuen zalantzarik eduki ez genezan ez zuela berriz kontsultatuko, eta egia da amaitzerainokoan buruz ariko zitzaigula zalu eta sakon Gil de Balmes sportman laudagarria Euskal Herriak daukan ezaugarririk bikainetako honek, pilotak, mundu zabalean hartu duen garrantzi egunean baino egunean handiagoaren gainean Demostenes bat bailitzan, ez balu zoritxarreko istripu edo, zehazkiago emanik, ezusteko tamalgarri, gertatu itun, astun, tragiko batek frontoia aztoratu, durduzatu, asaldatu, hizlariak telebista kameren aurrean eskainitako seinale dotore hura hondatuz. Oihu subertsibo batzuk sumatu genituen aurrena sarrera arrunteko ilaretan, etsi, zoro, garratz, errebote aldetik. Hara egin zuten itzuli ziren harritu ziren frontoiko buru guztiek pilota hipotetiko baten traiektoria

jarraituko bailuten, eta gizonezko bat ikusi ahal izan genuen zutik aldarrika une batez, segundo batez, nahiz inork antzekorik sekula gerta zitekeenik eldarnio batean ere begitandu ez genuen, garretan sutu baitzen inguruko ikusleek zarpatik heldu edo Generalisimo Ezinobearen zaintzakoek atxilo zezaten baino lehen, deabruzko agermena izan zen, gorputza sutan ikarazko txorimalo, eta ikara hura frontoi osoa hartu zuen izulaborria bihurtu zen bontzo exaltatu hark bere burua amildu zuelarik kantxaraino zeuzkan hogei metro haietan behera garrasika, kantxa jo zuen, kantxa jo zuenean su meta bat bihurtu zen, immolazio bat zaharkituak eta betirako gaindituak uste genituen ideien alde, eta kantxan erretzen zegoela heiagora lazgarriek urratu gintuzten, zeren suizidaren erorian arropak eta ileak su hartu baitzioten zeremonia apaintzeko dantzatu zain zegoen Goiznabar taldeko neska bati, zeina, oinazetan itsu, lasterka zoroan ikusi genuen harik eta brigada politiko-sozialeko detektibe birekin estropezu egin zuen arte. Orduan, J.P.A. agenteak, ekitaldirako goizean bertan erosia zuen jaka berria aitaren batean erantzirik, bestela segurik erredura larriak pairatuko zituen neska hura salbatu zuen burua eta bizkarra babestuz eta garrak amatatuz.

Bizia salbatu ziola esan genezake, aurpegia desfiguratu gabeko bizia bermatu ziola behintzat eta, ez baitzaigu estatuko segurtasun indarren lan isila bertatik ikusi ahal izateko aukera egun oroz egokitzen, harritu egin gintuen agente bizkorraren odol hotzak eta hazta amultsuak. Nahastaileak, heriotzara egin zuen hogei metroko jauzi honetan lurrera baino lehen, polizia armada baten bizkarra jo zuen, baldarki kolpatuz. Belarri bat galdu duela jakinarazi digute iturri batzuek, bizkarrezurra hautsia duela besteek. Oihuak, gorputza garretan, erorikoa, neska garrasika, izulaborrizko une hura gure zainak airatu zituen zurrunbilo batean luzatu zen, frontoiaren zoko guztiak eta ikusleon bihotz guztiak hartu zituen, sekula beti gogoan izanen ditugun gisan iltzatu zitzaizkigun giza zuzi haren garrak gure barruan, mundupeko indar ilunen atzaparrak bailiran, mezuren mezu.

Immolazioak, beraz, mezu bat zeukan, mezuren mezu delako ilun bat. Iluna eta horrenbestez sekretua. Mundupekoa. Berak bazekien hori. Gaztigu bat, ordua heldua zelako seinalea. Garretan amildu zen gorputz hark zentzu bat zeukan. Zentzu politikoa. Ezin zuen

bestelakoa izan Francoren begi bistan. Eta oihu subertsibo batzuk jaurti zituela jakinarazi zuen Muñagorrik. Berak ematen zituen horrelako detaileak. Euskal Herrian, sua eta Franco ekuazioak Gernika ematen zuen. Gernikako bonbardaketa ez zen amaitu 1937ko apirilaren 26an. Dena kiskali beharreko bonbardaketa izan zen diktadura, eta Gernika bihurtua zen Euskal Herria. Kronika –hau ere kontuan hartzeko datua da– Bartzelonako La Vanguardian azaldu zen. Franco hilik zegoelako albistea izan zen lan hura. Anoetako frontoian hasi zen haren agonia, ustelaren kiratsa nagusitu zen frontoian, karrikan, hirian, Espainia osoan. Arturo Gil de Balmesek uko egin zion ministro izateari. Encarnacion Lope de Satrustegiren aholkua izan zen. Erregimenak urteren batzuk iraungo zuen, eta aldi hori demokrata kristauen artean zeukaten izen ona indartzeko baliagarria zen. Eta Gil de Balmesek tarjeta berriak egin zituen Arturo Txapel izenarekin. Gipuzkoako diputatu ikusten zuen bere burua berandu gabe ailegatuko ziren hauteskundeetan. Muñagorriren gaiztakeriak argi samar uzten zuen bezala, Generalisimo Ezinobearen irudia, ordurako gastatua zegoen epitetoa behin eta berriro idatziz, gezur errepikatuan oinarritzen zen. Brigada politiko-sozialaren lan isila aipatzea, erregi-

menaren euskarria errepresioa zela adierazteko zen. Frontoia hartu zuen izuarena, diktadurak emandako pribilegioak galtzeko arriskuan zeudenenganako alarma zen. Garaigiro horretan, bere burua sutan bota zuenaren ekintza memoria eta etorkizuna zen, Gernika erre zenuten baina zuen erregimena errautsetan da. Martin de Muñagorriren kronika hura Bartzelonan argitaratu izanak, eta ez Madrilen, horixe bera adierazten zuen. Frankismoa ihartua zegoen, Muñagorrik bizi beharra zeukan. Hura ez baitzen bizitzea, bizi beharra baizik. Dena zitzaion zatarra gure hirian. Frankismoak ez zuen etorkizunik. Komunistek kartzela maite zuten. Abertzaleek ez zeukaten estrategiarik. Beren burua erretzen hasiak ziren, ergel haiek. Etorkizuna kaosa zen. Kopeta behar du. Maite zuen lagunak izutzea Arbolapeko mahai hornituan hitz hura, kaosa, aipatuz. Zinismorik kalkulatuenarekin jartzen zen ingi zuriaren aurrean. Estilografikaz idazten omen zuen kafea edanez eta tinta akitu arte, markaren izenik ez dakit, ez estilografikarena ez kafearena. Biharamunean makinaz jotzen zuela. Makinarena ere ez. Buruz, loak antolatu izan balio bezala bezperan idatzitakoa. Eta bezperan hartutako bideak bazterrean utzita gehienetan. Errealitatea egun batetik bestera alda-

tzen ari omen zelako. Kaosak hori ere bazeukala. Horrelakoak Muñagorriren hitzak kasinoan eta Antigua auzoko taberna batzuetan. Halako batez utzi egin zion Klub Nautikoan azaltzeari, ETAk Getxokoan leherkaria ipini baino lehenago hain zuzen. Pena da eskuidatzi haiek denak galdu izana. Argitasuna eman zezaketen gizon berexi hartaz.

Mota guztietako izarrak, mota guztietako angeluak, mota guztietako parabolak, Euklidesek berak amestu ahal izan ez zituen marrazkiak ikusiko genituzke paperera aldatuko bagenitu pilotak egin zituen harat-honatak atzo Anoetako frontoian, pilotarien ahalegin estetiko hark ez zuen lortu ordea publikoaren burutik kentzea ordu erdi lehenago ikusi zuen drama. Bi paretakoak, punpa ahalakoak, besagainak, airekoak, txapa doirik libratutako motelduak, denetarik eskaini ziguten geometriaren jainko aritu ziren Tapia anaiak eta Bergara eta Andueza III.a bikoteek agerraldizko partidan. Alaitasuna eta txalo beroa izan behar zuena isiltasun kezkatsua gertatu zen, harik eta... Bai, jaun-andreok, gure kirol garbiaren ikusgarrienak gozatzeko ustean antolatua zegoen ekitaldiak ukan zuen, ondi-

kotz, publikoaren kezkamendu isila hautsi zuen une larria. Zeren, parabolek, angeluek eta izarrek, geometriarenak izan behar ez luketen norabideak hartuz, Fernando Tapia atzelariaren esku indartsutik Andueza III.aren burura eraman baitzuten pilota. Isiltasuna milaka kristal zorrotzetan apurtu zen, garrasi garratz, pilotariak lur jo zuelarik. Aurrez exaltatu bat bere buruaz beste egiten ikusiak ginen, giza gorputz bat erretzen, oraingoan atleta jator bat ikusten genuen kantxatik tarrapataka ateratzen gerlako balarik ankerrenak zauritua bailitzan. Uda honetako oroikizun nagusiaren lekuko izateko asmoarekin etorriak ginen guztiok tragediaren hegal ikaragarria nabaritu genuen ilun, itun, astun, geure gainean... Joseba Elosegik ekintza historiko hura egin zuenetik bi edo hiru egunetara bulegoan azaldu zitzaidan Martin de Muñagorri, hezur eta mami, euskal nihilisten buruzagia zela edo Arturo Gil de Balmesen idazkaria zela adierazten zuen txapela kaskoan. Joseba erietxean zeukatela oraindik, erredurak sendatzen, hamazazpi egun egin zituen larri. Polizia zeukan gelako atean, baina ezin izan zuten oheari kateatu. Plante gogor bat egin zuten medikuek eta erizainek Poliziak lotu nahi izan zuenean. Galtzarbean zekarren zorroa utzi zidan mahai gainean Muñagorrik.

Ikusteko mesedez. Folio mordoa atera nuen. Ikaratu egin nintzen, egia esan. Josebak gordetzeko eman zidan eskuidatziaren kopia mekanografiatua neukan begi bistan. Liburua makinetara baino lehenagoko proba bezala prestatua, marrez, oharrez eta zuzenketez betea. Zentsura pasatutako idatzi bat ematen zuen. Barre egin zuen nire harridura ikusita. Edo nire ikara ikusita. Marrez eta oharrez! Ez nuen Josebaren hitzei hark erantsitako ezer irakurri. Aski zen barre hura. Aurrean neukan Juan Pedro Iraola Trecet, alias Martin de Muñagorri, garai joanetako gerrilari erromantikoa, errealitate okaztagarriko kazetaria, kronista irakurria, hiri osoak azpizko mezulari uste genuena... zentsorea zen. Horixe zen arrakastaren sekretua, ez estiloa. Nola ez ginen lehenago konturatu? Aurreko urtean sona hartu zuen iraileko estropadetan arraunlariak Neptunoren aurkako epopeia batean ipini zituen kronika fantastikoarekin. Laster azaldu zen hiriburuan eta beste zenbait herritan egiten ziren literatur lehiaketetan epaimahaiko. Baita Bilbon ere. Hitzaldiak eman zituen. Ez zeukan eztarririk eta horrek areagotu egiten zuen meritua. Ahots mintsu hark merezi zuen. Poeta tisiko bat zeukatela mezulari uste zuten entzuleek. Muñagorrik berak arreta apurtxo batekin zain-

tzen zuen alderdi hori. Gabardinaren gainetik bufanda ibiltzen zuen luze, beti. Akeitetxeetan idazten ikusten genuen, aulki publikoetan irakurtzen. Ohartua zen bazetorrela beste belaunaldi bat indarka. Gazteen liburuak aipatzen hasi zen. Mundunahiko poemak ez ezik kezka existentzialeko eleberriak euskaraz idazten ausartzen ziren euskaldunberri haienak, edo euskara batua delako mordoilo hartan idazten zutenenak. Eta obra haietako aipuak erabiltzen hasi zen, bere iritziak indartzeko, beti. Atal bat eman zioten por Dios, por España y por Franco argitaratzen zen La Voz de Españan astero gai librean, eta bi astetik behin euskaraz agertzen zen. Ez zen ergela, euskaraz atera zuen aurreneko artikuluan Aitorren hizkuntza zaharra hiru hilabetean ikasi zuela jakinarazi zigun. Ez zen ergela, ez. Bazeukan estrategia bat. Josebaren eskuidatzia bidali nuen Bartzelonako liburuetxeko irakurle batzordekoa zela esan zidan. Eskuidatziak baloratzen zituela, kazetaritza gaizki ordaindua zegoenez bestelako lanak hartu behar zituelako. Josebarena testu zarpail samarra zela, ondo etorriko zitzaiola hobetu bat. Horregatik ekarri zidala. Bera prest zegoela berridazteko. Barre egin zuen. Musutruke berridazteko, estiloaren zarpailak ez zezan ekintzaren epika menostu. Bizia salbatze-

ko ahaleginak, agidanean. Neure bezeroarekin kontsultatuko nuela. Eta hitz horixe erabili nuen Joseba aipatzeko, bezero. Muñagorrik, orduan, Josebari gorainztziak emateko. Kopeta behar du. Altxatu zen, eta luzatu zidan bostekoa estutu behar izan nuen. Ez nuen ateraino lagundu. Beti bezala, desfileak antolatzen ari ziren kaioak aurreko eraikinaren teilatuko kanalotan. Atzerago, Josebak hainbat ikurrin lotua zion Artzain Onaren katedraleko orratza. Gauez eskalatzea baino bixigarriagoa zuten gazteek leherkariak ipintzea. Ezin zen ukatu Alderdia atzean ari zela geratzen. Hori maiz aipatu izan zuen Josebak. Gerrila zeukan amets, horretan bazuten antzik Muñagorrik eta biek. Frontoiko ekintza ETAri emandako kolpea ere izan zen, bigarren ondorioz. Gure alderdi zaharra bizirik zegoelako zarata. Heriotzarainokoa zela gure konpromisoa. Muñagorrik profanatutako Josebaren memoriak neuzkan mahai gainean. Zergatik ez ote nion eskatu mesedez alde egiteko neure begi bistatik ingi haiekin? Whisky bat hartu nuen kaioei begira. Aurreko hilean, ETAk tunel bat egina zuen gobernu zibileraino. Hori zen bazterretan zabaldu zen zurrumurrua. Poliziaren fitxa guztiak lapurtu zituztela sotanoetatik. Haien lana barregarri uzteko. Eta bidenabar salatzaile guztiak identifi-

katu ahal izateko. Ez zen sinesgarria. Tunel bat egiteko lana hartuta, ETAk tona bat dinamita leherraraziko zuen bertan, geroago benetako tuneletan egin izan zuen moduan. Baina abertzaleok, salatariak ikaratzearren, haize eman genion ipuinari gure paperetan. Seguru asko, salatzaile usaina zeukatenen aurkako kanpainaren bat abiatzekotan egongo ziren gudari berriak zirela uste zuten txoriburu haiek.

Zer oihu, zer aldarri egin zuen Martin de Muñagorrik bere burua amildu zuenean, ez dakigu. Esateko zeukana idatzietan utzi zigun, nonbait, eta horretan ere Josebaren jokabide bera hartu zuen. Barruan zeukan hark, erretzen zuen garra. Zenbait lekukok segurtatu zutenez, ingi batzuk irakurtzen aritu zen Kursaaleko zubian. Neptunori erronka edo ariko zen. Bere burua-ren laudamena. Gero gabardina hegan eta txapela bat uretan. Mareajea gora zen eta olatuek zakar jotzen zuten. Segundo batzuetan hondoratu omen zen. Handik hiru egunera azaldu zen gorputza Ziburun. Arroken kontra edo zubiaren zutabeen kontra hartutako kolpeek hil omen zuten. Franco agonian sartuta, Martin de Muñagorri inspirazio eskasean geratu zela esan

zidan letratuon bazkuneko idazkariak lehengo batean Sebastopolen, epaitegi ondoko akeitetxean, haren biziak ez zeukala zentzurik Franco gabe. Diktadurak bakarrik ematen zuela dibagazio barregarrietarako eta laudorio itxurako hiperbole satirikoetarako, eta berezi-ki pertsonaiak berak, Generalisimo Ezinobeak. Aro berrian sartzen ari ginela. Jendeak demokrazia apur bat nahi zuela eta konformatu egingo zela errege gazte batekin eta nolabaiteko hauteskundeekin. Espainiak ez zeukala Euskal Herriaren maila politikoa, Martin de Muñagorri ez zela gauza izango hartua zeukan bufoi lanean segitzeko ez hemen eta ez Espainian. Eta, hauxe bai jakingarria, Gipuzku Buru Batzarrak zuzendari posibleetan aurkeztu zuela esan zidan letratuon bazkuneko idazkari horrek Alderdiak Bilbon atera behar zuen izparringirako. Ez nintzen harritu. Gauza mordoa egiten zuten nire gordean. Hiriko oroitarri eta monumentu frankista guztiak simaurrez lohitu zituen artista gazte talde bat defendatzea egokitu zitzaidan egun haietan Bilbon, Tribunal de Orden Publico ezagunean. Defentsa prestatzen aritu ginen hemen bertan, bulego honetan, askatasun probisionalean zeudela, eta diktaduraren aurkako ekintzez ari ginela Martin de Muñagorriren heriotza aipatu zuen haietakoren batek,

irratiek eta izparringiek leku polita eman zioten «tamalez gazterik joan zaigun talentu handia» eta antzekoak deklaratuz. Sebastopol akeitetxean jaso nuena errepikatu nuen gazteen aurrean, frontoiko ekintzaz geroztik Franco hilik zegoela politikoki. Francok eta bere inguruko guztiak suposatzen zuen parafernalia herdoil hura desagerturik, zer mezu eman ez zekiela geratu zela Muñagorri. Horregatik ez zuela ezer idatzi hiriko estatua guztiak, bata bestearen atzetik, kakaztuak agertu zireneko hartaz. Huraxe zen bada ekintza nihilista bat. Kaosak irentsi zuela. Baina taldeko burua zen neska hippyak esan zidan ekintza poetikoak hil zuela. Ez nion ulertu. Joseba Elosegiren ekintza poetikoak. Bere buruari diktadorearen aurrean su ematea ekintza poetiko totala zela gaineratu zuen neskak, gainerako kontestazio guztiak baliogabetzen zituena. Batik bat sasimezuz beteriko kronikak. Eta begiratu zorrotz bat eginez, ekintza poetiko totalak, hala ere, su hartutakoak errauts bihurtzea suposatzen zuela argitu zidan. Ematen zuen moduan Joseba Elosegi hori bizirik ateratzen baldin bazen, ekintza poetiko frustratua izango zela Franco aurrean Gernikako sua berritzea. Taldekoak izutzeko bota zituelako tankera eman nien hitz haiei. Monumentuak simaurrez bedeinkatzea

umekeria zela esaten ari balitz bezala. Zer pentsatua utzi zidan. Juan Pedro Iraola Trecet alias Martin de Muñagorrik jendaurrean eta itsasora bere burua bota baino bi aste lehenago azaldu zitzaidan ostera bulegoan. Hamar bat folio utzi zizkidan mahai gainean. Hobeto pentsatu zuela. Ez egiteko kasurik Josebaren originalean txertatu zituen oharrei. Publikatuko zutela bere hartan. Orri berri haiek Josebaren memorien hitzaurrea zirela. Irakurtzeko mesedez. Josebaren memorien hitzaurrea. Kopeta behar du. Astea hartua neukala. Egia zen, lau epaiketa. Eta bitan Serrano Santaolalla fiskal. Bizi zen pentsioko urrutizkina apuntatu zidan prologoaren lehen orrialdean. Hurrengo astean deitzeko sinfalta. Editorialean irakurria omen zuten eta ados zeudela. Deitzeko mesedez. Bostekoa luzatzea ahaztuta atera zen bulegotik. Josebari eskumuinik ematekorik ere ez. Harrika bota nituen folioak lerro bat bera irakurri gabe eta urrutizkinaren zenbakia agendan kopiatu gabe. Bere prologoa zakarretan ahaztuz, neuk egin nion bultza Martin de Muñagorriri ekintza poetiko totala egin zezan. Pentsatzen jartzen naizen bakoitzean whiskyak burua pixkatxo bat baretuta kanaloian dabiltzan kaioei begira, Joseba laguna traizionatu ez ote nuen, zalantza hori, sortzen zait.

Neska artista izugarri haren hitzek daukate errua. Ekintza poetiko totala izan ote zen ba Martin de Muñagorrirena, Joseba Elosegirena ez bezala? Ez, nik ez nuen Joseba kapitain zaharra, Joseba adiskidea, Joseba alderdikidea, Joseba burukidea traizionatu. Ez nintzela fidatzen, besterik ez. Ezagutzen nuen Joseba. Ideiak sendo zeuzkan. Ez zen epeletakoa, alde horretatik zalantzarik ez. Beldur nintzen Muñagorriren estiloak ez ote zuen liluratuko. Eta egia esan, Alderdiko bat baino gehiago ibiltzen zen haren artikuluak erreferentzia politikotzat hartuta hitz egiten. Informazioa pasatzen zioten gainera. Gaur da eguna nork pasatzen zion oraindik ez dakidana. Muñagorrik inoiz idatzi zuen testurik onena izango zen, ziurrenik, prologo hura. Oda bat munduaren aurka eta eguzkitik eroritako haserre erregarrien alde. Hitz bakoitza ondo kalkulatua. Kopeta behar du. Horregatik jaurti nuen zakarretara. Martin de Muñagorrik alde egindakoan urrutizkina jaso eta Sarria i Muntaner liburuetxearena markatu nuen, argitasun batzuk zor zizkidatelako. Ez zen suizidatu ETAren beldurrez. Bere izparringiko berridazle bat hil zuten, ados. Bartzelonara egin zezakeen alde, edo Madrilera. Gizon bakartia zen. Bazeukan lagunartea Arbolapen, aipatu dizudanez. Baina inork ez dizu infor-

mazio askorik eman ahal izango haren bizitza pribatuaren gainean. Pentsioan apenas zekiten ezer, ez omen zuen eskuidatzirik eta horrelakorik utzi. Besteren batzuk pasako ziren handik lankideak baino lehen. Izparringian ere ez. Barkatuko didazu, ez dut ulertzen nola interesatu litekeen inor gaurko egunean haren ezpaleko intrigante batekin... On Arturo Gil de Balmes eta Encarnacion Lope de Satrustegi senar-emazteek lezio handi bana eman ziguten atzo, tragediaren hegalak ilundu zuen eta ikusle guztiak izulaborriak hartu zituen frontoian. Zeren, senarrak, ahotsa sendo, Nazioarteko Euskal Pilota Federakuntzako lehendakari gisa, Generalisimo Ezinobearen zaintzakoek atxilo zezaten baino lehen garretan suturik deabruzko agermen, ikarazko txorimalo bihurtu zen bontzo exaltatuak bere burua gar eta garrasi bota zuelarik etenarazi zion diskurtsoa fermutasun eredugarrian bururatu baitzuen gero, suizida eta erredurak hartutakoak kantxatik eraman zituztenean, gure kirolaren jatortasuna bizitzaren eredu ipiniz «lehia leiala» formula ezin egokiagoa erabilita zeharbidez harmonia eskatzeko, harmonia formetan, harmonia harremanetan, harmonia lanean, hots, gizakia erdigunea den mundu bat, zeinean gerla bakarra kirola den. Emazteak, ikusi zuen

gertakari dramatikoaren ondoren, eta publikoak On Arturo Gil de Balmesen hitz ederrak txalotzen zituelarik senarrari zorioneko musua emanik –EFE agentziako argazkilari iaioak atzemandako unea–, frontoia utzi eta hiriko hotel nagusian hastekoa zen Espainiako Minbiziaren Aurkako Elkarte guztien batzarraren lehendakaritza hartu zuen aurkezpen labur bezain mamitsua eginez herritarrok «besteak beste» osasunaz hartu behar dugun kontzientzia aipatuz, anitzetan estatuaren eta herritarren arteko «harmonia» zaila delako, eta horrenbestez, era ezin egokiagoan, tabakismoa ekarri zuen mahaira, eta tabakoaren zergak osorik «minbiziaren mikrobioaren aurkako gerlan» eralgi zitezela eskatu zuen umore zorrotzez baina bizi garen garaiak hain premiazkoa duen olde gozoan, Washingtongo diputatu ganberan ariko bailitzan... Agian ez nion nik bultza, agian prologo hura Martin de Muñagorriren testamentu politikoa zen. Halakoak eginda Euskal Herriak onartuko zuela usteko zuen. Baliteke horrela izatea. Eta baliteke Euskal Herriak demokraten multzoan hartzea, Francoren aurkakoetan. Lasaiago hiltzeko? Izan liteke. Hainbeste arrazoi eduki lezake pertsona batek bere buruaz beste egiteko, orain esaten den bezala! Badakizu, letradunon lana, medikue-

naren parekoa da. Bulego hauetan ikusten da gizakiaren arima. Nire arima ere bai, jakina, nik anker jokatu nuen. Seguru nengoen, eta hainbeste urte joan diren arren ez naiz ezertxo aldatu uste horretan. Har ezazu garaiko prentsa, benetako izenak? Bi? Hiru, ale bakoitzeko? Ni seguru nengoen Martin de Muñagorri ez zela Iraola jaunak erabiltzen zituen sinadura ugarietako bat besterik. Kaosak irentsi zuen, bai, kosta ahala kosta nahi zuelako ikusi bere izena demokratetan eta isileko gudarietan Franco hildakoan. Barrenak eskatzen zidana egin nuen eta, badakizu, hori ez omen da ona izaten politikan. Honetara iritsi garenez... Esadazu nolako hitzaurrea egin zion, esadazu zer iruditu zaizun. Noski irakurri duzula! Alderdia sortu zenetik eduki izan ditugu harremanak Sarria i Muntanerrekoekin. Gure agentzia izan da beti Katalunian, kulturako jendearekin harremanak egiteko. Baina zure iritzia jakin baino lehen, beste kontu bat aipatu behar dizut... Nolaz dakizu... Nork esan dizu Martin de Muñagorrik hitzaurre bat egin ziola Josebaren Quiero morir por algori? Tratuan ari gara, nik baimena eman nien katalanei zuri irakurtzen uzteko, ez bazenekien orain badakizu, eta orain zuk esadazu nork esan dizun nik bultza nuela amildegira Juan Pedro Iraola Trecet, On Arturo

Gil de Balmesen idazkaria. Esadazu, nork esan dizu. Dena grabatu didazu, merke uzten dizut. Esan nahi ez baduzu, itzali grabagailua. Edo, hobeto, idatz ezazu izena papertxo honetan. Zuk grabatua edukiagatik, ukatu egin nezake guztia, badakizu zer den difamazioa... Ezetz ba, zuk grabatua daukazun horrek ez du ezertarako balio epaiketa batean ez baldin badaukazu nire baimenik. Sinatu al dut ezer? Horrela, ederki. Konfiantzakoa zaren edo ez jakiteko da. Beraz, hauxe da zu bideratu zintuena Bartzelonara eta niregana. Ezagutzen dut, bai. Orain badakit. Ez, ez, orain badakit konfiantzakoa zaren edo ez zaren.

Larbi

Itsasoan ibili naizen galdetu dit, hura bai gogorra, itsasoa. Kostako herri txipi batekoa dela. Urrun, bai, urrun, Espainia baino urrunago. Inoiz arraun egina ote naizen. Pentsatzen geratu da, edo niri behintzat hala iduritu, pentsatzen geratu dela. Ilunabarrari beha, geldirik, ez baitut zigarroaren kea jaurtitzerakoan egiten duen ziztu mehe hori nabaritu. Gero berak egin dio bere buruari ezetz, ni ez naizela txalupa batean ibili, ez dakidala zer den egarriak egon eta inguruan dena ur gazia izatea. Eta kulunka haiek enbatak jotzen duenean. Eskuetako azala ondo zaildua daukala arraun egitez. Ukitzeko esan dit, ukitzeko, luzatzeko nire eskua. Ez diot luzatu baina ukabilak estutu ditut uko eginez, gorra izaten ikasi behar dut. Konturatu dela uste dut, algara egin du. Biziatua da, kifia erretzen du, inguratu zaizkidan gainerakoen antzera. Okerragoa da edaten dutenean, bere onetik ateratzen dira hauek denak. Herenegun Akabatu eginen haut, tximinoaren ipurtzuloak botatako moroa! norbaitek nire atzean, hitzak alkoholetan. Eta gero Cetmearen seguruaren

hotsa, egia zela pentsatu nuen, akabatu eginen nindutela, eta ez nintzen gauza izan hatz bat mugitzeko, putzuko harria bezain geldirik geratu nintzen. Alde hemendik, moro hau neurea da, jabego pribatua! erantzun zion beste honek, eta beraz moritoak gustatzen zitzaizkiola egin baitzion iseka gerturatuak, borrokan hasi ziren. Lurrean kuzkurtu nintzen, tiroren baten zain. Birao batzuk bota zizkioten elkarri, kolpeka eta mehatxuka bidali zuen mozkor hura. Haserre zegoen. Bazekiela dena ulertzen dudala, bazekiela gaztelaniaz dakidala. Hori bera esan zidan instruktore militarrak, ekarri ninduten hurrengo egunean egindako galdeketan. Hari ere ukatu egin nion hitza, pareta bati bezala egon nintzen paperei beha. Soldadu honek ez dit galdera zuzenik egiten, nire konfiantza irabazten saiatzen da. Berak badaukala inork ez ulertzeko hizkuntza bat, hango hassania, zaharra eta ederra. Kantari ekin dio orduan, doinu malenkoniatsu bat. Eta egia izan liteke, ez diot ezer ulertu. Ez du gaizki kantatzen. Hunkitu egin nau, urrun dauzkadan lagunak oroitarazi egin dizkidalako, eta galdutakoak. Patiotik barrura eraman nauenean, kaputxa kendu eta lehengoa errepikatu dit despedida gisa: itsasoa gogorra dela, txol gogorra, basamortua baino galgarriagoa. Eta guraso-

en leloa etorri zait burura, Ez du axola sinesgabea baldin bazara ere, basamortuan ikasiko duzu otoitz egiten. Gu ohituak gaude bakardadera. Kaputxa kendutakoan lurrera edukiko ditut beti begiak, ez diot aurpegira behatuko. Ez dut jakin nahi nolako aurpegia daukan. Jon duela izena esan dit, Jon kaboa. Inork molestatzen banau jakinarazteko berari.

Madrilen ezagutu nuen nik, Getafeko aerodromoan, hegazkinean sartzeko arranpara gindoazela. Zelako hotza, Gaztela Zaharreko lur galdu hartan! Hegazkineko eskusadua matxuratua zegoela eta premiarik baldin bagenuen pistaren bazterreko zelai izoztu haiek hantxe ei geneuzkan libratzeko.

– Orain dugu azken aukera!

Gora samar jaurti zuen erronka inguruko guztiak jakinean egon gintezen. Gaztela Zaharreko berbetan, noski. Inork ez genion jaramonik egin, ardiak lez hurreratu ginen upel huts handi hartara. Izen-abizenen oihuei Presente!, hegazkinera egin eta heldueran katetxo bana ezartzen ziguten samatik. Pelikuletan marineek ageri dituzten iduneko horiek, bakoitzari zegokion zenbakiarekin. Ez aulkirik edo antzeko jesarleku-

rik barru hartan, parakak garraiatzeko loneta luze batzuk baino ez alboetan.

– Orain berandu da. Ez niri deus eskatu, nik ez dakit pilotatzen.

Alboan neukanak, ahapetik, tontopalo hark gure kirioak ateratzeko egiten zuela hori komentatu zidan, beteranoren bat zela gu oilotu guran. Nik lehen aldia nuen hegan eta ezin nasaitu, on egin zidan ernegatzaile baten ahotsa entzuteak gure buru makurtuek sortzen zuten giro baltza apurtzen. Horixe belarrira esateko nengoela bonba itzel batek erementau zuen, itzulika hasi ziren Hercules C-130aren lau helizeak eta dardaran ipini ziren lama erematxatu haiek denak. Oraindino lurrean aurrera gindoazen tramankulu hark gurpilpean harrapatzen zituen harri kozkor guztiak triskatzen, non eta aitaren egin zuen frenteko errenkadako batek, sinatu egin zen, aitaren, semearen eta espiritu santuaren izenean amen, erpuruarekin eta arinarekin egin zuen gurutzeari musu emonik. Hura ikusita, denok egin genuen lotsatzeko aitaren bana oinetakoei begira. Geure amek hala egiten zuten trenean edo trolebusean sartutakoan Jainkoak onik eroan zitzan egun hartako destinora. Eta zirikante hura izan zen aitaren egin ez zuen bakarra, samatik txingilizka

zeroan txapa zerabilen hatzen artean olgetan, eta orduan kontuan jausi nintzen txapa haiek gure gorpu kiskaliak identifikatu ahal izateko probak zirela, geure hezurrei egokituko zitzaien izena. Gertuko gauza genuen heriotza jadanik, kalekoz jantzian gindoazen arren gerra edozein unetan posible zen estrategia batean harrapatuak gengozen, horretaz jabetu nintzen txapa hartaz erreparatuta, eta hatz hezurtsu haietan egiten zuen dantzak nahastu egin zizkidan hesteak. Begiak jaso eta gogor begiratu zigun guztioi, gu aztoratzeko hurrengo urtenaldia burutantzen ziharduen noski. Ez horraitiok, luki hark Boga-boga kantatzeari ekin eta Bai Indietara, bai Indietara pasartera iritsitakoan Berriz! animatu ninduen, eta hasieratik hartu zuen ostera, Boga-boga... euskaldun bila, eta kantatzen hasi nintzen harekin batera, beste batzuk be bai inguruan eta urrunagotik, abesbatza osatu genuen euskaldunok, hegazkina bahitu egin genuela esan ahal zen. Han bazen kantatzen zekienik, bigarren ahotsarena egin ziguten, eder, eta azken Boga, marinelaaaa! Iuze eta in crescendo hartan nik uste dut, asko putzitu barik, errematxe pare bat eten geniola hegazkinaren fuselajeari. Hura poztasuna euskaldunona, hura isilunea espainiarrena! Ikaratu egin zirela ziru-

dien, luze egon ziren mutu. Baten batek La Loren tenia un conejo... saiatu zuen. Inor ez zitzaion batu mozkor kantu sastar hartara. Artean, lukiak blok bat atera zuen maletatxotik eta marrazten hasi zen. Jauzi eta dardara zihoan gure tramankulua, oker eginikoa urratu eta barriro marraztu egiten zuen gure artistak biraorik edo hasperenik egin gabe, amaitu zuen beharra halako batez. Seriotasunez luzatu zidan, zeremonia izan zen erakutsi hura, hegazkinaren albo batetik bestera gure eskuek egin zuten zubia dokumentua transferitzeko. Algara sano jaurtitzekoa zen. Beteranoak orduan egin zuen barre, egiazko barre. Eskumara neukan espainiarrari pasatu nion eta hark be barre egin zuen... Horrela ibili zen paper hura eskurik esku, denek barre egiten zutela: hegazkin bat kaka egiten, mokordoak bonbardatzen, lurra metatxo ketsuz betetzen. Algara haietan joan zitzaigun beldurra tutuluko estratara, eta nahiz jauzika eta dardaraka joan, lo kuluxkak egin ahal izan genituen hiru orduren buruan Al-Ayyun jo genuen arte.

– Zeinen bariatua den Espainia, ezta? Ongi pasatuko diagu!

Ipar polotik desertura, gozamena izan zen beroaren zartatekoa. Iduneko haiek kendu zizkiguten jaitsieran, beste artalde batzuk markatzeko erabiltzearren.

– Zer egiten du hemen artista batek?

– Aberriak dei egin zidak eta auxilioa ematera etorri nauk, hi bezala!

Ahuntzaren algara egin zuen, gaiztoa salatzen duen hori. Bostekoa luzatu zidan oraingoan, eta estutu sendo batean egin genituen elkarren presentazinoak.

– Jon Larrea Calafel, marrazkilaria.

– Gregorio Azkarate Larrinaga, eibartarra.

Soldadutza Afrikan egitea egokitu zitzaidala jakin zutenean amak osaba izendatu zuen, alegia, bere neba, Francoren armadan abade ibilitakoa. Ez dakit teniente gradua ez ote zeukan. Ez deitzeko hari esan nion, txingartuta. Ez deitzeko inori. Aitak ondo hartu zuen nire ukoa, begiko zakarra beste maite zuen mesedeak egitetik jauntxo lez bizi zen koinatu lotsabako hura. Gero zorretan bizitzeko? Horregaitik heldu nintzen Saharara, horregaitik eta harrotasun puntu bategaitik be bai, kokoteraino nengoelako aitaren kontuez, Oraingo gazte txoro hauek edo Intxortan egon izan balira lako murmuxetez. Ama, urrun noa aita gerrara

joan zen lez. Eta aitak Urrun bakarrik ez, Francoren aginduetara! erantzuteko narrua eduki zuen sukaldearen erdian, eta berba haiek bultzatu ninduten soldadutzara ezerk baino areago. Zaflada bat emoteko gogoa etorri zitzaidan orduantxe, aitari zaflada, bai, baina latzago jipoitu nuen Gerra sortzen bada ikusiko dut zer egin, zu bizirik etxeratu zinen eta ez zinen horren balientea izango. Min hartu zuen gizonak, eta ni damutu ez. Afrikara heldu bitarte osoan neure kautan ibili nuen ez nintzela aita lez etxetik gudari urten eta koldar bueltatuko, soldadutzan zer edo zer ikas nezakeela, gero inoiz bestelako kausa baten zerbitzuan ipintzen ahal nuena. Gaztetxotako begitasunak edo.

Batzuetan irratia ekartzen du. Piztu eta eman egiten dit Rabat Irratia hartzeko eskatuz. Amarru bat izan liteke, ez dakit. Badaezpada, Rabat Irratia harrapatzen dudanean itzultzen diot irratia. Agian Espainiako Armadan soldadu dabiltzan anaiei eskatzen die aurrez irratiaren frekuentzia. Otzan portatzea komeni zait. Albisteak entzuten ditugu. Gero irratia isildu eta itzuli egiten dizkit albisteak, hori esaten du berak, itzuli egiten dizkidala nik euskaraz ez dakidalako. Algara egi-

ten du orduan. Hassan II.ak deklaratu omen du laster tea hartuko duela Al-Ayyunen. Inbaditu eginen dutela gure lurra esaten dit, eta espainiarren inbasioa baino gogorragoa izanen dela. Hori ez du Rabat Irratiak eman, hori nire zaintzailearen asmakizunak edo iragarpenak dira. Kolonialismoari buruzko lezioak ematen dizkit. Marokoarrek gure kultura suntsituko dutela, ez digutela nomadak izaten utziko, eskolatu egingo gaituztela eta hassania kenduko digutela ahotik hagin ustel bat kentzen dugun gisan, espainiarrek euskaldunei egin dietena eginen digutela, debekatu eginen digutela hassaniazko izenak ematea gure seme-alabei, Marokoko diktadore odolgiroaren argazkia eduki beharko dugula jaima guztietan Francorena dagoen gisan gotorleku honetako pareta guztietan eta ospitale guztietan eta eskola guztietan eta bulego guztietan eta eliza ugaritan. Horrelakoak botatakoan kantari hasi da berriz, eguneko betebeharra konplituta. Egia izan liteke euskaldunek beren hizkuntza daukatela, ez diot ezer konprenitu hitzen bat harrapatzen saiatzen naizen arren. Nik ez ote dakidan kantari, kantatzeko nire arbasoen kantu zaharren bat. Erraza da ez entzuna egitea kaputxa jantzia daukadanean. Aurpegia agerian baneuka keinuren bat ikusiko lidake, kopeta

zimurtzea, ezpainak okertzea. Isilaldi luze baten ondoren Franco hiltzen ari da esan du ahapetik, marmarrean ari zela zirudien, Franco hiltzen ari da eta ez dakigu erregimenak gogorragora eginen duen. Zer iruditzen zaizu zuri, zein da zuen analisia? Ez dut kinkik atera, berak badauka nonbait bere analisia. Francok Afrikan sendotu zuen altxamendurako indarra eta ez du Afrika nolanahi utziko, baina inguruan afrikanista guti dauka, hobe duzue Aljeriaren laguntza bermatu, ez fida espainiarrekin, espainiarrak yankien beldur dira. Algara zoroak egin ditu, eztulka hasi arterainokoak. Barkatzeko eskatu dit gero. Paper hotsa sumatu dut, paper bati pleguak kentzen ari zela sumatu dut. Nire andregaiaren azken gutuna irakurriko dizut. Irakurri dit hizkuntza ulertezin horretan, eta Esadazu mesedez, Xabier, hassaniaz nola esaten da maite zaitut? Erantzun egin diot neure kolkorako, eta beldurtu egin naiz. Buruz erantzuten hasita ahoz erantzutera makur ninteke. Gero ahotsa apaldu du, badakiela ez naizela Xabier, Plana Nagusian inork ez dakiela nire izena adierazteko esan didala Xabier, inork ez dakiela nor naizen, lasai egon nintekeela. Baliteke egia izatea. Eutsi egin behar diot ezer ez sineste honi. Burua tre-

batu behar dut buruz ez erantzuten. Ez dakit ni nahasteko teknikak ari diren erabiltzen.

Hercules C-130 hura jostailuzkoa izan zitekeen gure batailoia instrukzinoan izerditzen zen patioaren erdian, kuartela hiri bat zen Al-Ayyun hiriaren barruan, galtzeko modukoa zen hura, hainbeste eraikin eta biltegi eta zerbitzutan zehar. Destinora heldu eta armadako jantzia hartzen eroan gintuzten segiduan biltegi batera, algara baten aritu ginen prakak jantzi-erantzi, elkarri trukatzen, Isilik! Arin! aginduei jaramon egin barik. Zelako gerlariak azaldu ginen areto zabal hartara! Entzuteko adi eta gogoan hartzeko: non gengozen, zertara gentozen, nondik norakoa izango zen gure instrukzinoa, aholkuak, horixe emon ziguten abondo, ez joateko bakarrik inora, gutxieneko hiru laguneko taldetan ibiltzeko, ez hurreratzeko natiboen auzoetara, ez hankarik sartzeko haien kanpamenduetan, eta ez berbarik egiteko emakumezkoei, errespetatzeko natiboen ohiturak, eta pentsatu be ez Hata Rambla aldera, bertan sortuak baitziren Al Bassiri eta Al Gali zalapartariak... Euskara jatorrean, inoren ortua zanpatze-

ko etorriak ginela, baina ortulauarekin onez komeni zitzaigula.

– Begizak, sirokoa zatorrek! Begizak zer edertasuna!

Harearen haztak, zeruaren gardenak, arabiarren janzkerek, emakume sahararren samako abalorioek eta eskumuturreko zidarrek, horrelakoek liluratzen zuten Jon Larrea Calafel, eta nik ez nuen ikusten satsa eta sahararren bazterketa baino, ez neukan begirik natura zoragarri hura eta jende miresgarri hura ikusteko. Lotsatan itoa nengoen okupazinoko soldadu, huraxe nintzen eta. Turista banintz moduan tratatzen ninduen aberriari auxilio egiten etorria ei zen Jon artista, eta, zertarako uka, aukerako laguna zen, bazter guztiak aspalditik ezagutzen zituela esan ahal zen. Aitortzekoa dut, hala eta guzti, arrastiria azkenbako hareatzaren gainean gautzen hasten zenean akordutik joaten zitzaidala hura miseria hura halako edertasunaren aurrean.

– Nora hoa?

Telegrafotik zetorren, dirua libratu barria zioten etxetik, eta Al-Ayyun dirua xahutzeko antolatua zegoen, zokoan denetarik eskaintzen ziguten, zapiak jantziak koloniak betaurreko ilunak eguzkitarako kremak

erlojuak irratiak magnetofoiak argazki makinak... Alkoholean, munduko lekurik merkeena zen Al-Ayyun, eta kuarteleko kantina ez zen txarrena mustratzako. Horixe ikasi nik, whiskya ura bezain erraz edaten. Ez dakit zertan izan litekeen hori kausa noble batean lagungarri, baina ikasi nuen. Eta Venus edo Oasis edo Las Mimosas fanekeretako atean azaltzeaz batera arrimatu egiten zitzaizkigun atsoen umorea pazientziaz hartzen be ikasi nuen. Horretan ona zen Jonen laguntza, paper mutur bat atera eta lau marra eginik horra aurpegi politak. Garrasi alaietan alde egiten ziguten lagunengana barregarriak erakusten. Jonek sarritxo zeuzkan matrakak polizia militarrekin, eta Black Label bati erdia ganoraz kendua geniola galdetu nion, alkoholak sortzen duen nasaitasun gandu horretan, armadatik kanporatzeko merituak egiten ete ziharduen zoroarena joz. Harrituarena egin zidan bilauak.

– Zoroetxea ez duk kuartela baino gozoagoa izango.

Bezperan, tente ipintzeko agindua hartuta, gorra balitz moduan jarraitu zuen erpuru biak gerrikoan eta bizkarra paretaren kontra kuartelean bertan. Tente ipintzeko kaboak sutan, eta tente ipintzen zitzaion tramankulua nagitua zeukala Jonen osterakoa. Belarrez-

kinako bat emon zion orduan kaboak gogor, eta mugitu barik, zegoen letxe, Akabatu egingo haut! esan zion Larreak tenplau. Kaboak ez zekien zer egin, ez zuen horrelakorik uste, eta horixe baliatu zuen Larreak ezkerrarekin gerreratik oratu eta eskumako ukabila erakusteko.

– Txikitu egingo haut sekula berriz ukitzen banauk, txuskero zikina!

Olgetan baldin baziharduen, arriskuak hartzeko olgetak zituen gustuko. Ez zen harroarena jotzen zuen kakatia, ezinegona zeukan, zinezko lukia zen, beti artega batetik bestera, amorru bizian, helburu zehatz barik, burua irakiten. Marrazten baretzen zen. Iharra eta baltzarana zenez, arabiartzat hartu ohi zuten. Kaboak, onenean, moroa zela usteko zuen, halako apaldua jasotzeko. Ez zuen salatu. Moroz inguraturik gengozen, ez da gezurra.

– Errementau egingo diagu hemen laster!

Neure burua ikusi nuen eguna joan eta eguna etorri presondegi hartan, diziplina zurrun hartan eta Sahara ezagutu barik. Soldadutza zer edo zertarako izatea gura banuen, ez nezakeen huts egin Afrikan sartzeko abagunea. Afrikaren ertzean egon eta kuarteletik tabernara, tabernatik faneketara, faneketatik sen-

dategira, sendategitik kuartelera bizi? Lehenago ez pentsatuak lotsarazi egin ninduen. Getafeko lur galdua baino mortuagoko zabaldi haietan, agian, kendu ahal izango nuen akordutik zapaltzeko botak jantzita zetorren mertzenario bat nintzela. Arruabarrenagana jo nuen, destinoak antolatzen zituela jakinarazi zigun bigarren egunean, eta eskatzeko.

– Hik zelan aguantetan duk hemen?

– Jarriko haiz, pazientzia eta begia.

– Harearen gainean egin nahi diat lo, ez gorotzaren erdian.

– Villa Cisneros leku ona duk, han ez zagok horrenbeste ofizialik.

Arkitekto ikasketak egiten ari zelako genuen alferez. Arkitektoarena dirudunen karrera zen, baina euskaraz egin zigun lehenengo berbatik, etorri barri ginela.

– Ondoan eduki eta munduko basamorturik ederrena ez ezagutzea, bidaia alferrik galtzea duk, ezta?

– Ez diat esango arrazoirik ez daukaanik. Desertua bestelakoa duk. Zeharo bestelakoa!

Sahara espainiarraren mapa zegoen paretara hurreratu ginen. Makilatxo bat ipini zidan eskuan Nire jenerala! antzeztuz, bizkarra apur bat makurturik.

Smara, Hagunia, Haussa, Bir Lehlu... Mauritaniako bidean zegoen puntu txikian ipini nuen makilaren muturra.

– Zergatik aukeratu duk hori, izenagatik?

– Destakamendu bat dela igarri diodalako. Han ez diat saharararrik zapalduko.

Ospe iluneko lekua zen Edchera armadarentzat, Legioak sarraski lotsagarri bat jasan zuen inguruko trokazulo batean, Ifniko Gerran, 1958an. Hamazazpi urte geroago be, beldurtxo aipatzen zuten militarrek berek Edchera. Hildako larregi Plana Nagusi guztietan enboskadarako ezinezkoa ei zen lekuan. Tropa Nomadetan sartuko ninduela, natiboekin batera ibiltzeko. Karrerako ofizialek ez ei zuten gura, eta kapitain batek egiten zuela buru. Huraxe nik behar nuena. Dudabako eduki nezala jendea falta zutela esan zidan Arruabarrenak, laster bidaliko nindutela. Safariak egiteko leku zoragarria zela esanez despeditu ninduen bromoso.

Zuk belarri ona daukazu eta entzun, entzun zertan ari naizen... Ez zenuke asmatuko. Fosil bat jaso dut patruilatzera irten naizenean, eta orain paper zuri bat gainean ezarrita kalkatzen ari naiz lapitzez. Arraintxo

bat, txol polita. Nire emaztegaiari bidaltzeko. Hiru dromedario eskatzen dizkit bere aitak... Eta algara egin du berriz, algara amorragarri hori, faltsua delako. Nire onetik ateratzeko egiten du, isiltzeko esan diezaiodan, zer edo zer esan diezaiodan. Guri berdin zaigu, ez gara elizatik pasatuko elkarrekin bizitzeko, ez dugu ezkontzarik ospatuko, zer iruditzen zaizu? Amaitu du arraintxoa kalkatzen, ez dut lapitzaren herresta sumatzen. Gaur posta heldu da Al-Ayyundik eta nire emaztegaiaren gutuna jaso dut. Lau aldiz irakurri dut, buruz ikasia daukat. Txol polita da... Tira, itzuli eginen dizut, euskaraz idatzi dit eta. Akatsez betea dago eta ez zenuke konprenituko. Ez dakit aipatu dizudan, gure hizkuntza debekatua dauka Francok, ezin dugu eskolan ikasi... Eta noizbait, emaztegaiak idatzi diona itzultzen hasi zait: bihotzeko Jon, ez dakit ondo zaudela sinetsi edo ez, hemen ez da gauza onik entzuten eta irakurtzen Saharari buruz. Kezkatua nago, eta kalean besterik ez didate galdetzen, ea zer moduz zauden. Azken asteburua etxean eman dut zure marrazkiak ikusten. Azken gutunean bidali zenizkidanak asko gustatu zaizkit, putzutik ura ateratzen ari den neskatoarena batez ere. Izugarri ederra da, koadro batean ipini dut nire gelan, txalupan gauden argazkiaren ondoan. Herri ho-

rrek independentzia merezi du, eta lortuko du. Sahara Askatua Komitea sortu ahal izan dugu azkenean, hamabi lagun gara herrian. Datorren astean diapositiba emanaldi bat antolatu dugu, basamortua erakusteko. Soldadutzatik zatozenean, erakusketa bat eskegiko dugu arraun elkartean zure marrazkiekin. Eta gu nire amonarenean jarriko gara bizitzen, ez dauka luzerako gaixoak. Hitz egin dut amarekin eta konforme dago. Ez da handia baina konponduko gara. Nik ondo irabazten dut eta biona egiteko emanen du. Zuk, bitartean, marrazkiak eginen dituzu, hori da zure bokazioa eta bilatuko duzu moduren bat horretarik bizitzeko. Zu lasai. Etxearen planoak egiten ari naiz erregela eta kartaboiarekin, eskolan egiten genuen moduan. Pareta bat botako dugu eta estudio eder bat geratuko da. Ezin dut nire bizitza idurikatu zu ondoan ez zaitudala. Lotuagoa naukazu saharararrak bere dromedarioa baino... Hasperen egin du, kifia piztu du. Isilaldi luze baten ondoren, Edcheran nagoela esan dit, edo zehazkiago, Chacal gotorlekuan. Ekarri nindutenean konturatu ez banintz bezala. Badakiela beraiek, europarrak, ez direla denboraren jabe erlojuak eduki arren. Saharararrak bai, zuek denboraren jabe zarete. Baina ez lurraren jabe. Eta euskaldunok ez gara ez denboraren ez lurra-

ren jabe. Horregatik antolatzen ditugu komiteak gure auzo guztietan halako jakinduria duten herrietarik ikasteko. Ikasteko eta laguntzeko. Eta hori esanik eskua bizkarrean ezarri dit, eta Ni, zu gabe, Xabier, ez nintzateke gauza izanen ezertarako desertuan. Zu eta biok, desertuan, bi beduino izan gintezke. Gehiago kezkatu nau eskua bizkarrean ipintzeak entzun ditudan hitzek baino. Ezerez bat izan da nik ez erreakzionatzea, bizkarra astindu nahi nuen eskua nire gainetik ken zezan. Esku zuria nire sorbaldan, Frantz Fanonen titulu bat ematen du.

Bularreko josturak tarratatu behar zizkidan poz batek eroan ninduen Jon Larrea Calafeli abisatzen Tropa Nomadak izeneko kuadrilla ankerrera destinatua nengoela, desertu barrura nindoala dromedario gainean beduinoekin batzera. Haserretuaren papelada egin zidan. Traidore zikina oihuka hartu zuen Plana Nagusirantz behingo baten.

– Inork ez dik hara gura, trankil!

Eta Al-Ayyundik hanka egitea hobe genuela gomuta genezan, hiru bonba lehertu ziren gau hartan bertan gure kuartelarenak izandako biltegi zaharretan,

kapitaniatik urrun, lolekuetatik hurre samar. Jenerala jo zuen kornetak, etzanda gengozenok be zafarrantxora batu ginen eta kargadoreak hutsitu genituen bentana haien kontra. Tiro egiten amaitu nuenean ez nintzen gauza inori betondoa erakusteko. Hotzak dardaraka eta gorputz osoa izerdiz mela eginda nengoen. Tiro haiek Al-Ayyungo saharararren fusilamendu sinbolikoa izan zen, okupatzailearen egitada zibilizatzaile bat. Ikarak hartuta sakatu nion katuari, zeinen erraza zen inor hiltzea! Berbatza sutsua egin zigun eguerdian teniente koronelak kuarteleko patioan, goragailuek hirira zabaltzen zutela.

– Arruabarrenak esan zidak bihar bertan goazela Edcherara. Zimitarrak eta gura dugun dena, samaraino armaz!

Chacal mitikora apuntatzeko adorerik izan ez zuten lagunak tutuluko estratara bidalita urten genuen goizabarrean Al-Ayyundik, nik behintzat gaua ezin lo eginik emonda. Sahara, harea, saharararrak, gure anaia gerrilariak...! Eta ni neure mertzenario botak jantzita. Ikara zer den ikasiko nuen, baina ez nintzen etxera koldar itzuliko. Esan ziguten laurogei bat kilometrora geneukala Edchera, ordu biko bidea baino ez. Azkenerako hiru ordu luze gastatu genituen.

Telebistako dokumentaletan ez azalduagaitik, desertuan badagoz harrizko eremuak be, antzina ibaiak edo itsasadarrak izanikoak. Horietariko batean trabatu egin ginen esnea zekarren kamioiak arazoak zeuzkalako erradiadorearekin, gerrilariek estrategikoki ipinitako harriren bat jota, antza.

– Erne guztiak!

Bezperako dardara bera Cetmeei segurua kendueran! Kamioi azpitik zelatatu eta Land Rover bat. Hotza, hotza basamortuaren erdian.

– Zer egin lezake Land Rover batek? Lau kamioi gaituk!

– Ez fida suge hauekin!

Gero eta hurrerago moroak. Ez ei zen Espainiako Armadako makina. Eta sarjentua batera eta bestera katalejuekin, bizkarretik erasango ote ziguten.

– Noiz hasiko gaituk tiroka?

– Tiroa jotzen duen aurrenekoa bertan fusilatuko diat!

– Orduan zertarako oihukatu duk armetara?

Erdi frantsesez erdi gaztelaniaz jakin eragin ziguten lekutan genbiltzala, Edcherara joateko beste bidea zela.

– Ikusten? Ez zagok fidatzerik! Nola dakite Edcherara goazela?

– Ez zakiat.

– Infiltratuak dauzkagulako armada barruan, arraioa!

– Transmisiokoak, hona!

Ez nuen bape konprenitu, mapak nahastu egin zitzaizkidan begi bistan. Aljeriako Armadako patruila bat inguru hartan?

– Sinetsi egin diek? Horiek gu galtzea nahi ditek!

– Ez diat esan aljeriarrak direla? Gure etsaia Maroko duk, ergela!

Jon Larreak bere analisia azaldu zion karabanako buru zen sarjentuari: aljeriarrek Polisarioko gerrilariak entrenatzen zituzten, laster pasatuko zieten gure posizinoa erasoren bat antolatu ahal izateko bidean. Baina ez genuen moro anker gehiagorik ikusi Ifniko gerra jarraitzeko, eta bizirik heldu ginen Edcherara, Chacal gotorleku mitikora. Bizirik, sosegaturik, kuku jota eta dutxa baten premian, ea bustialdi batek argitzen zigun zer egiten zuen patruila aljeriar batek Espainiarena zen mugapean. Aldea zegoen teoriatik praktikara, bai. Non eta Polisariokoak ez baldin bazi-

ren, kamuflatuak, Arruabarrenak bromoso aipatu zidan safarian.

– Gregorio Azkarate? Juan Jose Larrea?

Eskuak tinkatu, lepokadak emon eta erreskadan zegozan arrautzerdiko teilatuko etxetxoetara eroan gintuzten garagardo hormatu bana eskaintzen zigutela. Euskaldunak! Dutxarako egun bi itxaron behar, hiru egunean behin izaten ei zen. Ez zegoen agoantatzerik, hondarra gorputzaren txoko guztietan sartzen da, sekulako azkura.

– Hiru egun? Errementau egin behar diagu berton!

– Busti nahi baduzue, mila pezetana!

Algara egin zuten, dutxa klandestino bat zeukaten montatua berrogeita hamar kiloko tomate eta melokotoi latak edukitzeko erabiltzen zen arrautzerdiko etxeetariko batean. Isilka sartu, arropa erantzi eta, mangera batekin, bustialdi ederra hartu ahal izan genuen Jonek eta biok.

– Azkarate, nora arraio ekarri nauk?

Gazia, dutxa hartakoa eta hango beste dutxetakoa. Putzuaren azpian petrolioa dagoela adierazten ei du. Bu-Craan ustiatzen zuten espainiarrek desertuaren altxorra, fosfatoa eta enparatuak. Ez geneukan hain aparte, ordu eta erdira hor nonbait.

– Non zagok oasia hemen?

Tropa Nomadak izango ginen, ederto Arruabarrena, izenak harrotasuna emoten zigun, afrikartu egiten gintuen zelanbait. Erdi eta erdi ginen espainiarrak eta saharararrak, eta horrek be halako ilusinoa egiten zigun, saharararrak ez baitziren fidatzekoak, denak Polisarioko infiltratuak zirela jakinarazi ziguten beteranoek, kontu izateko moroekin, moroa azpilaria zela sortzez. Paranoiaren eta ideologia kolonialaren nahaste interesgarria. Jon Larrea marrazkiak egiten hasi zen aida batean: dromedarioak zutik, dromedarioak jesarrita, dromedarioak jaten, dromedarioak martxan, dromedarioak lotan... Geu Polisarioko fellaghak izan gintezkeela begitantzea larregizkoa zen arren, haien aldekoak izan gintezkeen Marokoren aurka. Jantzian be, narras antzean ikusten zen jendea, sandaliak, durbanteak, mahuka bako alkandorak, praka motzak... Gerrilarien itxura burutik behatzetara, ez armada erregular bateko soldaduena. Halako taxua hartuko genuen lasterrera hegazkinean kaka eginda etorritakook!

Ni zaintzeko Cetmea beti tiro egiteko prest daukatela argitu dit, inor hurbiltzen baldin bazait asmo zatarrez,

zimitarraren batekin edo, bertan tiroka josteko agindua omen daukate. Jesartzen garenetan niregana apuntatuz edukitzen duela magalean. Eta algara zoro hori egin du. Haizeak ekartzen dit jaimetako usaina, horregatik dakit norantz hartu beharko nukeen. Honezkero ikasia izanen du hori. Debekatu egin omen diote niri irratia entzuten uztea, eta ezin izanen didala itzuli Hassan II.ak deklaratutakoak Rabat Irratian. Algara berriz. Horrelakoetan eskerrak ematen dizkiot neure patuari eskuak loturik dauzkadalako. Burla hori egiten duenean, algara zoro faltsu hori, eztarria estutzeko gogoa etortzen zait, ezin dut burla hori jasan. Uste nuena baino ahulagoa naiz. Xabier esaten dizut inork ez dakigulako zure izena, hasi zait, Lasai egon zintezke. Esan nahi dut okupatzaileok ez dakigula zure izena. Zure atzamarren arrastoak ikertu dituzte eta ez dute zure fitxarik aurkitu. Hemen zure izena dakiten bakarrak zure anaiak dira. Ez dakit nola, baina ni seguru nago badakitela nor zaren. Urduri daude ez diegulako uzten dutxetara etortzen. Agian ez zara saharara, agian aljeriarra zara. Kamioi eta Land Rover hotsa besterik ez dut sumatu gero. Beha ezazu, kamioi hori meloiz betea dator, bihar fruta freskoa edukiko duzu. Barka ezazu behatzeko esan izana, ohartu

gabe atera zait. Aljeriarra zarenez, frantsesez eginen dizut, hobeto ulertuko didazu. Ahalegin handi bat eginen dut zuregatik, nire frantsesa ez da ona. Egia bada, esatekoak buruz ikasiak ekarri ditu, erraz aritu da. Emaztegairik ba ote daukadan galdetu dit aurrena. Eta ondotik barkamena eskatu dit berriz, zenbat emazte daukadan galdetu dit. Hori espero duzue zakur kristau batek galdetzea, ezta, Zenbat emazte daukazun. Ez du algararik egin. Isilera egin du, norbait hurbildu zaigulako. Ulertu ez ditudan hitz batzuk egin dituzte, euskara edo hori. Hau Xabier da, erantzun dio gaztelaniaz. Kaixo Xabier agurtu nau etorri berriak. Ez da Xabier, alferrik ari naiz torturatzen, gerrilari gogorra da, argitu dio nire zaindariak, ez digu izena emanen torturatu arren, eta graduazioa ere ez. Klandestinitateko izena du Xabier. Zertara etorri haiz solasean Iasai ari ginenak molestatzera? Al-Ayyunera joatekoa nauk kapitainarekin, zer edo zer egitea edo ekartzea nahi? Ezetz, goraintziak emateko faneken erreginari. Ongi zagok. Agur Xabier! Mutua al da? Moro hau euskalduna duk egoskorrean! Zu ez zara moroa, gure arteko tontakeriak dira, Xabier. Gure inguruko inork moro hitza erabiltzen badu saharararra aipatzeko, bota egiten diagu gure gizartetik, hori espainiarren hizkera

duk, jakinarazi dit. Eta handik jarrai, ahazteko beldurrez, edo gaia bat-batean aldatzea ni desorekatzeko teknika izan litekeelako, atzoko festaz gozatu ote nuen galdetu dit. Festa ederra, ezta? Aalisalemen ezkontza izan zen, bazenekien noski. Gure tropa nomadetako buruetarik bat. Seguru ezagutzen duzula, zure kontaktua da. Ez esan ezetz. Hitzon ondoren benetako galdeketaren unea heldu dela iruditu zait. Lagunarena egiteari utzi eta tortura gogorra helduko dela pentsatu dut. Eta harritu egin naiz zeinen lasai geratu naizen. Amai dadila jardun merke hau eta has daitezela elektrodoak lanean, europar hauek Aljerian egin zuten gisan. Kolonialistaren onbera pairatzea baino arinagoa izango da.

Afalostean, kamainetan etzanda irakurtzen edo lotokiko zokoetan tximutxen aurkako gerra galdutakoan, Garatek, gotorlekuko barberuarena egiten zuen gernikarrak, ezpainetara ekartzen zuen ahosoinua. Astrapala sortzen genuen kantu, irrintzi eta dantza Edcherako bost euskaldunok. Azkenean, argia amatatzen zutenean, kantari jarraitzen genuen ohean, ilunpean, barrua gero eta hartuago Isil-isilik dago, Euska-

lerri nerea, Boga-boga... Espainiar batzuek be ikasi zituzten zatitxoak, eta guri letxe etortzen zitzaiela malkoa eduki izan dut ustea beti. Denok geneuzkan adiskideak, neskak, leku maiteak handik urrun, bestelako zeruen azpian, bestelako lurren gainean. Gau batean jazo zen inork ez kantatzea, ez builaka jardutea, Garateren Hohner txikerra isilik egotea. Egun hartan, erretretan formaturik geundela, hurrengo eguneko manamenduak hartzeko bandera erriatu eta gero, zerrenda irakurri zuten betiko lez, eta Juan Jose Larrea oihukatu zutenean haren Presente! non, gure artista inon ez. Elkarri begiratu eta inork ez zekien ezer. Dromedario gainean ikusi ote zuten. Kezkatuak abiatu ginen euskaldunok afaritara, baina Al-Ayyunen erosiriko Grundig bikain hura ez zegoen tomate eta melokotoi lata handiek ezkutatzen zuten txokoan, eta burutanzinoa izan nuen Al-Messeiedeko oasian gaupasa egiten ariko zela, izarrak edaten, etxetik ekarri zituen kaseteak sugeei ikasarazten bolumen gogorrean...

Bai, bazegok bide bat
gure herrira heltzeko, bai.
Hik eta nik bazekiagu
nora dihoan, anai...

Jon disfrutatzen ari zen Afrika, ni ordea Plana Nagusian kateatua nengoen, egun osoan paperak begiztatzen eta posta ordenatzen erementau behar baten, kontablea nintzela aitortu nuelako. Kontablea ez, mozoloa. Biharamunean, armosura nindoala, zorro zarratu bat luzatu zidan tenienteak.

– Kapitainaren ohar bat oasiak marraztera etorri den hire lagun horrentzat. Kalabozoan dago.

Horrelako gauza txokanteak jazotzen ziren Chacal gotorlekuan, kapitainak isileko mezu bat pasatzen zion tenienteari, kapitainak berak egunero alboan edukitzen ninduen honi entregatzeko, kalabozoan morroiloa emonda zeukaten soldaduari eskura eman niezaion. Kapitainak ezer hutsean zeukan tenientea extremeñua zelako, eta ostikopean ibiltzen zuen. Orpo jokoa egin nuen bada kalabozora eta hantxe zegoen nire laguna, tenplau, lurrean luze kolkoan barrena eta prakapetik gora zebilzkion tximutxen ardura barik. Zertan ibili zen eta uzteko bakean, arnasa domatzeak kontzentrazinoa eskatzen zuela.

– Mezu bat dakarkiat, kapitainaren mezu sekretu bat.

– Utz ezak hor eta utz nazak hemen.

Bi edo hiru egun geroago, gehiago ez, Jonek marrazteko zeuzkan lamina haietariko batean zeukan murgildua kapitainak burua. Mahaiaren ertzean laga nion kafesne katilua egun onak emanez.

– Begira ezazu hau, Azkarate.

Aurpegi ederra zeukan emakumezko hark, baina gorputzak, gorputzak bihurritutako odoloste meta bat emoten zuen, titiak beso eta besoak zango eta zangoak belarri, eta potxorra izan zitekeena eskumako galtzarbean zeukan, lau mailubi gorri txirbil berdez osaturiko habiaren erdian

– Esadazu, Azkarate, zuk uste duzu hau andra hau kristaua izan litekeela? Zuk uste duzu marrazki honek iratzartzen ahal duela soldadu nekatuaren libidoa?

Zorionez puskatxo bat haserre zegoen inoren erantzunik jasotzeko, telefonoa hartu zuen eta kalabozoko mameluko hura bertara ekartzeko segiduan agindu zuen.

– Eta dutxatu dadila honakoan.

Telefonoa eskegi, kafesne katiluko whiskyari hurrupa luze bat eman, gozamenezko hasperena egin eta orria begietara jaso zuen barriro.

– Nire kapitaina, nik ez dut arte modernoa ulertzen...

– Azkarate, ez naiz arteaz ari, libidoaz ari naiz! Zuek euskaldunek, ez duzue libidorik?

– Barka ezazu nire kapitaina, nik esango nuke, zure baimenarekin, horrelakorik ez dela ikusten altzari dendetan. Gauza artistiko bat egin dizu.

Akaso, akaso... errepikatu zuen lauzpabost aldiz marrazkiari begira, pentsakor.

– Azkarate, laster ikasiko duzu nola leziatzen diren tropako larjakinak. Inoiz kapitainaren maila hartzen baduzu zuen armada euskotarrean, ondo etorriko zaizu.

Poza ezpainetan zuela sartu zen Jon Larrea Plana Nagusiko buruarenean, eta halaxe begiratu zion, barrez, kapitainak krimen baten froga moduan erakutsi zion marrazkiari.

– Zuk uste duzu hau nire emaztea izan litekeela? Zuk uste duzu nire emaztea, larru gorritan, horrelakoa dela?

Jonek besoak luzatu zituen irudi aldera, eta eskultura bat laztantzen ariko balitz moduan mugitu zituen eskuak marrazki bihurri haien lerroak segituz, Labirintoa eta Oasia berbak aipatuz, Erotismoz betetako koadroa da. Kapitainak itxaroteko adierazi zidan eskua-

rekin ezpainak zimur eta begiak zorrotz, laster ikusiko nuela lezioa.

– Eskatu zenidana egin dut, nire kapitaina. Seguru nago asko gustatuko zaiola zure emazteari. Sekula egin dudan lanik ederrena da. Labirintoko Oasia du izena.

– Kontua niri gustatzea da ordea! Niri! Isildu zaitez, Larrea! Erotismoz betea, mamarratxo hori? Zuk adarra jo didazu, nik harpa joko dizut.

Eta mahai gainean laga zuen lamina, ahuspez.

– Oasian gaupasa egiteko adorea behar da, baina adorea ez da nahikoa militar ona izateko, eduki behar da irudimena be. Beraz, ikusirik bietatik ondo hornitua zaudela, kabo izendatzea erabaki dut.

Hori bai ez zitzaiola burutik pasatu Joni. Ezta niri be. Kapitainak barre anker bat egin zuen, garaileare-na, burua niregana jiratuta.

– Badakit ez dakizula gidatzen, ez dakizula idazten, ez dakizula irakurtzen, ez dakizula batuketak egiten... Marrazten be ez dakizu, antza denez. Espainiako Armada inozoz betea dagoela esan badizute, informe txarrak dauzkazu. Galdera bat egingo dizut, erra-zagoa ezin, eta asmatzen baduzu, ez zaitut kabo izen-

datuko. Zuk ez dakizu ezer, eta eskatuko dizudana jakiteko ez duzu zertan ikasia izan. Zer iruditzen?

– Barka ezazu nire kapitaina, hain zaila baldin bada ez asmatzen, tranparen bat edukiko du galdera horrek.

– Ikusten, Azkarate?

Luze samar geratu zen kapitaina Larrea kabogai Iarrituaren berbak hausnartzen.

– Larrea... Lagun kutunik, emaztegairik edo antzekorik ba duzu?

– Badakizu baietz, astero iristen zait gutuna.

– Akaso... Bai, akaso, zer iruditzen zaizu, egin didazun mamarratxo horri neure emaztearen aurpegia kenduko bazenio, beste bat ipiniko bazenio, zure emaztegaiarena adibidez, agian, zer iruditzen zaizu, hartuko ote nuke, zelan esan... kalentura erotikorik?

Hurrupa batean hustu zuen whisky hondarra inon diren patrifiliorik mardulenak murmuxetan ziharduen Jon Larrea Calafeli ez entzuna ez ikusia eginik, eta altxatuta, aurrean zeukan senargai irainduaren inguruan itzulika, galderaren atarikoa egin zuen honakoan niri begiratzen zidala eta harakoan hari begiratzen ziola.

– Destino hau eskatu baino lehen, Bilbon egon nintzen urte batzuk, hango Komandantzia Militarrean, isileko lanak egiten. Ulertzen duzue, ezta? Ez naiz partea emoten hasiko, beraz. Ezagutzen zaituztet zuek biak, badakit nondikako ezpaletatik zatozten. Zuek biak eta harmonika jotzen duena eta laugarrena be bai, lesakar hori, eta bosgarrena ez naiz gogoratzen, apuntatua daukat. Derrigortuta etorri zarete eta ez diozue gure banderari zin egin eta hori guztia. Galdera bakarra egingo dizut... Zure ustez, une honetan bertan, bederatziak eta hamabietan, alegia, penintsulako hamarrak eta hamabietan, nolako eguraldia egiten ote du Bilbon?

Ezpainak estutu, burua sabairantz jaso, eskuak ukabil itsutu: horra ba lakioa, izan zitekeen haizea, elurra, txingorra, euria, zirimiria, hozkirri edo sargori, kapitainaren azpiko zegoen eguraldia. Jonek ez zeukan urtenbiderik.

– Ez diozu lagunduko zure adiskideari, Azkarate? Zer konpañerismo mota da hori?

Baina nik Bilbon kutsadura itzela izaten zela eta eguraldia be ez zuela ikusten uzten erantzuteko astirik emon barik jaurti zuen Jonek, etsita, kostaldean

eguraldia txol aldakorra izaten dela. Niri begira geratu zen kapitaina ezpainak barre eginda.

– Ikusten, Azkarate, zelan harrapatzen diren larjakinak? Ipini ezazu makinan izendapenen paper ofiziala eta hasi betetzen.

Eta berak eskua ipini zion sorbaldan Jon lagunari.

– Gainditu duzu azterketa!

Jon, hura entzunik, tentetu egin zen, kokotsa harrotu zuen, niri begira, zurrun, lakioan harrapatutakoa kapitaina izan balitz moduan.

– Juan Jose Larrea Calafel, Armada Espainiarren Tropa Nomaden kaboa izendatzen zaitut Kanarietako Kapitain Nagusiaren izenean. Lau gizon izango dituzu laguntzaile, lau euskaldun gudari, eta neure agindue-tara egongo zara zu-ze-ne-an. Ados?

Kaboaren Kartila atera zuen tiradera batetik, buruz ikasteko emon zion txingarretik irri maltzurrera aldatua zen Jon lagunari, nik Una Grande Libre zioen arranoaren pean idatzitakoa uzten niola mahai gainean, Canarias Juan Larrea Calafel R. 1.975-3º llamamiento Agrupacion de Tropas Nomadas del Sahara vacante reglamentaria nombramiento Cabo.

Beste zaindariek ez dute hitzik egiten, aginduak ematen dizkidate, isilik egoten dira eta noizean behin Ez zaukaat ezer hire aurka, baina ihes egiten saiatzen bahaiz arrafaga batekin frijituko haut. Kaputxa kentzeko imintziorik txikiena ikusten badiat, frijitu eginen haut berdin. Edo burla. Nahi, urdaiazpikoa ogi tartean? Alkohola eskaintzen didate, sudur azpian ipintzen didate whiskya, kaputxan barrena sumatzen dut. Ipurdia eskuarekin edo harriarekin garbitzen ote dugun. Beti kontu berdinak, ez naute behartzen erne egoten, berdin zait, europarren arrazakeria zabarraren katalogoa errepikatzen dute, gizajo hauen obsesio sexual guztiekin. Aspertu egiten dira eta isilik geratzen zaizkit ondoan. Huts ematen dut euskaldunaren jarduna, kantuen malenkonia hori, algara zoro hori, niri baino bere buruari eskaintzen diona. Batzuetan barre eginarazten dit. Ez dakit plan baten pieza den edo libreki diharduen. Maila politikoa du, eta baliteke euskaldunen herri horren borrokan inplikatua egotea. Gaur Aalisalemen ezkontzaz aritu zait berriz. Ez nekien Aalisalemek hainbeste morroi zeuzkanik, lau mauritaniar dauzkala esan dit, dirua daukala eta otutzen zaion guztia erosten ahal duela. Eta paper batzuk irakurri dituela, paper batzuk azaldu direlako kuartelean barreiatuak,

gure paperak, horrelaxe, zuen paperak, Polisariorenak. Batetik Maroko, besterik Polisario, hemen denak kaka eginda zaudek, Xabier, Kaka eginda dauzkazue espainiar harro horiek. Oraintxe dela une egokia kolpe on bat jotzeko. Burutik dago, zer uste du. Edo tanteatzen ari da. Ez dut uste Indar Nomadetan dabiltzan gure anaiek gotorlekua hartzea pentsatu dutenik. Gero eta maizago gertatzen zait zaindari honen hitzak nire pentsamenduaren jarraipena izatea, ez dakit zertara iristeko asmoa duen. Irakurri dut panfletoa, esan dit, Eta Mendebaldeko Sahararen independentzia aldarrikatzen duzue. Guk sozialismoa batu diogu independentziari, euskaldun guztiak berdinak izateko izanen da Euskal Herria libre. Eta Aalisalemen ezteietan egin zen festaren musikaz eta kantuaz gozatu ote nuen galdetu dit ostera. Noski gozatu zenuela. Baina ez dakizu biharamunekoa, hori ez dizute jakinaraziko. Izugarri tristea izan zen. Ez dakit egia den ondoren kontatu didana. Gure antzinakoen kontuak zirela horiek uste nuen, agian nik uste dudana baino europartuagoa nago. Aalisalemek neskato bat erosi du hirugarren emaztetzat, eta ez da gauza izan emaztetzeko, ez da gauza izan maitatzez menderatzeko, bortxatu egin du ohorea ez galtzearren, urratu egin du neskatoa, ga-

rrasitan eta odolusten utzi du eta medikua eskatu dute familiakoek, kapitain medikua, eta neskatoaren egoera ikusi duenean anbulantzia bat eskatu du Al-Ayyungo ospitalera eramateko... Neskatoak aurre egin zion eta borroka egin zuen. Nik ez nuen neskatoa ikusi, Aalisalem ikusi dut gaur goizean, begi bat gal dezakeela ematen du. Zure anaiek, gure tropa nomadako gerlari horiek, mespretxuz behatzen diote orain. Ez hamabi urteko neskato bat bortxatu duelako, larrutara errenditzen jakin ez duelako baizik. Zer pentsatzen duzu horretaz, Xabier?

Birritan apurtu zuten Polisariokoek Bu-Craako fosfatoa Al-Ayyunera eroaten zuen zinta luzearen katea gure soldadutzaldian. Espainiarren interes ekonomikoei erasanez, estrategia garbi bat adierazten zuten, Espainia egon zitekeen Marokoren aurka baina horrek ez zekarren Sahara ustiatzeko eskubidea zeukanik, okupatzailea zen. Fellagha saharararren ekintzek politika kolonial bat ipintzen zuten argitan. Jonek aipatu izan zidan Espainia diktadura bat izatea komeni zitzaiola Polisariori nazioarteko erakundeen onespena jasotzearren.

– Horrek esan nahi dik Franco bizi den bitarte egin behar dutela gogor.

Euskara sanoan adierazteko, aberriarekikoa amaitzeko geratzen zitzaizkigun zazpi hilabeteetan ez genuela gogaitzeko astirik izango. Handik astebetera fellaghetara batu ziren gure Tropa Nomadetako patruila bi, desertatu egin zuten arma batzuk lapurtuta. Geroago, Smaran, lau patruilak desertatu zuten, ofizial batzuk bahituta Aljeriako mugapean zeuzkaten kanpamenduetara eroanez. Hala eta guzti, Polisariori ez zitzaion enfrentamendu zuzena komeni, gerrila joaldiak egiten zituzten, odolik isuri barik, eta hori nasaigarria zen guretako. Haiena zen orain danbolina, eta atsedenik hartu ezinda genbiltzan Chacal gotorlekuan, munduko tximutx guztiak oldartu izan balitzaizkigu ez ginen halako dantza zoroan ibiliko: laster tankeak azalduko zirelakoak, helikoptero hura zertara etorri ete zen, natiboak nagi zegozela aginduak betetzeko, aginduak edonora, kontraginduak edonoiz, ariketa taktikoak, guardia indartuak, nomadeoak, alarmak... Eta segurtasun neurri haiek guztiek ez zekarkiguten sosegurik, Cetmea alboan geneukala egiten genuen lo. Asko bakandu ziren kapitainak emaztearekin eta Al-Ayyungo fanekekin egiten zituen telefono tertulia

erotikoak, eta asko ugaldu ziren hango kuartel nagusiko deiak. Transmisinoetakoek be nobedadeak ekarri eta ekarri ziharduten. Egun haietariko batean, inoiz jazoko ez zitzaidala uste nuena jazo zen.

– Azkarate, ez dezatela esan zu ez zarela gudari bat!

Egundoko arinen abiatu nintzen kanpainako arropa jantzi eta nire Cetmea hartzen, bizi arriskuan sartzen ahal nintzelako pozak zoratzen. Armategian Jonekin egin nuen topo, munizinoa kargetan nire laguna.

– Fellagha bat harrapatu ditek!

Ahora berbarik ez zetorkidala geratu nintzen, zer operazino mota ete zen gurea?

– Lagundu kargatzen, arraioa! Espainiar hauek deskuidu batean akabatu dezaten baino lehen iritsi behar diagu!

Berak marraztutako mapa erakutsi zidan, desertuaren mapa puntuz betea, eta iparrorratza ipini zuen gainean. Arruta markatu zuen lapitzez.

– Geronek egingo diagu transmisioa.

Kapitaina heldu zen irrati probak egiten ari ginela.

– Ederto, Larrea. Adorea eta irudimena, baina dena neurrian, batez be irudimena. Prisioneroak ez dezala jakin nora datorren, eta datorrenean ez dezala

inork ikusi. Konfiantzazko misinoa da hau, euskaldunek egitekoa.

Gezurrezko eztultxoa egin nuen, eta kapitainak bekokia zimurtu zuen ohi zuen lez.

– Azkarate, gurago duzu ekonomatoaren kontuak errepasatzen geratu, gerrako bataiora barik?

Bulegoko takoitu-tentetu-agurtu hura barritu nuen.

– Entzun ondo, Azkarate. Larrea kaboa bere graduari ez dagokion portaeraren batean jausten bada, degrada ezazu bertan eta ekar ezazu lotuta.

– Barka ezazu, nire kapitaina, Larrea kaboa da eta ni soldadu soila...

– Bizkorragoa zinela uste nuen, Azkarate. Larrea da operazino honetan komandoburu, zu patruila honetako komisario politikoa zara. Ulertzen? Fronte militarra, fronte politikoa. Transmisino postuan egongo naiz zuek etorri arte, ordu laurdenetan egingo dugu kontaktua. Pasoko berba, barrenkale.

Kaiser heldu zen, zoko guztietan usain barriak asmatzen ibiltzen zen artzain alemana, tenplau, ilea luze samar, jabearen ondora.

– Presonerak ez du jakin behar nora datorren. Horretarako dauzkagu euskaldunak Espainiako Armadan. Hitzik ez gaztelaniaz haren ondoan! Ulertzen?

Kirtenkeriaren bat erantzutekotan egon nintzen euskaraz.

– Zaindu zeuen burua! Su egitekotan, izan dadila ezinbestekoa zaizuelako. Babesteko sua baino ez.

Eta alde egin zuen bizarra Chacaleko bazter guztietan erakusten zakur leiala lagun zuela, gaua emoten Al-Ayyunera joaten ez zen bakanetan egiten zuen lez. Garate gernikarra azaldu zitzaigun ezerezera, hura be gerrarako gertu.

– Lesakari beherakoa eman dio, ala?

Trepeta guztien errepasoa egin zuen Jonek Petrirena azaldu bitartean, ura, munizinoa, gasolioa, linterna... Aginterako sena zeukan, komandantea zen hura, bai!

– Orain gerraren erotismoa ezagutuko diagu.

Hori esan ei zion kapitainak, eta kapitainaren larjakinak leziatzeko hura etorri zitzaidan akordura.

– Bost euskaldunak Land-Rover batean... Mina bat jota erementau, horixe gertatuko zaiguk, planifikatua zagok!

– Azkarate, hik zer uste duk, komisario politikoa haizela edo?

– Hi komandoburua haizen bestekoa.

Inork kalterik egin gura bazion atxilotuari, neurririk gogorrenak hartzeko, atxilotua gotorlekura onik ekartzea zela gure helburua, kapitainarenak errepikatuz.

– Arranopola! Onik geuk heldu behar diagu!

– Guk soldadu heldu behar diagu, oraindik erreklutak gaituk. Bataiora goazak!

Ordu erdiren buruan alto egin eta bigarrenez egin genuen kontaktua Chacalekin. Ura edan, samak busti. Garagardo batzuk hartzea gogoratu ez.

– Okerragoa duk lefaren kontrapozoia ez ekartzea.

– Arranopola! Gerrara urten eta sugearen haginkadak hiltzea galanta litzateke gero!

Itsaspeak zoragarriak direla aipatu ohi zidan sarritan Jon Larreak. Nik ez dakit zelakoa izango den itsasoaren hondoa, zoragarria izango dela sinesten dut, dena haitz eta bedar eta mendi eta troka eta bafora ugertu eta marinel hezur, baina badakit Sahara zelakoa den, eta Sahara daukadanez beti gogoan, itsasoaren azpi hori egiten zait hotza eta iluna eta tristea eta abandonatua, horixe, abandonatua, hilerri zahar

bat. Saharan egon zintezke bakarrik harearen gainean kaburik ez daukan zeruertzean hondar garaurik mugitzen ez dela, eta ez zara sentituko inoiz bakarrik, Sahara ez delako abandonaturiko basamortua, Saharan eguna beroa da eta gaua hotza, epelkeria bako lekua da, leuna batzuetan, garratza bestetan, erreka sikuaren ostean oasia topatuko duzu, eta ilundutakoan galaxia osoak datozkizu begietara eta eskuko hatzak be ez dituzu ikusi ahal izango iretargi bako gauetan. Bestelakoa da Sahara, bai, ez zidan gezurrik sartu Arruabarrena alferezak, patruilan nindoan samaraino armatuta zimitarra eta guzti isileko maniobra batean eta bihotza zabal nindoan, zoragarria zen beroa, zoragarria sirokoak zekarren hareak estali ahal gintuela jakitea. Denboraren jabe sentitu nintzen desertu barruan, Jonek behin esan zidan lez. Absurdu zentzuduna, gozamena, betetasuna. Orduan, une hartan, mundua tutuluko estratan zegoen niretzat.

Bi aste egon naiz beherakoarekin eta egundoko tripako minarekin zuen erruagatik, hasi zait gaur. Inspekzio bat egitera irten zela gida natiboetarik batekin eta bi soldadurekin. Karabana batekin egin zutela topo Al

Masseiedeko oasian. Kalaxnikovak zeuzkaten, eta tiro lehiaketa egin genuen, denok gure Cetmeekin lehenik, eta denok haien Kalaxnikovekin ondoren. Zeinen tresna onak, Kalaxnikovak. Zuek ez daukazue horrelako armarik, komeni zaizue tratua egitea tuareg horiekin. Eta lehiaketa berak irabazi zuenez, dromedarioa jatera gonbidatu zutela. Ez da zuen errua izan, neure errua izan da, ekarri nituen soldaduek ez baitzuten jan usandua zegoen haragi hartarik. Nik jan egin nuen errespetuagatik, haien eskainia eskertzeagatik. Orain-dik ez naiz erabat sendatu. Hondarpean ondutako haragia omen zen. Guk gatzetan ontzen dugu, edo ketan. Herri bakoitzak bere ingurura egokitzeko modua egiten du, Polisarion hartuko banindute, ni saiatuko nintzateke dromedario usandua jaten. Animalia ederra da dromedarioa, marrazki bilduma bat daukat dromedarioena. Zurea ere bai, zure bildumak Xabier nire presonera dauka izena, eta kaputxarik gabe zaude, eta lamina guztietan aurpegi desberdina daukazu, zu presoner eredua zarelako, espainiarren presonera euskaldun batek zaindua, ulertzen duzu? Inoiz baino berritsuago etorri da. Zalantzan egon nintzen soldadutza egin ez egin. Egitea erabaki nuen, inposaketa hori bete eta libreago itzultzeko nire herrira.

Abisatu zidaten desertuak liluratu egiten duela, eta ez nuen sinesten. Baina Saharak bereganatu egin nau. Atzo kapitainak permiso bat eskaini zidan, hamabost egunekoa, nire herrira joan ahal izateko. Ezetz esan nion. Saharak bereganatu egin nau ni hemen nagoen bitartean, ez pentsa. Etxera joanen banintz permisoarekin, ez nintzateke hona berriz azalduko, Euskal Herria izugarria da, ezagutu behar zenuke, ezagutu behar zenuke zer den itsasoa eta zer den mendia, bereganatu eginen zintuzke, egitan ari naiz. Ez dut exiliora joko soldadutza ez betetzeagatik, Ez da arrazoi sendo bat Euskal Herria uzteko, ulertzen duzu? Paper hotsa, gutunen bati pleguak kentzearena. Nire emaztegaiari idatzi diodan gutuna irakurriko dizut. Amaia laztana, Sahara edertasun gardena da, zure kopeta bezala. Amaia laztana, Sahara arrain eta karakola fosilez josia dago, zure eskuak dirudite. Amaia laztana, Sahara izar guztiek beren burua ikusi nahi duten putzua daukan gaua da. Amaia laztana, Sahara munduko maitaleen gorputzak estaltzen dituen urrezko izara da. Amaia laztana, Sahara egunsentiaren garbitasuna da. Amaia laztana, Sahara eguzkia gozoen xukatzen duen hondartza da. Amaia laztana, aurreko astean lefa suge gaiztoak lagun bati heldu zion hondar gai-

nean etzan zelarik, eta bizia salbatu nion jeepean beti eramaten dudalako ziztadaren aurkako kontrapozoia. Amaia laztana, Sahara herri bat askatasunean bizi litekeen zelai handia da. Amaia laztana, kanpamenduren batetik igarotzen garenean, umeek harrika egiten digute. Amaia laztana, ez zenezake idurikatu nolako edertasuna den Sahara. Paper hotsa berriz, gutuna tolestatzen. Eta gero, ahapetik, Amaia laztana errepikatu du azken aldiz, Zure bularrak baino zuriagoak dira hildako dromedarioen hezurrak.

Armak tarteko direnean, inork desio ez duena gertatu ohi dela. Behin eta birritan gogorarazten zidan hori kapitainak, Polisariokoek ezin izango zutela luze iraun odolik isuri barik, beraiena eta inorena. Bu-Craatik Al-Ayyunerainoko ehun kilometroetan bazutela nahi beste aukera, ausartu nintzen esaten, fosfatoa garraiatzen zuen zinta apurtzeko inor zauritu barik.

– Azkarate, goiz edo belu, arma egiten da eskuaren jabe.

Eta hala gertatu, gure patruila batek, hartara barik, topekada jo Polisarioko batekin. Kapitainak igarria zeukan lez, tiroketa sortu zen eta fellagha bat ha-

rrapatu. Burkideek ihes egin ahal izan zuten, eta patruilakoak gure zantzuan zegozen presonera jaso genezan, beraiek iheslarien atzetik jarraitu ahal izateko. Land Rover zahar bat laga zuten, hondatua, eta seguru zeuden harrapatuko zituztela ilundu baino lehen.

– Ez zagok inolako presarik!

Ahoa ireki nuen, eta Jonek barritu egin zuen ez geneukala hitzordu zehatzik. Lesakarrak, Petrirenak, moteldu egin zuen abiada. Ikaratu egin nintzen apur bat, larria izan zitekeen, etsaiarekin kolaboratzea edo.

– Ez zaiguk komeni gure gotorlekuko natiboek beren anaien atzetik gabiltzala pentsatzea. Kapitainaren oharra.

Dezepzionatu egin ninduen argibideak, nik ulertu nuen fellaghei nonbait ezkutatzeko astia utzi behar geniela. Gero usmatu nuen Petrirenagaitik zela, ez zeukan maila politikorik eta hobe zela inozo mantentzea usteko zuen. Horretara zetorren seguruenik kapitainaren oharra zelakoa be. Adiskidetu egin ninduen Jonekin, lukia zen. Ni, karramarroa.

Harkaitzezko mendilepo baten orpoan zeuden Chacaleko legionarioak, barrandari bat zeukaten ipinia gailurrean. Begizko kontaktua egin genueneko, soseguz hurreratu ginen. Ehunen bat metrotara, geldi-

tzeko, Land Roverra trabeska ipintzeko babesgarri moduan eta irteteko armak eskuan. Burua estaltzeko zapi bat atera zuen kolkotik.

– Zuek hemen geratu. Ez zakiagu nola edukiko duten gizajo hori.

– Prismatikoetatik lurrean daukatela zirudik.

– Zer nahi duk edukitzea, tapiz baten gainean eserita tea hartzen ala? Kaputxarik gabe baldin badaukate, neuk ipiniko zioat. Ezin gaitik ikusi eta ezin dik aztarrenik atera nora goazen. Ez kendu zeuen zapiak aurpegitik badaezpada ere. Chacalerakoan, Petri, noraezean ibiliko gaituk jiraka, fellagha desorientatzeko. Azkarate, hik segi nazak prismatikoekin, eskua altxatuko diat zuek bila etortzeko.

Pauso bi egin zituen Polisariokoa inbaditzaileen atzaparretatik libratzeko eta, halako emozinoak hartu ninduen, halako ez dakit zer erregarri batek ze, Jon! jaurti nuen marranta baten, eta burua itzuli zuenean besarkada estu bat emon nion, beste horrenbeste egin zuen Petrirenak eta Lawrence de Arabia! esan zidan Garatek bazihoan Jon Larreari begira, Lawrence de Arabia! Irratia zarataka hasi zen, baina ez genuen zirkinik egin, lotuko genuen geuk kontaktua, operazinoaren gaitzenean gengozen. Altxatu zen lurrekoa.

Jonen tamainakoa zen, ez luzeago. Zapian bildu zion burua eta guregana hartu zuen, eskua altxatu barik. Ke eta hondar hodei batean ezkutatu zitzaizkigun legionarioak mendilepoa zeharkatzeko moduren baten bila. Ezin dut berbetan adierazi zer sentitu nuen Polisarioko gazte hura hurreratzen zitzaigula. Al-Ayyunen neukan mindura bardina sortu zitzaidan urdailaren zuloan, gu nagusi Saharan, desertuko umeak arlote, ez geneukan lotsaren arrastorik. Jonen sinu bat nahikoa izan genuen aditzeko: eskuak askatu genizkion aurrena, gero, kontu handiz, ez zuen bonba bat hobeto manipulatuko, zapia kendu zion Jonek, ura eskaini zion lesakarrak. Eta mutilak hartu ez. Begiratu be ez zigun egin, zeruko punturen batera zeuzkan begiak, gu harri kozkorrak ginen. Une hartan dena konprenitu genuen, aurpegi hura geure bizi guztian gomutatuko genuela, begiratu hark gure azalak, gure izenek, gure hizkuntzak, gure kantuek, gure Espainiaren ukoak, gure borondate onak ezti koloreko begi gorritu haientzat suposatzen zuten guztia edukiko genuela lepo gainean hil arteraino. Jonen ondoan zetorrela, fellagha hari eskua tinkatuko niola pentsatu nuen. Aurrez aurre neukala, ukitu hutsarekin zikindu egingo nuela jausi nintzen kontuan. Orduan Jon Larrea Calafelek saio de-

sesperatu bat egin zuen, Entzun esan zion gaztelaniaz. Bere hartan jarraitu zuen fellaghak. Eta Jonek, astiro, samur, elkar ulertzeko saioa egin zuen.

– Operazio berezietako patruila gara. Tropa Nomadetan gaude. Ez gara espainiarrak. Ez gara mertzenarioak. Euskaldunak gara. Euskal Herria Espainiaren eta Frantziaren mende dago. Presonerak gara geu ere Saharan Espainiako Armadan. Bat egiten dugu Saharako herriaren borrokarekin. Ez dizugu kalterik egingo. Inork ez dizu minik emango.

Aditu al zuen galdetu zion azkenik. Baginenik ere harentzat, begiratu galdu hartan jarraitu zuen. Gu baino gazteagoa zen arren zaildua zirudien, latzenerako entrenatua Aljeriako FLNko fellaghekin. Nire herria liberatzeko borrokan ari naiz, zioskun mututasun hartan. Jonek hasperen egin zuen, Entzun esan zion frantsesez, eta gure esku leialetan jausteko adur baltza eduki zuen gaztea sirokoak higatu ezin izango zuen estatua bihurtu zen ostera be.

– Frantsesek Aljeria okupatu zuten. Aljeriarrak altxatu egin ziren frantsesen aurka. Frantsesek gure herria okupatzen dute, Euskal Herria. Espainiarrek...

Belarrietara eroan nituen hatzak, nik ez neukan fellagharen tinkotasuna, ezin nuen barriro eroan Jonen

alferrikako erretolika, urdaileko mindura harea zen, Saharako harea nire poroetatik zehar bola bat osatzen, oka egitekoa eta ezin, ezaguera galtzeko zorian.

– Heldu mutilari. Oratzeko mutilari, ostia! Lurrera!

Gero, barkamena eskatu antzean, apaldu egin zuen ahotsa.

– Mutila lurrean etzateko esan dizuet. Ahoz gora ordea, ahoz gora!

Erraz lurreratu genuen, ez zuen indarrik egin, baina gure kaboa bidoi batekin zetorrela ikusi zuenean, askatzeko ahalegina egin zuen, hotzikara lako bat. Su emonik erreko genuela uste izango zuen. Bustialdi on bat emon zion Jonek, eta tarteka, ahoa zabaldu barik edan zuen ezpain artetik hurrupatuz. Burua bildu genion. Bidean ez genuen izan berba bakarra be ateratzeko ganorarik. Bostok higuin bardina geneukan barruan, nik uste. Geldialdi bat egin genuen Chacalera guztiro ilunduta iristeko. Bolanteari esku bat lotu eta meloi laurdena ondoan zeukala laga genuen fellagha, zapia kenduta. Aldendu egin ginen apur bat mutilak gura zuena egin zezan guk ikusi barik. Garate ahosoinua ezpainetan, Petrirena eta Lasa txizaginean, Jon eta biok fosil bila.

– Zapia kenduta taxua hartuko ziok non gagozen.

– Berarekin alde egin behar genian Tindufera. Ez zidatek gasolio gehiago hartzen utzi, kakazaharra.

Meloia bere hartan zegoen, ukitu barik. Kontaktuak egin genituen kapitainarekin eta eskuak lotu genizkion gotorlekura baino lehen.

– Lan bikaina, mutilak!

Garajean aldagarritarako geneuzkan Barreiros hondatu haietariko baten llanta bat ekarri, katea pasatu eta soldatu egin zuten, antza. Katearen azpitik lotu genizkion eskuburdinak. Tomate lata bat zeukan gorputzekoak egiteko.

– Larrea, nekatua? Ederto, hasi zaitez presoneraren zainketa antolatzen. Azkarate, ekintzaren informe zehatza nahi dut. Petrirena, Garate, Lasa, astebete zerbitzutik libre.

Biharamunean, kapitainak aitortu zidan Kanarietatik heldu zen eskaria atzeratzen saiatua zela azken asteetan, goi samarretik ei zetorren, berba horiek berak erabili zituen, goi samarretik, eta men egin beste aterabiderik ez zuela edukiko.

– Pena hartzen dut, Las Palmasera aldatuko zaituzte.

– Nire kapitaina, nik dut ezer eskatu! Edcherara etortzeko eskatu nuen nik trasladoa. Hemen egin gura dut soldadutza.

– Nik be ez dut horrelako laguntzailea galdu gura. Ez didate jaramonik egin.

Osabaren zapokeria, euskara sanoan esanda. Semearen hoberako eskatuko zion amak, irratietako eta periodikoetako albisteek ikaratuta. Telefonatu nuen etxera eta negarrez laga nuen. Ulertzen dut baina ez nion sekula barkatu. Ez zuen onartzen nik neuk eduki ahal nuela erabakitzekoren bat nire buruaz. Seme bakarra. Onenean, sarriago idatzi banio, argazki batzuk bidali... Horretan amaitu zen nire istorioa Chacal gotorlekuan.

– Marokoarrek hiru unitate gehiago ekarri dituzte mugaraino, presinoa handitzeko. Gure jeneralak ipurdia ezin garbiturik bizi dira egunotan. Yankiak dagoz saltsa honen azpian, badakizu, eta Hassan II.a aliatu estrategikoa dute. Uste dut Kanarietan amaituko dugula denok.

Helbide batzuk apuntarazi zizkidan Las Palmasekoak, fanekerak, jatetxeak, dekomisaturiko gauzen saltegirik onenak, hotel garbiak neskak eroateko eta tarjeta bat, baliatzeko edo deitzeko ei zen, erreparo

barik. Hilabete edo aguanta nezala aholkatu zidan, eta Edcherarako trasladoa eskatzeko barriro. Egon zitekeela aukeraren bat.

– Ez zaitut konpromisoan ipiniko, ez dizut bostekoa luzatuko.

Adinonez erreprimitu nintzen, neuk luzatzekotan egon nintzen eta. Eskerrak emon nizkion. Jonen bila nindoala alto egin nuen erdibidean. Pasatu zitzaidanean, malkoak xukatu eta jakinean ipini nuen. Lotsa gorrian.

– Ikusten? Presonerarekin alde egin behar genian Tindufera!

Estutu sentidu bat emon zidan.

– Hi hoa lasai, ni ez niotek hemen errementauko!

Eta arin baten urrundu zitzaidan lotokietara Jon Larrea Calafel adiskidea, bihotz artega hura.

Hainbeste egun horren isilik egoteko gauza dena goi mailako militantea izaten dela bota dit gaur hitzetik hortzera. Ez dut zalantzarik egiten isiltzeko ugari dauzkazula. Horixe adierazten omen du nire isiltasunak. Eta horrek arriskua dakar, jarraitu du. Isilune bat utzi du konklusioa atera baino lehen. Hassan II.aren

morroiek harrapatzen bazaituzte ez duzu ongi pasatuko. Atxiloketaren hurrengo fasera heldu gara, hemendik harat Marokori entregatzeko mehatxua eginen didate. Bestelako bidea hartu du gero, betikoa, internazionalista dela, munduko herri zapaldu guztien alde dagoela, eta halako batean Euskal Herriak Sahara zapalduko balu, Sahararen alde egonen zela Euskal Herriaren aurka. Lehengo batean esan nizun ni zu gabe galdu eginen nintzatekeela basamortu honetan, baina zu eta biok izan gintezkeela Saharako seme bi. Gogoratzen zara, ezta? Ez neukan gogoan, hainbeste gauza kontatzen dizkit. Nik ere badaukat zertan pentsatua, ez dakit kontzientea den. Neure barruan sartzen saiatzen da hitzen bitartez, neure hitzei lekua kenduta bere hitzen zerbitzura jar nadin. Batzuetan iruditzen zait ez dela kontzientea. Ez dizut esan eta zuk galdetuko ez didazunez, kezka edukiko duzu zer gertatu zen zure lagunekin. Larbi odoletan. Ba... berandu heldu ginen zu jasotzera eta ihes egin ahal izan zuten, ezin izan zituzten harrapatu, ilundu egin zitzaielako. Larbi odoletan. Berandu heldu ginen, ulertzen? Planifikatutako berandu. Eta ezezka hasi da, ez daukadala deusen kezkarik dena dakidalako, gotorleku inguruan jaimetan bizi direnek jakinaren gainean naukatela anto-

latzen dituzten festetako kantuen bitartez. Ezin informatu izan dizutena da trasladoan aterako zarela laster, ez dakit noiz eta ez dakit nora, Al-Ayyungo epaile instruktoreak informe berri bat abiatu duelako. Plana Nagusian omen diote alferrik ari dela kapitaina ahaleginak egiten instruktorea hona etor dadin. Ez dakit egia den, egia izan liteke kapitainak ni hemen bertan edukitzea hobe dela pentsatzea, anaiek ondo nagoelako segurtasuna izan dezaten. Ez zaio komeni haserrerik Tropa Nomadetan, beldurtuak daude honezkero Sahara zapaltzen duten mertzenario hauek denak. Zu, bai, zu, mertzenarioa. Nazka ematen dit zure diskurtsoak, alde egin ezazu hemendik zeure malkoekin, preso egon nahi dut, ez duzu ulertzen, ez dakizu Larbi sabelean zauritu zenutela eta odoletan eraman zutela, odolusten ari zela ikusi nuen azken aldi hartan, odolusten ari zela eta zuek ura edanarazi egin zenidatela, ez duzu inoiz konprenituko, ez naiz inoiz izango zure beduinoa, alferrik antolatu duzu ihesa, alferrik egin dituzu mapak, segi ezazu desertuko haizea eta dromedarioen pausoa eta saharararren kantuak eta Sahararen beraren isiltasuna grabatzen zure Grundigean, ez etorri gaur gauean ni askatzera, presoa izan nahi dut, ez dut fellagha izan nahi, Aljerren ikasi nahi

dut, Parisen ikasi nahi dut, psikiatra izan nahi dut Frantz Fanon bezala... Bai, gaur, edo bihar, eskuburdinak askatu eta Land Roverrera igotzeko agintzen didanean, hil egin behar nuke, ez dakit zerekin. Ni baino indartsuagoa da, gauza zorrotzen bat eskuratu behar dut... Ez da konturatuko. Ez du sufrituko. Nik ere ez dut sufritu nahi, Larbi.

Santa Barbara izeneko bafora bat sartzen zela bera bizi zen portuan esan zidan behin Jonek, eroan barriak ginela, Al-Ayyungo kuartelean. Fosfatoa deskargatzen zuen. Sarritan ikusten zuen, hilabetetik hilabetera. Al-Ayyun izeneko portutik etortzen ei zen. Album batean marrazten zituen moiletako baforak. Laster jausi zen kontuan beste ontzi askok ekartzen zutela fosfatoa. Eta ikasi zuen non zegoen Al-Ayyun, zelan sortua zen Al-Ayyun, zer zen Al-Ayyun. Harrapatu ahal izan zuen guztia irakurri zuen hartaz. Horregaitik eskatu zuela Saharara. Euskal Herrian ez daukagu fosfatorik, Euskal Herrian ez daukagu gasik edo petroliorik, pentsatzen nuen itsasoari begira eta Jonen ametsak gogoan. Euskal Herriak ez dauka inolako balio estrategikorik, eta agian, noizbaiteren baten lor geneza-

ke, gure eskasia horri esker, askatasunaren antzeko zeraren bat. Aza jaten biziko bagara be. Zenbatetan aipatu ohi zidan Jonek Espainiak Marokori buru egiten bazion gerra batean, independentzia proklamatzeko abagunea zabaltzen zitzaigula!

– Estatua ahuldu egingo duk.

Itsasoari begira, akordura etorri zitzaidan fosil bat nekarrela zakutoan. Saharan ondrau dagoz fosilak. Itsas zalditxo batena nirea. Inoiz nire herriko pottoka gustagarri haietarikoren batek baietza emoten zidanerako hartu nuen, zu bazinenik ez nekiela jaso nuen zuretzat. Eguzkiak olatuetan sortzen zituen bristadak gozatzen, horretara, zakutoan neukanaz gomutatu. Lodikote bat ipini zitzaidan ondoan, ukalondoak barandan ni letxe. Berba batzuk egin genituen. Ginea Ekuatorialean oihana esplotatzen zuen enpresa bateko zuzendaria ei zen, egurra batez be. Bilbotarra gizona. Afrika gustetan bazitzaidan, konfiantzako jendearen premian zeudela. Polito irabazteko aukera. Tarjeta emon zidan honek be. Zigarroaren mutxikina jaurti zuen uretara. Ez nituen berehalatik orduan ipini neure buruko orratzak. Zakutoa askatu, fosila arropa artetik atara eta harrika jaurti nuen baranda gainetik. Eta itsaso haren hondoa haitz eta bedar eta mendi eta

troka eta bafora ugertu eta marinel hezur baldin bada, itzel ederra izango da. Laztana, esan ahal nion, Saharako itsas zalditxo bat zara.

Irauntza

Ez du esan Zer egiten duzu horrela jantzita igandean edo Hori al da itxura zu bezalako gazteen artean modan dagoena edo Lotsa ematen didazu. Baina lotsatu egin da inondik ere, denak ez dira turistak hirian eta karrikan dabiltzanek, honezkero, antzemana izanen didate Adelaren semea naizela, Adelaren semea espaloian eskeko baten pare, Adelaren semea espaloian mozkor baten pare, Adelaren semea espaloian jonki baten pare. Eta inor ez da ausartzen noski amari galdetzen Aizu, barka ezazu, Adela, zer gertatu zaio zure semeari? Animoak ematen dizkiote, Zaindu zaitez Adela, Laguntzarik behar baduzu hementxe gauzkazu Adela, horrelakoak egun oroz igogailuan ezkaratzean dendan anbulatorioan. Edo ez. Interpretazioak baino ez dira, bada denbora puska bat ez ditudala aurpegiak identifikatzen ahal, gero eta jende gutiago ezagutzen dut. Hitz egiten dutena 75 itzuliko disko bat 33 itzulitan entzunen banu bezala iristen zait. Boladak izaten ditut. Uste dut oraino ez ditudala zeharo galdu gizakia izan nintzeneko arrastoak. Oroimena, adibi-

dez. Eguzkitan ikusten dut nire burua, umetan, hankak zabal, gimnasia eginez beso luzaka eskuin eskua ezker oinaren puntara eta ezker eskua eskuin oinaren puntara. Mini Cooper bat ikusten dut, gidariak Lasai Xabier, berehala helduko gara! esaten dit, horrelako zer edo zer. Gela zabal bat ikusten dut, ni bakarrik ohean. Fisherman's Friend karameluen lana eztarrian. DDTaren lurrin susmagarria. Sabairen batetik nire gainera jausten diren araknido amorragarri batzuk ikusten ditut. Eta gauza naiz iraganeko iduri horiek eta soinu eta usain eta gustu horiek istorio batean kokatzen. Horregatik nago hemen egonean. Zer egiten dudan honela... Egon. Ikasi. Azkartu. Neure burua erakutsi. Eraldaketa garatu. Materialismo dialektikoa gauzatu. Hartza neguan sartzen den gisan sartua naiz itxarote luze honetan. Guztizko artropodoa bilakatu arte, lurraren erraietan gorde ahal izateko. Ez naiz hemendik mugituko. Ederki nago Iraeta tabernak daukan aterpe honetan, ia espaloi osoa hartzen du eta euriak ez nau bustitzen. Tarteka, kontsumitu gabe geratu zaizkien ogigainekoak ekartzen dizkidate. Batzuetan jaten ditut, beste batzuetan ez. Garapen prozesuan nago eta aldiak izaten ditut. Atzo labezomorro bat jarri zitzaidan aldamenean, izterrez izter. Horrelaxe egon

nintzen ez dakit zenbat, izan zitezkeen hiru ordu. Ongi. Ez al nuen maitasuna egin nahi galdetu zidan, maitasuna egin berarekin. Zer pentsatu ez nekiela geratu nintzen, garapen prozesuan nago eta ez naiz ezertaz seguru. Sumatzen dut molekulak aldatzen ari zaizkidala, baina ez dut uste feromonarik sortzen dudanik, bestela ez zidan horrelako galderarik eginen, gainka eginen zidan. Neronek ere ez dut lurrin berezirik aditzen nire gorputzaren txokoetan. Zikin samar nago, ezin uka.

Zer diziplina mota da hau! Zer ari zara zeure gilborrari beha? Ez nengoen neure gilborrari beha. Gezurra zen. Altxa hadi, gaznápiro! agindu zidan ondoren, eta algaraz hasi zen klase osoa. Ez nintzen altxatu. Beste gauza bat guztiek zekitena eta nik ez. Zer esan nahi ote zuen? Errinozerontearen antzeko abere astunen bat, alferrak diruditen horietarikoa, izterrak zabal besoa luzatuz eskuin eskua ezker oinaren puntara eta ezker eskua eskuin oinaren puntara izerditzeraino aritzeko talenturik ez daukana. Gafotas esan izan balit ez ziren barrez hasiko, Gafotas klaseko ergelenek bakarrik esaten zidaten, gainerakoon gorrotoa eta beldurra

biltzen zuten harro haiek, nota onenak jasotzeaz gain klaseartekoetan basketean ibiltzen zirenek gure ostikoak ez hartzearren. Gaznápiro. Antzinako dinosauroren bat. A zer memelokeria, dinosauro guztiak dira antzinakoak. Baita gaur egun bizirik daudenak ere. Zer ote? Nik ez nion ezein irakasleri entzun horrela iraintzen inor. Labezomorro baten izena, apika? O, ez! Nola zen posible labezomorro baten izena mespretxu egiteko erabiltzea? Gaizki hartu nituen Don Sebasen epiteto hura eta klasekoen algara labezomorroengana. Aurreko astean arrebak esan zidana etorri zitzaidan gogora eta haren isilekoa agerira ateratzea bururatu zitzaidan, denak jabe zitezen nik bestek ez zekien sekretu beldurgarria. Ez nintzen ausartu. Aizu Don Sebas nik, burua makur, begiak arrakalatxo batetik irten eta zementuaren lakarrean barrena ikerketa patxarosoan zebilen labezomorroari emanik, Ez niri burlarik egin, eta burua jaso nuen, Nik badakit zu zer zaren. Hori besterik ez, arrebak hain zehatz esan zidan hitz hura aipatu gabe, lanbidearena, benetako lanbidea ez baitzuen gimnasiako irakasle. Lehen aldia zen inork kontestatu egiten ziola, diziplina akats larria zen. Une horretan ez nuen ezertan pentsatu, aho zabalik geratuak ziren gelakideei egin nien irri, eta ondoren, ez baitze-

torren ez ostikorik ez belarrondokorik, Don Sebasengana jiratu nuen burua. Izoztua zegoen, besoak zintzilik, eskuak hilik: labezomorro bat argi zabalean eta patioko zementuaren gainean! Eta behakoa hartan emanik zeukala Zutik, lasterketa, hiru itzuli, dosifikatuz! oihukatu zuen, Bukatutakoan aldatzera, amaitu dugu klasea! Lasterkak hamar minutu irauten zuen, beste ordu erdia geneukan oraindik. Jaikitzen hasi nintzenerako Don Sebas zuzendaritzarako bidea hartua zen. Prefektuarekin hitz eginen zuen, edo zuzendariarekin. Kondukta txarra, punturen bat kenduko zidatela pentsatu nuen. Edo bi. Axola zitzaidan! Nik ez neukan inolako interesik gizon garratz bat izateko, eta Don Sebasek hori zeukan helburu, guztiok gizon garratzak bihurtzea gimnasiaren bidez. Gaznápiro. Ez nintzen Don Sebasek agindu zuen moduan alferren pelotoira iristen saiatu, gelara hartu nuen zuzenean, ez dut balio lasterketarako. Aldatu eta neure pupitrean jesarri nintzen natur zientzietako liburua zabaltzeko. Nik labezomorro bihurtu nahi nuen, labezomorroa izan zelako patio gorrotagarri hartan algara egin ez zidan bakarra.

Esan ote nion ba nik ezer? Hitz egin nion, ez kontestatu. Errespetu falta, puntu eta erdi gutiago portaera eta urbanitatean. Atsekabe handia hartu zuten gurasoek. Nolako lotsa, Adelaren semea institututik botatzen bazuten! Besterik ez zidaten galdetzen, zergatik eta zergatik. Ez nien ezer kontatu. Fredi, zu ergela zara, ezta? Ez nion aitortuko Don Sebasek denen aurrean esan zidala Gaznápiro eta oraindik ez nekiela zer zen Gaznápiro izatea. Klase osoak egin zuen barre eta, beraz, litekeena da ni operatu ezineko ergela izatea. Sekretua zela esan nizun, sekretua, Fredi!, gero eta haserreago arreba. Nik ez nuela ezein sekreturik hautsi, nik Aizu Don Sebas, ez niri burlarik egin, nik badakit zu zer zaren besterik ez nuela esan, hori bai, denek entzuteko moduan. Bere setan jarraitu zuen. Institutuko guztiek omen zekiten orain sekretua, eta arriskutsua zela denek jakitea ni izan nintzela Sebastian Gaston zer zen azaldu zuena. Merezi zuen arren, ez nion galdetu ba ote zekien gaznápiro baten arreba zela. Petralago jarriko zen eta Fisherman’s Friend karamelurik gabe edukiko ninduen. Eta bera egon zitekeela orain arriskuan aurpegiratu zidan azkenik. Haserre baino ikaratua zirudien. Segurtasun neurriak aipatu zituen. Hori ere berria zen niretzat. Ikasteko asko

neukan. Azken kurtsoko Agirregomezkortarekin ateratzen hasia zen. Kankailu bat, errepikatzen ari zela uste dut, zientzietako batxilerra zeukan eta Filosofian matrikulatu nahi zuen Madrilgo Autonoman. Beti zebilen grezierazko gramatika galtzarbean hartuta. Trikuharri mendi elkarteko eskurtsioetan ezagutuko zuten elkar noski. Arrebak errierta emandako biharamunean Agirregomezkorta bera hurbildu zitzaidan. Besoa bizkarrean ipini zidan ume bat banintz bezala eta Zorionak! esan zidan, zorionak Don Sebas izutu nuelako, fatxo bat gutxiago institutuan. Pozik zegoen Agirregomezkorta, bere nobiaz bestera. Ez zidan aurpegiratu ez nuela sekretua gordetzen jakin izan. Isilik geratu bainintzen, institutuan dinamika iraultzaile bat ezarri behar genuela aipatu zidan belarrira makurtuta. Agirregomezkorta izan zen nire lehen kontaktua, eta huraxe izan zen luzaz nire kontaktu bakarra milaka kontaktatzaile zeuzkan munduarekin. Haren berri, mundu ezkutu eta liluragarriaren berri, Agirregomezkortaren bitartez jakiten nuen, Madrileko Unibertsitate Autonomako Filosofia eta Letretako Fakultatean matrikulatzea lortu baitzuen, ikasle matxinada guztien arragoan. Batzuetan ez zetorrela fakultatetik aitortzen zidan, astea hor nonbait eman zuelako. Hobe nuen, hobe ge-

nuen ez jakitea, horrela zioen, hor nonbait haiek non ziren, zer ziren. Segurtasun neurriak! nioen nik neure kolkorako. Eta mundua ongi ala txarto zebilen galde niezaion baino lehen berak jakin nahi izaten zuen nola, zertan hemengo egoera. Uste duzu masak batuko zaizkigula? Agirregomezkortaren gomendioz, batxilerra amaitu nueneko hasi nintzen lantegi guztietan lan eske, masek guregana ez bazuten egiten guk egingo genuenez pausoa masetara, bere nobiak, nire arrebak egina zuen dagoeneko, botikako lana utzita. Jesarrian egin zitekeen zer edo zer hartuko nuen pozik nik. Bulegari postuak eskaintzen zizkidaten. Berogailuak edukitzen dituzte bulegoek, izan litezke labezomorroen bizileku. Urrun samar masetarik. Hauts artera komeni zitzaidala jakinarazten nien. Orduan betartea ilundu eta ez zeukatela niretzako lanik. Susmagarria nintzaien, bazterrak nahasten dituzten horietarikoa.

Ez lo hartu, mutil! behin eta berriz, horrela bide guztian. Ez lo hartu!, eta zaflada batzuk ematen zizkidaten masailetan, esna jarrai nezan. Aspergarria zen. Ez neukan hitz egiteko gogorik. Gidariaren eskua ikusten nuen palankaren gainean martxa aldaketak egiten. Ez

dakit zergatik, abiadura bizian gindoazen, klaxona joka, Kendu hortik, ergela! egin zion gidariaren aldamenekoak furgoneta bati besoa leihatilatik atereaz zapi zuri bat inarrosten zuela. Gidariak okerreko norabidea hartu zuen nonbait, Nora zoaz ordea! egin baitzion oihu, Ospitale Militarrera, gizona!, eta nire ondokoak Ospitale Zibila baino gertuago daukagu! erantsi zuen. Ospitale Militarraren hurrena Atotxa zegoen, futbol zelaia. Ederra izanen zen Atotxako tribunan jesartzea, tribunan jesarri eta bakartasun hura dastatzea, belarra hutsik, harmailak hutsik, burua hutsik. Milaka milioi labezomorro zoko guztietan gorderik gaua noiz etorriko. Baina ez nien Atotxako tribunan uzteko eskatu. Ez naiz izugarri hiztuna, eta ezagutzen ez dudan jende artean ez dut ahoa irekiko ezer galdetzen ez badidate. Edo Gaznápiro esaten ez badidate. Abiada hartan, une batzuetan, kolore multzoak ikusten nituen gure inguruan. Hobe nuen halako batean betaurrekoak graduatzera joan. Niri berdin zitzaidan lo ala esna egon, nik jesarrita jarraitu nahi nuen, autoa ez zikintzea zen nire kezka orduan, ziur nengoen auto handi batean sartu eta etzan izan banindute odola isurtzen hasiko nintzela eta ez nuen gizon jator haren tapizeria inola zikindu nahi. Esateko modua da, aulki haiek tapi-

zatuak ez zirenez, sasilarrua zuten. Mini Cooper bat zela uste dut, ezin kabiturik gindoazen han eta sabaia jotzen genuen ia buruarekin, sekulako beroa izan behar zuten, izerditan zeuden Ez lo hartu mutil! eskatuz zaflada maitekorrak ematen zizkidatenak, bat biboteduna, bestea kaskamotza. Aldian behin, betazalak goratzeko indar eginda, gidariaren aurpegia ikusten nuen atzerako ispiluan. Hura ere izerditan zen. Beldurtua zegoela iruditu zitzaidan. Horietako batean berari beha nengoela ikusi ninduen eta Lasai, Xabier, berehala helduko gara! esan zuen euskaraz, barre txipi bat egiten zidala animoa ematearren. Beste biek ez zuten hitzik atera, ez zioten isiltzeko agindu. Bero hartan lurruntzen hasi zitzaizkidan betaurrekoak. Abisa iezaiozue neure amari, mesedez! esan nuen nola edo hala, eta Ederki, mutil! burusoilak, Ez lo hartu! bibotedunak. Abisa iezaiozue... Lasai, abisatua dago, honezkero bidean egonen da. Zapia atera eta garbitu egin behar nituzkeen betaurrekoak, baina ezin nituen eskuak mugitu. Kateatu egin zizkidatela pentsatu nuen, beti kateatzen dizkizute eskuak. Atzamarrak inurrituak neuzkan behintzat. Nire atzamar politak, potolo samarrak oraindik labezomorro batenak izateko. Auto barruan denak izerditan eta ni hotzak,

arrebak botikatik ekarri ohi zizkidan Fisherman's Friend karameluen pakete osoa batean xurgatu eta irentsi izan banu bezala, gorputza eukalipto zukuz betetzen ari zitzaidan, dena garbitzen, babesten nindu en muki eta gantz guztia kentzen, zer hotza. Zorionez jesarria nindoan eta bihurguneetan kulunka gozoak egiteko aukera izan nuen, mozkortuarena eginez.

Etzanik baldin bazaude euliren bat ikusten ahal duzu sabaian edo fluoreszentearen gainean bista ona edukiz gero, zokoak garbi ez badaude armiarma txipiren bat agian. Armiarmak geldoak dira eta euliak arinak, sobera arinak. Betaurrekoak kendu zizkidaten gainera, ohean lasaiago egotearren. Leihoko loreetara inurriren bat azaldu ote den ikustea ez da erraza lepoa gogortua daukazula. Jesarrian ez daukazu horrelako arazorik. Hemengo leihoan ez dago lorerik, baina zeure eskuak ikus zenitzake, azkazalak kolorea galtzen, ubeltzen. Hiltzen ari zarela pentsa zenezake. Edaten ematera etortzen baldin bazaizkizu hobe duzu jesarrita ohea ez bustitzeko. Edo txizagura etortzen bazaizu ontzitxoren batera egiteko. Etzanean bazaude zundaren bat ipiniko dizute zakilean barrena aitari

ipini zioten moduan giltzurruneko harriak kendu zizkiotenean. Egia esan, leiho hark ez zeukan lorerik, ez mardulik ez iharturik, haga batzuk baizik, burdinazkoak. Gotorleku bat ematen zuen Ospitale Militarrak, horrela zegokion noski. Atea zaintzeko soldaduak zeuzkaten eta ohekoak zaintzeko moja amorragarriak. Abisa iezaiozue neure amari, mesedez! eskatzen nien ahal nuen bezain argi. Alferrik zen ezer eskatzea haiei. Jesartzen laguntzeko, altxa nintzatela apur bat, ipiniko nuen neuk burukoa bizkarrean eta ederki egonen nintzen ezer zikindu gabetarik, nire brankia sistemak errazago hartuko zukeen arnasa. Ixo, ixo, ez indarrik galdu hitz egiten! esaten zidan batek. Mesedez, abisa... saiatzen nintzen ostera handik puska batera, eta haiek errepika berdina Ixo, ixo, ez egin hitzik, hobe duzu isilik! Hasi nintzen esplikatzen filobrankiek ez zidatela funtzionatzen eta arnasketa zuzena nuela erabiltzen, altxa nintzatela apur bat jesarri ahal izateko. Alferrik zen, momia haiek ez ziren erizainak, ez dakit zer ziren, sabai txokotik jausitako araknido motaren batekoak. Sarean harrapatua nindukaten behintzat. Medikuren bat behar nuen, hark konprenituko zuen nire arnasa hartzeko sistemak samurrago eginen zuela lan jesarri egiten banintzen. Han ez zen mediku-

rik ageri, edo erdi lo nengoen aldiren batean azalduko zen nire tenperaturarik eza nire taupadarik eza nola zebilen ikustera. Labezomorroek nahi adina apaltzen ahal dute bihotzaren erritmoa. Ba ote zekiten. Gaueskolan izena eman nuelarik, aurreneko klasea baino lehen Blatellaren eta Blattodearen euskarazko izena ikasi nuen, Labezomorroa. Halako izen politik! Harro azaldu nintzen, haren jabe, euskara ikastera. Lasai, Xabier, berehala helduko gara! esan zidan Mini Cooper horiaren jabeak, horia zela uste dut, eta ni ez naiz Xabier, izatez Alfredo naiz, arrebarentzat Fredi. Ikasgelan ahoskatu nuen lehen esaldia Ni Labezomorro naiz izan zen, euskaraz bota nuen aurreneko esaldia, Ni Labezomorro naiz. Horrelako kontuetan pentsatzen ari nintzela han egiten zuen hotza burutik kentzeko, moja bat hurreratu zitzaidan eta Egin ezazu otoitz! erregutu zidan, Egin ezazu otoitz! Horixe izan zitekeen nire gaixotasunaren aurkako erremedio bakarra, DD-Taren lurrin susmagarria heldu baitzen laster nire antenen usnamenera. Ezpainak mugitzen hasi nintzen. Mojak, berriro hurreratzen zitzaidanean, otoitzean ari nintzela ikusiko zuen. Orduan, begiak malkotan, Belauniko mesedez, belauniko...! eskatuko nuen, eta hori moja batek ez zidanez ukatuko, altxatzen lagunduko

zidan belauniko jar nendin oheburuan zegoen gurutzearen aitzinean. Nengoen gisan etzanda ez nuen ikusten ahal, baina hanka bat emanen nukeen gurutze bat zegoela han, Ospitale Militarrean nengoen! Eta horrelako damua ikusita hunkiturik, mojak nire azken borondatea zelakoan lagundu eginen zidan belauniko jartzen, eta bizkarra tentetutakoan hantxe geratuko nintzen jesarririk Don Sebasen aurrean geratu nintzen patxada berean. Heldu zen moja, lehengoa edo besteren bat, ez dakit, belauniko jartzen laguntzeko eskatu baino Ireki atea! eskatu nion, Nire arreba ate joka ari da! eskatu ahal izan nuen arnasa inoiz baino larriago. Ireki zuten atea halako batean. Ez zen arreba.

Badakit ez nauzula begi puntan ikusi nahi, badakit ez duzula nire mezua ulertu nahi, horrelakoak dira nire lanbidearen gaitzak, hari zor natzaio eta hemen nator zure ohe ondora, atean hainbat aldiz jo izan arren irekitzera jaiki ez zaren labezomorro ez bestea. Albiste Txarra nauzu. Txit albiste ona diat hik niri Labezomorro esatea, Gaznápiro baterako prestatua nengoan. Eskua luzatu zidan. Albiste Txarra, bai, inork bere gain hartzeko adorerik ez duen zama ekartzen duen horixe

nauzu. Hi bai ergela, zer uste duk, zama erantsi ahal izanen duala hik gainean daukadanari? Alkohol kiratsa zerien gizonezko ahots haren hitzei. Atean sumatu nuen bezain arin itsutu nituen begiak, horregatik esan zuen hilik banengo ere jakin beharra neukala, berdin beteko zukeela nire zeregina, berdin etorriko zitzaidala egunkaria irakurtzera. Bizkitartean egunkaria zabaldu zuen, orriak pasatu zituen, jesarri egin zen ohean, neure belaunen parean. Horixe adierazi zidaten paperaren hotsak eta ohearen lastaira metalikoaren kurrinkak. Ez neukan eskura Fisherman's Friend karamelurik emateko, eta eztul batzuk eginez leundu zuen eztarria. Irakurtzen hasi zen bere ahots-hari desafinatuak dardararaziz. Atzo, arratsaldeko zazpi eta erdiak aldera, igandea disfrutatzen ari ziren gizatasunezko hiritarren artera azaldu ziren, ustekabean, berrehunen bat lagun osatu zituzten zenbait talde, makilaz eta ganibet automatikoz armaturik, kutsu marxista-maoistako pankarta ugariren artean. Makilaz eta ganibet automatikoz entzun nuenean halako barregura eman zidan non uzker txipi batek egin zidan eskapo. Uste dut Albiste Txarra ez zela konturatu, edo konturatu baldin bazen, agian, barkatu egin zidan egoera kontuan harturik. Usnatu ere ez zuen eginen gainera, alkohol kira-

tsak gela osoa hartua zuen. Une hartan, Carquizano karrikan errutinazko lanean ari ziren kalekoz jantzitako hiru polizietarik bat ezagutu zuen asaldatuen buru zetorrenak. Inguratu egin zituzten hiru poliziak, eta zeramatzaten tresna mingarriekin jazartu zitzaizkien. Eztul egin zuen, lehen bezala, pasarte honetan. Zirkinik egiten ote nuen behatzeko zen, zalantzarik ez. Izararen azpian ezkutatu nahi nukeen nik uzker eta barre lasaitasunez egitearren, makilak eta ganibet automatikoak: gerrilari maoistak mendira bidean iraultza kriminala egiteko asmoz. Manifestariek zeramatzaten pankarten makilekin eraso zieten poliziei. Noski, ganibet automatikoak ez zirelako ganibet hegalariak! Jazartuek, egoera arriskutsu hartan, arauzko armak atera eta uzkurrarazteko tiro batzuk egin beste baliabiderik ez zuten izan, tiro batek, damurik, erasotzaile bat joz. Polizia Armatuaren indarrak iritsi ziren zalapartariak sakabanatzeko. Mesedez ganibetak entregatzeko eskatu gabe? Zauritua osasun zentrorik hurbilenera eraman zuten, non... Une honetan Albiste Txarrak ez zuen eztularen jukutria erabili pausaldia egiteko, besoa laurogeita hamar graduko angelu zehatzean ipinita eskumuturreko erlojuari behatu zion, ez niri. Berunezko medikua zirudien orduantxe nire taupadak

kronometratzen. Zurruntasun militarra, eraikin ilun hari zegokionez, nire bizia kronometratzeko ere. Ederki, esan zuen ahapetik, eta jarraitu egin zuen. Zauritua osasun zentrorik hurbilenera eraman zuten, eta bizia salbatzeko eginahalak arren, ingresatu zenetik hiru ordu laurdenera hil zen. Hildakoaren zamarran ganibet automatiko bat aurkitu zuten. Eztul txipia egin zuen, Ados, labezomorro alaena? galdetzeko. Paper hotsa, egunkaria tolestatzen ari zen. Kurrinka egin zuen nire oheko lastairak, zutitu egin zen. Gobernadoreak ohar interesgarri bat argitaratu du, egoeraren azterketa politikoa eginez. Ez daukazue etorkizun gozorik. Besoa laurogeita hamar graduko angelu zehatzean ipinita eskumuturreko erlojuari behatu zion ostera, eta Ederki! esan zuen ostera ahapetik. Horra hiru ordu laurdenak beteak sartu nintzenetik. Bazoazke lasai, Albiste Txarra, ongi konplitu duzu nirekikoa. Eskerrik anitz. Ate soinua. DDTaren lurrin susmagarri hura nagusitu zitzaion berandu gabe alkoholaren kiratsari. Jesarririk banengo, DDTa oxigeno bihurtuko nukeen agian. Oraindik ez nintzen zeharoko labezomorroa, zalantzak neuzkan.

Ene...! Zer egiten duzu hor horrela, eskale bat ematen duzu! Neronek baneki... Hala ere, ezagun dut esperoan nagoela, ez dut dirurik eskatzen, ez dut malabarrik egiten, ez dut txirula jotzen, ez dut zakur ahuldu bat aldamenean. Esperoan egonik memoria luzatzen dut, espaloian dabilen jendearena, apurka hiltzen ari zitzaizkigun lekukoena, galde egiten duten gazteena, auzoko guztiena. Edo beha geratzen zaizkidan turista galduena. Zatoz etxera! erregutzen zidan amak, ez umetzat hartzen ninduelako, ez lotsa ematen ziolako semea labezomorro bihurtuak. Egunero solastatzen gara erosketak egitera jaisten denean. Ez du etsiko. Ez du esperantza galdu, semea altxa dadila behingoz dagoen jarrera zarpail horretarik, esperantza hori, eta ni hankak zabal, enborra eskuin aldera, burua okertua, nekatua, ezindua besoa luzatuz eskuin eskua ezker oinaren puntara eta ezker eskua eskuin oinaren puntara aritzeko. Kamaradak lagata gurasoenera azaltzen nintzen aldian behin, ez egun zehatzetan. Segurtasun neurriak. Zer da itxura hori, neguko trenka soinean eta kiroleko zapatilak? Zapatak baino erosoagoak zirelako janzten nituela. Eta hori entzundakoan, aitak Bai, oraingo gazteek eroso bizitzea maite dute! botatzen zuen zakar, Lanik ez egiteko makina asmatuko dute

hauek! Gizona, mesedez...! ama beti seme-alaben alde, bere papera ongi betetzen. Aita ere bai noski, baina molde mandoan. Txinan lana galanki egiten dute horratio! Arreba eta bion belaunek elkar jotzen zuten mahaiaren azpitik, batera egiten genuen barre burua arrain zopa platerera makurturik. Gizonak izugarri disfrutatzen zuen topiko produktibistak errepikatuz. Uste duzu ez nekiela zertarako ziren erosoagoak? esan zidan atzo amak. Behin behar eta zu bestelako zapatekin! Ez diot ezer kontatu, ez daukat indarrik hitzak biriketarik ateratzeko. Alegia, brankietarik. Baldin eta hitzak biriketan eta brankietan metatzen badira. Badut unetxo bat natur zientzietako liburua ikuskatu ez dudala, ez nago ziur zertara joko duen hurrengo garapen faseak. Adelaren semea espaloian jesarria! zabaldu zen auzoan. Ama jaitsi zenerako eramana ninduten Mini Cooper hartan. Gidarian pentsatzen dut sarri. Eskerrik asko zerbitzuagatik esan ote zioten, edo atxilotu egin ote zuten Lasai, Xabier, berehala helduko gara! errepikatzen zidalako. Berak ez zekiela Ospitale Militarrera eramanarazi zuten gazte hura Xabier zen edo Periko zen argudiatu ahal izanen zuen. Inozoa. Galdeketaren maila zorrotzagoetan lehiaraziko zuten orduan: klandestinitatean ni Xabier nintzela ja-

kinaraziko zioten behin, bitan, mila aldiz, makilarik eta ganibetik gabe hilduratzen zuten bitartean. Sentitzen dudala esan nahi nioke, barkamena eskatu nahi nioke. Dena dela, uste dut ez niola atzeko aulkia zikindu odolarekin eta gaitz erdi. Nik orduan Abisa iezaiozue neure amari, mesedez! eskatzen nien eta morroi haiek lasai egoteko erantzuten zidaten, abisatua zegoela. Ez beraiek. Atetik pasatzen utzi zioteneraको lekutua nindukaten Ospitale Militarretik. Neure puskak eman zizkioten: alkandora, galtzak, erlojua, betaurrekoak... eta kiroleko zapatilak, bai, kiroleko zapatiletan nintzen jauzi hartan, baina ez nuen laster egin ahal izan, masa guztien burdinazko ordezkaria banintz bezala geratu nintzen bakarrik, labezomorro, hondamendiaren azpian bizitzeko prest gimnasia saioan jesarririk geratu nintzen patxada berean. Alkandorak tiroaren errea zeukala zulotxoaren inguruan kontatu zidan amak, bertarik bertara egina zela. Hori da guztia, anderea!, kapitain medikuaren despedida. Eta ganibeta? Zer ganibet? Ganibet automatikoa, manifestari guztiek zeramatena ordena indarrei erasotzeko! Kapitainak laguntzaile bati egin zion dei. Lagun ezazu emakume hau ateraino!

Bildu ginen beraz jauzi bat antolatzeko aurreko astean eman zituzten heriotza zigorren aurka egitearren, sakelan ideia automatiko bana geneukala eta pankartatxoak eskuan fusilamendura kondenatu zituztenen argazkiekin eta zenbait esloganekin. Francok hiltzen nahi zuen hil, guk ez genuen bizi nahi besoa luzatuz eskuin eskua ezker oinaren puntara eta ezker eskua eskuin oinaren puntara aritzeko burua makur. Gaznápiro. Eta berak, hamar urte geroago, betaurrekoetarik aise ezagutuko ninduenak, Hara, hementxe daukagu Don Sebas, gimnasta garratza! entzun behar izan zuen Fisherman's Friend karameluek leundutako eztarriak zeukan ozentasunean. Norvegiako neguan izoztua geratu zen, besoak zintzilik: labezomorro bat argi zabalean eta karrikaren erdian berari hizketan! Tximoso bat bera identifikatzen! Nik uste nuen Zer diziplina mota da hau? galdetuko zigula sakabanatzeko oihukatu aitzin. Ez zuen murtik atera ordea. Izoztua geratu zen, besoak zintzilik. Eskuak hilik ez, eskuak ez: eskuina jaso zuen palanka baten antzera Albiste Txarraren zurruntasun militar berdinean. Orduan ohartu nintzen palanka hark pistola bat zeukala muturrean, pistolaren muturrak aho beltz bat zeukala, aho

beltza niregana zegoela noraturik egia esan ez baitzeukan besterik nora, bakarrik nengoen, mundutik deskonektatua Agirregomezkortarik gabe, orduan ohartu nintzen aho hartarik DDT dosi hilgarri bat jaurtiko zidala, oraindik ez nintzelako artropodorik garatuena. Sebastian Gaston, polizia sekreta, faxista zikina, zer zabiltza zu hemen? egin nuen galde isiltasun beldurgarrian zen karrikaren erdian. Gaznápiro! iraindu nuen ahotsak eman ahala, Gaznápiro! Gaznápiro! Gaznápiro! neure buruaren oihartzuna orroka. Eta barrea galanki egin niolarik, jesarri egin nintzen, akitua. Hementxe nago geroztik zeharoko labezomorroa izateko bidean, ondoko tabernakoek azpian daukate sukaldea eta kebidearen epeltasuna sentitzen dut bizkarrean horman barrena. Zakur gorotzetara datozen euliak ikusiz eta leku misteriotsuetarik azaldu eta leku misteriotsuetan barrena ezkutatzen diren inurrien lana beldurrak miretsiz, katabutetik aterata epaiketara ekarri izan banindute bezala, horrela, akusatuen aulkian jesarririk, epailearen zain, epailea ez baita azaldu, ez baita inoiz azalduko, berrogei urte daramat honelaxe. Ez da sobera luze labezomorroontzat, iraunen dut, iraunen dut arreba berriro bisitan azalduko ez balitz ere. Haserretu egin ginen orain hurrengoan, ba-

karrik etorri baitzen eta Agirregomezkorta ez dudala berriz ikusi nahi jakinarazteko profitatu nuen. Besoa bizkarrean ipintzen dit umea nintzenean zigarroak erretzera joaten ginen komunen atzealdeko lorategian ipini zidan gisan Zorionak! esaten dit, Nolako ekintza egin huen, nolako ekintza egiten jarraitzen duan esaten dit, pazientzia da gakoa dinamika iraultzaile bat sortzen hasteko. Horrelakoak beti orduaz arduratzen dela, ez besoa laurogeita hamar graduko angelu zehatzean ipinita, ez soldaduaren zehaztasun metalikoan, zeharrez baizik, ni ez mintzeko gisan, segapotoa tarteka atereaz eta mezuak jaso-bidaliz. Presa dauka Agirregomezkortak, bisita mordoa dauka egin behar du, zorionak hartzeko zain dago munduaren erdia, Albiste Ona jauna baitugu. Francok lotua eta ongi lotua utzi zuena askatzen ari omen da masen presiopean eta asanbladaren papera indartzen. Bere laguna pairatzen ez banuen bera ere ez nuela zertan pairatu eta ez zela gehiago azalduko informatu zidan arrebak. Eta baditu aste batzuk azkena etorri zela, egoskorra da. Atotxa futbol zelaiko tribunan nagoela pentsaturik kontsolatzen naiz, bakartasun hura dastatzen dudala, belarra hutsik, harmailak hutsik, burua hutsik, milaka milioi labezomorro zoko guztietan gorderik ordua noiz heldu-

ko. Hauxe da nire istorioa, etxetik halakoren bila irten gabetarik karrikan topatu eta hil egin ninduela nire gimnasia irakasle ohiak, Don Sebasek, arrebak inori ez esateko baina polizia sekreta zela argitu zidan Sebastian Gastonek. Hark tiro bat niri. Nik bizia izorratu hari. Gaznápiro! Alde hemendik! Gaznápiro! Agudo! oihukatu nion bere lankideen aurrean karrikaren erdian Palestinako labezomorroek bezain harro. Eta egunean baino egunean urrunago nengoenez gizon garratza izatetik, barre egiten nekatutakoan jesarri egin nintzen espaloian zangoak zabal, bizkarra izena oraindik Iraeta duen taberna honen ondoan bermatua, lasai, arrunt nekatua, ikusten nauzuen bezalaxe, ordena eta bake zibikoa hautsiz espaloiaren gainean parkatua zegoen Mini Cooperraren horiak zorabiatzen ninduela. Aizu, zurea al da auto hau? galdetu zion polizia batek tabernatik ezagutzen ez nuen irten berriko gizonezkoari. Ireki ezazu atea mutila erietxera eraman dezagun. Jesarririk izanez gero, ni konforme nengoen. Polizia tabernaren izenari beha geratu zen ezpainak higituz deletreatzen. Azalduko da, azalduko da berriz nire arreba egoskorra, neu naiz orain sekretu handi baten jabe. Ohartu da nire begiok omatidioz beteak daudela, nire inguru guztia ikusten ahal dudala burua geldirik dau-

kadala, liluratuta geratzen zait bekoz beko. Bai, ziur naiz laster azalduko dela kilo bat Fisherman’s Friend karamelurekin. Dena beharko dut iraultza zientifiko hau bururaino eraman ahal izateko.

Une baten argazkia

Habanoa eskatu zuen Talleres Mendiako ofiziale elektrikariak, horrelaxe, ohiko eskaeren ezaxolan, Habano bat, hi! Tabernariak hogeiren bat izeneko zerrenda kantatu ziolarik –inporta zitzaion elektrikariari adarra jotzen bazion ere–, Edozein, Ona izanez gero edozein! Ona eskatu tabakorriari ke ziztrinena kentzen inork ikusi ez zuen hark. Beha ezazu nolako edertasuna! –barra osteko goitasun eszenikotik– zabaldu zion habano kutxa handia Beti-Jaiko nagusiak. Elektrikariak ale bat hautatu zuen hurbilen zeukan lerroan, sartu zuen jakaren bihotz aldeko kanpokoan –usnatu gabe, idorra ote zegoen belarrira eramanik hatz artean ibili gabe–, eta pauso bi eman zituen atzerantz Telefunken irratiak Karpy Licor 43 Marie Brizard Terry bonbilek behe aldea estaltzen zioten ispilutik urrunduz. Ez zuen ikusi berak espero zuena. Barka, Patxi, hau ez zaidak komeni! aurpegiratu zion Genovatik kontrabandoz ekarri Pavoniaren katiluei hondarra azpiko tiraderako egurrean joka kentzen ari zen tabernariari. Atera zuen habanoa jakaren sakelatik, luzatu zion. Baina Patxik

–elektrikariak Patxi esaten zion edonori, Praisku ez esatearren– kutxa handi hura zabaldu zion ostera bertan utz zezan. Ofiziale elektrikariak bere lerroan laga zuen harturikoa, bereizi zuen egokiagoa iruditu zitzaion beheragoko beste bat, luzeagoa, sartu zuen jakaren ezker goialdeko sakelan –bihotz aldekoan– usnatu gabe, eraztunari behatu gabe, eman zituen pauso bi atzerantz La Navarra Real Tesoro Chinchon Gonzalez Byass bonbilek eta Telefunken irratiak behe aldea estaltzen zioten ispilutik urrunduz. Oraingoan bai, irriño bat egin zion horitasun malutez xahartua zen beiran azaldu zitzaionari. Hura bai ona. Zenbat zor diat egin zion galde zatarrarekin igurtziaren igurtziz Pavoni hura gerrako bafora baten ezkila bezain distiragarri uzten tematzen bide zen tabernariari. Jaso zuen kikara hustuaren ondoan alferrik utzia zion pospolo kutxatxoa, eta Kafea, Martell eta Romeo y Julieta bat, ozen, nabarmen tabernariak, bezero hura ereduzko ordaintzaile aitortzearren gainerakoen aitzinean –zertarako bestela galdera erretoriko hura zinkaren gainean begi bistan zeukana– eskuak mandarrean xukaturik. Kendu zion elektrikariari luzatua zeukan biletea, Birekin hamar, txanponak itzuliz kopakoaren ipurdia azkentzen ari zen elektrikariari –bere mundualdiko

lehen tabakoa erosi zuen hari–, hilaren azkenaren beldurbako festak sekula ez bezala hasi nahi zituen Markos Urbieta izeneko gizon gazte ezarrunt samar hari. Jakadun irten baitzen etxetik, eta jakaren ezker goialdeko sakelan hiru zentimetro habano ageri zuela –eraztun ederrarekin–, harro irten baitzen Beti-Jaitik herriko eraikin altu bakarra egiteko Banco Guipuzcoanok erosia zuen Coronel Beorlegui plaza esaten zioten oruberantz. Kaitik pirita hauts mehe bat zekarren haize harroan barrena barre egin zuen bere kautan anaiaren abisuaz oroituta –Kontuz ibili, foku horiekin aliatuen hegazkinak erakarriko dituzue, Brestekoa berrituko ditek hemen!–, benetako koñakak eman berotasun gozoak miresle barkabera bihurtua. Taberna guztiak zabalen zabal eskainiak, sapailo guztiak luzeen luze Espainiako banderaz apainduak, nolako herria, nolako zurruta, nolako giroa, ziririkoen deiek etxetik jalgiarazi dituzte notario jauna bere emaztearekin karrika konpondu berriaren espaloia betez, medikua bere maletinarekin –ezinbestekoa medikua gau honetan–, Emilio janari-dendakoa herrenka, ezagutzen ez zuen taldetxo bat –hiriburutik heldutako sekreten tankera–, Dori errekardaria bere hiru semeekin, Martin Gorri ardoketaria beti bezain eder, aitaren moldiztegi-

ko laguna beti bezain uzkur, Eskalantegi karrikan, azken berritasuna, estudioa zabaldu berria zeukan Rafael Artista Fotografo bere tresnak lepotik, aldean iraganik barrez behatu dioten neska taldetxoa, Quintana igeltseroa ubeko eskailera bizkarrean, alokatzeko ez bazuen behintzat ikuspegi hobeagorako tresna. Lekurik egokiena, beti bezala, bataio ezkontza abesbatza argazki guztietan elizako mailadiaren gorenean burua ezkerreko edo eskuineko ertzean ageri ziren mukitsuek zeukaten hartua egunez ibiltzea debekatua zegoen tren txikiaren burdinbideko biaduktoan, besoak eskudelaren bigarren hagan antxumaturik, zangoak zintzilik, listua nork zikinago, sarrera ordaindu behar ezeko ikusle beldurgarriak tobera aspergarria gertatuz gero goi hartan –listu eta txiza–, lotsa nork beldurrik ez. Eta Talleres Mendiako ofiziale elektrikariak espaloiaren zulo beti putzu haietan tinkaturiko zurajearen tartetik sartzera zelarik Ikusi al duk Paulino? Pollitenan omen zagok afaltzen! jakinarazi zion Ramoneda upelgileak bertarako keinua eginez jakaren ezker goialdean –bihotz aldekoan– zekarren habanoa kentzen zion aldi berean, sudurrari eskaintzeko. Begiak itsutu zituen –kalitatea aitortzeko ausaz– berriro jakaren

goialdeko sakelan laga baino lehen, hiru zentimetro agerian, eraztuna nabarmen.

Zinkaren ertz bietan jasoriko zutabe batetik besterainoko apalategian zeuzkan patar bonbilak, eta Telefunkena, telebista zen, ez irratia, patarren artean ez baina goialdean zeukan arrain lonjako taberna anonimoak. Ezerk ez zuen eragozten bezeroak mahaietaraino urrundu gabe dirukutxa automatikoaren atzeko pareta alderik alde hartzen zuen ispiluan bere burua ikustea. Jakaren goialdeko bihotz ondoko sakelan habano bat ikusi ahal izateko, berbarako. Nahiz jakadunetarik, egia esan, inor guti sartzen zen arrain esportatzaileen xaiaren gaineko leize berotu hartan. Izotzaren arduradunak zamatzeko ilaran zeuden kamioilariak, itsasoratu aitzin azken kafe jatorra hartzera hurbildu ziren arrantzaleak, gosari on bat eskertuko zuten arribatu berriak, handizkako arrain erosleak, fenwicketako gidariak, laneko jendea ibiltzen zen han, mundua lo zegoeneko langileak eta, jakina, argi gorriko zuloetan asperturik marinelen edo mozkorren baten suman baino, sorgin-afari bero baten premian edo, bezeroekikoa buruturik, gosari txipia egitera azaltzen ziren lami-

nak. Langile guztiek ezagutzen zituzten, Nola gomitatuko zaitut, nik baino diru gehiago irabazten duzu zuk! Adarretik eta begirunez tratatzen zituzten, tabernako biztanleak bihurtuak ziren emakume tamaldu haiek, koloretako telebista kate frantsesei gain hartzen zioten haien irriek, haien koloniek, haien panpinautsek, haien zakatz freskoena baino gorriagoko ezpainek.

– Ez diat kamera ekarri, nola egingo diat?

– Ba joan hadi dendara eta erostak!

Bilete berri batzuk sartu zizkion alkandoraren sakelan Beizamak Agoteri, ez noski usaimenaz onetsitako habanoa sartzen den delikateziaz, eta esku biekin lepotik helduta itzulerdi eraginik ateari buruz paratu zuen.

– Ni zelatatzera bidali haute, ezta? Bada, eramaiek froga bat.

Fanny eta Terezinha hurbildu zitzaizkion, zinkera eraman zuten gizona, baretu asmoz. Armadoreek eta zenbait kontrabandista onartuk beti izotzetan behar zituzten Möet & Chandon erdiratu bat jaso zuen kubeteratik eta hutsak zeuzkaten hankadunetan banatu zuen Beizamak.

– Horrek ere nire lepotik bizi nahi du, zuek bezala.

Otartekoen bildua ekarri zidaten. Garagardo bat eskatu eta mahai batean jesarri nintzen. Zabaldu nuen, hartu nuen neurea eta bertan jateari ekin nion. Ez nuen uste Beizama horren utzia zegoenik, zarpa haiek, bizar hura. Etorkizuna zeukan hark!

Agote heldu zen zintzo, Beizamaren argazkilari ofiziala, prentsan horrela ageri zuten, tresna eskuan. Haren atzean gelditu zen, baimen eske moduan, Europako txapelduna poxelatzeko herabe. Ispiluan ikusi zuen noski hartzak, Prepara ezak trastea! Argazkilariak, esaneko, zolara atera zituen bizpahiru argazki karretea ardatzaren haginetan ongi sartua zegoela frogatzearren. Orduan, belaunak apur bat tolesturik, albo banatan zeuzkan emakumeen ipurpean paratu zituen besoak Beizamak, eta algara eta garrasi jaso zituen garabilari onenak bezain astiro, zoko zoragarri hartan geunden marinel estibatzaile mekaniko atoiari urindatzaile guztiongana itzuli zen xanpain kopak goitituz lepotik oratzen zioten Fannyren eta Terezinharen irrien artean barrezka. Moila transatlantikora ematen zuten leihoetara egin zuen progu Beizamak bere estandarteekin, handik jangelan sartu zen, Madison Square Gardeneko ringaren perimetroa egin zuen barrezka, tente, harro, progu ergelean, Fannyk eta Terezinhak

eskaintzen ziotenetik edanez, ziztu eta irrintzi egiten zion euskal populu langileari begi kliskak eginez, Agotek tira ahala egiten zizkiola argazkiak aulki-mahaien hanketan behaztopaka, flasharekin, mahai gainetik, makurka, zeharka, aurrez, morroi, anker, faltsu.

– Onenaren ehun kopia, hemen bertan, bihar.

Baietz egin zion Agotek eta, bazihoala, mehatxu.

– Zaindu hadi, champion.

Marinel amantero mekaniko atoiariek oraino txaloka amaitu ez zutelarik, Beizama bere karga estibatzailerik iaioena baino eztiroago lurreratzen ari zela, Xoan azaldu zen.

– Hi bizi haiz, hi!

Poztu egin zen ni ikusita, zer edo zer gertatu ote zitzaidan kezkatua zetorrela ustetu ninduen umore hark.

– Paio zar batek neri esana, lanak eztu gauza onik...

Beroa zegoen oraindik otartea, aulkia atzeratu nuen eta jesar zedila. Beste xanpain bonbila bat kubeterara agindu zuen Beizamak.

– Eta hori, zer zabilek hemen?

Mahaietara etorri ziren Fanny eta Terezinha whisky tarta bat eta hiru platerekin, Beizamak guztiona ko-

bratzeko esan ziolarik tabernariari. Eta txapeldunaren demostrazio ozen zikinaren ondotik leuntasun egoskor hura, Ez, guztiona ez!, izutzekoa Xoanen ahotsaren segurtasuna, apal, garden, liluragarri, Isilduko ahal haiz! ezin eskaturik uzten ninduela, betiko moduan.

Guregana egin zuen txapeldunak, jesarri zitzaigun, tinkatu zuen ukondoa mahaian, zabaldu zuen atzaparra Xoanen muturrean.

– Egingo al dugu pultsuan?

Talleres Mendiako ofizialeak ezetz esan zion, ez zuela erretzen. O, zeinen ondo!, eta Vendavaleko lehen motorista zenaren alargun apaina jesarri zitzaion aldamenean –eskuak izter atzera ekarrita soinekoa tiratuz zimur ez zedin–, aulkiaren tolesgunean ipurdia ongi egokitzeko bizkarra tente belaunak larde. Erretzen ez zuen gizon bat bedeinkazioa zela aipatu zion senarra etxean baino itsasoan maizago edukia zen emakume hark, aulkia inorentzat hartua ote zeukan galdetzeke jarri zitzaion hark, Ez zenuen norbaitentzat hartua edukiko? galdetuz gaugiro ederra zegoela komentatuko zukeen ezaxola berdinarekin. Bakarrik etorri zela, lagunak afaria luzatzen geratu zirela

soziedadean. Ni lau paretaren artean ez egoteagatik etorri naiz. Eta isilune gogor baten buruan barkatzeko eskatu zion berriro –masailak gorri–, barkatzeko horrelako kontu pertsonala azaldua. Irriño bat eskaini zion samalda hartan jaka zeraman gizon bakarrak, Goizero ikusten zaitut atelierreko leihotik erosketetako poltsa beso txokoan dakarzula, esan zion. Berak ere ikusten zuen burua makur motorren bat konpontzen edo pintxeren bati irakasten –isilik gorde zuen ordea–, eta bazekien beha geratzen zitzaiola. Nor zen sudurmotz hura, Paulino, Paulino handia, Pollitenako zamauak bezain zuri, zintzurpean mitxirrika beltza dotore lotua, Paulino handia soken tinkadura ikertzen, lau zutabeen betegarria haztatzen, zolako lonaren berdintasuna probatzen –hegazkin aliatuak erakartzeko arriskua omen zeukan argitasun ederraren erdian–, portuko agintaritzak udalari utzi zizkion gaueko zamaketarako besterik irazekitzen ez ziren milana watteko lau Philips haien pean dantzari, show bat eskaintzen. Txaloka hasi da Madison Square Garden osoa, badatoz lehen bi boxeolariak aldameneko eskolan antolaturiko aldageletarik, Ladies and gentlemen ekin dio muturra eta zola kendutako pitxer esmaltatu bat dirudien ozengailua ahora jasota, aurkezle eta referee Paulino, beste

gizajo hauek ez, bera baizik –the basque woodchopper– ikustera etorri baita jendetza hau ring inguruko flashak falta direla iruditzen zaion arren. Madison Square Gardenen dago egon ere, eta ez Herculanoren gisako bafora zatarrak zamamendu zatarragoz arribatzen diren Euskal Herriko kai zikin atzeratu baten ondoko plazatxoan peoi docker iturgin igeltsero mekaniko urtzaile sugin kamioilariak ikusle, Paulino...! Jakin behar luke hargatik espaloi gainean baztertua dagoen portuko suhiltzaileen furgoneta gorria apaindura hutsa dela, ez dela mugituko, medikua ez dela ringera igoko, ez dutela inor ospitalera eramanen, ikusgarri merkea izanen direla borrokaldi guztiak –publikoaren baimenaz antolaturiko tongoa–, Pollitena ez dagoela Fifth Avenuen baina tabako usaina datorkio aldian behin –benetako gaualdi batean dago txapelduna–, Break!, eta aurkariak banantzen dituelarik eskuin besoaren aizkorarekin airea ebakiz, Box!, erne Vazquez, kontuz Vazquez, oraino guardia antolatzen amaitu ez duenean –aldea egiteko jaba luzatu baino lehen–, ezker crochet batez jo du Goienetxeak gibelean. Eta Aragoiko Katamotza arnasa hartu ezinik belauna zolan tinkatzeko makurtzen delarik oihu ttipia egin du motoristaren alargunak, heldu dio aldamenean duen gizon

gazteari –besora atxiki zaio bere mardultasun ikaratua lasaitu nahiz–, One, two, three, four... ari da Paulino, eta Paulino...! igarri du Paulinok egiten diotela atzean daukan bazter neutralaren aldetik, Five, six, seven... Jo dute kanpaia federaziokoek, lagundu dio Vazquezi altxatzen, behatu du bazter neutralera, ez du inor ikusi, tangart bat daraman morroia jende artera, ilunpean dago ikusleen multzoa ke horren azpian. Tabakoak lurrin gozoa du haatik, ez duzu uste? esan dio elektrikariak motorista galduaren alargunari habanoa luzatuz, eta emakumeak burua tabakora hurreratu duelarik arrain-irin fabrikako kiratsa dator Paulino handiaren sudur zapalera, fonderiako burdin saldarena, pintura kolarena, eztainuzko hodiena, berrogei eta gehiago atelierretako isuriena ibai arroaren jabe gau hartan mareajea behe egokitu zelako errekan hego haizearekin. Vazquez bere onera etorriko zen minutu hartan Zeinen izen polita Romeo y Julieta, ezta? alargunak, habanoa ofiziale elektrikariaren jakaren ezker goialdeko sakelan sartu zion –bihotz aldekoan, bai–, Vasco-Galaico tabernako morroi zaharrak eskua izotzetan sartu zuen, irribarrez atera zuen orangina tangartetik –baietz egin zion ofiziale elektrikariak kokotsa bularrerantz bilduz–, idortu zuen mandarrarekin, kendu zion

txapa, eman zion soineko loreduna zeraman Vendavaleko lehen motoristaren emazte zintzoa izanari, hamabost xentimo itzuli zizkion, frontoiko ezker paretaren atzean freskagarriak hozten zeuzkaten barrika erdietara abiatu zen tangarta berriro zamatzeko. Paulino zegoen bazter neutralaren ondotik zihoala Paulino...! egin zion dei, bertan gelditu zen Paulinok zer egiten ote zuen, behatu egin zion goi hartarik urdemutur ez besteak –What...?–, eta Vasco-Galaicokoak Paulino, hi ez haiz neutrala! bota zion galego garbian –Ti non és–, lehen ilaretako guztiek konprenitu zuten. Kanpaia entzun ezinik geratu zen Madison Square Gardeneko izarra bazihoan morroiari, argiak ikusten uzten ez zion jendetzari beha –konprenitu ote zuen hark–, jendetzaren gaineko keari, Joe Louisen uppercuta baino ankerrago zetorren kiratsa –ez Romeo y Julietaren lilura– usnaka. Izerdi linimentu odolarekin nahaste, gernu hotzeko putzu baten usaina zen hura, sudurretarik gesal uherra hurrupatuko balu bezala, ikusten ez zuen peoi docker iturgin igeltsero mekaniko urtzaile sugin kamioilari multzo hartarik harrotzen ari zen bakailao gatzatu hezearen hats itogarria. Eta Paulino handiak sokei oratu zien zorabioak lona jo eragin ez ziezaion.

Nire garagardotik edan zuen Xoanek, eta haren begira geratu zen Beizama noiz amaituko erronka berriren bat egiteko, baina aurrea hartu zion nire lagunak.

– Ikusten duk hor? Herculano zagok hor.

Moila transatlantikora egin zuen hatz, Iraty, Baionako atunontzi ospetsua erreparaziotan zegoen aldera. Herculano aipatzea Beizamari, garabiaren engranajeko piezaren bat erakustearen antzekoa zen.

– Hor, bafora horretan, esparrinak ekartzen zizkiotean Paulinori. Ezagutuko duk Paulino, ezta?

Ikara eman zigun Beizamaren atzaparkadaren hotsak mahaiaren gainean, isiltasuna sartu zen leiho zabalduetarik aretoa betez telebistaren zarata estaltzeraino.

– Madrilen borrokatzen dudanean, aldagelara etortzen zaidak. Kontsejuak ematen zizkidak.

Eta Xoanek, inoren mahai gaineko zartadak baino sarkorragoko ahotsa ateratzen zekienak, apal, baratz, solasera ekarri zuen Beizama.

– Asko zakik Paulinok, asko...

Alfer lana zen belaunarekin joka jarraitzea mahai azpian, trolebusak zapalduriko zakurra jarri behar zuen hizketan Xoanek. Garagardo bat ateratzeko egin

nion keinu tabernariari, zinkaren gainean laga zizkidan apar tristeko bi.

– Hik nahi al duk ezer?

Ezetz egin zidan buruarekin, atzendua zeukan guztiona berak ordainduko zuelakoa. Garagardoen bila altxatu nintzen, eta geurea ordaindu nuen.

– Bafora horretan ekartzen zizkiotean esparrinak, bakailaotarako zeuzkan bodegetan. Horrela entrenatzen zuan, presoei joka, Donostiako zezen plazako ukuiluetan.

– Preso haiek gorriak hituen...

Mahaian jo zuen Beizamak berriz. Ez guri erronka, esandakoaren azpimarra zen.

– Gorriak, hire moduko euskaldun faltsuak.

Barre egin nuen, urduri, salatu duten gorri inozoenak disimulatuko lukeen gisan. Denak niri beha zeuden, denak, mahai eta zink gainekoak utzita, niri, zapaldu haiek.

Umil, doi bat nagi, izugarri jakintsu altxatu zen Xoan, eta halaxe Beizama ere, ardatz berari loturiko mekanismoa bihurturik. Sudurpean ipini zion alkandoraren mahuka Paulinoren hurrengo gure borrokalari nazionalari, ezin gardenagoko hari batean mintzatu zi-

tzaion, kristalezko hondotik zetorren durundi hauskorrean.

– Aditzen duk?

Prestatzaileak amoniakoa usaintzera bortxatu balu bezala, Beizamaren buruak atzera egin zuen, eta Xoanen besoari helduta eskuineko ukabila itsutu zuen, korapilo gogor, nire adiskideak eskaintzen zion masail betean jotzeko. Ez nintzen mugitu, Xoanen borroka zen hura, iraingarria zen laguntza ematea, eman nahi izatea.

– Haien bodegakoa nauk ni.

Ez, Beizamak ez zuen zirkinik egin soken bila, ikusle genituen marinel estibatzaile mekaniko urindatzaile atoiari multzo hartarik ez zen sortu txapeldun ustela lonaratu behar zukeen gatzatu hezearen hats itogarririk, Xoanen besoa utzi eta zemaiko ukabila askaturik bazterrera erretiratu zen, Fannyk eta Terezinhak saiatuko zituzten laztanetara, bere aurreneko kaotik itzartzen laguntzaile.

Handik aste bira, gutun zorro bat bota zuen Beti-Jaiko mahaiaren marmol gainean.

– Zer duk?

Hala egiten baitzituen bromak, betondo ilun hura txantxetakoa zela sumatu uste nion, Beizamaren biz-

karroiak, esaneko, ekarri zituen ehun kopia haietakoren bat Europako Txapelduna neska bana besoetan eta Saudades tenho, meu bem, quando me lembro de ti... Horrelako zer edo zer, Fannyk edo Terezinhak sinatua, Xoanen opari gaiztoren bat.

– Ikusi barrukoa, faborez.

Paulino zen, 1945eko apirilaren 24ko gauean gure zurrutera gure girora gure txalora azaldu zen Paulino hura, Boxing Clubeko entrenatzaileek sorbaldetarik heltzen ziotela, boxeolari guztiak aurrean makurturik eta inguruan gure herritarren masa festazalea, gure populua, gure indarra.

– Kriminal horren ondoan irribarrez...

Besoak gora agur eginez jaitsi da ringetik Paulino txalo artean baldar, balantzaka. Madison Square Gardenen dago, bera da dakien bakarra Madison Square Gardenen daudela, eta ez aliatuek –beltzez betetako amerikano zikin haiek– Brest bonbardatu zuten gisan bonbardatzen ahal duten portuan. Argi gordinaren pean gertatzen zen aldi bakoitz etortzen zitzaion zorabioa izan zen, orekan ezin huraxe, Madison Square Gardenen Joe Louisek ezpaina bitu, hortzak apurtu,

konortea joan zion eskuinkada haren oihartzuna –nokeatzen jarraitzen du beltz zikin hark hamar urte geroago–, bizi den arte jarraituko zaio nokeatzen, hori ere badaki. Berarendako dira orain flashak aupak txaloak onena haizak bizkarreko samurrak, eta zalapartaren erdian Rafael Artista Fotografok gizona ez itotzeko agindu du, ordena ezarri du, zaletu guztien erdian ipini du Paulino, prestatu du kamera, pauso batzuk eman ditu atzera –bere burua Beti-Jaiko ispiluan miretsi behar balu bezalaxe– eta bisoretik behatzeko makurtu delarik bikote gazte hau ikusi du, borrokazale multzo horri emakumezko batek intriga puntu bat emanen diola prentsatu du, Aizue, mesedez, inporta al zaizue...? Kokatu da bikotea argazkilariak eskatu dien lekuan eta orain bai, bisorera makurtu eta flasha leherrarazi du basque woodchopper sendoari begiak itxiaraziz –Joe Louisen ukaldia berriro–, umekondo samaldak inguratzen duela marinelei egiten dieten kantu hartan txapeldunari Monei, Paulino! Monei monei, Paulino! eskatzeko –lotsarik ez beldurra nork–, Primo Carnerak lurrera bota ezin izan duen honi erdi burlaka, nolako herria nolako zurruta nolako giroa. Multzoa sakabanatutakoan eskerrak eman dizkio bikoteari tarjeta luzatuz, pasatzeko estudiotik, doan emanen diela

kopia bat. Bere poltsa txipian gorde du tarjeta emakumezkoak Zer detailea!, despeditzen zaie Rafael Artista Fotografo presaka –uhin gaineko txalupa irudikatzen duen kartoizko tramankulua ekarriko du urte osoan zumardian egoten den La Marina txurreriaren aldera–, horixe lekurik egokiena umeak lehenik eta gazte katutuak hurrena argazkitan harrapatzeko. Nolako gaua herri honetan patroiaren bezpera. Gero, amak umeak amonak adinekoak oro erretiratzen diren sorgin ordu horretan –alegrantziak elkarren etsaiak borrokan edo adiskidegoan jarriko dituen giroa umotzen hasten delarik–, non ekin dioten Talleres Mendiako ofiziale tenteak eta Vendavaleko alargun malatsak besotik gerritik lepotik beren kabalgata harroari konfetien azpian txurroak eta izozkiak janez. Dena egon da antolatua gizon gazte ezarrunta lagunak soziedadean utzita alargunarekin uztar zedin gau honetan: hegoak lau tanta ekarri, noresteak hoztu, bere jaka ipini emakumeari bizkarrean behera. Nolako keinuak orduan, nolako behakoak –nolako jelosiak gizonezkoek zein emakumezkoek–, Hori proklama publikoa da...

Lilura hau xanpain merkearen ondorio ez dela frogatzeko aski da Paulinorekin ageri diren argazkia ikustea. Alarguna gizonaren besotik dago alegrantziak ha-

rremanen kodeak laxatu baino lau ordu lehenago. Rafael Artista Fotografok kopia luzatu dionean –doan alegia, agindua zienez–, eskua ukoan zabalduz egin dio emakumeak ezetz, ez duela nahi, ez duela boxeoa maite. Ordua eskatzera azaldu da Eskalantegi karrikako estudio mustu berrian –azken berritasuna herrian–, argazki on bat egitearren. Gogoratzeko argazki bat bere lagunarekin, Nire lagunarekin esan du Vendavaleko motoristaren alargunak. Eginen dugu, eginen dugu hori, beharrik badauka lore sorta bat uretan, behatzeko zeinen ederrak. Konpromisozko argazkia dela, ezkontzaren zina moduko zer edo zer dela ulertu du Rafael Artista Fotografok. Badauzkat krabata onak ohartarazi dio bionboaren eta ispiluaren ostean dauzkanak erakutsiz, bastoiak eskularru zuriak fantasiazko lepokoak, eginen die argazkia, argazki ona horratio, dotoreziaren tramoiaz gain pintzelak ere badauzkalako –eskua gustua pazientzia–, mutilzaharraren asteburuak luzeak izaten direlako. Eta habanoak usaina hartzeko erosten dituen gizon gazte hura ezagutu zuenetik hiru egunera –etsaiak etsai eta adiskideak beti bezain zakar izatera oneratu direlarik–, senarra itsasoan galdutako emakume eder hura Talleres Mendia eraikinaren aurreko espaloian azaldu da arratsaldeko zaz-

piak eta hogeita bostetan. Norbait daukak hor zain jakinarazi dio Pedro Mendiak berak Urbietari –ofiziale elektrikari onenari–, Utzi lana eta segi hakiok. Bulegora itzulita errezelaren zirritutik beha geratu da, baina alargunak karrika gurutzatu du lasterka atean azaldu zaion Markosengana, eta Don Pedro Mendia, motor mota guztiak eta industriarako instalakuntza elektriko guztiak egiten dituen lantegiko sortzaileak ez du jakiterik izan tortoila bi haiek musu ematen ote dioten elkarri –entzuna zeukan moduan–, jendearen aitzinean. Eta handik hamar minutura egindako plaka lantzen eman du astea Rafael Artista Fotografok, bikotea bizi izan den etxeak jangelan beti eskegia eduki duen pastel tonutan margoturiko instantanea: uhinik eta txaluparik gabeko bi busto eder, masailak osasuntsu, ezpainak irri, krabelin gorri batzuk eta ongi erreparatuz gero habano baten muturra gizonaren jakaren ezker sakelan –bihotz aldekoan–, Vendavaleko lehen motoristaren alargunak, eskularru zuriak eta fantasiazko lepokoa jantzi dituelarik, kartoizko txalupako txatadeletan eskegirik ikusi zituen kapeluetarik bat hartu eta ipini dio estanpa osatzeko, ez kapitainarena ez marinelarena, borsalino dotorea baino, buruan ipini eta kokoterantz atzeratu dio gizonak –Nire gizonak–, lau hitz

esanik eta Regimiento Sicilia nº 2eko bandak jotako bi bolero dantzaturik beretu gizonak luzitu ahal izan zezan zimurrik ez dakien kopeta ederra –Moderno zinemako pantailan gaiztoek azaltzen zuten ezaxola zoragarri hartan– kapelua apur bat atzeratuta. Argazkia marko batean, ikusgarri ipintzeko dela oroitarazi dio alargunak argazkilariari eta zenbat den dena, kapelua ere bai –denek zekiten dirua zeukala–, horregatik itxiarazi dio zabaldua zeukan kartera Talleres Mendiako lehen ofiziale elektrikariak esku bakarrean bilduz kartera eusten zuten alargunarenak. Bai, kapelua ere bai jakaren barnetik larruzko biletera atereaz. Argitasunera irten orduko Barka ezazu, ez nuen nahi... esan dio alargunak ikararen gandua begietan. Zeinek zein kateatu du? izan da Markos Urbieta jaun gaztearen erantzun jostalaria. Goazen etxera, ahapetik alargunak pozarren, Lagundu nauzu etxeraino. Matxuraren bat ote daukan argindarrean eta ezetz, Pollitenara gonbidatzen duela eta ezetz, ez dela hor inoiz sartuko berriz. Soziedadean ikasitakoak baliatu ditu elektrikariak freskerakoekin afaria egiteko Vendavaleko lehen makinistaren alargunak jangelako mahaia atontzen duen bitartean, hurrengo goizeko gosari izanen dute afaria, alarguna sukaldean azaldu zaionez –Utz ezazu hori,

Markos!–, atera duenez kazuela surtatik kendu dionez zalia eskutik askatu dionez mandarra askatu dizkionez alkandorako botoiak. Gizonaren bularreko ileetan ibili ditu eskuak, burua eman du bihotzaren gainean, horrela egon zaio luzaz –besarkada geldoan erretzen–, emakumearen malkoak nabaritu dituen arte bere larruan: Pakita...! egin du hasperen.

Ez nituela ezagutzen deklaratzea nahi zuen apika, ez nuela inor ezagutzen, hura ez zela gure herria, jende hori baizik, edonongoa, trukagarria. Edo kartoizkoa, dekoratu hutsa. Horrelakoak izaten zituen Xoanek, ezerez batengatik petraltzen ahal zen manera zainduak eta ahotsik eztiena zeuzkan hark. Azken hurrupa eman nion grog hotzari.

– Beste bana?

– Jende hori hor... Paulinorekin!

– Gure populu maitea.

– Paulinorekin!

Seta hartan jarraitu zuen, buruz behera ikusten zituela Boxing Clubekoak zaletuak herritarrak umeak, Paulino, Paulino handia, bikote hura, gure populua gure indarra. Bai, bikote haren izenak harritu batean

aitortu nitzala nahi zuen, asalda nendila. Atzamarra ipini zuen bikotearen gainean, eta haserre behatu zidan Ez al dituk ezagutzen? lehen behakoan ezagutu nituenengatik. Kontu hartzen, halakoei kontu hartzen! Altxatu egin zen, alde egin zuen argazkia marmolaren gainean lagata oliba hezurrez beteriko platertxoa balitz bezala eta ohi zuen adeitasunaz egin zion Agur, Jabi! Genovatik ekarritako Pavoni zaharra igurtziaren igurtziz gastatu egin behar zuen Patxiren seme gazteari –Markos Urbieta elektrikariak Patxi esaten zion edonori, Praisku ez esatearren– General Mola karrikan behera ezkutatzeko. Xoanek akusatutako bikoteari beha geratu nintzen grog beroaren zain.

– Haserre alde egin dik Xoanek.

Pakita...! egin zuen hasperen Markos Urbietak Vendavaleko makinistaren alargunaren malko errea bere larruan nabaritutakoan, pozaren malkoak zirela esan zion alargunak. Bekaturik garbiena egin zuten Pakita Loureirok eta Markos Urbietak, nolako gaua, nolako kemena nolako herria orduan gurea bikote bat estatuaren oinarri moralak dardara batean ikaratzen, bekatuan bizi izan ziren beti handik harat –frantses ezkontzan, apaizen hizkeran–, auzotar alienatuaren marmarrari eta zeharreko zenbait aholku kezkagarriri ez

entzuna eginik, bikote ezarrunta. Zortzi urteren buruan, etsia hartuak zeudela, Pakita Loureirok aurrera atera ahal izan zuen haurdunaldia eta ume bat izan zuten –inork ez daki nolatan bataiatu gabea eta elizara ibili gabea–, Xoan, amarruz betetako Xoan Urbieta Loureiro, neukan lagunik onena, nahiz eta argazki horretan gurasoak ez zeudela irribarrez, nahiz Paulinoren ondoan esan nionean, nahiz eta zer ari zen argazki txatxu harekin, ez zela haserre egoteko eguna errepikatu nionean, bezperan ETAk Carrero Blanco hegan bota zuela eta heriotza aurreratzen ez bazitzaien Franco bera botako zuela, eta orduan Markos Urbieta jaunak habano bat erosiko zuela esan nionean, nahiz esan nionean isilik egoteko, banekiela ez zuela erretzen, ez baitzuen erretzeko erosiko, usaina hartzeko baizik eta Pakita Loureiro andereak ere sudurretara eramanen zuela Romeo y Julieta hura hogeita hamar urte lehenago egin zuen gisa berean, eta Beizama KO utziko zutela Erroman eta guk bizi luze bana geneukala kantatzeko mozkortzeko larrutan egiteko esan nionean Ergela! marmarikatu zuen hortz artean –burutik egin zitzaidala sinetsita– berak zekien bezain leun ezti apal, mingarri. Huraxe nik lagun onena, nahiz eta nire arduradun politikoa izan zitekeela uste zuen.

Ehun eta hogei

Etsaia burua azaltzen lubakian, urrun, ezaxolatua. Berriro jaso zituen prismatikoak begietara, begi zorrotz haietara. Bizkarraren distira. Zeroiak zintz egin eta bere kokagunea adierazi zuen zehatz ur zurrusta haren erruz. Milia barru. Pieza ona zen, ezin zion ihes egiten utzi. Konbaterako aginduak eman zituen. Matzakutik hogei bat miliatara, Bilboko Abraren bertikalean. Bataila gogorra izan zen. Zati gehienak irin fabrikara ekarri zituzten. Gainerakoa lumera ateratzeko erabili zituzten teilatuetan eta paretetan MEIPI letra handitan ageri zituen lantegian, industriarako eta arrantzarako kai eta instalakuntzetan. Emakumezkoak eta gaztetxoak gazitua latetan sartzen. Lan zikina, hezea, ordain murritzekoa. Laurdenkatu ere bertako kaian egin zuten. Egunetarako sartu zitzaigun kiratsa sudurrean. Erromeria bat ume triskantza ikusteko ahoa miresteko hatzak haginetan pasatzeko. Langileei galdezka noiz aterako zizkioten gibelerraiak. Behorren hiltegira joan ohi ziren horrelakoak ikustera. Hirurogei

tonako garabi flotanteak ekarri zuen putzutik kaira. Luzuriagan egina zen, alemanek motorizatua.

Orduan leihora jalgi ginen.

Portuko itsas komandantea bi miliatan barneratu zen itsasoan Nervion minadragari harrera egitera. Lehen sarrera zuen ontzi hark portuan, eta errespetuz hartu zuen korbeta kapitainak, portuan ainguratzeko baimena eskatu zion. Nekatu samarra zegoen. Eskolta lana ez zen txol atsegina, endemas yate batena. Zahartzen hasitako ontzia zen, baina itsastarra. Atoiontzi kapitainera igoko omen zuten laster, eta algara egin zuen. Bokalean sartu zirelarik, arroketan zeuden eguzkizaleak zutitu egin ziren bafada beltz luzea botzen zuen tramankulu hark ababorrean zekarrena hobeki ikustearren. Zeroi bat isatsetik lotua. Francoren balentria berria. Hamasei metro eta hogeita hemezortzi tona. Gerora jakin zen Nervion minadraga bataila gogor eta luze batetik zetorrela, ikatz ugari erreta. Hamasei nudo eta erdi hartzen zituena, orduko bost nudotan heldu zen. Latza, bataila. Soldaduak laneko grisean jantzirik zeudela prest ziurtatu zion portuko itsas komandanteak. Krakoak baionetak estatxak aizkorak. Minadraga portuaren erdialdeko buietara hurbildu zen. Eskalak luzatu zituzten alfonbrak pirrilaka bezala,

zurezko mailek sortzen zuten hots harekin kroskoaren burdinan jotakoan. Marinel bi jaitsi ziren. Zeroiaren bizkar gainean zutik agertu ziren berehala gorputzean iltzatuak zeuzkan arpoietan goiti eskalatuz. Loturak askatu zituzten eta teknika bera erabiliz hurbildu ziren mailadira. Ontziak, libre, buietara egin zuen. Irabazia zeukan atsedena. Zeroia hantxe geratu zen, zintzo, komandantziako txaluparen zain gure portuko putzuaren erdian. Inguratu zitzaion aurrena Rafael Artista Fotografo izan zen, gaztetxo batek arraunean zekarren batelikoan. Klixe historiko batzuk lortuko zituen. Putzura ematen zuten balkoi guztiak jendez beteak zeuden. Distritu batetik bestera joatekoak zirenak ere moilan geratuak zeuden, ikustekoari beha. Motoristek gangiletan estekatu zuten, inork ez zeukan inorako presarik. Hogeita hemezortzi tona haiek uraren azalean, muino gris ilun distiratsua putzuaren erdian. Itsas komandantziako entxufatu haien aldia zen.

Orduan kaira jalgi ginen.

Konbaterako aginduak eman zitueneko, Franco brankaren bertizean bertan kokatu zen, eta Azor yatea, ontzi astun eta gogor hura, gerrako destroierra bihurtu zen. Inork agindurik eman baino lehen prestatu zuten kanoia marinelek, ibili luzeko ehiztariak ziren.

Martxa apalduz, etsaiaren posiziora hurreratu ziren hogeiren bat metrora kokatzeko. Max Bassolsek, Caudilloaren arrantza maisua izan zen gobernadore zibil ohiak, betiko artarekin zabaldu zuen Greener Harpoon Gun Mark II karabinaren kutxa berdea. Francok besoa jaso zuen. Zeroiaren buru azpira apuntatu zuen kanoilariak. Makina zintzoa zeukan besotan, Norvegiatik ekarritako jostailua. Mussolini hila zen, Hitler hila zen, Francok zeroiak ehizatzen zituen. Besoa jaitsi zueneko irten zen hemezortzi kiloko arpoia bere isats luzearekin. Odola jario hasi zen zeroia. Abante guztia istriborrera, eta abante guztia istriborrera ahoz aho pilotuarenganaino. Zeroia bertikalean murgildu zen, maltzur, batailatik ihesi. Berrogei bat metro estatxa behar izan zuen. Tiro bikaina, eta ahoz aho tiro bikaina arpoilariarenganaino. Denek zekiten puska batean ez zela berriz azaleratuko, eta Franco beti brankaren bertizean. Horixe zen Francoren adurra, pazientzia, fermutasuna. Kafe hotza prestatu zion zerbitzariak. Hurrupa txipi bat eginda itzuli zuen Francok, dastatzeko lain, gerlari sikua zen, sikua tiro bat lez. Bere moro guardiak hurrupatxo bat te berak hurrupatxo bat kafe, eskuz esku kikarak bidea ostera tantarik isuri gabe. Arpoiak bezain zorrotzak ziren begietara prismatikoak. Etsaia

txopatik ager zitekeen, edo istriborretik. Hogei minuturen buruan estatxa hasi zen azaltzen ababorretik, zeroia ez zen hainbeste mugitu. Murgildua zen posiziotik milia erdira ikusi zuten berriro. Abante guztia, eta ahoz aho abante guztia, baina pilotuak agindua iritsi aurretik emana zion, estatxa biltzea zetorren orain, zeroia ihesian hasiko zen laster arpoia kendu ahal izanen zuelakoan. Segundo batzuk galtzea aski zen piztia hark estatxa tinkatu eta eten zezan. Hurbiltzen ziren heinean, Norvegiako kanoiak zintzo egin zuen lana: hemezortzi kiloko lau arpoi, hamar kiloko hamabi. Indar gaitzeko tresna zen. Segurtasun neurriak zirela kausa, ez zuen Francok maneiatzen. Hilaginean geratu zen etsaia. Arriskurik larrieneko unea zen hura. Azken ahalegin bat eginen zuen bizitzari atxikitzeko, isatsarekin joka amorratuko zen, ur handiak harrotuko zituen. Francok bere postuan jarraitu zuen ordea, izarrik ez daukan gauean argi ematen duen farolaren antzera hantxe, bederatzi ordu eta bost minutu tente, ankertasunari buru eginez brankaren bertizean, ehiztari mitiko ekaitzen garaile bidearen mugarri. Arriskurik larrieneko une hartan, Fusila esan zion Francok Max Bassolsi, eta fusila ahoz aho, eta fusila eskuz esku. Etsaia errematatzeko zeremonia zetorren orain,

eta Franco odol hotz harrigarrian hasi zen zeroiari tiroka, bat, bi, hiru, lau, bost, sei, zazpi, zortzi, bederatzi, hamar, hamaika, hamaika estatuburu Francoren bekaitzez, hamabi, hamahiru, hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi, hemezortzi, hemezortzi hurrupa txipi Francok kafe hotzari, hemeretzi, hogei, hogeita bat, hogeita bi, hogeita bi Franco beti kristau, hogeita hiru, hogeita lau, hogeita bost, hogeita sei, hogeita zazpi, hogeita zortzi, hogeita zortzi Franco beti harrigarri, hogeita bederatzi, hogeita hamar, hogeita hamaika, hogeita hamabi, hogeita hamahiru goiaingeru Francoren loa zaintzeko, hogeita hamalau, hogeita hamabost, hogeita hamasei, hogeita hamasei ordu jarraian Franco brankaren bertizean, hogeita hamazazpi, hogeita hemezortzi, hogeita hemeretzi, berrogei, berrogeita bat, berrogeita bi, berrogeita hiru, berrogeita lau, berrogeita bost, berrogeita sei, berrogeita zazpi, berrogeita zazpi tonakoa Francoren adurra, berrogeita zortzi, berrogeita bederatzi, berrogeita hamar, berrogeita hamaika, berrogeita hamabi, berrogeita hamahiru, berrogeita hamalau, berrogeita hamalau bedeinkazio Aita Santuak Francori, berrogeita hamabost, berrogeita hamasei, berrogeita hamazazpi, berrogeita hemezortzi, berrogeita hemeretzi, berro-

geita hemeretzi mila lege zuhur Francok sinaturik, hirurogei, hirurogeita bat, hirurogeita bi, hirurogeita hiru, hirurogeita lau, hirurogeita bost, hirurogeita sei, hirurogeita zazpi, hirurogeita zazpi urte Francok, hirurogeita zortzi, hirurogeita bederatzi, hirurogeita hamar, hirurogeita hamar urte Francok behin eta berriz, hirurogeita hamaika, hirurogeita hamabi, hirurogeita hamahiru, hirurogeita hamahiru Franco denak berdin, hirurogeita hamalau, hirurogeita hamabost, hirurogeita hamasei, hirurogeita hamazazpi, hirurogeita hamazazpi deskalabru Franco akabatu ezinez, hirurogeita hemezortzi, hirurogeita hemeretzi, hirurogeita hemeretzi zakur Francoren katetik, laurogei, laurogeita bat, laurogeita bi, laurogeita hiru, laurogeita hiru urte eta beste bi kaxa kartutxo eskatu Francok, laurogeita lau, laurogeita bost, laurogeita sei, laurogeita zazpi, laurogeita zortzi, laurogeita zortzi milioi boto Francoren alde, laurogeita bederatzi, laurogeita hamar, laurogeita hamaika, laurogeita hamabi, laurogeita hamahiru, laurogeita hamahiru bake urte Francori esker, laurogeita hamalau, laurogeita hamabost, laurogeita hamasei, laurogeita hamazazpi, laurogeita hemezortzi, laurogeita hemeretzi, laurogeita hamar, laurogeita hamar mila etsai eta Francok pultsua tinko,

ehun, ehun urte eta nolako gerlaria Franco, ehun eta bat, egun eta bi, ehun eta hiru, ehun eta lau, ehun eta bost, ehun eta sei, ehun eta zazpi, ehun eta zortzi, ehun eta zortzi mila eper Francoren platerean, ehun eta bederatzi, ehun eta hamar, ehun eta hamaika, ehun eta hamabi, ehun eta hamahiru, ehun eta hamalau, ehun eta hamalau zeroi Francoren balentria, ehun eta hamabost, ehun eta hamasei, ehun eta hamazazpi, ehun eta hemezortzi, ehun eta hemeretzi, ehun eta hogei, ehun eta hogei fusil tiro Francok banan-banan pertsonalki.

Orain kalera jalgi naiz.

Kalera irten gara haserre, kalera irten gara Piazza del Popolo guztietara elkarrekin egoteko, elkarren berotasuna sentitzeko bizitza izoztu honetan, barruan daukagun sumindurari egitura politikoren bat emateko asmoz. Sobera urte zornea biltzen. Lehertu behar batek eraman gaitu, urradurek sortzen diguten higuina eztarritik libratzera esaka, oihuka, kantuka. Eta Piazza di Spagnan masta hutsik Espainiaren eta Vatikanoaren armarrien artean, leihoak itsu, atea itsu, Espainia itsu gure kolera ulertu ezinik. Espainia kristaua gor Aita Santuaren urriki eskeari. Bat, bi, hiru... eztanda gorriz bete da Espainiak Vatikanorako daukan en-

baxadaren aurrealdea. Franco assassino. Turistek argazkiak egin dizkigute. Agian ez dira turistak. Haiengana hurbildu eta informazio orriak eskaini dizkiegu. Alemanak dira. Franco, aipatu diegu, Hitlerren aliatua. Baietz egin digute, bazekiten. Multzoa mehetzen hasi da Palazzo Borghesera joateko, batzuek metroa hartu dute lehenbailehen iristeagatik. Zeinen guti garen, zeinen guti egun izoztu honen berotasunean, zeroikume batzuk baino ez guri deika turistez beteriko bateaux-mouchesen artetik Senaren erdian. Banderolak, pankartak batu zaizkigu, eta Place de la Bastillen zeudenekin nahasi garelarik trafikoa eten ahal izan dugu, bost minutu eskatu diegu, bost minutu tutu joka bost fusilatuen izenean bosna notako oihuan Fran-co a-ssassin, Fran-co a-ssa-ssin. Zuek denak, espainiarrak zarete? Ez, batzuk bakarrik. Zer ari zarete, espainiarrei beren arazoak konpontzen? Diktadurak, zure ustez, barne arazo dira? Tira, egin dezatela espainiarrek iraultza geuk egin genuen moduan. Place de la Bastille, zer edo zer adierazten du, ezta? Bai, burgesen iraultza. Nondik zatoz zure autoan, lanetik noski? Etxera heldu nahi dut, nekatua nago. Egalité, non ote zaude, Egalité! Espainiako enbaxadarantz hartu dugu Rua do Salitren beheiti, uholde batean heldu gara Ave-

nida da Liberdadeko izkinara, hantxe Francoren delegazioa, Avenida da Liberdaden. Kazetariak, argazkilariak, RTPko kamerografoak. Masta hutsik. Bandera ezkutatua, edo eramana. Bi soldadu ate zaindari. Norbaitek Revoluçao hitza aipatu die. Elkarrizketa labur bat izan dugu. Orain, une honetan bertan, herria da aginduak ematen ari zaizuena. Bazterrera egin dute eta gurekin etorritako batzuek musuak eta besarkadak ematen dizkieten bitartean besteok atea jotzen leihoak apurtzen hasi gara. Franco assassino margotzen kamerek filmatzeko. Jendea leihoetarik sartu da, istantean egin dute hegan karpetek aulkiek mahaiek errezelek. Su eman die neska batek alfonbrei, garrak leihoetarik. Puska betean egon gara hantxe, suhiltzaileei ere Revoluçao hitza aipatu ahal izateko. Gure ekintza zer den, Francoren aurka gaztetasunak egin adierazpenen arteko bat. Hori da, hain zuzen, jazar hau, sute hau: adierazpen bat, Inkisizioa bera erretzea. Espainiako lurraldea inbaditzen ari garela ordea. Portugaleko estatua kolokan jartzen ari gara. Baldintzak ari omen gara sortzen Estatu Batuek eskuin kolpe bat eragin dezaten. Kazetariak, unean uneko jakintsuak. Iduri luke ez dugula Krabelinen Iraultza bat eduki, urtebete nahikoa izan da egarria asetzeko. Bost

fusilaketa egin ditu Francok egunsenti honetan. Portugalek ez ditu deskargak entzun? Francok entregatu zien Humberto Delgado PIDEko hiltzaileei. Bai edo ez, esadazue. Beraz, zer egin behar du Portugalek, ohar bat? Espainiak ezin du Portugal eraso, esadazu nola dagoen Espainiako herria une honetan. Zer dio zuen berriemaile bereziak? Hilabete oroz dago greba nagusi bat Euskal Herrian. Agian ez daki. Madrileko hotel batetik idazten dizue. Ez dakizu Katalunia nola dagoen. Portugalek bi egunez eusten baldin badio, Espainiaren Armadak atzera eginen du. Kolapsoaren bezperan Espainia dago, ez Portugal. Askatasuna opa baldin badiezu Espainiako herriei, har ezazu eskutada bat su horretarik. Bertan utzi ditugu, Praça de Espanhara jo dugu. Ez gara hainbeste, aitortzekoa da. Baina multzo bat gara, fusilatu berpiztuak, multzo bero bat. Avenida da Liberdaden goiti sumindu gehiago, aitzina jarraitu dugu kantari Grandola vila morena. Eta leihoetarik Terra da fraternidade erantzuten digute han edo hemen. Seinale bat da. Revoluçao hitza aipatu diegu aspertuak daudenei. Jauzi batean iragan dugu burdinazko hesia. Enbaxadak abandonatuak dauzkate hiriburu guztietan. Zabaldu, eraitsi, birrindu, jaurti. Ehun eta hogei taupada minutuko. Urteetako ahaleza. Praça

de Espanhan apirilaren hogeita bosteko iraultzaren egunak arrapiztu dira. Lagundu ote digute espainiarrek ezertan inoiz? Barre egin diot. Guk ere Egalité, non zaude Egalité! eginen dugu hasperen halako batean. Krabelinen Iraultza palmondoetan hasi zen, Afrikako oihanean, Ginean, Angolan, Mozambiken, Sao Tomen. Kolonietako liberazio mugimenduek irakatsi zieten gure kapitainei zer egin, guztiek bertan hil nahi ez bazuten. Helburu iraultzailerik gabeko iraultza egin dugu. Eta tristatu egin nintzen, ez zen hausnarturiko prentsamendua, ez dakit nondik irten zitzaidan gordinkeria hura. Tristatu egin nintzen, oroz gain, egia zelako eta ez neukalako eskubiderik halakorik esateko ordu latz batean nazionalitate berria eman zidatenei, aterpea, ogia eta maitasuna ematen didatenei. Gau luzea izan zen, gau guztiak ziren luzeak ukimenez eta intuizioz aurrera egiten ikasi nahi genuen itsuontzat egun haietan Portugalen. Debate ageri batera eraman ninduten, MFAko zenbait kapitain azaltzekoak omen ziren. Eskaileretan geratu behar izan genuen. Nolako isiltasuna gure artean, eskaileretan jesarrita, sarrerako ate erraldoiari beha edo paretetako margo historikoei edo geure zapatei, ozengailuek ekartzen zigutenari bizkar emanik. Nolako ernetasuna sozialismoa fin-

katzeko eman beharreko urratsei buruz ari ziren Vasco Lourenço eta Otelo de Carvalhoren hitzak buruz ikasten. Eta, ezagutzen ez nuen batek, nire ezkerrean zegoen emakumezko batek, belarrira: helburu iraultzailerik gabeko iraultza egin dugu, baina bankuak nazionalizatu ditugu.

Orain errealitatera jalgi naiz.

Bizkaiko Golkoan inoiz harrapatu den zeroi handienaren agonia bezain luzeak izan ziren lehorrera jasotzeko portuan eman zituen lanak. Rafael Artista Fotografok klixe historikoak egin zituen: garabi flotanteko marinelak zeroiaren inguruan altzairuzko kableak azpitik pasatzen jaso ahal izateko, kableak berak lotzen, kakoan sartzen. Hurbiletik hartutako argazki sail bat, bitxia. Baina Rafaelek moilako garabi batera igota atera zuena da egun Francoren balentriaren froga nagusia. Motoran ontziratzeko gangilaren pareko aterpe modernistaren ondoan geratutako jende ilara lehen planoan bizkarrez, putzura beha, eta hirurogei tonako garabi flotantea, Luzuriagan egina eta alemanek motorizatutako huraxe aurrez, mekano estruktura zeukan moko indartsuarekin eusten duela portuan inoiz ikusi izan den itsasokorik ikusgarriena. Zeroia airean, hamar metro urazaletik gora hogeita hemezortzi tona-

ko piztia, Francoren mezua, Francoren mezu astuna, Francoren mehatxua. Aski ezaguna da argazkia. Ez du adierazten ahal jendearen isila, jendearen izua. Albistearen apaingarri atera zuen La Voz de Españak. Rafael Artista Fotografok anpliazio bat egin zuen eta itsas komandanteari oparitu zion. Honek beste kopia bat eskatu zion, kalitate berekoa eta marko egoki batean sartua, ordaintzekotan. Francori berari helaraztеko moduko markoa. Portuko Agintaritzak negatiboa erosi zion. Antza denez, Rafael Artista Fotografok ez zituen klixeetan hilezkortu laneko grisean hain prest zeuden kubertak garbitzen ibili ordez komandantzian entxufatutako soldaduek egin zuten lana. Minadraga zeroia askatzen hasi zela heldu ziren ingurura. Lehorreko Babcock & Wilcox nº 8tik tentuz jaitsi eta etorria zen bizikletan abiatu zen lasai MEIPIrantz argazkilaria. Han lehorreratuko zuten, han laurdenkatuko zuten, ez zen lehen zeroia. Minadraga hastandu egin zen ekarria zuen zama komandantziako mutilen esku utziz. Portuko itsas komandanteak arpoiak lehorrean errazago kenduko zizkiotela argudiatu zuelarik, korbeta kapitain gazteak, Nervion minadragako komandanteak, bizkarrak harrotu zituen doi bat, ez nabarmen, begiak bilduz. Arpoi guztiak albait arinen ekartzeko eskatu

zuen Azor yateak. Eta Azor yateak eskatu zuela jakinik agerikoa zen Francok baino larderia handiagoko baten agindua zela, itsasoan Francoren ahotsa hartzen zuen Max Bassols jaunarena, Caudilloaren maina guztien asmatzaile zintzoarena. Ez da samurra haragian sarturiko arpoia ateratzea. Gorputza uretan dagoen zeroia baldin bada, ez da samurra gorputzaren bizkarrera iristea. Ez zuen nahi bere mutilak barregarri ikustea inork. Jolasak utzita arrapaladan igo genituen denok etxeko eskailerak. Nola edo hala saiatzen ziren alferkerian ohitutako latoi lustratzaile haiek. Aitaren prismatiko alemanak atera nituen. Kaian zegoen jendeak hautsi egin zuen ilara, estatxa askatzeko eskatu zioten motoristari, beste distritura joatekoak ziren eta ez zeukaten gogorik harakintza hura ikusteko: baionetak gorputz hila ikertzen krakoak mamia zarrastaka papurtzen aizkorak arpoiaren gezirainoko bidea egiten giharrean, soldaduak min hartzen madarikatzen txalupara erortzen uretara labaintzen, matarife ezikasien izerdia. Groteskoa eta sumingarria zen hura. Hori dena orain dakit, orain dakit interpretatzen. Prismatikoek hurbiltzen zuen mundua bestelakoa zen, arraroa, gogorra, ezkutua, behor hiltegian ikusten genuena ez bezalakoa. Mekanika zabarra, garbitasunik kuxidade-

rik gabeko lana. Azor yateak albait arinen behar zituen arpoi guztiak. Franco edozein egunetan jaiki zitekeen balentria harrigarriago bat egiteko gogotan. Biharamunean bertan, ausaz. Eta bat, bi, hiru, berrogeita zazpi, hirurogeita hamabost, laurogeita bederatzi, ehun, ehun eta hogei arpoi behar zitzaizkion osorik garbi osorik zorrotz piztiak akabatzen jarraitu ahal izateko tiroka, berak, pertsonalki.

Orduan Max Bassolsek prentsa irakurri zuen.

Ohikoa ez zuen ardura sintaktikoarekin hartu zituen La Voz de España, El Diario Vasco, Unidad, Francoren balentriari buruzko kronikak berriro irakurtzearren. Hantxe ageri zen berbakondo hura, hamar bat aldiz errepikatua albistean barrena. Berdin zen falangistetan zein tradizionalistetan. La Vanguardia eskuratu zuen eta zabaldu zueneko, albistea laburragoa zenez, begira etorri zitzaion berba testu masan nabarmen, berba madarikatu hura, hainbat bider entzuna hainbat bider irakurria, eta berak berberak hainbat bider esana. Abuztua, nola harrapatu katedratikoren bat? Hiriburuko ateneora jo zuen, Espasa entziklopedia besterik ez zeukaten. Ez zen pozik geratu entziklopedian irakurri zuenarekin. Eguerdia zen eta alderdi zaharrera jo zuen, Gaztelubideko lagunekin martini

batzuk hartzera. Nautikora hurreratzen ari zela, Aquarium begi bistan letra nabarmenez portuko moilarrien gainean. Lauretan irekitzen zutela jakin zuen atean. Gaztelubidekoek kezkatua ikusi zuten, hitzurri. Ohi zuen sutsutik urrun kantatu zituen bazkalondoko habanerak. Laurak eta laurdenetan Aquariumean zen berriz. Zuzendaria, goizetan bakarrik. Dei ziezaiotela etxera. Pipa bat errez itxaron zion eraikinaren gaineko terrazan, ukondoak eskudelean. Badiaren erdian Azor, yate gogor eta astun hura. Zer egiten zuten gobernadore zibilek? Itsuak al ziren zentsurakoak? Francoren zerbitzura zeuden marinel bermeotar haietariko batek berba ahoskatu zuen tonuak sortua zion susmoa. Zenbatetan errepikatu ote zuen hura bera tonu hartan? Berba zantarra zen, errima guztiak zantar egiten zituena. Eta idatzian efektu bera egiten zuen, izen hark biko zentzua zeukan erregimenari atxikiak ez zirenen artean. Aquariumeko zuzendariak barkamen eske agurtu zuen, abuztuko arratsaldeak omen zituen oporraldi bakarra. Harritu egin zuen Max Bassolsen galderak. Nomenklatura zientifikoan, piztia haren izena balaena biscayensis zela argitu zion. Francoren intimoak eskua emanez eskertu zion, zurrun. Ez zen egokia izen hura, hura ere ez. Manipulazio politikoetarako bidea

ematen zuen. Biscayensis baino, cantabriensis izan balitz! Edo cantabriarum, batek daki! Informazio eta Turismo Ministerioko telefonoa zenbakitzen ari zela heldu zitzaion Espasan bertan irakurria zuen Cetáceo terminoa. Aurikularra urkuluan utzi eta ahoan erabili zuen Cetáceo. Hura bai, latinaren eta gaztelaniaren artekoa zirudien, jasoa, dotorea. Ministerioko telefonoa zenbakitu zuen berriro prentsari jakinaraz ziezaioten Francok ez zuela Cachaloterik harrapatzen, Cetáceoak baizik. Ilunabarrean Azorreko kanoilaria etorri zitzaion Nautikora, arpoi guztiak ontzian zeudela, garbirik eta zorrotzik. Murgil eder bat egin zuen Max Bassolsek pasarelatik itsasgoran. Itsasoan bakarrik ez, lehorrean ere bataila interesgarriak bazeudela deskubritu zuen. Gauerdi beranduan, Tenis Cluben, txalo zaparrada batean jaso zuen bizartsu kapeludunen festako lehen saria.

Atzeguardako lanak

itaundu zitzaion zergatik zen kalean azaldu jantzi hartan eta emakumeak erantzun zuen gizona galdu zuelako, dolua adierazteko zela jantzia jantzi zen gisan, gizona galdu zuelako

itaundu zitzaion nola galdu zuen senarra eta emakumeak erantzun zuen gizona galdu zuela hil egin ziotelako

itaundu zitzaion nongo su-lerrotan hila zen eta emakumeak erantzun zuen ez zutela su-lerroan hil, hara baino lehen ziotela hil gizona

itaundu zitzaion senarraren izena eta emakumeak agintariek epaitegira ekarritako gaiztaginen zerrendan zegoen izen bat eman zuen, Simon Arizkun Figueroa, gizonaren izena omen zena, gure datuen arabera Makurra ezizenez eta artean inoiz atzitu gabea

(ikus 1 zenb. agiria)

itaundu zitzaion noiztik zen senarraren ezik eta emakumeak erantzun zuen bazituela bi aste gizona galdua zela

itaundu zitzaion senarra galdua zela esanik hil ziotela konprenitu behar bagenuen nolatan zekien hil ziotela eta emakumeak erantzun zuen ongi zekiela berak

itaundu zitzaion nola jakin zezakeen hain ziur senarraren heriotza eta emakumeak erantzun zuen gizona hila zela heriotzak eraman aurretik

itaundu zitzaion nola zitekeen horrelakorik eta emakumeak ez zuen ezer erantzun mututu egin zen

(erantzun nahi zuenak kalteren bat ekartzen ahal ziolako, nire iritziko)

itaundu zitzaion senarra negargarrizko hondamendiren batean galdu zela uste ote zuen itsasoan eta emakumea hasierako leloari lotu zen ostera, gizona kendu ziotelako jantzi zela bera horrela, denek jakin zezaten alargundua zela

(gizona kendu ziotelako, esan zuen)

(hil, galdu, kendu mailakatzeak adierazten du zerbait)

hau guztia idatzian jaso zen eta izenpetzera eman zitzaion

luma eskuan hartu zuen aise, eta lehen marra egina zuenean, jaso egin zuen paperetik

(damutu antzean, nire iritziko)

eta beste marra bat egin zuen berehala, ixa osatuz

(ikus 2 zenb. agiria)

ondoren ilea moztu zitzaion txori bat utziz hartan gure ikur nazionala eraman zezan begizta eginda, eta ikerketak azkendu arteko atsedena eman zitzaion epaitegiko ziegan

elizan egin zen ikerketak eman zuen, emakumeak zioena egia izatera behinik behin, Makurra eta biak sasi-ezkontzan bizi zirela, liburuetan ez baitzen azaltzen inolako agiririk, guk senarra aipatu genuen ehun eta gehiago aldietan hark gizona esateak adierazten zuen moduan

(ezkon-eraztunik ez zeramala ohartu behar nuke)

etxean irrati bat aurkitu zitzaion, eta ezkertiarren eta euskal bereizkoien izparringi txatalak

ez zeukan elizako libururik, irarkinik edo deboziozko irudirik, ez paretetan, ez usaingarriak eta eskumuturreko ordularia gordetzen zituen tiraderan

bazeukan gizonezko baten argazkia logelako ohemahaian, baina inork ezin izan zuen segurtatu emakumeak esandako izenari zegokion, berak gero hala baieztatuagatik erakutsi zitzaionean

(ingiko gizonak ez zeukan Makurraren izengoitia erakarriko ziokeen makurrik edo makesturik aurpegian ez besoetan, eta horretatik atera liteke, nik uste, haren makurra ez zela gorputzekoa, bai gogokoa edo hobeki esanik bihotzekoa, hots, bere ideia ilunetakoa)

argazkia ikusitakoan ez zuen bestelako zarrakorik izan, ez zitzaion begia bete, ezagutu ez balu bezala begiratu zion

bere etxean bildu genuen soineko loredun bat ekarririk aldarazi zitzaion jantzia zeukan doluko beltza

kendutako arropa itungarri hura epaitegiko biltegian gorde zen froga gisa

berak esan zuenagatik, etxean aurkitu zitzaionagatik, eta batik bat karrikan egun argiz eta nabarmenki horrela jantzita behin eta berriz ageri izateagatik atera zen emakume hura bakea hausten ari zela nolanahi ere, etsaiari gorazarre eginez

(hila omen zuen senarra izan zitekeen ingian ageri zena, gero azaldu ziren informeetan Makurraren balentriak ikusirik ez zen harritzekoa gure altxamenduaren lehen egun gogor haietan bere burua galdu izana)

eta Espainiaren bikaintasun betierekoen alde bizia ematera frontera joandakoen senideak atsekabetuz, laster denak alargun eta umezurtz izango zirelako pre-

goia egiten baitzuen haren ibili hutsak kalean gora eta behera

(bere burua adur gaiztoko iragarle eginik)

hiriburuan presondegi bihurtutako zezen-plaza eta biltegiak gainezka egonik eta ordurako atziketak eta epaiketak arautuak genituenez, gure tropa aintzagarriak hartu etsaiekin, portuaren erdian, kaietarik urrun, aingura emanda buietan lotua zegoen Herculano baforan entzerratu genuen emakume egoskor hura, gizonezkoetatik bereiz, brankako txapitulan

bidean ez zuen hitzik egin eta epaitegian eduki genuen bitartean ez zuen urik eskatu

(itaunketa jarraitu genuen baforan)

betikoa arrapostu nuen, ez niola garrantzirik ematen horri, hala zela eta hala izanen zela beti, golak sartzen dituztenak aitzinlariak direlako, eta golak direla garaipena ematen dutenak, sarezain onenak ez duela balio irabazteko, ez galtzeko balio dezakeela alegia, bertzerik ez, eta taldekideen laguntzarekin beti ere

kazetaria titular bat lortzeko zegoen, sei denboraldi neramatzan lehen mailan, ezagutzen nituen, aurkariak gure abantaila ez kentzeko balio dezakeela atezainak, aurkariak berdin ez dezan alegia, eta hori ezinbestekoa izaten zela irabaziko bazen

horixe adierazi nahi zidan, nire geldituek gol bana balio zutela. Partida ona jokatu genuela talde osoak, gibelekoen lana eskertzeko egin nituela gelditu haiek

atezainaren lana desberdina dela, inork ezin duela egin zure egitekoa zure taldean, hamaiketan bakarra zarela. Arrazoia zeukan, kazetariek maite dute arrazoia edukitzea, eta horregatik erran nion jakin behar zuela sarezain batek taldean integratzen, sarezain onenek talde lana egiten zutela sakeetan, kornerretan, erdiraketetan, ateratzeetan

sarezaina erraten nion nik neure lanpostuari, argentinarren gisan, fuel-oil bidoi zaharretan hedaturiko antxoatarako sare zati gorrilun kirastuak defendatuz ikasi nuelakotz futbola gure herriko kai zikinetan, sobera gogorrak sobera bake txarrekoak zirelako profesionaletara heldu ez ziren estibatzaile txiroen eta arrantzale galduen seme trebe haiekin. Gero, takodunekin eta zenbakidunekin jokatzen hasi ginelarik, Fontan armadoreari kendutako legatzetarako nailon urdinezko sare handiak babesten zuen beheko trenbidera ematen zuen alboa, haren puska batekin egin genuen entrenamenduetako baloien poltsa

eta zer pentsatzen du sarezainak, zuk diozun moduan, barkabera kazetaria, hitzari doinu ironikoa ema-

nez, Amancio, azken atzelaria gaindituta, bakarrik azaltzen zaiolarik area barruan, partidaren azken minutuan?

horrelako gauzak galdegiten dizkizute, ez da sinestekoa, eta ezin diezu ihardetsi, ez diezu erraten ahal aitzinlaririk gorrotatuena laurogei mila artabururen aitzinean bere markako zalukeria eginda irrigarri utzi nahi zaituela ageri delarik ez duzula deusetaz pentsatzen, alegia, hil ala bizi jalgitzen zarela leize zulotik eskuak atxamarta, pentsamenduari astirik eman gabe, alegia, astirik eman gabe Amancioren pentsamenduari ere, zalaparta batean, a cona que che botou, alde bat ezinduko haut

(hori pentsatzen du sarezainak, baina adi ezazue ongi)

zuek uste duzue gure taldekideak lanean ari diren bitartean sarezainok astia izaten dugula pentsatzeko, eta ez da horrela, guk ez daukagu burua deusetan, baloiaren traiektoriari gaude so deusetan pentsatzen ez dugula, golaren jokaldiak ehun metro urrunago du hasmenta, eta baloia datorrelarik, zer esanik ez Amancio bezalako jokalari izugarriaren oinetan, ba bihotza punpaka jartzen zaizu, eten edo urra atera behar duzu

zer esan dizu Amanciok?

(aitzinlari guztiek erraten dituztenak)

hizketan geratu zaizu baloia kendu diozunean

(nik ere egin zioat solastxoa, zer uste duk, a cona que che botou erran zioat)

futboleko kontuak dira, kantxa barruan, elkarri errana elkarri atzendu

Amanciok esan dizuna hobea da ahanzteko, beraz?

(a cona que che botou)

Amanciorekin badut harremana, galegoz egiten dut harekin, elkarren aurka jokatzea egokitzen zaigun orotan egoten gara puska bat galegoz solastatzen zelaira atera aitzin

Patxi Arizkun ez al da euskalduna?

Patxi Arizkunek Racing de Ferrolen jokatu zuen, eta han denok egiten genuen galegoz, Anton Monteiro kapitainak ezarritako legea zen, alegia, galegoz egiten ez zuenak segur zeukan leku bat ordezkoen aulkian

zer esan dizu Amanciok galegoz?

(a cona que che botou)

jendeak atera duen builarekin nik ez diot deus aditu ahal izan, lurrean nengoen eta kasik ez nuen si-

nesten ahal baloia eskuetan neukala. Ez nekien hitz egin didanik, berak jakinen du zer erran didan, galdegin iezaiozu berari

txol haserre irten omen da, ez omen dio inori elkarrizketarik eman, eta herrenka zihoan

(nahiago nikek egia balitz)

joko garbia egin dugu bi taldeek, baina zelaia arrunt astuna zegoen, harritu nau zelaia horrela egoteak hemen

uste duzu Santiago Bernabeun, liderraren etxean lortu duzuen garaipen honekin aurten sailkapenaren goialdean egon zintezketela erakutsi duzuela?

urrats txipi bat izan da, liga hasi bertzerik ez da egin

azken galdera bat, kuriositatez, zergatik irten zara zelaira xingola beltz horrekin besoan?

(kuriositatez, alegia, ez haizela ausartuko publikatzen)

(hasperen egin nuen, banekien galdeginen zidatela, eta galdera zela ea barrabilik daukaan pentsatzen duana mikroari aitortzeko edo grabagailuari so geratuko naizen galdemodutik ehun metrora)

orduan, niri heldu aitzin, kazetariari heldu zioten besotik leun: barka ezazu, autobusa zain daukagu, aireportura joan behar dugu

eta ezagutzen ez nituen direktibo bi haien artean atera nintzen Bernabeuko prentsa aretorik motorra berorik taxia baino zintzoago nire begira zegoen neukan Seat 1800 beltz batean sartzeko. Ez zitzaidan damutu kazetariari ez arrapostua, Amanciori egin nionarekin irabazia neukan kirol aldizkari guztien lehen plana, besoko xingola beltza ongi nabarmentzen da jertsearen berdean, baita zuri-beltzeko argazkietan ere

(graciñas, Amancio)

kanpaia entzunak ginen ehun eta gehiago gautan, luzaz, barrena inarrosten zuten danga goibeletan

gaur hemen, bihar han, hasieran uste izan genuen etsaiak isileko mezuren bat pasatzen zuela hots haietan, baina gerora ikusi zen gure kemena hondatzeko eztenkeria bat zela

kafea eman zitzaien inguruko sakristauei, eta hala ere kanpaia entzuten jarraitu genuen ehun eta gehiago gautan, urrakor, hilko ginelako segurtamena

nahiz inguruko apaizak ziren leialak eta apezpikuaren guztizkoak, susmoa hartu genuen baten bat izan zitekeela gureganako berotasunik gabea

ezin zitzaienez denei kafea eman, zelatatze isil eta zorrotza ezarri genien inguruan, eta ez zitzaien ez gutun ez ibili susmagarririk harrapatu gau eta egun egin genien jarraipenean

(eta bitartean hildakoen danga haiek herriaren loa aztoratzen zuten, mehatxu goibel batean joka)

eraso batean gure mutilak ilunpean dorrera, eta ailegatzen zireneko isildu egiten zen, beste nonbaitekoa hasten zela joka

orduan erabaki zen neurri eraginkor bat, kanpaiei sokak kentzea

(ez zen lan erraza izan)

hala ere hilko ginelakoa entzuten jarraitu genuen ehun eta gehiago gautan

zurrumurru gaiztoak hasi ziren zabaltzen, hil-kanpaiak gure helburu salbatzailearen hondamendia iragartzen zuela, Jainkoak bidalitako oharpidea zela aritzen omen ziren beatak

(beldur belarriak sortzen ditu ikarak)

(atzeguardan egoteak horixe dauka, ez dituzula lubakiak ikusten, ez zaizula etsaia buruz buru oldartuko, azpiz azpi baizik)

(hau eta beste esan ohi dute su-lerroan ibilitakoek guregatik, baina haiek ez bezala, guk ez geneukan stukei deitzerik kanpandorre guztiak suntsi zitzaten)

sokak kentzea aski ez zela ikusita, mihia kendu genien kanpaiei

(ez zen lan erraza izan)

sokak kentzea baino eraginkorragoa izan zen hau, balak egiteko urtu ahal izan zirenez gure mutilek bizirik iraun zezaten etsai amorratuaren mehatxuen gainetik

bularreko kutxa barnetik kolpatuko baligute moduan jarraitu zuen kanpaiak, ehun eta gehiago gautan astun, sarkor, hezurrak durduzatzen zizkigutela

(zainetakoa lotu behar zitzaigun etsaiak mailuka jotzen zuen kanpaietan, eta ez ginen gai haren besoa mozteko)

noizbait, Elizaren kezkak arren, kostaldeko kanpai guztiak urtu ahal izan ziren

geroztik noiz edo noiz eta oso urrun baizik ez zen entzun kanpai hotsa, oraindik etsaiaren lurraldea zen hartatik, guztiz itzali ziren arte

gerora gorrien mendekuaren beldurrean edo antsian bizi zirenek besterik ez zuten entzun, edo entzuten zutela esan, etsipena zabaltzeko asmo zitalez

kanpaiak kentzeak adinako indarra eduki zuen baketze hartan itsasertzeko herri guztietan meza nagusian irakurri zen apezpikuaren pastoralak, esanez Elizaren eginbidea zela altxamenduari bere premia xeheenetan ere laguntzea

(pastorala ongi zegoen, berandu samar iristea guretzat)

altxamenduari bere premia xeheenetan ere laguntzea Elizaren eginbidea zela Jainkoari erreguka eta mailuka ekin behar zaiolako, arragoan mailuka, eta Francori bala gehiago emateak bazuela otoitzez, Jainkoa bala gehiagoren eske ari zelako bere alde

(egia da halako itxura tamal bat zeukatela elizetako dorreek kanpairik gabe, Kanpairik gabeko kanpandorreak begia lehertutako fusilatua ematen du! aipatu zuen kasinoan Falangeko buruak, eta bazekien horretaz zer edo zer, kafe ugari banatua zen inguruetan)

halako hitzarmen bat lortu genuen noizbait apezpikuarekin, eta Herr Bauer bitarteko zela, ordua zehatz eta tenoreko ematen zuten ordulari eder batzuk paratu genituen dorreetan, udalek ordaintzekotan

(ikus 3 eta 4 zenb. agiriak)

nolabaiteko bakea egina genuen zoramen luze haren buruan, noiz ere emakume hura azaldu zitzaigun herriko kale nagusian, nabarmen eta harrokerian, gauari kendutako ilun zatia soinean

behingoagatik utzi egin genuen, baita behin eta bitangoagatik, baina kaleetan gora eta behera ehun eta gehiago egunez ibili zen emakumea, doluzko jantzian ikusgarri

gure bolondres gazteek gerra-legea egiten zuten plazan

arrantzontziak lotzen ziren kaian

ibaiondoko zuhaiztian

kale nagusian

tren geltokian

(hil-kanpaien oihartzuna zelako hura, arropatan)

jokaldi onenez solastatu ziren bidean, partida ikusten egonak ziren. Zuregatik izan ez balitz, irabaziko genukeen

(a cona que lles botou)

banekien gertatzen ahal zela, baina ez nengoen entrenaturik egoera hartarako, Amancio inguruetan neukanean baino gogorrago jotzen zuen nire bihotzak. Errana zidaten horrela egiten zutela, ezdeuskeriak ai-

patzen zizkizutela lehenik, salaketa faltsu bat hartu dutela adibidez, faltsua dela baieztatzeko molestatu zaituztela, barkatzeko, edo antzekoak, alegia, gero ustekabean harrapatzeko teknikak

(penaltia zu kare-lerroan kokatu baino lehen jaurtiko balizute bezala)

Amancio hori urtetsua da honezkero, ez duzu uste?

zakur zaharra zela haatik, arriskua zeukala beti

zure idoloa Yashin izango da, ezta?

gutitan ikusi nuela eta beti telebistan, hagitz kokapen onekoa iduritu zitzaidala

Espainiak irabazi egin zion Errusiari, ez zion asko balio izan Yashinen teknika. Marcelinoren gola, Amancioren erdiraketan. Alferrikakoak dira egiten dituzten ahalegin guztiak, ezin dute Espainia menderatu. Gorrien aurka Espainiak lortutako bigarren garaipena izan zen hura, ba al dakizu zein izan zen aurrena? Zu Yashin baino hobea zara, karrera zaintzen baduzu Espainiako selekzioan joka zenezake

(irratitik egin zieten dei)

bazihoazela, itogarri zegoela Bernabeu ingurua. Jokalari guztien ametsa, selekzioan jokatzea da. Zer diozu? Komisariatik deitu digute. Badakizu, ez dugu

egunero edukitzen pertsonaia ospetsu baten bisita. Zu bertatik bertara ezagutzeko irrikan daude. Gorriek munduan hartu zuten aurreneko jipoia, Francok eman zien 1939an

(tamala, sobietikoak Madrileraino iritsi ez izana bost urte geroago)

zakurtegira heldu ginelarik antzeko pantomima egin zidaten, nire zain zeudela, etsia hartuak zeudela jadanik huts eginen ote nien. Semeari esaten diodanean Patxi Arizkunekin hizketan egon naizela aurrez aurre, ez dit sinetsiko. Nireak ere ez, idolo zaitu. Gezurretan ari naizela usteko dute nire lagunek. Horregatik eman behar diguzu sinadura, frogaren bat edukitzeko, bestela ez digute sinetsiko

(ez nindutela uzten ahal autograforik sinatu gabe erraten zuten, alegia, autografoak paper zuriaren behe aldean. Aritzen zirela abisatua zidaten gisan ari ziren zehatz, harrigarria zen)

edukiko duzu argazkiren bat, zaletuei emateko. Denboraldi hasieran ematen zizkidatela batzuk, ez neukala batere. Lastima da, polita izanen litzateke zure argazki bat edukitzea hemen, paretan, Brigada Politiko Sozialeko zaletuei eskainia

(jokaldia helbururantz antolatzen hasia zuten, bazetorren etortzekoa, handik harat egurra)

(eta ahal nezakeen duinen irautea)

badakizu zergatik zaren Yashin baino hobea? Guk esan beharra! Bada, Yashin ez zelako ausartuko besoan xingola bat lotzen bere gobernuaren aurka, zuk egin duzun moduan

(a cona que lle botou)

nik ez nuela nehoren aurkako deus egin

(salbu eta Amanciori egindakoa)

hemen eta munduko leku zibilizatuetan beltza doluaren kolorea da, besoko beltzarekin zelairatzen direnean hildako norbaiten dolua agertzen dute futbolariek. Direktibo batena, adibidez. Edo jokalari ohi batena. Eta taldeko guztiek daramate. Gaur berriz zu bakarrik azaldu zara belardian xingola beltza besoan duzula

(erabaki pertsonala izan zelakoz)

ez duzu inor inplikatu nahi izan, ongi dago hori

edo inork ez dizu jaramonik egin

mitina jo diezu taldekideei, baina ez duzu lortu zeure aldeko jartzea

(orain ikusiko duzue Yashin baino hobea naizen edo ez leizetik ateratzen)

mitina, teknikoak ematen digu

(ahoak zabal, izkirak amurik ote zeukan zalantzan)

ea ongi ulertu dugun, zuen entrenatzaileak, mitin politikoak ematen dizkizue aldagelan?

ez, mitin taktikoak, aspergarriak

(elkarri behatu zioten)

bizardunak, fakultateren bateko irakasle kontestatario itxura zeukanak, pistola bat atera zuen ezkerreko besoan Alemaniako bandera txipi bat zeukan komando berdearen barrutik, segurua kendu zion, Hau segurua da, tiro egiteko prest dago

(mahai gainean paratu zuen neure eskura, kulata nireganantz)

badakizu mila modu dauzkagula zure klubeko lehendakaria estutzeko, kontratua eten diezazun? Edo lizentzia profesionala ukatzen ahal dizutela, Futbol Federazioa gurea denez?

Frantzian joka nezakeela, Girondinsetik deitu zidatela bi hilabete lehenago. Eta zergatik ez zinen Frantziara joan? Han errazago edukiko zenuke Espainiaren aurka jardutea! Argazki batzuk erakutsi zizkidaten. Ezagutzen al dituzu promesa gazte hauek?

(promesa gazteak, erran zieten)

ezagutzen al dituzu? Ez nituela ezagutzen, baina banekiela zein ziren, bortzak. Noski, zeuk bete dituzu ibili zareten aldagela guztiak hauen aldeko panfletoz

(Amancio, a cona que che botou, ez didak golik sartuko)

atzo fusilatu zenituztenak dira

(leize zulotik zelai erdira deliberatu nuen, Yashinek ez bezala)

zuek, bai, horregatik atxiki dut xingola beltza besoan, promesa gorri horien doluz. Eta ezagutzen ez ditudan bertze aunitz milakoren doluz

(mintzarazteko zeuden, eta aditu zuten)

erregimena agonian sartua da, O Burroren hondar ostikoa izan da. Garai garratzak ezagutzeko zaudete, zuei kiniela pare bat baino ez zaizue geratzen

eta baloia geldirik geratu zen une batean han nonbait, bulego nardagarri hartako airean, atzeman nezan, Complutenseko irakasle faltsuak pistola mahai gainetik erretiratzen zuela, arta handiz, seguruari emanda, komando berdearen barrunbean. Pistola eta guzti, hi ez hintzateke ontziratuko bafora aleman batean, ez. Burutapen bat izan zen, erran gabe uztekoa.

(txikota sobera tinkatzeak onik ez)

eskaini zitzaion nahi ote zuen besterik esan, eta emakumeak erantzun zuen esanak zituela esateko guztiak

eskaini zitzaion inor bisitan hartzeko baimena eskatu nahi zuen, eta emakumeak aitortu zuen ez zeukala nor hartu

(honek berretsi zuen, horrelakoren premiarik balego, atzituaren nahastaile izatea, nabaria baitzen erantzuna ez zela bakartasunaren ondorio, lagun hurkoak gerizatzeko gezurra baizik)

eskaini zitzaion nahi zuenari idazteko baimena eta emakumeak ez zekiela idazten esan zuen

(hau ere gezurra, nire iritziko)

eskaini zitzaion konfesorea, eta emakumeak, espero genuen moduan, ukatu egin zuen

(alabaina, legeak arau emakumea kaperan itxi behar zenez eta baforak kaperarik ez zeukanez, gurutze bat ipini zen entzerratua geneukan txapitulan)

orduan baforetako kaperau izendatu zuten apaiza

(itsas-langileen sindikatu abertzalearen manupekoa zen Marinelaren Laguntza izeneko erakunde bereizkoiaren kaperau izandako damutua)

(ikus 5 zenb. agiria)

apaiza etorri zitzaigun jakinaraziz bazela arazo interesgarri bat

(horiek izan ziren hitzak)

arazo teologiko interesgarri bat emakumearen inguruan

ager zezala eskatu zitzaion, mesedez eta ahal bazuen behintzat ez erabiltzeko teologiaren bihurkeriak

apaizak azaldu zuen emakume hura haurdun egon zitekeela

fiskalak ahapeka jardun zuen epaimahaikoekin, eta denek baiezkoa egin zuten buruaz epaile nagusiaren ondotik

erantzun zitzaion ur bedeinkatua edanaraziko ziotela, umekia bataiatzeko

apaizak ezetz esan zuen gogor

(bere onetik gainez eginik itxuraz)

emakume hark, bere gaiztoan, krimen bat eragin ziezagukeela gure ezjakinean, eta amaren eztarritik joandakoa umekiaren buru gainera zihoala uste ote genuen

(anatomiaz kapitain medikuak baino gehiago zekiela frogatzeko edo)

esan zitzaion epaimahaiak ez zekiela emakumea haurdun zegoen ala ez, emakumeak berak jakingo

zuela zer egiten zuen eta haren gainean eroriko zela krimena, baina apaiza tema hartan egoskortu zen, alegatuz gertagarriaren jakitun ginela, eta hori nahikoa zela gu hobendun izateko

esan zitzaion emakumeak ezin zezakeela horrelakorik antolatu, federik ez zuenez ez zeukalako bekatuaren usterik

puntu lokaztu batean gelditu zen eztabaida, apaizaren arabera fedegalduak manipula zitzakeelako Jainkoaren aginduak fededunaren kaltean, guk denok

(eta besoa luze mugitu zuen ezkerretik eskuinera hango buru guztiak segatzeko)

guk denok jakin behar genukeelako borrokatzen genituen haiek Deabruaren indarrak zirela, eta ondoren eskatu zuen bederatzi hilabete pasatzen utzi genitzala emakumea atxilotu zen egunetik

bosgarrenerako nabaritu beharko zitzaiola komentatu zuen fiskal jaunak

zazpi eskatu zituen apaizak, ziur egoteko

(erantsi liteke, tribunalak emandako epaia ezertan zalantzatu gabe, luzapen hura ongi zetorkigula, emakumea damutu egin baitzitekeen, eta gaizkideen izenak aitortu, edo argibideren bat eman ziezagukeen

aspaldi ez zela kostaldeko herriak asaldatu zituen «hilkanpaien harrigarria» izeneko hartaz)

ortzegunez gertatu zen noizbait, sekula itzaliko ez zuela iduri zuen bizitza eta sekula hondarrik izanen ez zuela iduri zuen agonia baten buruan, gertatu egin zen, gertatu, gertatu, eta bertan behera laga zituzten asteburu hartako partidak maila guztietan, federazioaren gainetik zegoen erakundeak trenkatuta, hezkuntza fisiko eta kirolarenak. Pinochet gerlari handia heldu zen Madrilera gerlari handiagoaren gorpu aitzinera, Yashin ororen mailua izan zen heroia despeditzera. Francok erakutsi omen zion munduari komunismoaren aurkako bideak non zuen hasmenta, ez baitzuen kaburik, eta Espainiak sufritu omen zuen lehenik, erran zuen Pinochetek, balio kristauak abarrikatu eta gorrotoa ereiten duen doktrinaren jazar basatia, gero Txilen ahalegindu zen gisan

(a cona que lle botou)

partida akitu zelako ziztua jo zioten hari ere, Generalisimoari. Ezinezkoa idurituko zitzaien frankistei, nolako galera giristinoendako, musika klasikoko dolu luze bat edukiko genuen zezen larruko irrati guztiak Irrati Nazionalera konektaturik. Eta haren doluzko isiltasuna egin beharko genuen, minutu izoztu hori,

burua makur belarrari beha futbolariok. Ezin nuen, hurrengo jornadan ez nuela jokatzen ahal erran nion entrenatzaileari

zer daukak, Franco hil duk!

komunistek saldukeria eginen zigutek, mister!

eta zer nahi duk, gu txapeldun deklaratzea, pitatu dizkiguten penalti erosi guztien ordain? Minutua manatuko dute. Minutua? Isilaldia, baloia firrilaka hasi aitzin. A, ez esan, ez esan, hik uko egiten diok minutuko isiltasunari! Ez duala jokatuko! Ez esan! Hiru igande zaramatzagu berdintzen, gol zikin bat sartu ezinik. Ezin diguk horrelakorik egin! Segundo batekoa ere nik, Francorengatik. Ez al haiz jabetzen? Chiquinho lesionaturik daukagun artean, ez galtzea duk gure helburua!

(segundo batekoa ere)

ba orduan kanta ezak!

(zinez ari nintzela ezin ulertuz)

zer kostatzen zaik ordea? Hik segi ezak beroketak egiten heure kaiolan besteak erdian isilik eta geldirik dauden bitartean, joka ezak partida. Barka ezazu, mister, ez naiz horren ausarta, bulego batzuek ikara ematen dute, ez ditut berriz probokatu nahi. Horregatik,

zoroa ez bestea! Zertan sartzen haiz galdu besterik egingo ez duan jokoan?

(galdera zaharra, galdera ustela)

hoa zelaira eta egin itzak gelditu eder batzuk, horrek izorratuko ditik beste ezerk baino areago, hi geldiketa onenak egiten ikusteak. Ez, barrenak ez dit uzten. Zelairatzen banaiz, ez dut isilaldia sufritzeko aski hoztasunik edukiko, oihuka hasi ninteke, edo dantzan, edo pultsuak egiten langan

(eta beldurra ematen zidan)

pentsa ezak taldean! Puntuak behar ditiagu! Irten dadila Jose Carlos, hobetu egin da aunitz! Burutik egin zaik edo ez dakik ezer futbolaz! Jose Carlos ateratzen baldin badut kontu eske etorriko zaidak lehendakaria, eta lehendakariak badaki hi ez hagoela lesionatua.

(ideia ona, lesionatu egin nintekeen)

mesedez eskatzen diat, pertsonalki eskatzen diat

(a cona que che botou)

eta orduan, misterraren erregu miserable hark aitzineko denboraldian adituak nizkion mitinak ekarri zizkidan burura, alegia, haren planteamendu beti berdinak, haren psikologia merkea, haren haserre pedagogikoak, haren lehendakariarenganako morrontza.

Zer asmatuko ote zuen, putzura gindoazela partida galtzen bagenuen?

ligaren hasmentan gaude, mister

horregatik, bigarren itzulian ito egingo gaitiztek, orain biltzen ez baditugu puntuak. Ez naiz horren ezinbertzekoa, plantila ona daukagu, huts egiten duena zeu zara, zeure lau bi lau zaharkitu horrekin

(a cona que che botou)

bere erranetan jarraitu zuen, bazekien ez aditua egiten berari zuzendutako biraoei entrenamendutan atsedenaldietan dutxetan, ez zeukan duintasunik, zuzendaritzaren manupeko entrenatzailea izanen zen nonahi. Azkenean Betis aurkari zuzena edukiko diagu sailkapenean, ona lukek golik ez hartzea beraien zelaian. Hurrengo jornada ez da izanen ligako jornada bat, diktadoreari eginiko omenaldia izanen da. Ez politizatu kontua, mesedez! Zuek politizatzen duzue, ni futbolaria naiz. Guk? Guk? Eta horregatik atera hintzen xingola beltzarekin? Bi lagun hil zitzaizkidalako. Fusilamendu pelotoi banarekin izandako istripuan, ezta? Ez hituen hire lagunak! Heuk egiten duk politika!

ba bai, eta nire jokamoldea neuk hautatzen dut, mister

(orain konturatu al haiz?)

harrika bota zuen kronometroa, takilen kontra

euskaldun guztiak fusilatuko balituzte!

futbolari on sobera galduko luke Espainiak!

(eta algara egin nuen, algara egin nuen)

esan zitzaion frogak genituela ziurtatu ahal izateko Simon Arizkun Figueroa

(Makurra izengoitiz)

Simon Arizkun Figueroa bizirik zegoela eta emakumeak behin eta berriz erantzun zuen gizona hila zela

(gizona eta nire gizona erran zuen beti, ez senarra eta nire senarra)

(eta halako batean gero eta hilago zegoela gaineratu zuen ahapetik)

itaundu zitzaion Simon Arizkun Figueroaren anaiarrebez, herritik alde eginak baitziren laurak, jakitearren gordean zeuden ala etsaietan, eta ez zuen ezer argitu nahi izan

(ez zekien ezer, nire iritziko)

itaundu zitzaion zein emakume ezagutzen zituen Arizkun-Figueroatarren sorterrian, Ondarroan, eta berak ez zuela Ondarroan inor ezagutzen erantzun zuen zakar

(zakarregi, halako ilundura bat ageri zuela bekokian)

esan zitzaion bizia salbatuko zuela kolaboratzen baldin bazuen, eta emakumea bere mutuan egoskortu zen beti

berak garbitzen zituen arropak hartarako astero uzten zitzaion galdara batean

Herculanoko zaindarien zabarkeriak eragotzi zuen odolaren arrastorik ikusi ahal izatea haren pildetan

(eta apaizak inguruan ezarria zion babesak)

bosgarren hilabetean, haurgintzaren ezaugarriak nabaritu behar zitzaizkiola iritzirik, dei egin zitzaien Falangeko emakume buruzagiei baforara, azter zezaten

(ikus 6 zenb. agiria)

emaitza ez zen erabatekoa izan, sabel hark ez zekarrela itxuraz biziaren kozkorrik ebatzi zuten, baina gaizki elikatua zegoela eta ezin zutela ezer ezeztatu

(ikus 7 zenb. agiria)

Herminia Zubizarreta Gabilondo haurdun hil zen ala ez inoiz argitu ahal izango ez den kontua da, handik laster hainbat ama kristauren seme prestu hil zituen Teruelgo kontra-oldar ankerra egin zuten gorriek,

eta atzeguardan bakean zeuden kristau guztiek, sumindurik

(Deabruak piztutako koleran, zehaztu zuen gero apaiz jaunak hitzez hitz)

kristau guztiek, sumindurik, erasoan hartu zuten Herculano bafora txalupetan hurbilduta, eta presoen erdiak hil zituzten

(ulertzekoa den izugarrizko mendeku batean)

txapitulan bertan tiro eginda hil zuten emakume harro hura, eta beste gorpuekin lurperatu zen

(egunsenti berean esan nahi dut)

(ez zen gure brigada izan gorpuez arduratu zena, gangil batean lehorreratu zituzten gauez, eta kamioietan eraman zituzten)

sumina baretu zen baina dolua ez, Gurutzadak sakrifizio handiak eskatu zituen ostera

sakrifizio haien oroimenez izan zen onartua doluaren beltza gizonezkoen besoko xingolan eta emakumezkoen buruko mantelinetan, gure morala ahultzeko ordez geure hildakoen oroitzapena gordetzearren janzten zelako, eta frogatua zelako, kristau sumindu haiek egin zuten izugarriaz, dolua etsaiari aurre egiteko amorru bihur zitekeela

(Jainkoaren eta Espainiaren alde eroritakoen dolua baimendu genuen bakarrik)

Makurra delakoa, Simon Arizkun Figueroa, sarjentuaren graduarekin azaldu zen hona gerra bukatu zelarik. Boluntario emana zuen izena Tercioan, nonbait, bizia salbatze alde, sugileen sindikatukoa izana baitzen, 1934ko zalapartetan hain jokabide gaiztoa izan zuen hartakoa, eta Frente Popularrak emandako amnistian kaleratu zen hogei urtean egotekoa zen presondegitik

(ikus 8 zenb. agiria)

herriko emakume prestu bat hartu zuen emazte

gerran eginiko merituek hartarako gaiturik, portuko kaizainen buru izendatu zuten, eta zerbitzuan egon den hogeita hamabost urteotan zuzen bete ditu agindu zaizkion zereginak

(ikus 9 zenb. agiria)

Simon Arizkun Figueroak galdu egin zuen aspaldi Makurra ezizena

hiru seme-alaba ditu, gazteena lehen mailako atezain sonatua izan da azken urteotan, ez bakarrik, tamalez, ostikolaritzaren lauki luzean buruturiko egitandiengatik

(ikus 10 zenb. agiria)

ez nengoen lesionaturik, baina ligan baloia jasotzeko sarera gutien makurtu zen sarezaina gabe abiatu zen taldea ortzirale arratsaldean hegazkinez. Etxean geratzen zirenek opor izaten zuten horrelakoetan. Sarezainon prestatzaileak, ordea, larunbaterako eta iganderako lana neukala abisatu zidan, zakurrak

(lesionaturik nengoela)

kontuz ibiltzeko, lehendakaria nire jukutriaren jakinean zegoela eta asteburuan izerditan ikusi nahi ninduela. Bakarrik entrenatzea, alegia, denbora puska bat pentsatzeko

(batere ona ez sarezain batendako)

eta Aymerich kaparrada harekin, ligako penalti guztiak gelditzen ahal nituela, zalantzaz betetzen nituela aurrelariak, penaltika edukiko ninduen, baloia kokatu, niri behatu, gero baloiari, lasterkatxoa, eternitate bat, isiltasun segundo eramanezinak. Ez, ez etortzeko nire bila, berak manatu tenorean azalduko nintzela. Estadiora bidean Consumen sartu-atera egin eta piletako Sanyo bat eta kasete batzuk erosi nituen. Kaiola barnean paratu nuen. Zarata behar du sarezainak penaltian, irainak aditu, berari edo jaurtitzaileari, zer axola, pentsatzeko astirik ez hartu

(a cona que che botou)

jaurtitzen duan azken penaltia izanen duk hau, gelditu eginen diat eta arrapunparen bila hatorrenean hire belaunaren gainean eroriko nauk, alde bat ezinduko haut. Ona zen Juan Sebastian Bach hura, Santana baino hobea. Organo burrundara bikain haiengatik izan ez balitz, lo hartuko nukeen. Ez zuen hamarretik bat asmatzen Aymerich espezialistak. Akitu genuelarik, txalo egin zidan Rivasek, diruzainak, ikusle bakar zementuaren erdian, argazki kamera lepotik. Prentsari pasatzeko, lesionaturik ez nengoela jakin zezaten. Amarruren bat zerabilten. Lehendakariaren begia zen, morroi jendea bertzerik ez zegoen klubean

(Girondinsekoei baietza ematea erabaki nuen orduantxe)

han ez zagok ez Francorik ez frankotarrik ez Bernabeurik ez madrildarrik, ezpain ederreko neska beltz bat ezagutuko diat mintzaira akademian eta hurrengo igandean norakorik ba ote daukan galdeginik sarrera oparituko zioat, espetzeko han bertan, palkoan, bortzetan azalduko naizela tenoreko jertse gorria soinean, eta bortzak eta minutu batean Zer broma mota ote da hau pentsatzen hasia dagoela jertse gorrikoa ikusiko dik, etxeko taldearen sarezaina ikusiko dik diosala egiten berarengana

(ni hari musuka zelaitik)

eta Parc Lescuren nehoiz ikusi dituzten plongeonik artistikoenak marraztuko ditiat, izurde gorri bat ikusiko ditek umeekin jostetan, Cherchez la femme! aholkatuko zieat sekretua galdegin didaten kazetariei

(hura niri musuka palkotik)

ardangile xatodun futbolzaleren baten belaontzian ekarriko diat Landetako hondartza zabaletarik gure herriko labar zutetara gau oroz tuturik tristeenek jotzen duten Bizkaiko Golkoan barna, oihalak betean uhinen aparretan, sartuko gaituk portuan, moila transatlantikoan estekatuko diat, zer moduz aspaldikoa erranen zioat kaizainen buruari, zer, atera al nezake pakete hau? Polita, e? Fatumatu du izena. Voilà Fatumatu, voilà mon pSre, Simon Arizkun Figueroa, le roi des contrebandiers!

(a cona que lles botou)

Aymerich! Aymerich! Lasai egoteko, lagun gisa zetozela. Aymerich! Alferrik zela, Aymerichek ezin zidala aditu. Misterrak Jose Carlosi, jakina, Jose Carlosek bertzeren bati, plantilako guztiek jakinen zuten ez nengoela lesionaturik, lehendakariak Rivasi, Rivasek peñetako sukartuekin egiten zuen edozein afaritan.

Alegia, ez zela harrigarria bisita hura, alegia, entrenamendu partikularra muntaketa bat izan zela

(a cona que lles botou)

aurpegiak mozorrotan, lau, eta batek beisbol makila eskuetan

(huraxe zegoen beldurtuena)

zoazte hemendik, emazue bakea

oraingoan ez haiz libratuko isun gubernatibo batekin. Guk ez ditiagu onartzen itxura egiten duten futbolariak. Horregatik etorri gaituk, lagundu egin nahi diagu. Min hartuaren itxurak ez egiteko, hi ez haiz Amancio

(nabalarik ateratzen ez bazuten saiatzen ahal nuen zer edo zer)

itaundu dizuet baforaren tutu marrantatua entzuten duzuen azken ehun eta gehiago gauotan

ehun eta gehiago gauotan, sarkor, astun, itsasoaren hondotik sortua bezala

itaundu dizuet kanpaiaren danga sarkor haren oihartzuna

itaundu dizuet arropa beltz haren ikaramendua

itaundu dizuet entzun duzuen mehatxu ilun hori, hogei mila gau eta egunotan ezkutaturik egon diren gorrikumeok egiten digutena

garai garratzak datoz, prest egon behar dugu sakrifizio berritarako

(ikus 11 zenb. agiria)

tutu marrantatua, ehun eta gehiago gauotan, luze, hezurretarainokoa, merezi bezain sakon hondoratu ez genuen bafora batek sortua

eskatu dizuet pauso bat emateko aurrera, garai garratzak datoz

Franco hil da entzun genuen eguna

Bertan daukagu aperturismoa, orain ez duzu muga pasatu beharrik Malizia ikusteko, Laura Antonelliren boom berria: Angelak zoraturik dauzka alarguna eta alargunaren semeak gainez egiten duen bere limurtasun sexualarekin. Savoy zinema. Azken egunak. Hurrengoaren txanda zela gaztigatu zuen Crespo zaharraren semeak. La Voz bildu eta tronuan jesarri zen. Dany zegoen aitaren aizturretan, eta keinu egin zioten ispiluan elkarri. Ez hain motz, erregutu zion Iñaki Garciak Mario Crespori betiko estiloan moztuko ziola noski komentatu zuenean berriketa haste alde. Futbolaz arituak ziren, baina aste hartako atrakua zebilen ahotan oroz gainetik. Bigarrena zuten tarte laburrean, eta azkena ikusgarria izan zen inork ikusi ahal izan ez zuen arren, Oesteko pelikuletako tren asaltoen antzekoa, furgoia desbideratu, harrobi zokora eraman, pistoleroak lotu, ezpainak josi, karnetak kendu... ETAren lana zen ziurrik. Hogei milioi eraman zituztela komentatu omen zuen Amatriainen koinatak, jakinen du zerbait

Amatriainek, enpresa horretan egin du lana. Hogeiren zurrumurrua baldin badabil, izanen dira berrogei. Dany altxatu egin zen Crespo zaharrak lepo-sorbaldak eskuilatzen zizkiola. Besoa nola zihoan galdetu zion Iñakiri, zapiaren azpitik nabarmentzen zen ezkerreko kozkorrera keinu eginez. Ongi uste dut, bihar kenduko didate igeltsu puska hau. Laster lanera beraz. Bai, aspertu egiten da bat etxean. Mariok arin egiten zuen lana, eskuan dardararik ez. Bizarra egitea nahi al zuen. Bai zera, inork ikusteko ere, muturra aparretan barberiako tronuan señoritoek bezala. Zeu zara herriko señoritoa eta!, barrez, Mariok. Ni? Donostiako natajaleekin munduan barrena dabilena. Bai zera munduan! Milanora joan nintzen iaz, beste inora ez naute eraman. Ni ez naute sekula eramanen leku horretara. Ez al dizu azkurarik ematen? Bi aste daramatzat, pasatuko zaidala esan didate. Bai, gehixeago hazi arte hazka ibiliko zara. Crespo zaharrari ordaindu zion umoreko eta puska bat eman zuen aterkiontzian zeudenen artean berea ezin bereizirik. Egun hartakoa dena erauntsi haize erreka luizi izanen zuten, astebete horrela. Autobus geltokirantz hartu zuen. Jendea espaloian, errepide nagusiko bazter batean aspaldi egina zegoen putzuaren ondoan. Ezezagun batzuk,

eskafandra berdeak ziruditen jantzian, putzuaren sakona neurtzen. Rafael Artista Fotografo besoak luze buruen gainetik, bolondres batek aterkipean babesten zion makinari sakatzen. Eta multzo hura hantxe, doako legatzen esperoan.

MARIA SHULTE PAPER OREAREKIN GOTEBORGETIK

Donostiako auzoetan eta mugako herrietan euriak sortu putzuen sakona neurtzeko menturan irtenak ziren errepide bazterrean uretan zeuden kazetariak. Bi aldeetarik batean Radio Popular letra loditan ageri zuen metro eta erdiko zurezko erregela batekin jotzen zuten putzuaren hondoa osin sakonenaren bila. Ikusleetarik batek ohartarazi zien neurtu beharrekoa ez zela putzua, putzuaren barruan zegoen zuloa baizik. Hogeita zazpi zentimetroko osina aurkitu zuten. Teknikari batek kanpainako telefonoaren antzeko batekin konexioa egindakoan, Eguneroko Abentura programakoak non zeuden jakinarazi zuen Eduardo Azkueren ahots ezagunak, putzuaren sakona eman zuen, artean atzemandako guztietan sakonena eta handiena, eta herritar batek bazuela zer edo zer deklaratzeko. Pako Brionesek, hura ere ezkaratzeko atelierra utzita hiri zi-

larrekoen lanari baitzegoen egun hartan, putzua baino hobe luketela putzuaren barruan zegoen zuloa neurtzea errepikatu zuen ilun, aurrenekoan baino ozenkiago. Ikusle guztiei behako maltzurra eginez, putzua eta zuloa ez ote ziren traba bera galdetu zion Eduardo Azkuek, uhinetako ahotsik ezagunenak, emakume guztiak xarmatzen zituen berrilariak, eta konponketarik ez daukan oinetako bat hartuko lukeen gupida berarekin heldu zuen Pako Brionesek mikroa, putzua eta zuloa ez zirela ber gauza argitu zion munduari, putzurik sortu izan ez balitz ez zela kazetaririk azaldu izanen, putzuak lau egun zeuzkala eta zuloak hiru hilabete, putzu hark ez zeukala berdinik Madrildik Iruneraino eta mila aldiz emana zutela parte bertako udaltzainek afera zegokien agintarien aurrean. Zola berriaren eske daukagu errepidea, ibiliak jana dauka. Eta badakit zertaz ari naizen.

MONTE ALTUBE OLIOAREKIN LIVORNORA

Luzuriaga fonderiako eskolan ibiltzen zeneko gertatua izan zen, Mircovic jaunaren klasean. Atea jo zuten. Kristal transluzidoaren ostean emakumezko bat zegoela eman zioten tankera ikasleek. Maisuak atea

zabaltzeko keinua egin zion atetik gertuen zegoenari, horrelakoetan ohi zuen gisan. Laguntzaile soziala, Karmele ondarrutarra. Ikusi zuen orduko irten zitzaion Milan Mircovic, atsegin zitzaion emakume sendo hura. Atea zabalik geratu zen, ikasleek xuxurla bat baino ez zuten sumatu ahal izan. Algara sorrarazi zuen Vieitesek atzamarrekin egin zuen keinu lizunak. Itzuli zelarik, Bost minutu dauzkagu esan zuen maisuak, Errepasa ezazue gaur ikasi duguna, eta baldin bada ulertzen ez duzuen ezer, galdetu. Buruak apunteetara makurtu zireneko, Txoperena zoaz Karmele Artetxerenera agindu zuen Milan Mircovic jaunak. Imanol Txoperenarengana itzuli ziren buru guztiak. Hamalau urte zituen, laster mandrinadoran hastekoa zen. Horixe izan zen gertatuaren lehen atala, sekula inori eman ez zioten agindu hura jaso zuela, klasea utzi eta emakume harengana joatekoa. Harritu egin zen, eta zerbaiten errua eginen ziotela sentitu zuen, eta ezin asmatu zerena. Bazihoala, Muruzabalek errepikatu egin zuen Vieitesen antzerkia atzeko ilaretara. Barre txipiek tristatu egin zuten Milan Mircovic, Txoperenari egindakoak zirelakoan. Aldagelen ondoko bulegorantz langile taldeak ikusi zituen kamioien ondoan, hizketan. Orduan jabetu zen dena isilik zegoela, makina hotsik ez,

maisu jaunak berak diseinatu zituen kea hurrupatzeko turbinak mutu zeudela, makinak geldi, kamioien patioan bilduriko langileak taldetxotan hizketan. Egiten zituzten horrelakoak, baina hau desberdina zuten, isilean egiteko geldialdia zen, hitz gutiko asanblada. Eta bera laguntzaile sozialarengana. Zergatik ez klasea amaitutakoan? Ez zuen loturarik egin ahal izan aginduaren eta isiltasunaren artean. Karmele Artetxe zutik zegoen paper batzuk irakurtzen. Astiz utzi zituen mahai gainean. Egunon, Imanol. Bi aulki zeuden mahaiaren aurrealdean, haietan jesarri ziren. Istripu bat gertatu da fonderian. Horixe lotura. Istripu mingarri bat. Eta Karmelek esku biak hartu zizkion bere esku beroetan, begietara so. Ez zaituztegu abandonatuko. Imanol Txoperenak ez zuen jakin, Ez zaituztegu abandonatuko hura entzun zuelarik, andrazko garratz hark zuzendaritzaren izenean hitz egiten zuen edo sindikatuenean. Istripu izugarri bat, gertatzen dira horrelakoak fonderian. Amak negar isil handiak egin zituen, negar eta seme bakarra besarkatu, egunak horrela, kontsola ezineko. Lanpostu bat eman zioten bulegoetan, kontadurian. Paperak ordenatu, karpetak katonatu. Lagunetarik urrun, bakar, adindu aspertuz inguratua beti sobera beroturiko gelan. Noizean behin alma-

zenera. Deskargatutako tonen apunteak hartu eta ekarri, errukimenduzko hitzak eta fazoinak pairatu. Imanol esaten zioten istripuaz geroztik, ez Txoperena beti esan izan zioten moduan. Utzi egin zuen. Karmele Artetxeren kontaktuek jesuitek zabaldutako Radio Popularrera eraman zuten. Posta bidezko CCC ikastaroa egin zuen soinu teknikaria izateko, diploma bat eskuratu zuen. Lau urte zeramatzan mikroak ozengailuak kableak kaskoak diskoak baliatzen eta, egun hartan, jarraitasuneko teknikari gisa estudioan itzulika ari zen bobinari begi emanik, aitaren ahotsa ahantzia zuela konturatu zen. Oroitu nahi eta ezin.

ELKA KAHRS DENETARIKO ZAMAREKIN ROTTERDAMETIK

Errepide nagusiko zuloak, izenik ageri ez zuten karrikak, frontoiaren ezker horma pintaketa iraingarriz zatartua, geroz eta ke zikinagoa ekartzen zuten zaborra errausteko labe zartatuak, horrelakoak, ezin konta ahala bafora tren edo auto nobedade, hondamendi txipi eta ez horren txipien katalogo bat zeukan osatua urteen poderioz Rafael Artista Fotografok. Estudioko lanaz harat portuko agintaritzaren aunitz enkargu har-

tzen zuen eta kasik egun oroz La Vozeko korrespontsalaren eskariak albistea ilustratzeko. Aspaldiko euriterik luzeena baitzuten, erreka gainez egina zen irin fabrikako presan, eta poligonoko atelierrak hartu zituen zenbait pikardia eginez, inprentan bereziki, bobinak eta paper paleak bustiz. Elkarrekin egin zuten lana korrespontsalak eta biek sarritan bezala, hura atelierretako arduradunekin hizketan eta hari interesatzen zitzaizkion gauzak eta pertsonak argazkitan hartzen bera. Ikusi duzu, Metalicas Molinaon makinak martxan dauzkate eta langileak oinak kasik urpean, elektrokutatzeko arriskuan. Argazki bat egin zien alegia deus ez, kamera begira jaso gabe. Berarendako argazkia. Ez zen erraza jendea lanean argazkiz ateratzea, nagusiek ez zuten argazkilaririk ametitzen lantegi barruan, konpetentziaren aitzakia egiten zuten baina begi bistakoa zen ez zitzaiela komeni nolako baldintzetan aritzen ziren azaltzea. Rafaelek ez zekien zehatz zergatik, zertarako metatzen zituen inork erosiko ez zizkion klixe haiek denak, milaka batzuk, karrikak hutsik karrikak beteak balkoiak butano bonbonez balkoiak arropa zabalduz, zapataria ezkaratzean, fonderiako pabiloiak biadukto azpiko atelierrak, udaltzaina errepidean, moiletako gatz pirita txatarra ikatz mendiak, baforen

branka harroak itsasgoran, zaborketaria gurditxoarekin. Halako batean, astia hartzen bazuen, erakusketa antolatuko zuen. Kafe bero bana merezi zutela esan zion korrespontsalak, Pitxitxulo tabernarantz abiatuz. Kafeak ekarri zizkietenean deskafeinatua eskuan hartu eta leiho ondoko mahaian jarri zen korrespontsala, tabernariaren belarritik urrun. Edukiko zuen ahapekoren bat, zaletua zen. Korrespontsalak kafearen beroa dastatu zuen, platertxoan laga zuen kontuz. Garai garratzak datoz, Rafael, albertitu zion egun hartan, goibel, Gureak eginen du laster. Orain gazteen aldia zela aitortu zuen argazkilariak apaltasun zintzoz, Bizilegea. Ez entzuna egin zion korrespontsalak, Garai odoltsuak datoz. La Vozeko zuzendariak berari komentatua. ETAk sarraski bat planeatua zeukala, herri guztietako zerrendak zituztela. Ez zion sinetsi. Gu zerrenda horietan gaude, gu kolaboratzaileak gara ahal ditugun okerdura eta horkonpon guztiak salatzen saiatzen garen arren. Kartera zabaldu zuen. Hobe zenuke neurriren bat hartu. Beste txartel bat ateratu zuen prentsako txartelaren azpitik, luzatu egin zion. Aspaldi naiz. Zigilua eta guzti, alderdi debekatuaren zigiluak jotako argazkiarekin. Hari so etorri zitzaion aurpegi hura bera gaztetxotan, eskuadran eta zenturian desfi-

latzen legionario eta gorrien fusilaketetan jolasten, zenbat horrelako. Bi mila klixe bai. Kafea hoztuko zaizu, Rafael.

CALIFORNIA KLINKERRAREKIN
PUERTO DE LA LUZERA

Bizi osoan edukiko zuen oroit egun hura Iñaki Garciak, xeheki kontatzen ahal zuen orenez oren eta solasez solas, Anita ikusi zuen tren geltokiko markesinan, portualdeko neskarik zerarena, zaila zen adierazten, neskarik kukuena, Asturiana de Minaseko bagoiak garbitzen zituen euriari beha. Besamotz zetorren Iñaki, igeltsaturiko ukondoa gabardinaren azpitik, ezker mahuka dilindan hutsik. Anita bakarrik, beste inor ez trenaren zain. Halako tentetasun hanpatu bat hartu zuen simetriarik ezak areago narras ez zezan. Bost bat metrora gelditu zitzaion, bera ere jasaren emanari. Neskarik kukuena zen, bai, aldian behin azaltzen zen zineklubean, eta aldian behingo haietan zantzua uzten zuen beti proiekzioaren ondoko solasaldian. Hurrengoan ez zen azalduko, eta eztabaidak haren hitza eskas. Bi bat metrora. Ezin zuen edozerkeriarik bota, Ederra dela gero euriaren hotsa edo Zeinen triste dau-

den bagoiak euripeko, horregatik bota zuen, besterik ezean, Bostehun mila kuku kantari oraintxe Madagaskarren. Eta ezkerraldera behatu zuelarik Anitaren soslaia besterik ez baitzuen ikusi. Okerra zuzentzeko Ordaindu al duzu zineklubeko kuota? atera zuen Chicagoko ahots mehatxuan, apur bat hurbilduz. Le mani sulla città ikusi genuen lehengoan. Verdiren pertsonaia batek merezi lukeen ahoskeraz Le mani sulla città. Zeinen cantabile den italiera, ezta? Errenteriako hirigintza batzordekoak etorri ziren, azkenean ez genuen filmeaz jardun, bero aritu ginen eztabaidan. Bateko eta besteko, esan zuen Anitak aurpegia kantariarengana itzuliz, aspaldi ez naiz zinemara joan. Trena heldu zen, besoa igeltsatu ziotenean erosi guardasol automatikoa zabaldu zuen Iñakik markesinatik bagoirakoan busti ez zitezen. Aski betea zetorren, zutik geratu ziren erdiko plataforman. Anita ilegorria zen, eta masailak betetzen zizkioten oreztak suntsitu egiten ziren sudurño zutaren hegaletan goiti egin ezinik geratutako infanteria nekatu baten antzera. Iñaki Garciak bolondres eman zuen bere burua jazarrerako, orain edo sekula ez: Gonbidatzen zaitut zinemara, gaur bertan, zazpi eta erdietakora. Anak kokotsa harrotu zuen mutilari begietara egiteko. Pelikulan, bi aho

haiek batu eginen ziren trenaren trankalotsa handiarazten zutela. Asko arriskatu naiz, aitortu zuen begien urdin hotzari kasu eman gabe, Kritikaririk gogorrena pelikula batera gonbidatu dut! Arratsaldeko txandan nabil aste honetan, ezin dut. Horrelako zerbait ustetu zitekeen erantzutea horrelako neska zerak, horrelako neska kukuak. Beste batean agian, gaineratuko zuen barkamena eskatuz bezala, horregatik edukiko zuen Iñaki Garciak hain akorduan egun hura, ez zuelako esan Beste batean agian, Ezin dut ordu horretan esan zuelako Anita Alberdik, Ezin dut ordu horretan baina gonbida nazakezu gauekora. Eta irriño bat atera zuen Hain berandu ahal baduzu eransteko. Nola ez gogoratu behako gozogaizto hura?

WEDFJORD PATATAREKIN DEN HELDERRETIK

Estudioetara heldu zirelarik, Pasaiako desgraziaz ez ote zuten deus ekarri aipatu zien Imanol Txoperenak Eguneroko Abentura egiten zuten kazetariei. Portuko sarreran, Arando Haundia farolaren parean, bafora bateko arrantza patroia itsasoak eraman bezperan. Ba ez, barnealdeko distrituan aritu ziren neurketak egiten, padura gainean eraikia zen eta euriteek itsas-

gorarekin bat egiten zutenetan urak hazi egiten ziren azpi hartan edonondikako bideak eginez, leku atsegin hartan egonak zirela. Hogeita zazpi zentimetro sakonenean eta sei metro eta erdi luzean putzuak han, errepide nagusian gainera. Pozik zeuden menturatzaileak, deklarazio politak lapurtu ahal izan zizkieten herritarrei. Programa entzun nahi zuten galdetu zien Imanol Txoperenak, jarraitasuneko teknikariak. Nola entzun, zuzenekoa zen, zuzenekoak grabatzeko dirua daukagu orain? Gobernadore Zibilak deitu zietela jakin zuten. Espainiako Irrati Nazionalarekin konektatzeko gogorik ez baldin bazuten egiteko mesede espainiar zintzoen dolua errespetatzeko bederenik egun hartan. Ohiko programazioa etetera derrigortu gaituzte, ez al duzue irratia pizten autoan? Artean Eduardo Azkue ez zen jabetu musika klasikoa emititzen zutela, musika klasikoa eguerdian. Ken ezazu Beethoven hori, Imanol, jar ezazu Guridi. Ez da Beethoven, Telemann da. Jar ezazu Diez Melodias Vascas behin eta berriz gobernadoreak berriro deitu dezan. Imanol Txoperena miresmen batean geratu zitzaion bekainak harrotuta. Telefonoa hartu eta jesuiten etxera deitu zuen egun hartan, sekula horrelakorik. Ideia ona, baina arriskutsua.

Kontsultatu eginen dut. Arriskutsua ez balitz, ez litzateke ideia ona izanen.

ANGLIA ESPATO FLUORRAREKIN HAMBURGORA

Tarte bat harturik, etxean pattal samar zegoen Pepe Beltzari egin zion bisita egun hartan, alabak eskatua zion moduan. Odol isuri bat garunean, minutu aunitz konortea galduta. Bi aste ospitalean. Bazetorren bere onera, nekez baina. La Voz irakurtzen harrapatu zuen sukaldean. Bitter bat ateratu zion Yvettek, alabak. Eta zer dio zureak, ondo al dago? Ez du erretiratu nahi, ez du etsiko barberiako tertulia gabe. Franco ehiztaririk onena zen, jakinarazi zuen Pepe Beltzak egunkarikoa irakurriz. Aita, goiz osoa daramazu kontu horrekin, a zer gogaizioa! Kendu eginen dizut paper nazkagarri hori. Zekarren kutxatxoa zabaldu zuen Mario Crespok zilar merkeko bitxiak erakutsiz. Egunkaria tolestu eta mahaiaren gehiena hartu zuen lanerako, labana orrazia makinila Floïd flaskoa. Zapi zuria zabaldu zuen, lepoan lotu zion Pepe Beltzari. Franco kristau handia zen, egin zuen anuntzio. Frankista bihurtu al zara, Pepe? Pepek begiak itxi zituen. Yvettek bitterra luzatu zion motzaileari. Laranja xerra eta

guzti, tabernako legera. Gustura edan zuen erdia, botika metatxo baten ondoan utzi zuen, Melitaren ondoan. Franco arrantzale handia zen. Barre egin zuten Mariok eta alabak. Bizarginak makinila gizonaren lepoan goiti pasatu zuen. Zauritxoak zeuzkan belarriko kartilagoaren pleguetan. Eta, Pepe, nola ikusten duzu Espainia Franco zerura joanda? Berandu! Urte askoan iraun du Francok, bai, adostu zuen Mariok lanbidean ikasitako zuritasunez. Putz egin zion makinilari iletxoak zorurantz eurituz. Kutxatxoan utzi zuen. Puska batean, alabak surtan ipinia zuen lapikoaren lurrinak sukaldea hartzen zuela, aizturren kliski-klaskak baino ez zituzten entzun. Carrillo, Pasionaria, traidoreak! sententziatu zuen Pepe Beltzak astiro, traidorearen lehen silabari lau bat erre kateatuz. Lo daukate Espainia. Aita, mesedez, espainiarrek ahal dutena egiten dute, zer uste duzu! Mario damutu egin zen gaia sortu izana. Zer, Pepe, noiz ikusiko zaitugu berriz herrian barrena paseatzen? Espainia esnatzen denerako... Espainia esnatzen denerako berandu izanen da. Bizarra ere eginen ziola adierazi zion Mariok alabari, baimen eske. Yvette patioan eskegiak zeuzkan arropak biltzera aldendu zitzaien, eta gizonezko biak hartaz jardun zuten, zeinen ongi zaintzen zuen alabak, ez zela kexa-

tuko, bazeukala funtsik, bai. Ateko txirrina jo zuten. Hemen dira nire kamaradak!, kamaradaren hirugarren silabari dozena erdi bat erre kateatuz. Pepe zaharraren biloba biak, Yvetteren berdinak, eskolatik bazkaritara. Nik saldarik ez! Saldarik ez! Ilea moztu beharko diegu neskato bihurri hauei, Mario Cresporen diosala alegiazko mototsean kliski-klaskak emanez. Neskatoek gezurrezko izuan egin zioten ihes garrasika eta Pepe Beltzarengana itzulirik Yvette ikusi zuen moztu iletxoak biltzen. Haserretu egin zen bere buruarekin Hori nire lana da!, eta erratza kentzera oldartu zitzaion. Indarka txipi batzuk, baietz, ezetz. Emakume ezkondu batekin jolasean ari zela konturatu zen Mario Crespo, haren etxean haren sukaldean haren aitari bizkar haren alaben aitzinean. Eta algara egin zuela emakumeak.

EGHOLM TXIRBILAREKIN KOPENHAGETIK

Laneko mandarra Singer gotorra sabaiko fluoreszentea mahaia estaltzen zuten lanabesak, dena zen iluna Pako Brionesen atelierrean, Avenida de Navarra karrikako zortzigarren ezkaratzean. Iluna baino eztiagoa zuen ahotsa, ahotsa eta hitza, Ez lotu gogor, oina

itoko duzu eta zapata tristatu eginen da, edo Larru ona da, zure oinetan sartutakoan bigantxaren jantzia izan zela oroituko da eta ibilaldi ederrak egin ahal izanen dituzu mendian zapaton atzetik. Goiko apalean zeukan zurezko Marconi zaharra ere halakoa zen egun hartan, iluna eta eztia, musika klasikoa zabaltzen zuen eta inoiz baino mailukada gutiago jo zuen ezkaratzeko zapatariak. Goizeko lehen bezeroa heldu zitzaion, garaia zen, Egun on, Bouzas. Dany Bouzasek ez zion deus arrapostu, mutu geratua zen kaxetako ate zabalduan zapatariak goizean goiz jositako txartela irakurtzen. Hementxe dituzu zapatak, eskatu zenidana egin diet. Egun on, Pako. Zapatak hartu zituen zorroren bat edo egunkari zaharren bat ez ote zeukan galdetuz. Probatzeko eman dizkizut. Zolaz goiti ipini zituen Bouzasek eta eskatuak zizkion ferrek distira egin zuten fluoreszente tristearen azpian. Ederki daude, puntan eta orpoan. Probatzeko eman dizkizut ordea! Hemen? Hementxe, nire aurrean. Barre egin zuen mutilak. Eskaileretan jesarri eta zekartzanak askatu zituen. Zapatariak Marconia itzali zuen aurrena, gero ezkaratzeko atea itxi zuen. Isilik sartu nahi omen du zeruan, inor konturatzeke. Baiezkoa eman diet, zer erremedio, ipiniko diedala zola espezial bat, hodeien

gainean zaratarik ateratuko ez duen materialekoa. Bixente Gabaraini eskatu diot ekartzeko, produktu zaila dela esan dit. Paratuko al dizut kautxu hori zure zapatetan? Ez, ez, nik ferra hauekin aski dut! Emadazu hor konpontzeko dauzkazun guardasol horietarik bat. Kapelua falta dugu! Ba, berdin dio, eta du-di-dudi-dada, du-di-dudi-dada eginez ibili zituen zapatak klakean besoak zabal guardasola jauzika eskurik esku, du-di-dada-di-dada! Zoaz Parisera Dany, txaloka Pakok, zapatari gozoak, Hemen ez duzu karrerarik egin ahal izanen. Ez al daukazu poltsa zaharren bat? Daukagun eguraldiarekin, nolaz ateratu zara horrela? Zenbat zor dizut? Ordaindua dago. Ez ba, zenbat da? Gaur gauza berri bat jakin dut zapaten gainean, ez dizut kobratuko. Bazihoala, sartzerakoan ikusitako txartelarekikoa egin zion buruaz, Hitz horiek arazoak emanen dizkizute. Arazoak, hitz horiek? Arazoak Francoren zapatek ekarriko dizkidate, gizon horrek ez du pauso on bakar bat eman bizi guztian, egizu kontu zer tratu eman dien zapatei! Dany Bouzasek piru berari heldu zion, Itsatsi iezaiezu lehengo zola motako puskaren bat beste pauso txar batzuk eman ditzan... Infernuraino? Infernuraino! Bouzas, gaiztoa zinela banekien, baina...! Dantzariak atzamar pototsa erakutsi zion ukabila es-

tututik, letra gorri lodiz Abierto por Defuncion zioen paperari beha.

ADA FERRER MAKINARIAREKIN LONDONERA

Benetan, ez dakit zerk eragin didan geltokian pentsatu dudana. Ez dizut galdetuko zer pentsatu duzun markesinan euriari beha, ni ez nengoen ezertan pentsatzen. Edo gaur edo sekula ez pentsatu dut, gaur hementxe hitz egiten ez badiot ez naiz sekula gertatuko halako egokieran. Plataformak erdian zeukan haga zutari helduak zihoazen bakarrak ziren, pistaren erdian numero bat egiten. Apal samar mintzo zen Iñaki Garcia, eta trenaren trankalotsak arras diskretua bihurtzen zuen tonua. Barka ezazu, besoa nola hautsi nuen asmatzea besterik ez nuke falta, ez dakit zer ari naizen nire bizitza kontatzen aurreneko egunean jendez betetako tren baten barruan. Aurreneko egunean? Durduzamendu huraxe, hainbatgarrenez, Anita Alberdiren hitz pare batek Iñaki Garciari. Arraioa, Anita, dialogo guztiak buruz ikasiak nekartzan eta estutu egiten nauzu, dena aldrebesten didazu, egun batean, nire bizitza egun batean kontatzen. Nirea kontatzeko sobera nuke ordu laurdena. Anita, mesedez, ez al dakizu bizi-

tzak kontatzeko iraupen estandarra ordu eta erdikoa dela? Hitza ateratzen zuen aldi oroz neskaren izena errepikatzen ari zela iduritu zitzaion, hurkotasunean aurrera samar sartua. Bizitza zinematografikoa zurea da, Scalan kantari eta horrela. Ikusten? Zer? Anita esatekotan egon naiz berriz, eta hirugarrena izanen zen. Denek esaten didate Anita. Baina ez hiru aldiz minutu batean, eta zuk ez didazu Iñaki esan. O, barka ezazu, Iñaki! Masailak gorritu zitzaizkiola ikusiko zuten bizarra moztu izan balu, bagoi osoa enteratu zela eginen zukeen. Zeuk barkatu behar didazu, ez dakidalako nola... nola jokatu zurekin. Jokatu? Ez dakizu zeinen ergela sentitzen naizen, esadazu non jaitsi behar duzun eta beste geldialdi batean edo bitan edo hirutan jaitsiko naiz. Euriari egona zen moduan jarri zitzaion Iñakiri portualdeko neskarik kukuena, pozezko malenkonia baten erakusle Madagaskarren esateko, Madagaskarren jaitsiko naiz. Araberako barrea egin zuen Iñakik, trena gelditzen hasia zen trankalotsa geroz apalagoan, geroz apalagoan, geroz apalagoan. Hamarrak eta hamarretan Gaiztarroko geltokian. Eta hura ere bagoi osoak jaso zuen. Hitzordua emanik, opera kantari atsegina trenean abandonaturik jaitsi zen Anita, edo Anita Grosen abandonaturik utzi zuen

opera kantari xarmatzaileak, eta zineklubeko kritikaririk zehatzena ez zen kaian geratu pelikulak eskatuko lukeen bezala trena berriz abiatu arte bazihoanari agur egiteko, eskaileretan beheiti suntsitu zen euripean. Ordu laurden bat zeukan oraindik, Trueba zinemako kartelera ikustea otu zitzaion. Perfume de mujer, emakume batekin edo lurrin flasko batekin zoratzeraino maitemintzen ahal zen gizon baten historia. Vittorio Gassmanen hortz ederrak algara batean. Agostina Belli bularrak erakusten zapi batez estali antzean. Maite zuen Gassman ganberro hura. Lepoa jarriko luke pelikulak bazeukala sekuentziaren bat neska dutxan biluzik errezela zabaldu gabe Gassmanen begi itsuen aitzinean. Zuk, ikusle, ikusle matxo dohakabea, Gassmanek debeku daukana dasta zenezake. Savoykoa ikertzera joan zen San Francisco karrikan barrena. Malizia ikusi zuen, Laura Antonelli bularretakoak ongi betetzen gonaren kremailera askatzeko jarreran. Zalantza egin zuen interesgarrizko ezer egon zitekeenik Donostiako aretoetan. Zein izanen ote zen Iñaki Garciaren sorpresa? Lehen soldatarekin erosi Certina txipian ikusi zuen tenorea zela egitekoa egiteko. Egun hartan ere 2.Bkoa sakatu zuen hiru aldiz Iparragirre

karrikako hamabigarrenean, motz luze motz, Anita Alberdik.

TELANA XAFLEKIN NEWPORTETIK

Ni tabakoan nabil, tabakoan eta whiskyan, traste horiek ez dira erraz ateratzen. Magnetofoi on bat Imanol Txoperenaren enkargua. Zertarako nahi duzu magnetofoia, musika entzuteko hobeak dira diskoak. Adarra jotzen, prezioa igotzen Bixente Gabarain, herriko taberna guztiak hornitzen zituen amanteroa. Erlojuak izaten ditut, Citizen, Tissot, onenak, Seiko, Kanarietarik merke, ahoan zeukan adaxka ezpain ertzetik ezpain ertzera. Portuko soinuak grabatzeko lana agindu omen ziotela irratian. Gabarainek ez zion sinetsi, galaraziak zeuden kantuak grabatzeko nahiko zuen, horretan zebiltzan gazte guztiak, hiru seme zeuzkan eta bazekien zer edo zer. Biharamunean taberna berean ordu berean haatik. Portuko almazenak zaku faltsuz beteak zeudela ezin uka. Eta bai, Philips batekin azaldu zitzaion hurrengo egunean, larru beltzeko poltsa, kabledun mikro luzagarria, tresna profesionala. Imanolek ausarki zeuzkan kantuak estudioan, portuko soinuak grabatu zituen, eta antxetak eta baforak eta ga-

rabiak eta lokomotorak eta kamioiak eta fenwickak eta txatarraren jausiak jaso zituen hamar kasetetan. Sinfonia haiek behin eta berriro pasatuz ohartu zen bakarlaria zutela eskas zarata haiek, eztarria marmar edo eztarria garrasi, Gabarainen kastako amantero kontrabandistak eta kontrabandistekin adostuak zeuden guardak eta moilako zamaketariak eta lokomotoretako gidariak eta garabietako makinistak eta atoiontzietako pilotuak eta hizkuntza guztietan oihu egiten zuten estekatzaileak eta antxeten harkaitzetako farolaren zaindaria eta Atlantikoaren gainean joan-etorrian bizi ziren marinelak eta, jakina, fonderian aitarekin lan egindako labezainak konpontzaileak mekanikoak trazadoreak urtzaileak errebabako peoiak eta bera izan zen moduko aprendizak. Lotsa ematen zion, lapurreta iduritzen zitzaion, bai, jendeari galde egitea. Eguneroko Abenturakoek ezer ez zekitela esan zioten egun hartan konprenitu zuen berak egin behar zuela erreportaia lapurretan behingoz ausartuta, Marceloko arrantzako patroia hartu zuen aitatzat: ez burdin saldan urtua, baina baga zakar batek eramana hala ere gesal bihurtzeko. Mokadu arin bat egin zuen amarekin. Laster pentsioak igoko zituztela komentatu zutela arrandegian, ba ote zekiten ezer irratian. Beti lantu

bera, alargunen otoitza. Arrantzaleen auzora hartuko zuen, gizonezko guztiak jokoan aritzen ziren bazkalondoan luze, kafea eta kopakoa tapete berdearen ondoan. Ez zen unerik egokiena galdezka hasteko, jokoari beha egoten zirenetan hiztunen bat aurkitzeko itxaropentxoa zeukan. Multzoak taberna guztietan, lortuko zuen zerbait, informazio apurren bat. Zabaletarenetik pasatu zen, pilak eta ordu beteko bi kasete, dena berri tresna berriari. Imanol Txoperenak zimitorioan eman zituen minutu batzuk, mikroa euriari luzatua. Nolakoa zen aitaren ahotsa? Ez zen gauza tonu eskala batean kokatzeko. Zubi-garabiaren matxura baten konponketan ari zela ondoeza egin eta putzu goritura jausi. Lurrin zikin hark botzen zituen gasek zorabiaturik, haren lankideek uste zutenez.

WARNA POTASAREKIN OSLORA

Festaleku KA neonezko letrak pizturik edertuko zuten ate gorrira aldendu zitzaion bezeroa, itzulkina gordetzeko esan ondoren. Lau sos zikin, zer uste zuen maritxu hark? Galtza zuritan azaroaren gordinenean. Hondartzako toldoa iduri zuen aterkia. Eta taxi barruan euritako botak kendu eta zapatatxoak janzten

aritua. Festaleku KA letren azpiko aterpera heldu zelarik bezeroa jiratu egin zen taxia zegoen aldera, agur irribarretsu bat oparitu zion ezkerreko eskuan zeramatzan oinetakoak jasoz. Irratiaren botoia sakatu zuen taxilariak. Musika gogaikarri hura frekuentzia guztietan. Trastea isildu eta zigarro bat piztu zuen, taxietan munduan izan litekeen jenderik bitxiena ibiltzen zela pentsatuz. Inor hirirako bada, taxi bat dauka parkinean zain, jakinarazi zien Dany Bouzasek izerditzeko makinetan ari zirenei. Bost minutu itxaroteko eskatu diot. Zer ondo, itxaronaldia ordainaraziko digu. Eskupeko on bat eman diot, aizu. Arraioa Dany, bestelakoa jaiki zara gaur! Bai, eta du-di-dudi-dada, du-di-dudi-dada eginez klake saioa eskaini zien erdi gimnasio erdi prestatoki zuten aretoan. Fred Astaire ematen duzu. Errespetu bat aizu, Gene Kelly naiz. Go-go dancer taldeko gazteena Bouzas. Eroxka samarra zen eta espektakulua hobetzeko proposamenak zeuzkan beti ahotan. Izterrak bizikletan indartu ordez, klake erakustaldiak eskaintzen jardun zuen egun hartan. Txuma azaldu zitzaien, kudeatzailea, bere gilbor bikainaren atzetik. Jai daukagu. Papertxo bat zekarren. Gutun bat heldu zaigu Gobernu Zibiletik, itxi egin digute aretoa. Ez du adierazten noiz arte, abisatu diot abokatuari.

Kakazahar bat Desde Santuce a Bilbao Blues Band horri. Egia da, zergatik egin zioten burla Francori halako txiste sastarrekin? Izan ere, bilbotar horiek! Ez dira bilbotarrak, ez zara enteratzen! Badakit ez direla bilbotarrak, ni ez naiz enteratzen eta zuk ez duzu zizare herren bat harrapatzen. Zizareek ez daukate hankarik. Korrokoiek ez dituztelako azkazalak maite. Horixe zarete denak zure herri horretan, korrokoiak. Antzeko gisan jarraitzen ahal zuten aspertu arte. Zorte handia izan dugu, eten zuen Danyk. Izugarri handia, isunaren ondoan itxiera. Har ezazu inbertsio gisa. Inbertsioa? Publizitatea egin digute. Alegia, jantzi nazak, ea ulertzen dudan... Zuk badakizu harrapatzen, beste batzuek ez bezala, inor aipatu gabe. Noizbait zabalduko dugu berriro, eta betekadak edukiko ditugu asteetan. Antolatu behar genuke zer edo zer, harrigarrizko bat. Ezagun bat daukat Radio Popularren, disko mordoa daukate. Burutik egin zaizu, irratietako diskoak zaharrak izaten dira denak, zuk uste duzu Radio Popularren edukiko dutela Led Zeppelinen azkena? Agian ez, baina euskarazko guztia daukate. Eta inori zalapartaka hasteko paradarik ez ematearren, Dany Bouzasek mitina jo zien, garai berriak, kantuak euskaraz, dantza zurrunbilo bat folk modernoan, akelarrea, jantzi zuriz

eta txapela berdez. Benetako aker batekin aldarean, meza beltza! Ulertzen? Txumarekin bazkaldu zuen The Venecia Innen, hilabetea zen zabaldu zutela eta oraindik ez zuten mustu. Italiako jakiak ematen zituzten, berria zen hura hiriburuan. Txumak erreserbatua zeukan txoko batean jarri ziren. Hitz egin beharra zeukan, eta lasagna ekarri zutenean aipatu zuen hitza, Danyk entzutekoa. Hitza, promiskuo izan zen. Aizu, ni oinutsik ibili izan naiz kalean espartinak ez hondatzeagatik, promiskuo finegia da niretzat, esadazu prostituta. Ritxi sufritzen ari da, ez zara konturatzen? Ez naiz promiskuoa, librea izan nahi dut, besterik ez, eta ez zait axola prostituta esaten baldin badidate. Ibili zaitez kontuz, Dany, isunarena eta itxierarena ez da ezer, mehatxuak hartu ditugu. Ez gara bakarrak, Radio Popularrak hilero jasotzen ditu mehatxuak, eta nire herriko zineklubak, eta... Barka ezazu gordin esatea, Dany, mehatxuak hartu ditugu marikoi kuadrilla bat daukagulako kontratatua, hori dio mezuak. Eta izenak ageri dira, ezta? Bai. Txuma, hori Ritxik idatzi du. Txumak baztertu egin zuen platera jakia ukitu gabe. Dany, jende gehiegi ezagutzen duzu, edozeini ematen diozu konfiantza. Edozeini? Miarritzen ikusi zaituzte. Promiskuo baino larriagoa zen izen hura, Miarritze,

egiagoa zen, hain airoski zeraman solasak zintzurra idortu zion Festaleku KAko go-go dancer onena zen Dany Bouzasi. Hotel batean, Donostiako abokatu horrekin. Orduan bereganatu zuen platera Txumak, eta gogotik ekin zion. Ez zuen mutilaren ikara ikusi nahi.

MONKSGARTH TXATARRAREKIN DETROITETIK

Karabineroek kontrolatzen zuten kontrabando sarea apurtzea lortzen zuen Simon Arizkunek urtero. Kontaktuak zeuzkan agidanez goialderen batean. Ez zen erraza ulertzen gerra partikular hura, zamaketarien arteko sarea babesten zuela ematen zuen, baina inori ez zion partxorik eskatzen. Batzuena zein besteena zelatatzen zuen, moilako bazter ilunenean azaltzen ahal zen goizeko hiruretan, whisky kaxak lehorreratzen ari zirenean berean. Zigarro bat izekiko zuen aurpegia erakutsiz, eta hantxe luze maniobrari beha, Segi lasai deskargatzen manatuko balu bezala, Karabineroak azaltzen badira neuk igorriko ditut aurretik. Eta kontrabandisten susmoa, Halako batean guztiok galduko gaitik horrek! Beldurra ematen disfrutatzen zuen. Edo karabineroak zoratzen. Edo manupeko zeuzkan guardak estutzen. Edo lo ezina zeukan. Ez

gau beranduan, eguerdi betean harrapatu zuen egun hartan Gabarain amanteroa, sekula nabarmendu ez zen gizon lasaia, lanurdinaren azpian zortzi kartoi Camel gerrian zituelarik heldu zitzaion bizikletan Simon Arizkun mandeuli hura Ceutatik garraiaturiko gatza deskargatzen zeukaten Ciudad de Pamplona baforaren eskalaraino. Ordu estrak sartzen, Bixente?, eta solasean geratu zitzaion ipurdia bizikletaren zelan oin bat eskalaren orpoan bestea pedalaren gainean. Badakik, laster erretiratu eginen nauk. Ez diat sinesten, zer egin behar duk hik ibiliok utzita? Semeak Frantzian jokatuko dik laster, sendatutakoan. Bai zera!, Frantzian errugbia egiten ditek! Ez pentsa, sekulako kontratua sinatu dik. Harrokerian ariko duk. Bai, harrokerian... ez al duk Mugimenduaren prentsa irakurtzen? Bartzelona atzetik ibili zian eta ezezkoa eman ziean, atera ezak kontu. Noski irakurtzen zuela prentsa Mugimenduarena, eguraldiaren pronostikoa, mareajearen orduak eta baforen sarrerak. Hire semeak eskapo egin nahi dik Espainiatik. Larrua osorik, hori duk printzipala, gerran gaudek eta. Barre txipi bat egin zuen portuko guarden buruak. Ez didak sinetsiko, Bixente, ni gaztetan anarkista izan ninduan, ez jaunik ez jainkorik. Eta gero faxistetan ibili hintzen, amante-

roak bere artean. Simon Arizkunek taxu eman baitzion Gabarain isilduak adierazten zuenari, Gerran gerrako legea, aitortu zion begiz begi, Larrua osorik ideien truke. Orduantxe espero zuen Gizendu egin haiz bat, eta ez, Laster gerran gaudek ostera bota zuen Simon Arizkunek, Nik ere alde eginen diat Espainiatik. Eta pedalari eragin zion beste ikaramendu zatiren bat han barrena banatzera urrunduz, bagoien karril bien erdian artez, gero eta biziago, berriro hasia zuen euriak akuilaturik.

VOLTA SERVICE ZEMENTUAREKIN DAKARRERA

Lehenik eta behin, Don Marcosek esan zuen gisan, Donibaneko apaizek bileraurreko ohar bat egiteko baimena eskatu zuten. Auzo bakoitza esku zen, parroko propioa zeukanez, deliberoak hartzeko. Ez zuten argi ikusten zertara zetorren lau barrutien batzarra. Beraiek erabakia zuten meza emanen zutela baina ez zutela sermoirik eginen. Eta latinez eman gainera. Sacrificium intellectus, jaso zuten erantzun. Don Serapiorengana egin zuten hamaika buruek. Herria ergela dela uste duzue? Hasperen egin zuen Don Marcosek. Ez, horregatik eginen dugu latinez eta sine oratio, he-

rriak ulertuko duelako aginduak betetzen ari garela, ez garela ari geure borondatez. Inkisizioko borreroek hori bera alegatuko lukete, manamenduak betetzen zituztela, ez zutela inor torturatzen beuren gogoz, legea bete besterik ez zutela egiten. Urruntxo joan zela komentatu zuen Don Matiasek, beti bezain zuhur. Paper bat ateratu zuen Don Serapiok jakaren barrutik, Nik uste dut apezpikuaren testu politiko inmoral hau iruntzira ipintzea dela egokiena, horregatik proposatzen dut meza sermoiduna izatea, eta papera zabaltzen zuela elkarri behatu zioten gainerako apaizek, bazekiten zer zetorren, Don Serapio Euskal apaizak Francoren hankapean liburu debekatuaren egile ezkutua zen. Francoren biografia bat irakurtzea proposatzen dut, haren krimen guztien zerrenda. Zeu ari zara politika egitea proposatzen, masailak gorri, barnealdeko erretoreak. Orduan bilera zati bi egin zuen Don Serapiok, Isildu zaitez eta har ezazu hitza San Paulo aipatu gabeko sermoiren bat egiteko gauza zarenean bota zuen, apaiz gazteenen irribarrea sorraraziz. San Paulo...! San Paulorekin hasi zen Elizaren galera! Jakin al liteke, galdetu zuen erretoreak lasaitasun antzeztu batean, jakin al liteke, arren, zer egiten duzun Elizaren barruan? Hasteko, agerian jartzen dut Elizaren ba-

rruan dagoen gezurra. Azkazalak luze samar zituela konturatu zen erretorea, haiei beha geratu zen mutu bere aldekoen hitza probokatzearren. Bazekien ez zutela bakarrik utziko bazter nahaslearen katramila dialektikoetan. Bizitza osoa daramagu Francoren aurka. Parrokia guztietan hartu ditugu mehatxuak. Eta zigorrak ere bai. Probokaziozko martiritza harrokeria besterik ez da. Zekarren testua paperean geratu zen, tolestatu egin zuen Don Serapiok. Apaltasuna erakustearren, agian. Mundua hobetu nahi izan duten abade guztiek egin izan diote gerra Elizari. Don Migelek zer edo zer salatu zion ezkerrekoari belarrira. Begiz begi baitzeukan Don Serapio, Vatikanoko Bigarren Kontziliora huts egin duzula komentatu dut, argitu zion Don Migelek, broma da. Zertarako bildu gara, Serapio maitea, zureak hausnartzera edo erabaki orokor bat hartzera?, Don Matiasek. Zutitu egin zen, bilera hura lehertzen saiatu zen inork bozketa bat komeni zela aipatu aitzin. Argudio batzuk eta jarraibide bat hartu zuten apaiz gazteek, eta posible ikusten zuen prestatua zeukan kontrasermoia multikopiatan banatzea auzoetan egun hartan bertan. Eskumuturreko erlojuari erreparatu zion. Posible zen, bai. Meza, latinez izan edo mutua izan, zeremonia bat da, sinbolo bat, proklamatu zuen,

Hori ongi asko daki teologia ikasi ez duen herriak. Francoren aldeko meza ematen badugu, jakin dezagun Hitlerren alde azalduko garela. Protestatxo batzuk sumatu zituen, ez isilarazteko lain, Hark ere edukiko zuen arimaren antzeko zer edo zer bere ankerkeriaren zokoren batean. Bai, ezta?

ASTEELY CARRIER ENBORREKIN ABIDJANETIK

Bakailao gaziaren usainean zehar bokalerantz, mikroari mintzo zitzaion Imanol Txoperena aterkipean, Gizon bat urpera hemen bertan eta inor hitzik ateratzeko gauza ez, armadoreen beldur zirelako susmoa zeukan, Marceloko gainerakoak non bizi ziren edo non aurki zitzakeen ideiarik ez, kanpotarrak omen denak, Ondarroa aldera joan zirela auzoko taxi guztiak hartuta. Kontramaisu bat harrapatu zuen haserre Amaya tabernan. Zer egiten zuen arrantzako patroiak ontziaren kubertan itsaso honekin, portuaren sarreran? Lankide bat hila lan istripuan eta beraiek kafe konpletoa hartzen tabernan, habano gizenak zupaka. Kazetari sentitu zen egun hartan. Bazuen zentzurik soinuak hartzea, ezaxolako giro hura, enbidoak, musak, urrunagoko domino fitxen talka marmolaren gainean. Ez zuen

bete ahal izan kasete baten erdia. Hitz apur haiek grabatu zituenean, bestelako fondo bat eskatzen zutela konturatu zen, oraino grabatzeke zeukan lehen soinua, tragedien orroa, itsasoaren gaindia Arando Haundia eta Arando Txikia seinaleen gaindi, uhinen betea eta gupidarik ez zekarren jausia. Gero, blai eta pozarren, irratira hartu zuen zuzen, bobina irekietan kopiatu zituen gizonen aitorrak, itsasoaren joak. Malher izan zitekeen zerbait ari ziren emititzen, Diez Melodias Vascas kenduta. Neurri zuhurra zela onartu zuen. Kaskoak ipini zituen eta edizio mahai zaharrean kontzentratu zen. Ontzia hiru hilabete lehenago konpondua zen, bafora ona zen. Bagaren zaparta harkaitzaren kontra. Galernan ez dago ontzi onik. Bagaren zaparta harkaitzen kontra. Errua bafora maneiatzen dutenena da. Bagaren zaparta zapartaren kontra. Zer egiten zuen kontramaisuak kubertan itsaso horrekin, portuko bokalean? Zer egiten zuen nire aitak burdin saldatik hamar metro gorago? Ikasgelatik irten nintzenean, nolako isiltasuna, dena geldirik, makinak stop emanak, beste geldialdi bat biharamunean. Baina Marceloko arrantza patroiaren heriotzak ez du panfleto bakar bat mereziko. Zer egiten zuen nire aitak burdin saldaren gainean segurtasunezko loturarik gabe? Berriz eta be-

rriz entzun zituen gizonen hitzak eta itsasoaren orroak. Inork ez zuen Marceloko arrantza patroiaren izena aipatu. Berak ere ez zekien, ez zitzaion bururatu galdetzea, zorigaitzak eramandako anonimoetan urtuko zen. Ohituak zeuden ordea, multzokako heriotzak ezagutzen zituzten. Bere galde xumeek eragindako hasperena izan zen: Mardomingo B, Galiziatik soldata hobearen bila etorritako hamabi marinelekin, eskifaia osoa, Irlandako labarren aurrean hondoratua, Ballinskellings inguruan, hantxe galdu nituen bi osaba. Metal kolpe itoak itsasoaren barruan. Landeira, makinista, ez zen marea hartarako ontziratu. Hark bazekien zerbait, ontzia ez zegoen ondo. Galiziara alde egin zuela esaten dute. Sibelius likido bat, bare, etsipenezkoa.

CELLA VALDEMOSA POTASIO KARBONATOAREKIN LIVERPOOLERA

Laura Antonelli ikustera joan zitekeen, Anitaz ez pentsatzeko. Lotsatu egin zen. Bigarren dutxa bat hartu zuen. Ezin zuen burua ezertan jarri. Dolu zen txartelak eguerdian erosi izana, luzea eginen zitzaion hamarrak eta hamar artekoa. Eta eguraldi harekin. Verdiren Requiemaren partitura hartu eta pasarte ba-

tzuk fraseatzen jardun zuen bainugelan, ozentasun doi bat zeukan gela bakarra etxe hartan. Ez zuen huts egin nahi Londonerako bidaia, Royal Philharmonicarekin abestekoak ziren. Abesbatzaren bidaietan onartuak zeuden lagunak, Anitarekin Greenwich Parken etzanda Hitchcocki buruz eleka zer Gloria, Gloria... Ordu erdi iraun zuen kantu eta ameskeria. Lagun guztiak lanean. Hobe kasik, ikusiko balute erraz igarriko zioten urduri zegoela. Zeinen ondo kantatzen duzun, seme. Eguerdiko barbarinen usaina sumatu zuen ezpaingaineko ileetan. Nola ez zitzaion lehenago bururatu? Bainugelan entzerratu zen berriro. Baina ikusi zuelarik bere burua aurpegian Palmolive Men aparra eta eskuan Wilkinson aitzurra, hondamendiaren hurbila ulertu zuen. Aparra kendu eta bizartegira jaitsi zen, Marioren aholkura. Crespo zaharra zegoen, bi bezerorekin. Mario kinielak hartzera irtena, bertan edukiko zuen laster. Etorriko zela geroago kinielak egiten laguntzeko eta ihes egin zuen esku dardartietarik kafe bat hartzera. Primo de Riverako izkina batean zabaldua zuten taberna berrira zihoala, erauntsia ekarri zuen trumonadak. Zimitoriora egin zezakeen laster batean. Geldirik geratu zen. Goizean bizardun ezusteko topada batean, mutiko xalo gaueko hitzorduan. Ba-

rregarria zen eta desenkusarik ez zeukan barrea egin zion bere inozoari. Nortasuneko azaldu behar zuen egun hartan Iñaki Garciak, ordu hartan erakusten zuen mailakoa zenternaka ari zuen euripean pentsakor, lasai, bakar, tximu eginda. Zer axola? Eta ez zekien zein argudiok hazi emanik, Anitak gusturago laztanduko zuela bizarra asmatu zuen, mazela soildua baino. Gizonagoa zelako, ausaz, mazela bizarduna? Zinemako iduria izan zitekeen emakumezko baten eskua gizonaren iletxoetan, batzuetan ezin izaten zituen bereizi jasotako eta bizi izandako oroitzapenak. Tanta guztiak dastatuz burutu zuen etxerainokoa. Birritan egin zuen urtzintz eskaileretan. Esnea ipini zuen surtan sukaldean sartu zeneko. Arraitasun bitxi baten ondorio, azkarki erabili zuen eskupainua buruan. Ezti puska bat esnetan, eta amaren aholkuari muzin eginik, Carlos III tantarik ez. Txarra zela eztarrirako errepikatzen zion beti, alferrik. Eskuak katilua estutuz berotzen zituela, hiru astean garbirik iraunarazitako igeltsuari beha geratu zen, pentsamendu delikaturen baten bila galduta kukuaren hegaldian.

BERSOE GRANITO BLOKEEKIN NARVIKETIK

Bost eta erdiak jotakoan utzi zuen lana, zamaketari kuadrillaburuari abisatu zion moduan. Erlojuko komunetara zihoala Hi bizi haiz, hi! bat bota zioten, portuko diosal unibertsala, baskulako mukizu erdaldunak ere ikasia. Dutxapean kendu zuen Txileko nitratoa iletik belarrietarik sudur barneetarik. Zarpa zikinen zakutoa sorbaldatik zeukala abiatu zen Bixente Gabarain azken aldian ia egun oroz lagunek oroitarazten ziotena, Hitza hitz, betetzera. Egun hartan gertatu gertatzen zenean denendako afariarekin ospatzekoa zuena. Sartu-irtena denda pare batean. Soziedadeko frigorifikoa zabaldu eta bere izena zeukan plastikoa ateratu. Legatzak almejak perrexila. Olioa gatza baratxuriak eta honantzakoan erositakoak. Dena frigorifikora berriz. Patatarik ba ote behatu, bazegoen ausarki. Atea berriro giltzatu eta etxera igo zen. Emaztea plantxan. Zarpa zikinak balkoira. Ohe gainean etzan zen jantzirik, emazteak irratia itzali zuen. Handik apurrera hasi zen zurrunga txipitan. Bixente, zazpiak dituzu. Haserretuarena egin zion, ordu erdira esnatzeko eta betikoa. Hain gustura zinen! Erresumina txiza egiterakoan, bazeukan zer edo zer. Hurrengo astea ez zuen

utziko medikuarenera gabe. Eskuak garbitu, soziedadera. Mandarra lotutakoan txakolina zurrusta bat hartu zuen, pulamentuzkoa. Alkandoraren mahukak ukondoraino jaso, frigorifikoa ireki eta gorpu haiei denei bizia emateko miragarriak prestatzeari ekin zion burua beste ezertan ez zeukala. Pako azaldu zen, zapataria, afaldarren arteko bat, laguntzarik nahi zuenetz. Eskerrik asko. Hitza osorik beteko duk ezta? Ea, ea, zer diagu zalantza hori? Gero hankak garbituko genituela hik ekarritako xanpainetan. Ez, horrelakorik ez. Hik esan huen... Baina ez duk nik espero bezala hil. Hila duk hala ere. Itzali egin duk, ez duk hil. Hik daukak...! Barre egin zuen sano Francori zerurako zapatak egiteko eskatu omen zioten Pako Brionesek. Atera iezadak lurrezko kazola txipi bat. Burua eta bi xerra pasatu zituen aluminiozko zabal haietarik lurrezkora, almeja batzuk, patatak. Zer egiten duk hor beha, perrexila txikitzen ez al dakik? Honi aurrena! Mandarra askatu eta eskegi egin zuen. Bota iezaiok gainetik, ez gehiegi ez gutxiegi, eta utzi bere horretan, ez ukitu ezer! Hementxe nauk laster. Kazola txipia hartu eta etxera igo zen emazteari limur egitera. Bixente Gabarain ez zen gizon hiztuna, bihotzak egiten zion ordaina.

SIERRA BLANCA KONTSERBEKIN BREMENERA

Simca 1200 urdin bat gelditu zen apur bat aurrerago, eskuineko pirrilak espaloi gainean, motorra martxan. Espaloiz aldatu eta General Molatik jarraitzeko aukera zeukan, baina aurrera eraman zuen jakiteko irrikak. Usnatua zuenez, Andereño, aizu! egin zioten autotik bertatik, gidariaren aldamenekoak ukondoa leihatilatik ageri zuela. Hiru morroi. Coronel Beorlegui karrikara nondik helduko ziren. Bidali zituen. Hurrengoa ezkerrera eta ibairaino segitzeko, handik eskuin Orlando kontserba fabrikara iritsi arte, egin beharreko maniobrak beso luzaka adieraziz, hantxe hasten zela Beorlegui. Eskerrak ozta emanik alde egin zuten. Simca 1200 urdin hark ezkerrera egindakoan, ibilia besteratu eta Alameda del Generalisimo zeharkatu zuen arin Marga Trekuk, elizaurreko atari batean txirrina jotzeko. Berehala zabaldu zioten, Simca 1200 urdina Orlando hitzak ageri zituen xairaino heldu zen une hartantxe. Han ez zen hasten zabaldi zikin bat besterik, makadama lehertuta gainez egindako basatza. Astiro itzuli zen herri barrura, gidari ondokoak eta atzekoak karrika izkinei erne, Coronel Beorlegui zioen pla-

karen bat hautematen ote zuten. Aspertua nagok Txakurrak hormara hori ikusten! jakinarazi zuen atzekoak. Kuartel bat komeni zaie hemen. Txapeldun tente bat ikusi zuten karrika gurutzatzen, Euskaldun horrek nozituko ditik beste guztienak, nire kontu, eta haren bila irten zen pauso tinkoan Eusebio Davila jaun gaztea. Aizu! Kopetilun behatu zion interpelatuak, buruan txapela eta zintzurraren azpian plastiko zati zuria ageri zuen euskaldunak. Barka ezazu, pater... Flectamus genua! egin zion oihu apaiz aperturista hark, zilarrezko toxa bat ateratu zuen jakaren barrutik euskaldun guztien larrienen guztiak nozitzeko hautatuak morroiaren mutur aurrean paratzeko. Biatiko Santua ematera noa, belaunika zaitez, egizu aitaren Jaunaren gorputz santuaren aitzinean! Flectamus genua! Sinatu zen belaunikazio bat itxuratuz eta Coronel Beorlegui karrika non dagoen bazenit, pater, Coronel Beorlegui, hamabigarren zenbakia. Don Serapiok jakaren barruan ezkutatu zuen zilarrezko toxa eta Seme, esan zuen ahapetik, Hamabigarren zenbakia Kristoren apostoluetan da, hortz artean eta begiak sutan. Bestelako bedeinkapenik gabe lotu zen bideari Simca 1200 urdinekoen kontra otoitzik gozoenak eginez

orbel zahar kartoi busti teila kozkor adar zati eta etendako arropak zanpaka.

MITSOS ARDOAREKIN HELSINKIRA

Zergatik zeukan jendeak beti azken orduan azaltzeko ohitura hori? Txirrina inork ez jotzea ere ez litzatekeela izugarri ona eta, beti bezala, eskuan zeukan telefonoa eskegi eta errenditu egin zen zabaltzera. Aurrera, bai, ez du axola, horretarako nago. Ezaguna egiten zitzaion mutil gaztearen aurpegia, Markos Urbietaren semea zela atera zion, Xoan dut izena. Zure aitak etxeko hari guztiak berritu zizkidan, entxufeak, kisketak, dena aldatu zidan igande goiz batean deus kobratu gabe, materiala nik erosita. Goraintziak emateko, ongi zegoen noski. Mutila ez zetorren karneterako, argazki bila zetorren. Rafael Artista Fotografok bazeuzkan jabeak hartzera pasatzeko batzuk, izena esateko. Antzinako argazkia da bila nabilena, argazki bat eduki dugu beti etxean, eta galdu egin zaigu obra batzuk egiterakoan. Susmo izpi batek jo zuen argazkilaria, ezerezera suntsitu zen bristada izan zen. Gurasoen ezkon argazkia, edo aitonarena edo amonarena, pentsatu zuen, horixe izaten zen denek behar zutena,

bere garaian garrantzirik eman ez izana damuturik. Nire osaba baten argazkia da, elizako eskaileretan aterea, mutiko talde bat uniformez. Susmoa ziurtantza bihurtu zen. Badakit zer argazki mota den, ikusi izan ditut horrelakoak... Nik estudioa 1945ean zabaldu nuen, lehenagokoak dira argazki horiek, ni orduan Irunen nengoen, Renfen. Ez, zuzendu zion gazteak irmo, 1950 arte ibili zituzten faxistek umeak instrukzioa egiten Frente de Juventudesatakoen uniformetan. Bi mila klixe, kristalezkoak, kartoizko Valca kutxatxo horietan ordenatuak. Mamuz bete zitzaion estudioa. Osaba baten argazkia? La Vozeko korrespontsalak goizean komentatu ziona ez zen txantxa. Begiratuko dut nire klixe zaharretan, emadazu denbora pixka bat, zera, puska bat, dena desordenatua daukat, nolanahi ere ez naiz oroitzen horrelako argazkirik eginik. Eskerrak eman zizkion mutilak, eta osabaren argazki bakarra zela hura, bakarra eta xelebrea gaineratu zuen irri maltzur bat eginez, maite lukeela edukitzea, eta zenbat izaten zen horrelako lana. Lasai, auskalo nola dauden klixeak, halako hezetasuna daukagu hemen, badakizu. Eta esan dizut, zure aitak ez zidan kobratu, beraz... Umeak bizkarrean zurezko fusil bana, ezagutzen zituen serie haiek Rafaelek, urtero zeremonia

berak, alamedan lerroan denak tente eskuin eskua ezker sorbaldara luzatua, eskolan hurrena, paretako argazkiari agur faxista eginez. Zorabio batek jo zuen. Herri osoa zeukan salatua berak, inor ez zen salbatzen, denek jaso zuten eskua, denek ipini zuten bandera balkoian, denek hartu zuten esku Seccion Femeninan, denek omendu zituzten apaiz eta alkate eta maisu eta maistra faxistak, denek dantzatu zuten Sicilia erregimentuko bandaren doinuetan, denek edan zuten xanpaina gobernadorearen morroiekin festetako zezen afarian, denek zuten izena emana Accion Catolican. Etzan egin zen. Ez denek, baina herria ziren. Urte haiek ezagutu ez zituztenek ez zeukaten eskubiderik epaitzeko. Jendea desagerrarazten ari zenaren negatiboak zeuzkan berak, erakusketa anker bat. Begiak sabai zikinari zituela, argazkiak betikotu egiten zuela ikasi zuen. Artean ez zekien zer esaten zuen Argazki hau betirako izanen duzu esaten zuenean. Une bat betikotzen zuen. Une bat bizitzaren froga? Bere erantzukizuna zen herri dohakabe hura iragan penagarri hartarik salbatzea. Jaiki zen, hartu zuen kutxatxo bat, atera zuen lehen kristala. Ez zuen argi mahaian ipini, manta batean bildu zuen. Maitalea itotzea, behin, berriz, gupida barik, zure onerako da, maitalea

triskatzea, bataioak suteak ezteiak lasterketak, eta hezur hautsien intziria, hatzak, hortzak, sudurrak, irriak, festak, musikak, ixo maitea, zure onerako da. Zabaldu zuen manta, kristal abarrikatu apur haiek konpondu ezin zitekeen leiho batenak ziren, leiho handi batenak. Bigarren kutxatxoa hartu zuen Rafael Artista Fotografo urrikaltsuak.

MYRIAM DEL TORO BERUN MINERALAREKIN KENITRATIK

Zer moduz zaudete? Karmele Artetxe zuela izena, Anitak lana egiten zuen fabrikako laguntzaile soziala zela, denek ezagutuko ez balute bezala. Anitaren berririk bai? Ene, zer gertatu zaio, Grosera joatekoa zen enkargu batera eta gero lanera. Bera da zoritxarrez, bai, aitortu zuen Karmelek, Anita izeneko bat atxilotu dute Donostian eguerdian, Groseko etxebizitza batean, eta sindikatuetakoek Anita hori Anita Alberdi dela ziurtatu didate, horixe ekarri zuen Karmele Artetxek gurasoenera. Sindikatuko lagun batzuekin zegoen, propaganda harrapatu omen diete. Eskua ahora eraman zuen amak. Errespetu handia ziotela lantegian erantsi zuen laguntzaile sozialak. Oraindik ez al

zaizkizue etorri etxea miatzera? Abokaturik ote zeukaten. Eskuak hartu zizkion amari, Ez zaituztegu abandonatuko. Eta Anitaren nebak, Kaskagorri esaten zioten gazteak, Ez zaituztegu abandonatuko hura entzunik, ez zuen jakiterik izan sindikatuen izenean edo ETAren izenean mintzo zen, emakume garratz hura izan baitzitekeen portualdeko atraku eta leherketa guztien antolatzailea. Amak, halako hitzak eskertu ondoren, Jontxu, esan zion, hogeita bi urte eta oraindik Jontxu, lotsa ematen zion, Ezertan sartua baldin bazaude alde hemendik izebarenera. Karmele Artetxe beha geratu zitzaion erabakia jakin nahirik, ama beha geratu zitzaion erantzun baten zain. Ez dut uste etxea zelatatzen jarri direnik, auto bat daukat atzeko kalean, nahi baduzu eramanen zaitugu etxe seguru batera. Mila esker, eta segundo pare on bat irabazi zuen ganorazko zerbait asmatzeko, Anitak ez daki nitaz ezer, lasai. Begiak bete zitzaizkion amari. Eta egoeraren jabe bihurtu zen, Laster helduko dira eta zoaz lehenbailehen, zu ere atxilotuko zaituzte bestela hemen ikusten bazaituzte, laguntzaile sozialari fermu. Ni neure amarekin geratuko naiz, ez dut bakarrik utziko tipo horiekin. Bazekitela ezertara behartuz gero non bizi zen, besarkada bana eman zien eta laster arte

despeditu zen presaturik Karmele amorragarri hura auto barruan urduritzen hasia izanen zen Milan Mircovic jaun errukiorrak segurtasun epearen erdira gabe alde egin ez ziezaion. Garbi ezazu zure gela, eta Kaskagorrik ohe azpikoak ateratzen hasteko esan zion amari. Kopeta zimurtu zuen, Anitak ez omen zuen aspaldian ezer ekartzen etxera. Ezinegon batean ibili ziren tiraderak arakatu papertxoak txikitu leihora hurreratu. Amak xahutu zuen Anitaren logela. Kaskagorrik termodinamikako apunteak eta liburu tekniko batzuk ipini zituen egongelako mahaian, zetozenean ikasten ari zelakoa egitearren. Ama, utzi zer edo zer Anitaren gelan, bestela dena atera dugula pentsatuko dute. Noizbait, txirrina jo zuten, goraino iritsiak ziren interfono ipini berria erabili gabe. Lasai, ama, lasai! Nor da? Polizia, ireki! Orain aurrez aurre ikusi ahal izanen zituzten Francoren lekaio zabarrak. Zabaldu eta Zuek al zarete nire alaba atxilotu dutenak? Aizu, zuk nola dakizu zure alaba atxilotua dagoela? Non daukazue? Harritu egin zuen amaren ahotsaren indarrak. Epailearen agindua betetzera gatoz, etxea miatu behar dugu. Kaskagorrik zaborren azpian gordeak zeuzkan paper eta pegatina guztiak eta futbola utzitakoan idazten hasia zen egunkari sekretua. Beste inor

etxean? Egongelara eraman zituzten ama-semeak. Hitzik ez egiteko. Zipriano eta Txaro ekarri zituzten miaketaren lekuko gisa, aldamenekoak. Besoa estutu zion Ziprianok mutilari, Eutsi! isil bat. Miaketan hasiko gara, zein da zure alabaren gela? Lekukoak, mesedez, zatozte gurekin. Ama-semeekin geratu zen morroietarik bat. Soingainekoa erantzi, lautan bildu eta alfonbra gainean utzi zuen Impermeables El Bufalo marka ageri zuela. Jaka gurutzatuko trajea zeukan. Heldu ziren tiraderen eta armairu ateen soinuak Anitaren logelatik. Ikara ematen zuen, pertsona baten erraiak ateratzen ari ziren. Zuen baimenarekin, eta jesarri egin zen. Koadernotxo bat atera eta idazten jardun zuen Sheaffer urdin batekin. Ilea gominaz eta zilarrezko katetxo bat eskumuturrean, A.C. letrekin. Chester paketea ateratu zuen. Erre nahi baduzu, irten zaitez balkoira. Amari ez, semeari behatu zion Francoren lekaio isilenak Ez zaidak etxe hau gustatzen edo Ezaguna egiten zaidak hire aurpegia adieraz zezakeela. Sarrailaren hotsa sumatu eta zutitu egin zen. Orain atake bat emanen dio aitari, egin zuen Kaskagorrik bere baitarako. Nor zara zu, zer egiten duzu nire etxean? Plaka erakutsi zion. Egun hartan gertatu zen, zitzaion, zioten Anitaren aita beldur zena. Malkoa berriro amaren begira, Anita atxi-

lotu dute... Zer dira soinu horiek? Zure alabak gordetzen duen propagandaren bila etorri gara, jauna. Nire alabak, propaganda? Anitaren gelan aurkitutakoekin azaldu ziren Francoren beste bi lekaio zarpailak, Zipriano eta Txaro atzetik zituztela. Interesgarriagoak ziren aurpegiok, batek orbaindua zeukan masaila ezkerreko belarritik zeharka, besteari sudur zuloen tabiketik sortzen zitzaion makoan ezpain ertzetaraino mehetuz zihoan bibotea. Lucha Obrera, Lantegiko Batasuna, Leyes fundamentales de la dialectica, Contes du Pays Basque, Huntaz eta Hartaz eta Picassoren Guernica zurlandu txipi bat mahai gainera. Hau dena propaganda klandestinoa da eta Ana Maria Alberdiren arropen artean aurkitu dugu, lekukook baiezta dezaketenez. Epaitegiko zigiluak zeuzkaten paper batzuetan hasi zen idazten jangelan geratua zenak, faborez mahai gainean zeuden liburuak eta paperak apur bat baztertzeko eskatu ondoren. Ama irten egin zen. Kaskagorrik Contes du Pays Basque hartu zuen, Hau ez da propaganda, hau etnografia da. Isilik geratu baitziren denak, Eta hau artelana da, deklaratu zuen zur polit hura ere multzotxotik bereiziz, Neuk egina da. Eta sudur hegalak zabal hesteak zimur geratu zitzaion buruz buru inspektoreari, bere burua ezagutzen ez

zuela. Liburua paretako apalean zegoen eta Guernica ohemahaian eduki du beti, argitu zion Francoren lekaio dotoreenari belaunak dardara txipitan. Ez zekien haiek edukitzea zilegi zen edo delitua zen, poliziak lapurretan ari zirela egin zitzaion, besterik ez, eta inoiz baino koldarrago sentitu zen Anitak ez daki nitaz ezer hura gogoratuta. Eraman iezaiozue hau nire alabari mesedez, amak, Anitaren amak, alaba atxilotuaren amak, paketetxo bat eskuetan. Arropa garbia da, aldatzeko. Sentitzen dugu, emakumea, guk debekatua daukagu horrelakoak egitea. Txarok besarkatu egin zuen emakume atsekabetua, seme ilegorriak Lasai, aita, lasai esan zuen ahapetik eta Ez hitz egin zuen dialektoz gure aurrean! agindu zuen orbaina egitada heroiko batean irabazi zuenak. Zerorrek eraman zeniezaioke paketea bihar goizean Gobernu Zibilera, aholkatu zion amari leun ugazabak, trajedunak. Horra, orain badakizue non dagoen, gero jardun ezazue asmakeriak zabaltzen Poliziaz. Zuek txol ausartak zarete zuen plakarekin eta zuen pistolarekin, ezagutzen ditut zuen ezpalekoak. Lasai, aita, lasai! Aholku bat emanen dizuet guztiei, aholku interesgarri bat: ez zaitezte harrotu komeni baino lehen, Ez zaitezte harrotu komeni baino lehen, leun, beti leun, manupeko zeuzkan zo-

kormazoen aitzinean hitz erdien eraginkortasunari buruzko ikastaro praktiko bat emanez. Zu bai harro, gerra batean zu erretaguardian emakumezkoak fusilatzen. Atxilotuta eramatea nahi duzu, ezta? Hori nahi duzu, gudari jauna? Odolak lepoko zainera jauzi egin-da kolpe bat jo zuen mahaian Anitaren aitak Francoren lekaio zikin haien muturrak hausteko ukabilarekin, Atxilo nazazue ni eta utz ezazue libre nire alaba! Ezin lasaiago zutitu zen Hilario Hidalgo bigarren mailako inspektorea, zilarrezko pultseran A.C. letrak grabaturik zeuzkana, Kaskagorrik atzeman zuen moduan. Sheaf-ferrari klik egin eta jakaren goiko sakelan sartu zuen. Psikologian matrikulatu berria zen Zuzenbideko klaseez landara, bestelako tonuan hitz egin zuen, apal, sarkor. Ez ditugu kanjeak egiten, ez gaude gerra batean, eta El Bufalo markako trintxera jaso zuen alfonbra gainetik. Entzun ezazu, polizia jauna, ni nazionalista nintzen hogeita hamaseian eta nazionalista izanen naiz beti, jo nazazue hil arte baina utz ezazue libre nire alaba! Ez zioten jaramonik egin, morroi haiek ohituak zeuden horrelako espantuak ikusten. Guk ez dugu inor jotzen, zure alabari ilea tindatuko diogu, besterik ez, gero epaileak erabakiko du. Irriño bana egin zuten hirugarren mailako inspektorea izateko al-

ferrik ahalegintzen ziren bi morroiek. Bazetorren garai berriko lehen inspektoreburuen belaunaldikoa izanen zela ziur zegoen hiztun leuna zutitu egin zen. Eta zu ibiltzen ahal zara kontuz, atxilotuaren nebari atzamarra zuzentzen ziola, Ez zaigu zure pelukaren kolore hori batere gustatzen, jakinen dugu nor eta nor ibili diren herri honetan karriken izenak kentzen, eta hobe zenuke tartean ez egon. Papera luzatu zien lekukoei, Irakurri eta sinatu, mesedez. Barka ezazu, komisario jauna... Ez naiz komisarioa, inspektorea naiz oraingoz. Inspektore jauna, esan zuen Txarok poliziak hartua zuen apaltasun ironiko berean, Hemen dagoen hau ez da ezeren froga, ez dugu sinatuko, ezta, Zipriano? Ez, arrapostu zion Ziprianok, ez dugu sinatuko. Inspektoreak ez zuen galdu aldarte aspertu eta barkabera sumingarri hura, Hara, denak nazionalistak teilape honetan, nolako jendea daukagun hemen!, alai antzean. Amak aski adore eduki zuen egun hartan hitza bigarrenez indartsu ateratzeko, Jende ona dira hauek, zuek ez bezala! malkoak xukatzen zituela, desarmaturiko jendearen aitzinean gerriko pistola erakusten laketzen ziren Francoren lekaio barrenuts haiei. Sobiet Batasunean heziak, jakinarazi zuen Ziprianok zakar.

NICOLE MAGNESITAREKIN BIRKENHEADERA

TF1ek emititzen zuen Le Comte de Montecristo ari zen ikusten Pepe Beltza egongelarena egiten zuen jangelan, soinua goiti samar, eta atea itxi zion alabak sukalderantz zetorrela prismatikoak eskuan. Zertarako ekarri dituzu prismatikoak, Yvette? Egun hartan ez baitzuen atertuko, guardasolaren azpian gorderik ibiliko ziren hiletara zetozenak. Erne egon beharra zuten. Zeinek emanen ote du meza, kuriositatea daukat, aitortu zuen Marga Trekuk. Ez dakit, ez ditut apaizak ezagutzen. Don Serapiok ez du emanen, horrek bai ezetz. Berdin zait, ez zaizkit apaizak gustatzen, ez apaiz faxistak, ez apaiz komunistak. Nahiago nuke euria gogor hasiko balu berriz, inor ez etortzeko. Ba nik nahiago nuke atertuko balu, Franco maite duten guztiak etor daitezen, eta aitarengana irten zen Yvette botikarekin eta jogurt batekin. Leihora hurbildu zen Marga Treku. Elizaurreko bi argiak fonderian Donostiarako egin zituztenen sailekoak ziren, launa lanpara zeukaten eta dotore argitzen zuten. Bigarren solairuan zeuden eta aterkipean zetozenen aurpegiak ederki ikusten ahal zituzten. Prismatikoak zorrora. Badakizu, Yvette? Honantzakoan polizia batzuk topatu ditut. To-

patu egin dituzula? Nor atxilotu behar ote dute Coronel Beorlegui karrikan? Aizu, Marga, ez zenituen karrikaraino lagunduko, ezta? Orlandoren lantegi zaharrera bidali ditut. Egitan? Egitan! Algara egin zuten. ONUn masta erdira daukate bandera, kexatu zen gero Marga, lotsagarria da. Neska, Franco klubeko bazkidea zen! Irakurri al duzu Aita Santuaren telegrama? Marga, mesedez! Liburuak irakurtzen ditut tarteka, aitak lehen hitzetik azkeneraino irakurtzen ditu eskura datozkion egunkari eta aldizkariak, buruko mina jartzeraino aritzen zait egunean egunekoaz. Laurden guti, laster azalduko ziren kristau zintzoak. Esadazu, zer dio Erromako Jaunak bere telegrama dibinoan? Ez dizut esanen, haserretu eginen zinateke, Yvette. Ni etxekoekin haserretzen naiz. Hasi ziren ailegatzen, eta etorri ere harro zetozela iduri zuen, ez gordeka alajaina, aterkia goi. Lanari ekin zioten. Yvettek izen eta abizenak edo abizen eta lanbideak kantatzen zituen, Margak zerrenda osatu. Tarteka izena eta noren emazte. Hori ez al da Mario, ileapaindegikoa? Bai, bera da, zer doa hori elizako eskaileretan goiti! Itxaron, ez da sartu. Eskela irakurtzen geratu da. Eta ez da sartu, zer ona! Eskela norena den irakurri eta eskaileren erditik dator orain karrikara elizan sartu gabe, zer ona! Ze-

rrendatzeari ekin zioten berriro. Gaueko Gurtzakoak prozesioetako kandeladunak atelierretako enkargatuak zinegotzi ohiak udaleko enplegatuak, ordenazaleen samalda, jan zakurrak. Horiek ote ziren herri faxista? Desplazer txipi bat hartu zuen Marga Trekuk, ustebako on batzuk espero zituen. Yvette, utziko al zenidake galdera indiskretu bat egiten? Hain indiskretua ez. Ba... zerrenda hau, ETAkoei pasatuko al diezu? Zur eginda behatu zion lagun minari eta algara etorri zitzaion ahoa betean. Yvette, orain lasaitu naiz. Ez dakit zer eginen dudan zerrenda horrekin, agian makinaz jo eta herrian barrena zabalduko dut, ikusiko dut, etorkizunak emanen dit aukeraren bat. Non dira nire kamaradak?, Pepe Beltzak sukaldeko atetik. Aita, nola altxatu zara bakarrik! Gaur berandu datoz, Yvette, kezkatua nago.

ARQUETAS FOSFATOAREKIN AL-AYYUNDIK

Butaketan ez zieten utziko zorua ogipapurrez betetzen eta inguruko ikusleek haserrezko behakoak eginen zieten. Planoren bat, sekuentziaren bat komentatzen bazuten, Shhhhh! eginen zieten haserre. Ez zen jende askorik egonen astegun buruzuri batez gaueko

saioan, eta akomodadoreak bikote gazteak zilegitasunik ezeko jarreretan harrapatzen laketuko ziren, beren linternekin. Oilategian ez zituen akomodadoreak poxelatuko. Goi hartara ez ziren azaltzen. Barre eta hitz eginen zuten lasai. Charlot bera, oilategiko aulki gogorretan egonen zen, ez butaketan. Zineklubean Gaumont Palace esaten zioten Bellas Artesera iritsi zelarik, laprastadaren arriskua ikusi zuen leihatilan. Eta zer gerta ere lau sarrera erosi zituen, butaka patioko bi eta oilategiko bi zeuzkan egun hartan eguerdiaz geroztik karteran Iñaki Garciak. Ez zuen berak trenkatuko, Anitak hauta kota ala patio. Poltsatxo bat zeukan parte zaharreko Alcalde tabernan erositako urdaiazpiko ogitartekoekin. Edatekoa Anitaren esku, anbiguan. Autobus bat heldu zen. Amak malkotan emana zion Omega kontsultatu zuen hirugarrenez, aita zenak igandeetan lotzen zuena. Hamarrak. Anitak bost minututan eginen omen zuen geltokirainokoa. Hamarrak eta bostetan lau gizonezko iritsi ziren, Anita ez. Lantegiko kontuen hizpidea zeukaten. Neskaren galde egitekotan egon zen. Trolebusera igo ziren eta horrek salbatu zuen Anita nabarmen uztetik. Eta bere burua barregarri. Bazihoan autobusa Mirakruzeko maldan beheiti urrunduz Zahor txokolatearen publizitatearekin.

Pelikularen azkena zen eta proiekzioa zirkulu txiki batean murriztu zen istorioaren amaiera adieraziz. Lantegi aldera hurrera zitekeen. Ez, hori ez, hori Anitaren hitza ez sinestea izanen litzateke. Hamarrak eta laurden. Nodoa hasia zen, Francoren berri emanen zuten. Franco hila zela zioten, bizi osoa Nodoa ikusten jarraituko zuen, Su Excelencia el Jefe del Estado recibió Su Excelencia el Jefe del Estado visitó Su Excelencia el Jefe del Estado inauguró alegeraki zioen ahots zinematografiko hura urraturiko diskoan entzuten bizi osoan. Ezin dut ordu horretan, baina gauekora gonbida nazakezu. Eta orain bestelako zentzua hartzen zion ironia ondoren, Hain berandu ahal baduzu, jakina. Ergela ni igeltsua kendutakoan besarkada bat idurikatzeko, ukondo berrituari manatuko nion aurreneko lana, egun hark biharamun bat edukiko zuelako, ustantza horretan zegoen, Anitaren ileak euriaren lurrina ekarriko zion eta haren atzamarrek zarrapo txipiak eginen zizkioten bizarrean. Nola dakizu gomendatu didaten terapia dela? esanen zion barrez, eta Anita barrez. Hamar eta erdiak. Rey Soria presenta Charles Chaplin. Limelight, Candilejas. Amor... Risas... Lagrimas... Barreak bai, inork. Anita geltokiko eskaileretan beheiti ezkutatu zitzaiolarik lotsatu egin zen bere bu-

ruaz. Savoyrako sarrera erosteko azaldu zen tren geltokian, Laura Antonelliren betetasunak ikustearren. Eta ustekabean bizitzako egunik inportanteena bihurtu zitzaion, sinetsi egin zuen gertatu hura berari ari zitzaiola gertatzen. Neskek bazuten aurpegi bat, neskek bazuten behako bat, neskek bazuten ahots bat. Eta bazekien hura dena esaten, debatitzen. Jakinen zuen hautua egiten ere, ni butakan zu oilategian. Zakurren bat ikusten bazuen, hari emanen zizkion ogitartekoak. Igeltsuan idatzia zeukan pareatu delikatua ezabatuko zuen errotulagailu bat eskuratu baikoz, edo laban batekin, edo zernahirekin. Oinez ekin zion herrirantz, benetako lehen eskarmentua hartutako Charlot. Madarikatu zituen tren geltokietako markesinak, Madagaskarreko kukuak eta munduko begi urdin guztiak, Laura Antonellirenak halakoak ziren dudarik gabe. Tren baten fokua ikusi zuen Herrera aldera. O, barka ezazu, Iñaki! Eta bagoi osoa barrezka. Trenaren bagoi guztiak barrezka. Tren guztien bagoi guztiak barrezka. Bere bizitzako egunik tristeena zen egiazki egun hura.

O Burro

Hona hemen futbolaria izanaren makurra, nire baitan, aireportuko zementura atera nintzelarik errezibitu ninduen panorama ikusirik: arimarik ez nire barrandan aretoko kristalaren bestaldean, kafetegi bat, aduanako guardiak, maleta birakariak atoian zeramatzaten errainu koloretsu batzuk, zaleturik ez alegia, mamuak, isildade zakarra oihurik gabe banderarik gabe pankartarik gabe mozkorrik gabe argazkilaririk gabe, iazko elurrekin urtu ziren heroi bat zarela erateko ahalkerik ez daukan kazetaria eta bere mikroa, mikroa eta kamera aldi batez, garrantzia dauka kamerak, taldeko lagun guztien meritua izan dela aitortuz gibeletik sukartu samalda bat daukazula builaka V eginez, U eginez lagunen buruz gain. Brisa ederra, hotz puntu bat, huraxe Galizia zinezkoa, Galizian nengoenez espetu behar nukeena. Lantzurda eskas. Kafetegian sartzeko nintzela kargatu jator bat hartzeko, neska gazte hura niregana irriz.

– Patxi Arizkun?

Zertarako ihardetsi, bazekien, luzatzen zidan eskuak ere irri egiten zuen.

– Nola ezagutu nauzu?

Andrea omen zen, huraxe izena, eta hegaldian ezin oroiturik amorratu nintzen kantariaren izena etorri zitzaidan.

– Andres do Barro!

Bekainak batu zituen, aipua kondenatuz. Zerendako? Espainiar guztiok buruz ikasi genituen haren kantuak gure gaztetan! Zu posibilitate urrun bat zinen oraindik eta ez zenuen ezagutu. Kafearen baraurik eraman ninduen, kasik ohartzen ez nintzela, parkinera. Kafe kargatu bat hartu nahi nuen, alkoholik ez, egitan aizu. Gakoa poltsatik atera eta auto multzorantz klikatu zuen. Audi A4 urdin bizi baten argiak piztu-itzali ziren. Iluntzen hasia zuen.

– Nola ezagutu nauzu?

– Ez dizut erranen.

Irriz, begitarte osoarekin irriz, zimur hipotetikoak altxatzearren. Berria iduri zuen autoak. Larruzko tapizeria, zur lakatuko detaileak kanbioaren inguruan eta kontroleko taulan. Alokatua izaten ahal zen, gomitaren barruan zegoen noski tramoia hura, neska gazte bat txofertzan orga berri hartan. Gozamena zen motorra-

ren xuxurla monotonoa. Gidari bikaina, Andrea hura. Palankatxoaren burua eztiro ukiturik egiten zituen abiadura aldaketak, aski zuen bulkaño maitekorrak ematearekin eskua zabal edo eri meheak luze, laztan haiei usatutako zirkuko piztia zamalkatzen zuen. Alokatua hura izaten ahal zen, neska hura.

– Zer gisa zure aita? Erretzen jarraitzen al du?

– Nik ez dut aita sekula erretzen ikusi!

– Anton Monteirok entrenatzailearen muturrean erretzen zuen, aldagelan bertan. Gianluigi Buffonek ere erre egiten du.

– Anton Monteirok ez du erretzen baina nire aita da, bai. Horren antz handia al daukagu?

Burua niregana eta izutuarena nabarmen eginez, aita baino are plantakoagoa zela ikus nezan. Alaba baldin bazuen, Miss Venezuela izandakoren batek ekarriko zion halako haur kanela marrazo hari.

– Zertara dedikatzen da orain?

– Import-export.

– Badu kaskoan buru, eta lehengo lepotik.

Galizia berritzen ari zen, autopista zabalean gindoazen. Gobernu autonomikoaren lanak. Ez omen ziren berehalakoan finitzen, hiru laurdenak eginik akitzen zitzaien beti sosa. Ez da zuen arazoa bakarrik, konta-

tuko nizkizuke nik. Itsas-biologiako hondarreko urtean zebilen. Iduri luke ez zela aitaren ezpalekoa, Itsasoa eta itsasokoak zaintzea galtzaileen alde egotea duzu. Arraposturik ez. Non eta marisko mintegiak ez dituzun. Mutu. Galegoz egin ziezadala eskatu nion.

– E tí, Patxi, teñes familia? Fillos, fillas?

Horrela elekatu ginen puska batean, bera galegoz eta ni euskaraz, arrunt erne entzuten zidan, eta adiera asmatu ordez nik errandakoa nola edo hala euskaraz errepikatzen saiatzen zela ikusirik, dialogo labur samurrak irakatsi nizkion, turismo gidetan ageri direnetakoak. Ez dut haatik Euskal Herriko turismo gidarik orainokoan irakurri, baina denak eite berekoak izanen dira noski. Algara egin genuen, jokalari ona zen, Anton Monteiro erasolariaren irabazteko grina bera zeukan, baina umorez hartzen zituen porrotak. Dohainez ausarki hornitua zen Andrea.

– Orain egin ezazu zuk galegoz.

– O tren que me leva pola beira do Miño...

Euskalduna eta kantari txarra, Euskal Herria ez dabil ongi. Nolako albistea. Soldadutzan ikasi nuena hasi zitzaidan heltzen, tanta fluxetan aurrena, tapituago laster, autobidearen bazterrean ikusten nituen eraikin eta zuhaitz eta baratze xumeetarik hegan hai-

zatuak: eleak kantu zatiak erranairuak madarikazione ederrak. Zapalduen mintzaira, lanean alkoholizatutako jendearena. Maite dut nik Galizia, lagunei erran izan diet euskaraz egiten duen galegoa naizela. Espero zuena baino gehiago omen nekien. Galego aunitzek baino gehiago, gainera.

– Erradazu boa noite euskaraz.

– Boa noite... On egin!

– Ba zu euskal herritar gehienak baino euskaldunagoa zara!

Ferrolera heltzeko kilometro batzuen eskasean fini zen autobidea, akabantzako zatia egiten ari ziren tira ahala fokuak piztuta, hiru turnotan hautsak janda galegoak portugaldarrak magrebtarrak. Ez zuten aurrekontua xahutu, edo diru parrasta berri bat hartuak ziren kontratua lortu zuten erraldoiak.

– Hauteskunde autonomikoak dauzkagu aurten.

Errepide zaharretik jarraitu genuen Ferrol udalerrian sartzen ari ginela ohartarazi zigun paneleraino.

– Lehen hau dena behiena eta nekazariena zen.

– Bai, zu hemen bizi izan zinenean nekazariak eta marinelak ziren lau galegotan hiru.

– Eta laugarrena emigrantea, ezta?

Ferrolek bazeukan ontziola bat bertakoei lana emateko, Espainiako Armadaren urguilutarik bat. Gaia aldatzea hobe.

– Nola ez da etorri Racingeko kapitain historikoa Racingeko sarezain historikoa jasotzera?

– Ezin izan du, ez du maite detaileen axola bertzeren kontu uztea. Horra, hortxe daukazu.

Anton Monteiro jauna in person, nolako jauna, iragarki batetik karrikara jaitsia, nolako tapizeria, zetazko trajea zeukala ematen zuen ezker-eskuin distiraka ehun zaldiko gauzatxo liluragarriaren atea zabaltzera hurbildu zitzaigularik zauli eta uroski.

– Patxi Arizkun...! Aker alaena...! Gora Euskadi Askatuta!

Viva Galicia Ceibe bota nuen nik eta tinkatu anaikorrean batu ginen ezinezko gol bat, erositako penalti bat azken orduko garaipena bigarren mailara igan izana ospatzen, eta aitor dezadan malkoa etorri zitzaidala, A cona que lle botou!

Harreran karneta erakutsi gabetarik eraman nindu-en Monteirok igogailuetara –Alkoholik ez, giltza hartu behar diat, barka ezak, gelako txartel elektroni-

koa hartu behar diat egon nintzen erratekotan– eta hallaren erdian zegoen diskobolo garratzaren ondotik pasterakoan ikusi nuen eskuan zeukan diskoa disko bat zela, alegia, binilozko musika plaka beltz handia, LP bat. Hurrengo egunean diskoboloari kendu eta aztertuko nuen Andres do Barrorena ote zen edo Voces Ceibesena. Igogailuen ate modernoek bertze ate bana zeukaten aitzinean noblezia gisa, Italiako palazzo zaharren batetik ekarri burdina landuak. Geletarako eskaileraren hasmentan, marmol beltzean egina, neskatiko biluzi bat, biluzia pikarrai, eta buru gaineko saskian zilarrezko sardinak zekartzala zeramatzala eskaintzen zituela edo saldu ezinik zegoela urrin gaiztoa zutelakoz. Dena zen distira eta kakatzaneko gustua Don Denis hotelean, izen hori zeukala uste dut lau izarreko almazen espantitzeko hark. Dutxa baino sauna nahiago ote nuen galdetu zidan igogailuan, modernia hori ere bazuten, kabina partikularretan, banaka, binaka edo hiru-launaka egoteko eleketan edo bertzelakotan lasai, diskret, aferak diseinatzen.

– Nahiago diat gelako dutxa, matelezurra apurtuko baitiat arrimatzen bahaiz.

– Merezia nikek!

Monteirok krabelina ageri zuen jakaren solapan burua idortzen atera nintzelarik.

– Hi bai akerra! Nire krabelinak dituk, hau jabego pribatua duk!

Eta fruta exotiko haiek ere neronenak ziren, bezeroaren ametsa, Persiako alfonbra eta Paris zioen urringozo flaskoa, merkea ametsa. Monteiro ajataka laketu zen, eta orgatxoan ekarri zizkigutenei sakatzeko agindu zidan eskua luzatuz: Godello botila bat eta Donostiatik ekarri berriak iduri zuten ogigainekoak.

– Afaria ez da gaur, ala?

– Ez pentsa nire gauza izan denik, hotelak denei egiten dien harrera duk hau, galegoen ongi etorria.

Ur minerala ireki nuen eta konta ziezadala dena zehatz eta zeharrik gabe, ez altxatzeko deus, esplika ziezadala dena guztia, nork eman zion nire segapotoaren zenbakia, nola ezagutu ninduen bere alabak, Andrea alaba zuen edo bertze zerbait, import-export hartan mugitzen zuena aipa zezala, eta zer arraio egiten genuen han, gezurrezko luxury hartan, alegia, aita ontziolan soldadore ama etxean jostuna zituen ume hura, Anton Monteiro, lau arauak ikasia, bigarren mailako futbolari ohia, non zegoen kokatua Galiziako ustelkeriaren organigraman.

– Ez haiz sekula erretiratuko, baloiak nondik nora egin lezakeen jakin behar duk beti.

Estiloz kendu zion zipotza godelloari, ezezkoa egin nion eskuan neukan ur godaleta erakutsiz, dastatu zuen eta Galiziaren memoria ardo hartantxe zegoela deklaratu ondoan Anton Monteirok kontatu zidan denak guztiak galdera bera sorrarazi zidan, baina ez nion eten, haria eman nion, ez nekien Milanek eta Liverpoolek fitxatu zutenik, eta fitxatu izan balute ere lanak edukiko zituen sei arrantzontzi eta frigorifiko kamioi flota baten jabe egiteko Galiziako arraina Madrilera eramatearren edo, haren hitzetan, Espainiara esportatzeko, abertzalea zen ni bezala, hitzez hitz abertzalea eta ni bezala, Espainiatik berriz ultraizoztuak ekartzen omen zituen, arrainak ez, berdurak eta aitzinez sukaldatuak, saltegietan hedatzen zituen eta proiektu bat zeukan, proiektu hutsa oraindik, orube bat erosia zuten horretarako, bai, erosia zutela erran zuen, ultraizoztuak egiteko Galizian bertan, hori zela etorkizuna, Espainiara esportatzen zuen freskoaren zati bat plastikozko poltsatxotan azaltzen baitzen gero merkatuan, eta nik horrelakoak entzunik guardia zibilak ikusten nituen erremolke frigorifikoaren atea irekitakoan arrautza tolotaren hats izoztuak muturrean

jota gibelerat egiten, denik kirastuena uxarka hezitako zakurrak dardaran zeropeko hamahiru gradutan, ideia ona, estalki egokia, egokiaren egokiz susmagarri samarra, eta Bartzelonara zerbitzatzen hasiko zirela laster, berezia izan zen aditz hura, zerbitzatzen, gogoan atxiki nuen, eta oroz gain Galiziako patatak izozteko metodoan omen zegoen ilusionatua, banekielako noski cacheloa baino hoberik ez dagoela munduan eta egia da, Akort naiz, Horregatik ari nauk ikertzen cacheloak nola izoztu kalitatea mantenduz, merkatua erroz goiti ipiniko duen jokaldia izan litekek, eta jokaldia aipatuz futbolera lerratu zen artean kontatutakoak zeukan gandua kentzearren edo ganduan guztiz altxatzearren, Racing de Ferrolen egoeraz jabetu ninduen, bigarren mailan baina larri, Beldur gaituk hurrengo denboralean, horrelaxe erran zuen, Hurrengo denboralean ez ote garen hondoratuko hirugarren mailarainо, eta hire laguntza behar diagu...

– Belarra mozteko?

Brasildar pare bat fitxatzekotan zebiltzan, laster goatekoa zen Sao Paulora, Ez nekien, Jakina, nola jakinen duk, hi ez hago direktiban, arlo ekonomikoa zeukan bere gain, harritzekoa, eta kamisetak ausarki saltzeko ideia zuten, ez Ferrolen bakarrik, Badakik zeinen

xelebreak diren brasildarrok, kirol arropa denda bat zabalduko zuten eta bertan egonen ziren txandaka brasildarrak, beltzaranak, baiki, eta Inbertsioak, horrelaxe erran zuen hori ere, Inbertsioak ematen baldin badu kate bat osatuko diagu Galizian, bertako kirol arropa marka bat sortua zaukaagu gainera, O Noso Sport, trisquele baten iduriarekin, diseinatzaileak izerdi uretan ari ziren neguko zamarrarik erakargarrienak asmatzen, aukera polita zela inbertitzeko, katea osatutakoan lekurik gabe geratuko nintzela.

– Hogei urteko futbolari brasildarrak atxikiko dituk hik arropa dendan, jendea alaitzeko?

– Diru bila zatozak, eta araberako kontratua sinatuko ditek.

Galdegitekotan egon nintzen dibertsifikatzeko sukarrak jota edo irabaziak kutxa blindatutik atera eta inbertitzeko premia larrian zegoen, baina Eibarko jendea ezagutzen ote nuen, Bai zera, izugarri zaila omen zen Eibarko jendearekin mintzatzea, futbol taldekoekin alegia, ez zutela lortzen konfiantzako kontakturik, Klub hori gotortua zagok eta agian horixe izan litekek sekretua hainbertze urtez mantentzeko bigarren mailan eta lehen mailara igotzearen balentria egin ahal izateko, horrelako zerbait behar zutela beraiek, ez zu-

tela ibili nahi azken urteetan ibili ziren moduan ezinean hondar minuturaino, Hitz egin behar diagu eibartarrekin aliantza zintzo bat egiteko, euskaldunek eta galegoek borroka bera, arituko ginela horretaz geroago, lagunekin biltzeko tenorea genuela, gero sorpresa mundiala, Heroi bat haizelako. Ongi entzun ote nuen eta baietz, heroia ni. Horregatik zeukan antolatua afari hura, horregatik heldu nintzen hegazkineko txartela erreserbatuarekin eta horregatik alde eginen nuen hoteletik agur jaunak agur damak eta hurrena artio esker mila. Hurrengo bat egonen duk, ez dudarik egin, eta Ferrolen izan edo Eibarren izan, algara egin zuen, gastuak haren kontu. Telefonoak jo zion galtzetan. Hartu zuen, eta Ados erranik niregana itzuli zen tuneletik zelaira aterako bagina bezain gogotsu.

– Gure zain zaudek.

Jaka janzteko agindu zidan, jaka ez zela jertsea beti eramaten nuen gisan sorbaldan eramatekoa, soinean baizik. Jantzi nuelarik, paparrean zeukan krabelina kendu eta nirean atxiki zuen, kondekoratu egin ninduen. Gelako txartela eman zidan ez galtzeko aholkatuz, hura ezpata zen, gerlara igorria nintzen. Jaitsi ginen, eta igogailuen burdinazko dekorazione italiarra zabaldu genuelarik Racingaren himnoa hasi zen sabai-

ko ozengailuetarik, eta Racing zaharreko lagunak Patxi akerra!, Patxi marikoia!, Patxi do carallo! oldartu zitzaizkidan musuka zaflaka ostikoka bizkarrekoka Pedriño, Pazos, Fontela, Carballeira... ez denak baizik onenak, alegia, zikinenak zakilenak zipotzenak zomorroenak, eta O Santiño ere bai, zitalena, Akabatu egingo haugu, Patxi! eta Urde traidorea, Patxi! errepikatuz, berak ziklostilatzen zituen panfletoak itsas armadako kapitanian, alimaleko besarkada eman zidan, musu bana ezpain txokoetan, Aski! egin nuen oihu, Aski! Alajainkoa, ne... negarretan ikusiko nauzue! Eta txaloka ekin zioten Racing! Racing! Ra-ra-ra!

Gure garaian ez ote zegoen pulperia bat han, pastu berria genuen Armani hartan. Ajataka lehertu ziren Fontela eta O Santiño, horrelaxe jarraitu zuten puska batean elkarri nire lepotik, horrelakoak ziren, futbolaria heldutasunik gabeko gaztea da, eta futbolari ohia heldutasunik gabeko umea. Agian pulperia erraten zieten prostibuloari, halakoren bat haiek. Harresi Handia txinatarren jakiak bertan eta etxean jateko, Zara Women, panel elektronikoak orena eta tenperatura emanez, parabotikak, motxiladun anglofonoak konfi-

teria zaharraren erakustegi zoragarriari kasu ezin emanik mapa tolestatuak eskuan, zakur enblematikoak luzitzen bikote gazteak. Nik Ferrol zaharra espero nuen agian, lagun ohiekin batera haziaz bertzelakoa, ez lagun ohiek bederen, alegia, lagun ohien antzekoek garatua.

– Ez zakiat zergatik ez genuen Olagarro ezizena ipini!

– Atezaina izanik!

Hala erranen zidaten arraio haiek nire isilean, lepoa. Parkinatu genuen, atera ginen. Jendeketa zebilen, gaugiro ederra, freskura puntu hura. Lantzurda sartzea baino ez zuen behar Ferrol berri hura suntsitzeko. Soinean neraman jaka, ez lepoan, Andrearen batek ikusten baninduen identifika ez nintzan. Gazteak banderak inarroska, banderarik ez zekarren multzorik ez, a bandera da loita, izar gorria xingola urdinaren erdian. Non koka ote liteke izarra gure banderan? Ezinezkoa da, dena hertsiki lotuta utzi zuen Sabino Aranak ere. Kantaldiren bat izanen zuten, edo mitina. Ikusiak nituen hautetsien afixak han-hemenka goizean, txipiak oraindik, kanpainan hasteko lehen urratsak.

– Nora goaz ordea?

– Hik, Patxi, ez duk mariskorik janen. Hik olagarroa janen duk!

– Ideia ona! Gastatu nahi duenarentzat, mariskoa edonon zagok. Olagarroa... Galiziara etorri behar ona jateko. Bertze inon ez zagok horrelakorik!

– Hain zuzen A pulperia do Mateora goaz. Zer etortzen hintzen hi orduan, olagarroagatik edo alabagatik?

Eta algaratan berriz, zakilak.

– Biengatik.

Aitortzekoa da cacheloaren parekorik ez dagoela munduan. Lortzen bazuen kalitatea galdu gabe izoztea, kolpe polita emanen zuen Monteirok. Eta artaburu haiek denak oskolak hausten, olagarroaren tenpluetarik bat profanatzen.

– Mateoren alaba A Coruñara ezkondu zuan.

– Astoak, asto galantak zuek, nekorak jaten pulperian!

Ekin ajataka berriz, eztarri kontra eginik eztulka Pazos, antzerki hutsa, eta eria luzatuz Hi bai haizela astoa hasi ziren elkarri, nor baino nor gorriago, Astoa ni?, eta segi arrantzan, Jeniala, Patxi, jeniala! Anton Monteirok hustua geneukan hamargarren Valdeorras botilan jo zuen txangurroaren haginak haustekoarekin

ordena eskatuz, berrogei mozkorren mahaiburu zelakoan.

– Ederki gaude hemen, baina gure igantzaren eta beste balentria batzuen heroia omentzeko bildu gara. Hauxe zen gure omenaldi pribatua, afari galego bat galegoen kontuak kontari, Patxi Arizkun gurekin galegotu baitzen eta garai hartan bezain galego itzuli baita hainbertze urteren buruan guregana.

Niri beha txalotu zituzten denek gure buruzagiaren hitzak, eta Monteirok botilan jo zuen berriz.

– Ederki gaude hemen, Baina orain omenaldi publikora eraman behar dugu gure lagun mina, Ferroleko herriak eginen dion omenaldira. Ezin dugu Patxi guretzat bakarrik eduki hemen bahitua eta, beraz, kafe bana hartu eta goazen berant baino lehen.

– Ferroleko herriak? Zer arraio...!

– Lasai, Patxi, lasai.

– Plaka bat paratu baldin baduzue estadioan, zuen bizian jan dituzuen apo guztiak botatuko dituzue goitika banan-banan.

– Gustatuko zaik, Patxi. Herorrek antolatu behar izan bahu, horrelako besta izanen genukeen.

Kafe epela, queimadarik ez. Carballeirak bihotzerako pilula hartu zuen nire aldamenean. Neronek ber-

tze bat ez ote nukeen hobe. Barkatu, komunera noak. Zer, prostata, dagoeneko? Kakaegiletu, zuek. Jangela nagusira jaitsi nintzen. Erreserbatukoarena galdatu nion Mateo mitikoaren seme potoloari txartela luzatuz. Ez zuen hartu.

– Barka ezazu, jauna. Ordaindua dago.

Txartela karteran sartzen ari nintzela azaldu ziren Paz, O Santiño, Monteiro bera...

– Zer egiten duk hor errumaniarrei erositako Visa horrekin? Tira, tira!

Karrikara egin genuen erdi bulkaka, beldurtu nintzen lepoan jasoko ote ninduten, belaunak arrunt hondatuak zeuzkaten denek noski cacheloak ereiteko zelai haietan lasterrean ibilita, belaunak eta orkatilak, arrisku gaitza, alegia, arrisku gaitza nire lagunetarik edozeinen lepoan ixterkoloka, bigarrenerako igantza berrituz. Berant omen genbiltzan eta zentro aldera gindoazen zauli, afixa politiko gehiago zegoen, BNGren deialdiak iduritu zitzaizkidan, irakurtzen geratu nahi izan nuen baina O Santiñok besotik heldu ninduen haserre, Goazen, Goazen!, zapart egin duen liderra banintz bezala denak nire inguruan, Ken iezazkidazue aztaparrak gainetik, ez duzue ikusten berria dela, propio erosi dudala jaka hau zuengana etortzeko?

Foku batzuen distira zetorren aldera gindoazen, Plaza de Españan azaldu ginen, Plaza de Españaren erdian, talo handiaren erdian, bertan zegoen samalda tapituan bidea ez dakit nola ebakita hatsanka heldu ginen denok eta non zazpi mila tonako munstroa mugitzen hasten den, dardara txipi bat, non goiti egiten duen hanbateko garabi baten lepoak astiz biltzen zituen kableek jasota... Orduan bai, orduan kendu zituzten aztaparrak nire besoetarik, utzi ninduten harri eginda gera nendin, harri eginda mirari hari beha, Baina zer arraio ari zarete...!, ni hari beha tetele, O Burro txatarrara...!, hain tetele non ez nuen Monteiro pikutara bidali bere kamerarekin, eta Monteiroren ingurutik zetozkidan flaxak ere ez, Baina zer arraio ari zarete...! Eta O Santiñok aldamenetik Atera ezak metraileta Patxi, atera ezak metraileta Patxi, eta Ez duk ikusten hegan eginen duela, Carballeirak gibeletik, Atera ezak metraileta Patxi! Nik ikusia neukan zeremonia hura, ikusiak neuzkan kable tinko haiek Francoren mezua, Francoren mezu astuna, Francoren mehatxu eternoa jasotzen, berrogeita hiru urte lehenago gure portuaren erdian, zeroi hura airean ororen ikusgarri, Francok etsairik gogorrena akabatzeko gauza naiz erraten zigula, O Burroren aireratzea iduri haren segida zen,

yatez edo zaldiz Franco garaile, Kasu eman!, Kasu eman! garrasi egin behar nuen isiltzeko, uzteko kantatzeari... Ez ote zuten ikusten Francok tirokatzen gintuela bere arpoiekin, Urpera! egin nuen oihu, Urpera! eta irri karkailezko ortots batek egin zidan oihartzun Urpera! Urpera! Urpera! denek bat O Burro itsasora botzeko ordenatzat harturik, Beti izanen haiz gure heroia, Patxi! Viva o Racing! Viva o Racing de Ferrol! Viva o Racing de Ferrol sen Caudillo!, bizkarrekoak ematen zizkidaten denek, taldekideek eta ezagutzen ez nituen bertze ehunka tifosik, ni banintz bezala O Burro egun oroko bizitzatik kentzen ari zen garabia, edo jasotzen ari zen garabiko makinista, edo hura handik lekutzea lortu zuen alkatea. Zer tetele, zeinen tetele, zenbaterainoko tetele gero jakin nuen, etxeratu eta bi astera Galiziatik posta ziurtatuan heldu zitzaidan zin egina zidaten euskara-galego eta galego-euskara hiztegia ordez egunkari eta aldizkari multzoñoa ikusirik, komentario haiek, argazki hura batean eta bertzean. Ni neroni, Ferroleko heroia, eta ez hura, zazpi mila tonako simaurra. Zertan haserretu nire harridura, nire ahoaren tamala paperean ikusita? Anton Monteirok berak eman zidan aski aztarna horrelakoak egiteko gauza

zela hautemateko, edo agian, horrelakoak egiten zituelakoz bizi zela isiltasun hodei baten babesean.

BAINA ZER ARRAIO ARI ZARETE...!
Carlos Barrosoren asteko irudia

Asteko irudia, prentsa idatzian eta telebistan, O Burro izan da. Bitxia, urteetan eta urteetan egunero ikusi dugun irudi bat –1966an ezarri zuten Ferroleko plaza nagusian– albiste moduan ikusi beharra berriro. Albiste izan baitzen. Aste honetan, ordea, ez da albiste izan Exercito Guerrilleirok petardo batzuk ipini dizkiolako, ez pintura arrosaz estalia azaldu izan delako, ez: oraingoan garabiak jasotzen zuen kaiola batean preso ikusi dugu diktadorea, diktadore guztiei dagokien lekuan. Plano horren kontraplanoa, irudi horren ostekoa da inon ikusi ez duguna, ezkutatu digutena. Horixe da gure aste honetako irudia, gure pozaren hotzikara erakusten duen gizon horren aurpegia, eta ahoa zabal esaten ari dena: «Baina zer arraio ari zarete...!». Diktadorea kendu dugu gure plaza

nagusitik –Plaza de Españatik kendu dugu! Ez al da pozgarria bezain...?–, eta Racing historikoaren partaide izan zen Patxi Arizkunen aurpegiak zer arraio ari ote garen diosku, ohartzen ote garen gure ausardiaren handiaz, jabetzen ote garen mendekua jausi litekeela, gaur ez bada bihar, gure gainera. Esnatu egin ote dugu O Burro, lo zegoen piztia? Ostikoka egingo ote dizu eraso? Fusilamenduka? Gauden zut eta duin, gauden erne historia errepika ez dadin. Sakon dezagun demokrazian, sakon dezagun galegotasunean.

Gau osoan afari begetarianoak zerbitzatzen zituen diskoteka hozkidura emangarri batean jo genuen arribada, eskualde horia erran zioten esparrutik hurbil altxatua geneukan txokoan, liburutegiaren ondoan, irakurtzen egoteagatik edo fakultateko apunteak ikasten saiatzeagatik zurruta doan zeukaten gazte bikainen artean, Audi A4 baten motorraren sinfoniarekin aldera ez zitekeen asots sintetikoaren erdian eta sabaian josia zegoen Galiziako bandera izardun erraldoiaren azpian. Parodia bat ematen zuen, ez nekien zerena, oraino ez naiz gauza oihan artifizial hura definitzeko.

Liluratuarena egin nuen, Gianluigi Buffonek gauarnoteka musikal batera eraman ninduela Turinen, hura baino are ausartagoa zela. Buffonek? Nolatan? Sarezainen entrenatzailea euskalduna zutela, lehengusua, bisitan joana nintzela emaztearekin. Emaztea daukak! Ez diguk ezer kontatzen!

– Etxean utzi dut, ez bainaiz fidatzen zuekin.

– Zuzen ari haiz, Patxi!

Zinezko sentimena zuela argitu zigun denoi Anton Monteirok, Galegoak ez dituk fidagarriak, horixe bota zuen nire errana manipulatuz, bera multzotik harat, galegoak, zuek erran balu bezala, alegia, hauek, zikinenak zakilenak zipotzenak zomorroenak, eta Ferroleko herriaren garaipenaren euforia zapuztu nahi izan zuen erdeinu nardagarri hura eginez, O Burrok ez zuela hainbertze urte iraun ahal izanen Euskal Herrian, euskaldunek airean bota izanen zutela erroz goiti Carrero bota zuten moduan, Galegoak lo zaudek oraindik, zenbat urtez jarraituko ote zuten himno triste horrekin gauza triste berdinak errepikatzen, ez ote zen tristea desperta do teu sono fogar de Breogan abestu beharra behin eta berriz, eta nik Anton Monteirok godaletean zeukan edabe urdinean tinkatu nituen begiak taldekide ohien aurpegi hitsak ez ikustearren,

afera garbien eslogana izan zitekeela hura pentsatu nuen, diskurtso politikoa baino, kalkulatzaile zorrotz haren ahoan: desperta do teu sono, jantzi galtza elastiko hauek, jantzi arrauneko hau, irten karrikara, ekin kirolari, osasuna, demokrazia, galegotasuna O Noso Sportekin. Eta O Santiñok arrazoia eman zion.

– O Burro hil eta hogeita zazpi urte gehiago pasatu ditugu bera hor agoantatzen, Ferrol erdian, hogeita zazpi urte. Galegook, kakazaharra gara. Gazteriak emigratu egiten duela, nola ez du ba emigratuko hemendik!

Malenkoniazko mozkorraldi batean abiatzeko asmoa baldin bazuten ni banindoala gaztigatu nien.

– Exercito Guerrilleirok saio bat egin zian, baina dinamita guti ipini ziotean.

– Eskatu zieten euskaldunei, eta haiek eman ez. Egia duk, Patxi.

– Utz ezak Patxi bakean, euskaldunek ez ditek dinamita debalde erabiltzen sinboloak akabatzen.

Bizkarrean tinkatu zidan eskua Monteirok, sekretu bat aitortu behar zidan.

– Badakik zergatik kendu duten galegoek Francoren estatuarik handiena Ferroleko plaza nagusitik? Destorbu zelako trafikoan.

– Eta sobera astuna zelakoz azpian eginen duten parkinerako.

Ni limurtzeko gisaz ari zirela iduritzen zitzaidan ahoa irekitzen zuten aldi bakoitz, tanteo batean. Zernahi erran, ez nuen solas hura jasaten ahal, galegoek galego artean erratekoak zirela pentsatzen nuen, inpudikoa zela horrelakoak botatzea hantxe, hantxe ni entzule.

– Galegoek bazenekiten edaten, zer gertatu zaizue?

Denok jiratu genuen burua musika akuatikoa estaltzen zuen zalaparta zetorren aldera.

– Lasai, Patxi, hi geldi hemen!

Zalapartara Anton Monteiroren urrats luzea, eta haren ondotik Racing de Ferroleko ez onenak baizik lokatzetakoak, Carballeira, Pedriño, Fontela, Pazos, O Santiño bera lasai egon nendila aholkaturik. Balleta eten ahala errainu suntsigarriak bihurtzen ari ziren dantzarien multzoan hondoratu zitzaizkidan lagunak, O Burro urkatuaren aitzinean zorioneko bizkarrekoak eman zizkidaten haiek.

– Zer ari zarete ospatzen hemen, e? Zer ari zarete ospatzen?

Militar bat, alkoholak uherturiko galegoan, ezker abertzalekoei komunistei demokrata traidoreei zinegotziei BNGko alkateari Galiziako Xuntari Espainiako konstituzioari buru egiten, izerdi lapetan, zamarra zabal, gerriko pistola erakutsiz.

– Ospatzen ari zarete, ezta? Ba... bukatu da! Ez dago festarik! Etxera! Denak etxera!

Eta besoa luzatuta ukitzen ahal nuen gaueko irakurle klubeko Mata-Hari haietarik baten ahotsa, sakon, leun, begiak doi bat jasoz esku artean zeukan liburutik.

– Isil hadi eta hoa Euskal Herrira!

Kinkik ez, horma kozkorrak egiteko makinaren burrundarak areagotzen zuen isildadea, aireportuko kristalaren gibeleko mundua.

– Zer? Zer? Euskal Herria?

Eta fakultateko delegatuak, A Coruñako Unibertsitateko ikasle gorrietan izarrenak, begiak liburutik jaso gabetarik egin zion buru bigarrenez.

– Hoa euskaldunen artean ausartarena jotzera!

Euskaldunek ideia on bat eman genion, gure mailako ideia makur bat.

– Euskaldunak? Baldin hemen euskaldunik bada, goiti dezala eskua!

Begia kliskatu zidan Mata-Harik lasai nendin, konpreni nezan, onar nezan.

– Ikusten? Euskaldunak... koldar galantak!

Zer arraio, zer carallo egin behar ote nuen pentsarazi zidan niri txatxu hark, alegia, zer espero zuten nigandik, zer adierazi nahi zuen Mata-Hariren keinuak. Banuen zer hauta, jaiki eta zafraldi bat eman kasernako arratoi hari, festatzar hartaz futitu, lagunek utzitako godalet guztiak husten laketu, lo hartu, neska beso artean estutu guztiak probokatzeko, horixe baneuzkala hautuak.

– Ea, hi, euskalduna al haiz hi?

Eta ezetz erantzun zion, dohakabeak ez zekien gezurrik erraten.

– Eta hi, euskalduna al haiz hi?

Multzoz multzo, mozkorraldiaren unerik pindartsuenaz gozatzen, zehazki inor galdezkatzen ez zuela, masa anonimoa ikaratzen zuela Anton Monteiroren ustea egiaztatuz, ez zarete fidagarriak, nolako jendea galegoak... Orduan ulertu nuen pantomima hura, hondarrean niregana helduko zen Eta hi, euskalduna al haiz hi? botako zuen harro eskua pistolaren larru beltzeko zorroaren gainean eta nik, heroiak, Bai, ni euskalduna nauk aitortuko nion lasai nire aulkitik, errepi-

katzeko berriz, ez neukala eltzaurrik halakorik berriz errateko eta heroiak Ni euskalduna nauk, Euskal Herritik etorri nauk hi ikustera argituko zion, edo Hi akabatzera, bai, hobe Hi akabatzera, eta euskaldun bihoztuna, guztizko euskalduna ikusitakoan dardaraka hasiko zen txatxu alokatu hura Euskaldun bat! Euskaldun bat! oihuka eta ihes eginen zuen heriosuhar Galizia postcarralloko biztanleek oro burua niregana txalotzen nindutela. Herri omenaldiaren gaindia.

– Hi haiz euskalduna! Ezagutzen haut! Hi haiz!

Ez, ni ez nintzen euskalduna, sekula baino galiziano jatorragoa sentitu nintzen nire taldekide ohienak entzunez, limurketa saio okaztagarri hartan galegoenganako destainaren lekuko, izorratu egin behar nizkion planak Anton Monteirori, Eu son galego erranen nion, Eu son un galego do carallo, eta gaitzeko zanpako bat irabazia zuela abisatuko nion, bat eta bera aski, jaikiko nintzen, besoa jaso, ukabila itsutzeraino hertsi, baina pindartasunaren unerik argienak heldu ninduen ustekabean, alegia, horretarako nindutela prestatu oharteman nuen halakoak entzunaraziz, nire fiertasuna akuilatu zutela galegoak menostuz, barnean neukan galegoa atera nezan ari ziren, inon galego jatorrik baldin bazen galego euskalduna izanen zelako froga

neroni, horixe umotu zitzaidan, ez neukala aterabiderik, Anton Monteirok edukiko zuela beti arrazoia.

– Errak orain Gora Euskadi! Errak Gora Euskadi Askatuta!

Mamu haiek denak guregana zetozen, odolaren urrinera, isil, alai, zirkulu erdi bat osatuz. Ez zuten huts egin nahi gertaldi fantastiko hura, bazekiten noski mozkorrak zer eginen zuen, gidoiak eskatzen zuelako gintuzten inguratu, neroni nintzen nola jokatu ez zekien bakarra, inprobisatu egin behar nuen, penalty bat zen, eta denek nahi zuten ikusi bertarik bertara nire izerdia nire dardara nire harroa nire ergela, zutik eta elkarren buruz buru baikeunden, zer eginen ote nuen ukabil jaso harekin, ni entrenatua nengoen gerrila urbano bortitzenetan.

– Orain zure aldi.

Ezezkoa egin zuen Mata-Harik, gidoia buruz zekien hark. Hurbildu nuen aulkia eta irakurtzen ari zen liburuaren azala ikusi ahal izan nuen, Con polvora e magnolias.

– Gure gaztetan, Follas novas genuen klasikoa.

– Follas novas beti izanen da klasikoa. Errezita iezadazu poema bat.

Pailazo hura guregana zetorrela euskaldun bila, nik ez nuela deus erranen, boikota eginen niola euskal harrotasunari, bere aldia zela, eta entrenatzaileak zelaira atera aitzin usatzen zigun mitinaren ondotik oihukatzen nuena xuxurlatu nion Audi A4aren eztitasunean. Gaiztankarak zituen begiak, tanta berdeekin.

– Hara! Euskaraz ari dira! Hemen ditugu euskaldunak! Hemen ditugu!

Irria bizirik zeukala zutitu zen neska puska hura Espainian geundela oroitarazten zigun nabioko alferezaren aitzinean, Espainian geundela eta alde egiteko handik, han ez geneukala zer ospatzerik.

– Polvora, magnolias, follas novas.

Eskuan zeukan pistolarekin zer egin ez zekiela geratu zen nabioko alferez edo korbetako kapitain hura, mozkor arraila irudi zuen.

– Viva Galicia Ceibe, carallo!

Eta biba zedila Galizia askatua aho batez erantzun zioten Mata-Hariri teknotegiko iduri haiek denek, txorimalo panparrotu hark sabaira zuzendu zuen pistola, bandera da loitara, eta pistola atera bezain, tarrapatan aitzinatu ziren ikusleen multzo likin hartarik zikinenak zakilenak zipotzenak zomorroenak ziren bizar atxikorreko bat bi hiru lau bortz sei gerrilari, harrapa-

tu zuten zital zikin zakil zipotz, egin zioten giltza zatar bat, kendu zioten pistola eta herrestan eraman zuten berriz dantzari bihurtutakoen laidoen azpian Kaka alu bat egiten diet nik euskaldunei, Patxi Arizkun a cona que che botou!... izan zitezkeenak oihukatzen zituela oinazezko madarikazionetan. Fartsa hura izan zen nire omenaldiaren akabantza, horixe ulertu nuen nik bederen Mata-Harik eman zizkidan musuetan.

– Taxi bat, mesedez, taxi bat.

Hobe genuela oinez, hatsa berrituz eta poemak errezitatuz.

Desperta do teu sono, fillo de Breogan! Dena lantzurda batek estalia ageri zitzaidan, alegia, ez zitzaidan deus ageri, ez jenderik ez karrikarik ez etxerik ez semaforررik ez autorik, lika neukan begietan, lakarra eztarrian, automatismo susmagarri bat zangoetan, korda eman zidatelakoz egiten nuen oinez. Itxaroteko erregutu nion, Monteirok kasurik ez. Desperta do teu sono, fillo de Breogan! egin zidan laugarrenez gurutzatzen genuen orori egun onak emanez eskua tinkatuz, irriz. Hotelera itzuli nahi nuen diskoboloaren biniloa Andres do Barrorena edo Voces Ceibesena zen ja-

kiteko, inportantea zela aitortu nion ahalkegarri, baina baietz erran eta bizkarretik heldu ninduen. Hiru bat urratsera zihoan emakumezkoa ate bat zabaltzen ikusi nuen, barrurantz egin zuen, eta taberna zela asmaturik, iratzartzen ari nintzen, haren gibeletik ekin nion. Plaka batean Private ipinia zeukan atea bulkatuz suntsitu zitzaidan, izaten ahal zen sukaldaria. Bakarrik geratu nintzen tabernariaren aitzinean, bidean bakarrik etorri nintzela erranen nukeen orduan, ez ninduela Monteiro jaunak iratzarri, ez ninduela mailu hark jaikiarazi, ez ninduela gaitajole hark ur hotzeko dutxapera eraman.

– Alkoholik gabeko tonika bat, mesedez.

Irratia zegoen eraikin plastikoan sartzerakoan, hura dena plastikoa zen, zinezkoa gauean jaso zuten zazpi mila tonako simaurra zen, kazetaria Emilio Ferreira zela errepikatu zidan Monteirok, eta jarraitzaile mordoa zeukala Galegos & Cia programak. Eskua tinkatuz kaferik nahi nuen galdegin zidan, ez zuen plazer handiz edo aunitz urtez edo antzekorik konplimentatu, alegia, bizkorgarri bat komeni zitzaidala ari zen adierazten, halako itxura nirea. Makinako kafea zen, plastikozko godaletean plastikozko ziritxoarekin nahastekoa eta, uste ezera, zoragarria zegoen plastiko likidoa.

Beldurtzeko zantzua izan nuen hura: barkabera, kazetari batekin solastatzera?

– Goizeko zortziak dira, hamasei gradu ditugu dagoeneko Ferrolen eta euri zaparradak iragarri dizkigu arratsalderako MeteoGaliciak. Egun on guztioi, hortzak garbitzen ari zaretenoi, ohatzean nagituta zaudetenoi, autoan lanera zoaztenoi eta zakurra paseatzera irten zareten lanezean zaituztegunoi, egun on guztioi. Eta egun on zuri ere, Patxi Arizkun. Galizian eta bereziki Ferrolen anonimatoan edo ahantzi samar bizi diren pertsonaiak ekartzen ditugu gure programaren estudiora, eta oraingo honetan ez da alegoria edo metafora edo lizentzia bat, bertan baitaukagu, ez telefonoaren bertzaldean, buruz buru daukagu jesarrita Patxi Arizkun. Nor zara zu, Patxi Arizkun?

– Kirolaria izandako bat, sarezaina zehazki, aunitz zor diona Ferroli.

– Eta Ferrolek, ez dizu deus zor?

– Ez, ez. Ni nago zorretan, eta ez naiz koipekerian ari.

Racing de Ferrol aipatu zuen, 1966-67ko tenporada, bigarren mailara igatea, Patxi Arizkunen gelldituei esker noski, zoramen hura, harrotasun hura, jende xehearen kanore politikoa Francoren sorlekuan bertan,

Espainian jasotako monumentuetan handiena zeukan herrian bertan.

– Zer sentitu zenuen bart?

Ez hadi barkabera izan, horixe adierazi zidan Anton Monteirok kristalaren bertze aldetik, abertzalea baitzen, kazetariaren gibeletik ukabila jasoz. Eta kazetariak, ukabil hura ikusi balu bezala, lagundu egin nahi izan zidan.

– Han ikusi zintugun.

– Han, non?

Keinu egin zuen kristal aldera, hantxe zeuden teknikaria, neska gazte bat, eta Anton Monteiro, maila emateko gauza izanen nintzelako pozik, bazekielako apal ustekoa nintzela, ez nintzela endredatuko kazetariaren itzulinguruetan. Horixe transmititzen ari zitzaidala erranen nuke. Neskak botoi bati sakatu zion eta arratseko oihuak ziztuak txaloak kantuak heldu zitzaizkidan belarrietan neuzkan kaskoetarik minutu erdi batez. Bertze keinu bat egin zuen Emilio Ferreirak eskua beheitituz eta asotsa urtzen hasi zen nire Baina zer arraio ari zarete...! hura berriz entzun aitzin.

– Gertakizun horretan egon zinen, ezta?

– Gertakizuna izan zen, bai, garabi hura zazpi mila tona jasotzen. Lan tekniko gaitza. Ez dira horrelako

lanak egun oroz ikusten. Mugitu egin behar dira zazpi mila tona horiek!

– Barka ezazu, ez ote dira zazpi mila kilo?

– Barka ezazu zuk, zazpi mila tona dira bart kendu zirenak Plaza de Españatik.

Ikusten haut, Anton Monteiro, eri pototsa ukabiletik tenteturik hortxe, kontrolean, dagokian lekuan, hiregana behatu gabe ikusten haut. Babalore honi saldu hion Patxi Arizkun izan nauk une honetan, bart izan ez nintzena. Nola nardatzen naizen ni neroni.

– Zazpi mila... Egia da, Patxi Arizkun! Historiaren zama...! Arrazoia du Patxi Arizkunek, ez duzue uste, Galegos & Ciako jarraitzaileok? Zazpi mila tona, bai! Barkatuko ahal diguzu zuzen zegoena zuzendu nahi izana!

Valentziak fitxatu ninduela, lehen mailan egin nuela karrera Racing utzitakoan, Francoren azken fusilamenduen hurrengo jardunaldian doluzko xingola beltza besoan azaldu nintzela zelaian, Madrilen gainera, historikoa izan zela hura, Bota zizkizuten obus guztiak gelditu zenituen, atezain batek Bernabeun bisitari gisa inoiz egin duen aktuaziorik onentzat hartzen dela, atxilotu egin nindutela matx heroiko hura bukatutakoan...

– Zuzen aritu naiz?

– Beroarena kendu behar.

– Aizu, golak ez omen dira atezainaren errua bakarrik izaten...

– Sarezainak bi hanka eta bi beso eta bi esku dauzka jokatzeko, eta esparru erreserbatu bat, gainerakoek bi hanka bakarrik eta zelai osoa. Erantzukizun handiagoa dauka sarezainak beti. Hartutako golarekin sarezainak hartzen duen mina, inork ez daki. Ez da eztitzen ahal taldearen errua izan dela erranez.

– Hori ikasi duzu futbolean, gizarte injustu batean bizi garela, baina ezin genezakeela beti injustiziaren aitzakia egin?

– Antzeko zerbait. Gertatzen zaiguna da, aunitzez, gure errua ere badela.

– Zer gertatzen zaigu?

Egun eta erdi iraun zuen segundo parean, Anton Monteiro inguratzen zuten hodei motek oro bete zidaten garuna.

– Bat izaten ahal da itsua, bat izaten ahal da gorra, ohikoa ez dena da itsua eta gorra izatea batera.

Racingaren garai nekagarri eder haiek ibili genituen luzaz, O Inferniñon jokatzen genueneko giroa. Tarteka Gurekin daukagu Galegos & Ciako estudioan

Patxi Arizkun errepikatzen zuen programak estudio propioa zeukalakoa eginez edo, Racingeko sarezain mitikoa aipatzen zuen... Fitxaketa berri baten gisa erakusten nauk, miserable zikina.

– Non ikasi zenuen egiten duzun galego ederra, jakin genezake?

– Ferrol deritzan hirian ikasi nuen, bi urte bota nituen soldadu kapitanian.

– Esan al liteke ferroldarra zarela?

– Ohore bat litzateke hori niretzat, ferroldarrek bertakotzat hartzea. Euskal Herrian nik maiz erraten dut galegoa naizela. Gaurgoitik ferroldarra naizela erranen dut.

– Francoren herrikoa?

– Francok atzo artio hankapean zuen herrikoa.

– Zotzi eta erdiak ditugu laster, amaitu behar dugula ari zaigu Carmiña kontroletik. Esker mila, Patxi Arizkun, Racingeko heroia eta futboletik kanpoko pertsonaia, borrokalaria, euskaldun jatorra eta ferroldar petoa. Noiz izanen zaitugu berriz gutartean?

– Ez dakit, menturaz etorriko naiz bertze batean lasaiago. Hobeki ezagutu nahi nuke gaur egungo Ferrol, hainbertze aldatu da...

– Badakizue, lagun maiteok, programa hau berriro emitituko dela hondarreko albisteen ondotik. Gaueko hamaiketan, mintzo zaizuen honek, Emilio Ferreirak, gure Racing maitea bigarren mailara igoarazi zuen atezain mitikoari, Patxi Arizkuni Galegos & Cia programan buruz buru egindako elkarrizketa... mamitsua, bai, elkarrizketa mamitsua entzun ahal izanen duzue.

Lepoa eginen nuke Gianluigi Buffonen Maseratia ez zela hain dotorea, ez zela urdin bizia, horiak edo gorriak izanen ziren haren orgak, dirdira arrunteko mediterraneokeriak, Beha iezadazue erraka doan horietarik, ez kale kantoian leunkiro agertzen zaigularik Zein palazzotan hazi zinen horrelako perla erraten dioguna, alegia, espaloikoak egongelarako amesten duen konfort hori bera lau gurpilen gainean, Audi A4 urdin bizi dotore hura. Lantzurda zuen eskas bakarrik bidaiak perfektua izateko: haizebabeseko garbigailuak ezkereskuin isiltasunik leunenean motorraren xuxurla monotonoa errespetatuz, gurpilen atxikidura zola bustiari...

– Euria iragarri du MeteoGaliciak, non arraio altxapetu duzue?

– Sekretua da.

– Maseratiak gidatzen dituzten tontoxkoei saldu diezue, badakit.

Anton Monteiro lagun mina bihurtu zitzaidan utzi zidan autoari maltzertzio gaitza egin nionez geroztik Betanzosen neukan neska bat bisitatzera goanik. Test bat egiteko errana izanen zion Andreari segur aski, gidatzen ikasi ote nuen jakitearren.

– Gau bat besterik ez duzu pasatu Galizian.

– Baina nolako gaua!

Ni Galiziara noiz itzuliko egon gabe azalduko zen Anton Monteiro Euskal Herrian, horrelaxe erran zidan, zalantzan zegoela hegazkin pribatuan, yatean edo planeadora batean. Autoironiak bazter utzita Eibar hartu zuen berriro ahotan, Eibarretik Arrasatera egin zuen, kooperatiben eredua, enpresari galiziar talde bat eraman nahi zuela sare industriala ezagutzera.

– Goizean galegoa-euskara eta euskara-galegoa hiztegi bat erosi dut.

– Hara! Nik ere erosi behar nuke!

Inozoa izaten badakidala, badakidala inozoa izaten, itsua eta gorra batera. Ireki zuen kontroleko taulak aldean zeukan estalkitxoa, atera zuen agenda berde bat, zabaldu zuen eta Gaizo pelele ni, gaizo pe-

lele ni erran nuen ahapetik Andreak entzuteko gisan, silabak zehatz ebakiz. Emadazu zure helbidea galdatu zidan, jakina, Erosiko dizut hiztegia eta bidaliko dizut, barkatzeko, ez zitzaiola bururatu hiztegi hori behar nukeenik, Bestela erosiko nizun, opari polit bat zela eta Erosiko dizut eta bidaliko dizut. Alferrik izan zen Euskal Herrian bageneuzkala liburudendak argudiatzea, Zuk han erosiak ez lituzke izanen nik idatziko dizkizudan hitzak. Helbide oker bat ematea pentsatu nuen, harrigarria da nola umetzen ahal naizen ez dagoen ihesbidearen bila egoera deserosoetan, alegia, futbolaria ematen dudala.

– Gau ederra, beraz?

– Zuri zer iduritzen zaizu, hobe dela diktadore guztien estatua guztiak kentzea begi bistatik?

Francok ez ziola onik egin Ferroli, are gutiago Galiziari, are gutiago hogeita batgarren mendean sartuta, erran zuen Andreak xalo samar diktadurak behialako kontuak balira bezala, Garaia da gerran eta gerraostean zapaldutakoen memoria berreskuratzeko, uste duzuna baino garrantzi handiagoa dauka iduriak, O Burro armadaren arsenalean altxatuko dute, eta horrenbestez armadari mezua luzatzen diegu, horixe erran zuen, diegu, Badakigu zuen artean dagoela fran-

kisten eta kolpisten muina, hor duzue zuen Caudillo, ez diguzue beldurrik ematen, herri heldua gara eta duintasunez bizi nahi dugu zuen guztien aurka. Anton Monteirok ere horrela hitz eginen zuen menturaz ni ez bertze zenbaiten aitzinean, galegotasuna gakoan uzteko eta soinean hartzeko tresna zatekeen. Baina hain dotore ikusi nuen neska gazte hura bere diskurtsoan, hain garbi hain apal hain duineko, ez nion jakinarazi ez nengoela akort, diktadorearen iduriak ikusgarri egon behar duela beti eder gordin anker zatar odol astun, ez nion horrelakorik jakinarazi, baina maitez erran nion, alabatzat hartu nuen, gurasoaren laztana izan zen, edo asmo horretakoa bederen alegia, Ni ez nago ados hura.

– Zer nahi duzu, diktadorea hementxe edukitzea beti, Galiziaren ahalkegarri?

Ez nezakeen uka garaipena zela O Burro kentzea Galiziako ezker abertzalearentzat, sinbolikoaren mailatik haratago eginen ez zuen garaipena hain zuzen, Anton Monteiroren beraren jasokundea, hitz katolikotan erranik, frankismoan sortutako egitura zapal-paternalistaren jarraipena zen egiazki, eskuin beltzenaren eguneratzea, sasionartze bat, erretiratze taktiko bat eta ez PPren hondamenaren hasmenta nik uste

nuen moduan, zazpi mila tonako okerra ez baldin baneukan behinik behin nire susmamen politikoan. Haizebabesa garbitzeko turrustei eragin nien bigarrenez garbigailuen isila dastatzearren.

– Ikasi eta lan egiten duzu, ezta?

– Bai, ikasketak neuk ordaintzen ditut, horrela hazi nau aitak. Bera errekatik atera zela erraten dit beti. Nik ere nahiago dut horrela.

– Kontrolpean zauzka, berak ematen dizu lana. Ez zaitu independente utziko.

– Hor, hurrengoan, eskuinera.

Fakultatera omen zihoan, kontsulta batzuk egin behar liburutegian, horixe erran zidan Ferrolen bertan. Astia bagenuela eta A Coruñara ganen ginela, etorriko nintzela autobusez aireportura. Har ezazu hurrengo irteera, agintzen ohitua iduri zuen, interesgarria izan zen neskaren erreakzioa ezetzik ematen nekatu gabetarik. Atera nintzen autobidetik, sigi-sagan maniobratu nuen astiz eta parkin idorra gurutzatuz zuhaitzek apaindutakora sartu nuen Gianluigi Buffonen inbidia, C lerroan hain zuzen, 32 zenbakiari eta ez bertze nehori zegokion lekuan utzi nuen. Itzali, arrasta emateko palanka geldiro igan, atera, nire zakutotxoa hartu, bulkada txipi bat ateari ipurdia larruzko sofan jausten den

gozo berdinean hetsi zedin. Teknologiaz haratago, bai. Sakatu nion botoiari, piztu-itzali pare bat egin zuten Audi A4aren argiek despedida gisa eta Andreari eman nion gakoa hark niri eman zidan galankeria berean, palazzoko perla gakoa balitz bezala.

– Plazer bat izan da, Andrea.

– Banekien gustatuko zitzaizula auto hau.

Irriño hartan, bai, Anton Monteiroren antza hauteman nion, alegia, neska hark barnean zeuzkan zimurrak oro azaldu ziren irriño hartan, ez dakit ohartzen zen edo axola zitzaion.

– Sobera luze eduki dugu O Burro Ferrolen, eraman dezatela Madrilera Plaza del Solen erdian paratzeko, ez duzu uste?

Eta parkinaren sarrera ondoan zegoen Renault Megane batetik tutuka ari zitzaizkion lagunetara abiatu zen zalu. Sartu aitzin nire helbidea apuntatua zeukan agenda berdea jaso zuen, hiztegiarena ez zitzaiola ahantziko adieraziz. Egon nintekeen hantxe paseatzen, parkin hartan, edo segapototik Mata-Hariri poema asmatu bat errezitatzen, edo Andrearen laidoaz gogoetan.

«Banekien gustatuko zitzaizula auto hau»...

Egon nintekeen zelatan Carballeira, Pazos, O Santiño, haietarik bat azaldu artio autoa mugitzera. Nahiago nuen deus ez jakin, jakin dena nekielako, ikusiko nuen Bartzelonatik edo Zurichetik heldutako morroi dotore batek autoa hartu eta munduan ziren muga guztiak iraganen zituela Txinan egin hartzez betetako kontainerrak metatuz antolatua zuten atelier mekanikoraino eta bigarren zola askatuko zutela kirurgiarik zehatzenean gaia deskargatzeko polizak mamuxel guztiak lehertzen zituela merkantziaren bila.

«Banekien gustatuko zitzaizula auto hau»...

Arrain garraio, zakurraren biolina! Itsas-biologia ikasten, zakurraren biolina! Galiziako kirol arropa marka, zakurraren biolina! Arrasateko kooperatibak, zakurraren biolina! Anton Monteiro mahastiz eta segurtasun kameraz inguratu pazo batean bizi zen, lepoa. Eta Andrea Monteirok aferen kontularitza zeraman, lepoa baietz.

«Plazer bat izan da, Andrea».

«Banekien gustatuko zitzaizula auto hau»...

Gordin anker zatar odol astun merezi zuen zaflada, eta ez nion eman. Aita on bat izateko egokiera eman zidan Andrea corpiño xeitosok, eta ez nintzen ausartu baliatzen. Olagarroa galdatu nuen maleta bi-

rakarien ondoan zukuak kafeak whiskyak hartzen zituzten mamuen artean jateko, kafetegiko arbelean eskaintzen zituztenetan hirugarren ageri zen huraxe, olagarroa, bai, benetakoa, cacheloekin alegia.

– Eta botila bat ur, alkoholik gabekoa mesedez.

Badator baloia belarra orrazten, nolako azeria Amancio hori, murgil egiten dut besoak etenik, debaldetan izan da, eri puntek urruntzeko erregutu arren badator otzan eta egoskor golaren bila, a cona que lle botou, ez naiz helduko, mila kilometro egin behar nituzke marra zuriaren gainean atzemateko, jaiki naiz hala ere, jaso ditut lurrean galdutako besoak, bai zera jaiki, herrestan saiatu naiz, hainbatetan bezain alferrik, beti bezain sor gogor maitekor sartuko da baloia marra zuria zanpatuz zutoinean zapart dotorea egin ondoren: jo zehatzaren harroa nire hezurrean –sarezainok gorputzaren atalak ditugu zutoinak, langeta, sarea bera–, soinu hori, Audi A4aren ateak ezin errepikatzen ahal duen soinu hori. Kakazaharra Audi A4a. Ea Andrea, errepika zuk orain ka-ka-za-ha-rra?